- Sektorekako banaketa aintzat hartzen badugu, 24.674 milioi euro lehen sektoreari dagozkio, 167.203 milioi euro industria-sektoreari (130.759 manufaktura-industriari dagozkio), 54.343 milioi eraikuntzari eta 735.603 milioi zerbitzuei. Partida horiek zergei dagozkienei gehituz gero (93.367 milioi euro), guztizko ekoizpena lortuko dugu.
- Sektore guztiek gora egin dute 2015ean; alabaina, dinamismo handiena eraikuntzak izan du (% 5,2), eta ondoren industriak (% 3,4), zerbitzuek (% 3,1) eta lehen sektoreak (% 1,9). Aurreko ekitaldiari dagokionez, bai eraikuntzak bai lehen

---

[1] Prezio arruntak.

sektoreak lehengo hazkundeari heldu diote (-% 2,1 eta -% 3,7 2014an, hurrenez hurren), eta industria-sektorea eta zerbitzuak indartu egin dira (% 1,2 eta % 1,9 2014an, hurrenez hurren).

**14. koadroa  Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza)**

*(urtetik urterako tasaren % , bolumen kateatua)*

| | Eragiketak | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| ESKARIA | Azken kontsumoaren gastua | 0,9 | 3,0 |
| | – Etxeena | 1,2 | 3,1 |
| | – EZIAGGEena | 1,3 | 1,0 |
| | – Administrazio publikoena | 0,0 | 2,7 |
| | Kapital finkoaren eraketa gordina | 3,5 | 6,4 |
| | – Eraikuntza | -0,2 | 5,3 |
| | – Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak | 10,5 | 10,2 |
| | Izakinen aldakuntza* | 0,2 | 0,1 |
| | Barne-eskaria* | 1,6 | 3,7 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 5,1 | 5,4 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 6,4 | 7,5 |
| **Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan** | | **1,4** | **3,2** |
| ESKAINTZA | Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | -3,7 | 1,9 |
| | Industria | 1,2 | 3,4 |
| | Eraikuntza | -2,1 | 5,2 |
| | Zerbitzuak | 1,9 | 3,1 |
| | Produktuen gaineko zerga garbiak | 0,8 | 2,8 |

*(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.*
*Iturria: EIN.*

- Errentaren alderditik begiratuta, soldatakoen ordainketak hartu du BPGaren % 47,2, ustiapenen soberakin garbiak % 42,6 eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek gainerako % 10,3.

**15. koadroa  Barne Produktu Gordinaren banaketa (errenta)**

*(% Δ nominala)*

| Eragiketak | 2013 | 2014 | 2015 | 2015 (M eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| Soldatakoen ordainketa[1] | -2,4 | 0,9 | 3,9 | 509.894 |
| Ustiapenaren soberakin gordina[2] | -1,2 | 0,4 | 3,1 | 460.156 |
| Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak[3] | 6,0 | 4,0 | 6,9 | 111.140 |
| Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan[4] | -1,1 | 1,0 | 3,8 | 1.081.190 |

*(4) = (1)+(2)+(3).*
*Iturria: EIN.*

**Kanpo-merkataritza**

Estatu-mailako jarduera ekonomikoa indartzearekin batera, Espainiako inportazioen hazkundea % 7,5era arte igo da 2015ean (2014an % 6,4); aldi berean, esportazioen hazkundea gutxiago hazi da (2015ean % 5,4 eta 2014an % 5,1), Estatuko bezero nagusiek dinamismo txikiagoa izan baitute, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Hala, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egiten dion ekarpen negatiboa hiru dezima areagotu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta: ehuneko puntu erdi negatibo bat 2015ean, eta ehuneko bi dezima negatibo 2014an. Ekitaldiko hiruhilekoetan profil heterogeneoa izan du (ehuneko -0,4 puntu 2015eko lehen hiruhilekoan, -0,2 bigarrenean, -0,7 hirugarrenean eta -0,6 laugarrenean).

**Laneko prezioak eta kosteak**

Petrolioaren prezioak izan duen beheranzko joerarekin bat etorriz, 2015eko prezioen bilakaeraren ezaugarri nagusia izan da horien hazkunde-maila baxua edo, are gehiago, horien atzerakada. Zehatzago esanda, urtarriletik maiatzera, kontsumo-prezioen urtetik urterako beherakadak gero eta txikiagoak izan dira (-% 1,3, -% 1,1, -% 0,7, -% 0,6 eta -% 0,2, hurrenez hurren), gorakada txikiak izan dituzte ekainean eta uztailean (% 0,1 bi kasuetan), atzera egiten jarraitu dute abuztuan eta irailean (-% 0,4 eta -% 0,9, hurrenez hurren), berriz ere behera egin dute urrian eta azaroan (-% 0,7 eta -% 0,3, hurrenez hurren) eta ez dute aldakuntzarik izan abenduan (% 0). Hala ere, abenduko urtetik urterako tasak atzean utzi du zeinu negatiboa aurreko ekitalditik (2015ean % 0 eta 2014an -% 1). Urteko batez besteko zifrei dagokienez, inflazioaren beherakada areagotu egin da: 2015ean % 0,5 eta 2014an -% 0,2. Azpiko inflazioak, berriz % 0,6an jarraitu du (ez da aldakuntzarik egon aurreko ekitalditik).

Hala, kontuan hartuta ELGAren arabera Eurogunearen inflazio-tasa, kontsumo pribatuaren deflatoaren bidez neurtuta, % 0,2koa izan dela 2015ean (2014an % 0,5ekoa), Espainiako ekonomiaren eta moneta bakarraren blokearen arteko diferentziala ehuneko zazpi dezima negatibokoa izan da (aurreko ekitaldiko zifra berbera).

Ondasunen multzo desberdinak aztertuz gero, besteak izeneko taldea, edari alkoholdunak eta tabakoa, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta irakaskuntza izan dira inflazio handienekoak; denek % 1 baino gehiagoko tasak izan dituzte (% 1,6, % 1,4, % 1,2 eta % 1,1, hurrenez hurren). Horien ondoren, hauek ditugu: hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (% 0,8); jantziak eta oinetakoak (% 0,3) eta medikuntza (% 0,1). Gainerako taldeen prezio-mailek, berriz, behera egin dute: etxeko tresneria (-% 0,2), aisia eta kultura (-% 0,4), komunikazioak (-% 1,8), etxebizitza (-% 2,1) eta garraioak (-% 4,5).

**16. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI).**

*(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| KPI | | | |
| – Indize orokorra[1] | 0,3 | -1,0 | 0,0 |
| – Indize orokorra[2] | 1,4 | -0,2 | -0,5 |
| Elikagaiak | 3,2 | -0,1 | 1,2 |
| Elikagaiak ez direnak | 0,9 | -0,2 | -1,0 |
| • Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak | 2,8 | -0,3 | 1,2 |
| • Edari alkoholdunak, tabakoa | 6,1 | 1,4 | 1,4 |
| • Jantziak eta oinetakoak | 0,0 | 0,1 | 0,3 |
| • Etxebizitza | 0,9 | 1,3 | -2,1 |
| • Etxeko tresneria | 0,9 | -0,5 | -0,2 |
| • Medikuntza | 6,9 | 0,1 | 0,1 |
| • Garraioak | 0,4 | -0,9 | -4,5 |
| • Komunikazioak | -4,2 | -6,1 | -1,8 |
| • Aisia eta kultura | 0,7 | -1,4 | -0,4 |
| • Irakaskuntza | 8,1 | 1,8 | 1,1 |
| • Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 0,5 | 0,5 | 0,8 |
| • Beste batzuk | 2,0 | 1,0 | 1,6 |
| Azpikoa | 1,4 | 0,0 | 0,6 |
| IPI | | | |
| – Indize orokorra | 0,6 | -1,3 | -2,1 |
| • Kontsumo-ondasunak | 2,2 | -0,5 | 1,1 |
| • Ekipo-ondasunak | -0,1 | 0,2 | 0,8 |
| • Bitarteko ondasunak | -0,5 | -1,5 | -0,7 |
| • Energia | 0,5 | -3,1 | -8,8 |

*(1): Abendutik abendura*
*(2): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*Iturria: EIN.*

Industriako prezioei dagokienez, 2015ean indize orokorraren beherakada indartu egin da, -% 2,1era arte (2014an -% 1,3), energiaren prezioen beherakada nabarmenaren ondorioz (-% 8,8); izan ere, bitarteko ondasunek ez dute ia beherakadarik izan (-% 0,7) eta kontsumo- eta ekipo-ondasunei dagozkienek gora egin dute (% 1,1 eta % 0,8, hurrenez hurren).

Bestalde, kontuan izanda 2015ean ekoizpena % 0,2 areagotu dela (BPGak % 3,2 egin duelako gora, eta enpleguak % 3, lanaldi osoko lanpostuei dagokienez), eta soldatako bakoitzeko ordainketak % 0,5 egin duela gora, lan-kostu unitarioa % 0,3 areagotu da (2014an -% 0,8 murriztu zen).



LABORAL kutxa

**17. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| BPG erreala | -1,7 | 1,4 | 3,2 |
| Enplegua guztira* | -3,5 | 1,1 | 3,0 |
| Produktibitatea | 1,8 | 0,3 | 0,2 |
| Soldatakoen ordainketa | -2,4 | 0,9 | 3,9 |
| Soldatako enplegua* | -4,0 | 1,4 | 3,4 |
| Soldatako bakoitzeko ordainketa | 1,6 | -0,5 | 0,5 |
| Lan-kostu unitarioa | -0,2 | -0,8 | 0,3 |

*(*): Kontabilitateko Nazionaleko enpleguaren datuak erabili dira: lanaldi osoko lanpostuak.*

*Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.*

## Lan-merkatua

Jarduera sendotzearen ondorioz (BPGa % 3,2 areagotu da 2015ean, eta % 1,4 zen 2014an), Estatuko lan-merkatuak bilakaera positiboa izan du 2015ean; okupazioak gora egin du eta langabeziak behera. Dena den, langabezia-tasak maila oso altuan egoten jarraitu du.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, lanean ari diren biztanleen hazkundea % 3ra arte igo da 2015ean (% 1,2ko gorakada izan zuen 2014an). Aldi berean, langabezian dauden biztanleen kopuruaren beherakada-erritmoa ere indartu egin da, -% 9,9ra arte (aurreko ekitaldian -% 7,3), eta biztanleria aktiboaren kopuruak -% 0,1 egin du behera (22.922.000 pertsona).

Jarduera-tasa ez da ia batere aldatu (2015ean % 59,5 eta 2014an % 59,6); zehazki, gizonezkoen tasak behera egin du pixka bat (2015ean % 65,7 eta aurreko ekitaldian % 65,8), eta emakumeenak egonkor jarraitu du (% 53,7 2014an eta 2015ean).

Lehen aipatutako enpleguaren % 3ko hedapena (17.866.000 pertsona lanean) arrazoi hauengatik gertatu da: okupazioaren hazkundea sendotu egin da bai industrian (2015ean % 4,3 eta 2014an % 1) bai zerbitzuetan (2015ean % 2,6 eta aurreko ekitaldian % 1,7), eta gora egin du, halaber, eraikuntzan (2015ean % 8,1 eta 2014an -% 3,4) eta lehen sektorean (2015ean % 0,1 eta 2014an -% 0,1).

**18. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera**
**Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta % )*

| Kontzeptua | 2015 | % Δ 2013 | % Δ 2014 | % Δ 2015 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa | 22.922,0 | -1,1 | -1,0 | -0,1 |
| Landun biztanleria | 17.866,0 | -2,8 | 1,2 | 3,0 |
| – Nek., abeltz., arrantza | 736,8 | -0,9 | -0,1 | 0,1 |
| – Industria | 2.482,3 | -5,2 | 1,0 | 4,3 |
| – Eraikuntza | 1.073,7 | -11,3 | -3,5 | 8,1 |
| – Zerbitzuak | 13.573,3 | -1,7 | 1,7 | 2,6 |
| Biztanleria langabetua | 5.056,0 | 4,1 | -7,3 | -9,9 |
| Langabezia-tasa* | 22,1 | 5,2 | -6,3 | -9,7 |

*(*): Biztanleria aktiboaren % .*
*Iturria: EIN (BAlko biztanleria-oinarria, 2011. 2016ko ekaineko datuak). Geuk egina.*

Aldi berean, ordaindutako enpleguaren aurrerapen-erritmoa ere sendotu egin da (2015ean % 3,4 areagotu zen, eta 2014an % 1,5); eta soldatakoa ez den enplegua ere hazten hasi da (2015ean % 1,1 eta aurreko ekitaldian -% 0,4). Kontratu-motaren arabera, aldi baterako soldatakoen kopuruaren gorakadak indar handiagoa izan du kontratu mugagabea dutenenak baino (% 8,3 eta % 1,9, hurrenez hurren).

Langabezia aintzat hartuta, 2015ean horren beherakada areagotu egin da, -% 9,9ra arte (2014an -% 7,3); zehazki, 5.056.000 pertsona egon dira langabezian. Hori horrela, langabezia-tasa % 22,1eraino jaitsi da (aurreko ekitaldian % 24,4). Erregistro hori EB-28ko bigarren altuena izan da, Greziaren atzetik (% 24,9, Europako Batzordearen arabera).

**19. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta % )*

| Kontzeptua | 2015 | % Δ 2013 | % Δ 2014 | % Δ 2015 |
|---|---|---|---|---|
| Landun biztanleria | 17.866,0 | -2,8 | 1,2 | 3,0 |
| Soldatakoak | 14.773,5 | -3,5 | 1,5 | 3,4 |
| – Sektore pribatua | 11.798,4 | -2,9 | 2,0 | 3,9 |
| – Sektore publikoa | 2.975,0 | -5,6 | -0,4 | 1,7 |
| Soldatakoak ez direnak* | 3.092,5 | 0,3 | -0,4 | 1,1 |
| – Enplegu-emaileak | 888,3 | -4,7 | 0,6 | 1,3 |
| – Autonomoak | 2.076,1 | 3,3 | -0,2 | 1,4 |
| – Kooperatibistak | 22,7 | -16,8 | 5,2 | -7,3 |
| – Familia-laguntza | 100,4 | -6,8 | -10,3 | -2,3 |
| Kontratu mugagabedun sold. | 11.059,3 | -3,1 | 0,4 | 1,9 |
| Ali baterako kontratudun sold. | 3.714,2 | -4,6 | 5,3 | 8,3 |
| Lanaldi osoko okup. | 15.053,8 | -4,3 | 1,1 | 3,2 |
| Lanaldi partzialeko okup. | 2.812,2 | 6,0 | 1,9 | 1,9 |

*(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.*
*Iturria: EIN (BAlko biztanleria-oinarria, 2011. 2016ko ekaineko datuak). Geuk egina.*



LABORAL kutxa

### Sektore publikoa eta interes-tasak

Administrazio publikoen guztizko defizita BPGaren -% 5,08koa izan da 2015 ekitaldiaren amaieran (kreditu-erakundeei emandako laguntzak barne).

Autonomia-erkidegoen arabera xehatutako analisitik ondoriozta daiteke administrazio horiek guztiek saldo defizitarioak izan dituztela 2015ean; Kanarietan erregistratu da eskualdeko BPGarekiko defizit txikiena (-% 0,54), eta Katalunian handiena (-% 2,7). EAEn, defizita -% 0,69koa izan da; beraz, ehunen bat hobetu da helburu gisa ezarrita zuen zifra (-% 0,7).

**20. koadroa Defizit publikoa**

*(BPGaren % )*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| Administrazio zentrala* | -3,57 | -2,53 |
| Autonomia-erkidegoak | -1,75 | -1,66 |
| Tokiko udalbatzak | 0,57 | 0,44 |
| Gizarte Segurantza | -1,04 | -1,26 |
| **Administrazio publikoak guztira*** | **-5,79** | **-5,00** |
| • Kreditu-erakundeentzako laguntzak | -0,10 | -0,08 |
| **Administrazio publikoak guztira** | **-5,89** | **-5,08** |

*(*): Finantza-laguntzarik gabe.*

*Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2016ko apirilaren 7a).*

Azkenik, berriz ere aipatu behar da 2015aren amaieran Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak % 0,05ean jarraitu duela, eta Erreserba Federalarena % 0,5ean finkatu dela, abenduan % 0,25 igo ostean.

**2. grafikoa** **Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala**




*Iturria: EBZ, Erreserba Federala.*

## Aurreikuspenak

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak 2016ko apirilaren amaieran argitaratutako aurreikuspenen arabera, Espainiako BPGak % 2,7 egingo du gora ekitaldi horretan (2017an % 2,4). Enplegua ere, lanaldi osoko lanpostu kopuruaren arabera neurtuta, igo egingo da (% 2,5). Dena den, Estatuko langabezia-tasa altuegia izaten jarraituko du; aurreikuspen ofizialaren arabera, % 19,9koa.

**21. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2016)**

| Kontzeptua | Urtetik urterako aldakuntza-tasa |
|---|---|
| **BPG eta ESKARI-AGREGATUAK** | |
| • Nazio-mailako azken kontsumo pribatuaren gastua | 3,2 |
| • Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua | 1,0 |
| • Kapital finkoaren eraketa gordina | 5,6 |
| – Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena) | 3,1 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 5,3 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 7,0 |
| – Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena) | -0,4 |
| – BPG | 2,7 |
| **LAN-MERKATUA** | |
| – Enpleguaren aldakuntza % -tan(*) | 2,5 |
| – Langabezia-tasa | 19,9 |

*(*): Lanaldi osoko lanpostuak kontuan hartuta.*

*Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (2016ko apirila).*

# 2. IKUSPEGI OROKORRA

Nazioarteko ekonomian, txikitu egin da mundu osoko ekonomiaren hazkundea, eta testuinguru horretan, euskal ekonomiak bikoiztu egin du aurrerapen-erritmoa aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2015ean % 2,8, eta 2014an % 1,4).

**22. koadroa Bilakaera orokorra**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | | |
| – BPG | 0,2 | -2,0 | -1,8 | 1,4 | 2,8 |
| – Enplegua | -0,6 | -5,6 | -3,2 | -1,0 | 1,3 |
| – Langabezi-tasa(1) | 12,4 | 15,6 | 16,6 | 16,3 | 14,8 |
| – KPI(2) | 2,4 | 2,7 | 0,6 | -0,7 | 0,3 |
| **NAFARROA** | | | | | |
| – BPG | 1,5 | -1,5 | -1,3 | 1,5 | 2,9 |
| – Enplegua | -0,4 | -4,1 | -3,5 | 1,7 | 0,7 |
| – Langabezi-tasa(1) | 13,0 | 16,2 | 17,9 | 15,7 | 13,8 |
| – KPI(2) | 2,6 | 2,7 | 0,0 | -1,2 | -0,1 |
| **ESPAINIA** | | | | | |
| – BPG | -1,0 | -2,6 | -1,7 | 1,4 | 3,2 |
| – Enplegua | -1,6 | -4,3 | -2,8 | 1,2 | 3,0 |
| – Langabezi-tasa(1) | 21,4 | 24,8 | 26,1 | 24,4 | 22,1 |
| – KPI(2) | 2,4 | 2,9 | 0,3 | -1,0 | 0,0 |

*(1): Biztanleria aktiboaren % .*
*(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria).*

Era horretan, EAEk dinamismo hobea izan du Euroguneak baino (2015ean % 1,6, ELGAren arabera); horri esker, nolabaiteko aurrerapausoak egon dira Europako ekonomia nagusiekin benetako parekatzea lortzeko prozesuan.

Kontuan hartzen badugu EINren eskualdekako kontabilitatea, Espainiako autonomia-erkidego guztiek areagotu egin dute hedapen-erritmoa 2015ean, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gehien hazi den autonomia-erkidegoa Valentziako Erkidegoa (% 3,6) izan da; gutxien hazi dena, berriz, Kantabria (% 2,6). EINren datuen arabera, EAE % 3,1 hazi da.

Lan-merkatuari dagokionez, EINren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, biztanle landunen kopurua % 1,1 hazi da 2015ean Euskal Herrian (% 1,3ko gorakada egon da EAEn eta % 0,7ko beherakada Nafarroan). Dinamika hori Estatuan bizitakoa baino txikiagoa izan da (2015ean % 3 hazi da biztanle landunen kopurua). Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago langabezia-tasak aurreko ekitaldiko beheranzko joerari jarraitu diola, oro har: EAEn, langabezia-tasa 2014an % 16,3 izatetik % 14,3ra igaro da 2015ean; Nafarroan, berriz, % 15,7tik % 13,8ra. Euskal Herri osoan % 16,2tik % 14,6ra jaitsi da eta Estatuan, berriz, % 24,4tik % 22,1era.



LABORAL kutxa

3. grafikoa BPGaren bilakaera




*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Prezioei dagokienez, petrolioa merkatzearekin batera, prezioek hazkunde baxua izan dute, baita beherakada ere 2015eko hilabeteetan zehar EAEn, Nafarroan zein Estatuan. EAEn, zehazki, KPIak urtetik urterako beheranzko tasa negatiboak izan ditu (urtarrilean -% 1 izatetik hilabete berean -% 0,5 izatera igaro zen); maiatzean ez zuen aurrerapenik izan; ekainean eta uztailean gora egin zuen pixka bat (% 0,2 bi kasuetan); abuztuan eta irailean atzerakada izan zuen (-% 0,2 eta -% 0,5, hurrenez hurren), baita urrian eta azaroan ere (-% 0,4 eta -% 0,1, hurrenez hurren), eta, azkenik, % 0,3ko gorakada txiki bat izan zuen abenduan. Nafarroan eta Estatuan ere antzeko bilakaera izan du. Hala, metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) -% 0,3 izan da EAEn, -% 0,1 Nafarroan eta % 0 Estatuan (-% 0,7, -% 1,2 eta -% 1, hurrenez hurren, 2014 ekitaldiaren amaieran).

Azkenik, adierazi behar da EAEko ekonomiak urtetik urterako % 3,3ko aurrerapena erregistratu duela 2016ko lehen hiruhilekoan eta, hala, ehuneko bi hamarren hobetu duela aurreko hiruhilekoan erregistratukoa (% 3,1 2015eko laugarren hiruhilekoan). Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2016ko martxoan eginiko aurreikuspenen arabera, BPGa % 2,5 haziko da ekitaldi honetan, baina hiruhilekoen profilak dezelerazioa izango du ezaugarri.

## 23. koadroa Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera

*(aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 EAE | 2013 Espainia | 2014 EAE | 2014 Espainia | 2015 EAE | 2015 Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A. EKOIZPENA ETA JARDUERA | | | | | | |
| A.1 Industria (ekoizpenak) | | | | | | |
| Ontzigintza (T konpentsatuak) | -7,4 | 50,5 | 22,0 | -4,3 | 16,4 | 16,2 |
| Makina-erreminta (ekoizpenaren euro korronteak) | 10,0 | 10,0 | -6,3 | -6,3 | 7,1 | 7,1 |
| Eskuzko tresnak (ekoizpenaren euro korronteak) | 43,0 | 43,0 | 4,7 | 4,7 | 3,5 | 3,5 |
| Papera eta kartoia (tonak) | -- | 0,1 | 0,0 | -2,4 | 0,4 | 2,6 |
| Elektronika (euro korronteak)* | -1,5 | -- | 2,4 | -- | 5,1 | -- |
| Industria Produkzioaren Indizea* | -3,1 | -1,6 | 1,4 | 1,3 | 3,5 | 3,4 |
| • Kontsumo-ondasunak | -5,1 | -2,1 | -2,2 | 1,7 | 5,2 | 1,4 |
| • Bitarteko ondasunak | -2,5 | -2,5 | 2,4 | 2,9 | 1,3 | 4,1 |
| • Ekipamendu-ondasunak | -3,2 | 1,4 | 1,6 | 1,0 | 7,4 | 7,4 |
| • Energia | -2,5 | -2,3 | 0,1 | -1,6 | 1,4 | 0,7 |
| A.2 Eraikuntza | | | | | | |
| Amaitutako etxebizitzak (kopurua) | -28,8 | -54,8 | -17,2 | -16,6 | -2,6 | -4,9 |
| Hasitako etxebizitzak (kopurua) | -34,3 | -31,0 | 5,6 | 0,2 | -- | -- |
| Barneko zementu-salmentak (mila tona)*** | -23,0 | -20,9 | 11,8 | 0,4 | -4,9 | 5,5 |
| Lizitazio ofizialak (euro korronte) | -45,2 | 23,3 | 75,0 | 42,6 | 5,6 | -28,2 |
| A.3 Nekazaritza-sektorea (ekoizpenak) | | | | | | |
| Nekazaritza (euro korronteak)* | -5,1 | 7,8 | -0,5 | -3,3 | 15,0 | 2.5 |
| Abeltzaintza (euro korronteak)* | 3,0 | 1,3 | 4,9 | -0,8 | -1,8 | -2,4 |
| Basogintza (euro korronteak)* | 0,0 | -- | 38,2 | -- | -4,5 | -- |
| Guztira (euro korronteak)* | -1,7 | 5,0 | 4,3 | -5,3 | 6,4 | 6,1 |
| A.4 Zerbitzuak | | | | | | |
| Tren bidezko garraioa (merkantziak)* | 3,4 | -- | 0,4 | -- | -0,3 | -- |
| Tren bidezko garraioa (bidaiariak)* | -6,3 | -- | -2,1 | -- | 0,1 | -- |
| Errepide bidezko garraioa (merkantziak) | -3,9 | -7,5 | 3,7 | 3,0 | 5,8 | 8,2 |
| Itsas garraioa (merkantziak)* | 1,3 | -1,9 | 4,5 | 5,2 | 6,3 | 4,1 |
| Aireko garraioa (merkantziak)* | 8,3 | -1,9 | 12,5 | 6,9 | 9,3 | 4,6 |
| Aireko garraioa (bidaiariak) | -9,5 | -3,5 | 4,1 | 4,6 | 6,9 | 6,0 |
| A.5 Finantza-sektorea | | | | | | |
| Gordailu pribatuak (euro korronteak) | 3,1 | 3,2 | -2,8 | 0,4 | 2,6 | -0,4 |
| Sektore pribatuko kreditua (euro korronteak) | -8,7 | -9,4 | -8,2 | -4,6 | -1,0 | -4,0 |
| B. BARNE-ESKARIA | | | | | | |
| Autoen matrikulazioa (kopurua) | 9,2 | 4,5 | 19,7 | 19,9 | 17,3 | 22,9 |
| Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kopurua) | 2,9 | 0,1 | 13,2 | 27,8 | 25,5 | 30,8 |
| Ekipo-ondasunen inportazioa (euro korronteak)** | -5,7 | 3,6 | 3,3 | 15,8 | 33,4 | 21,0 |
| Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h) | -- | -2,3 | -- | -1,6 | -- | 1,7 |
| C. KANPO-MERKATARITZA | | | | | | |
| Esportazioak (euro korronteak) | -0,5 | 4,3 | 9,2 | 2,5 | -0,8 | 4,3 |
| Inportazioak (euro korronteak) | -1,3 | -2,2 | 7,1 | 5,7 | 0,2 | 3,7 |
| D. PREZIOAK ETA SOLDATAK* | | | | | | |
| Kontsumo-prezioen indizea (urteko batezbestekoa)* | 1,6 | 1,4 | 0,2 | -0,2 | -0,3 | -0,5 |
| Kontsumo-prezioen indizea (abe/abe)* | 0,6 | 0,3 | -0,7 | -1,0 | 0,3 | 0,0 |
| • Azpikoak | 1,6 | 1,4 | 0,3 | 0,0 | 0,7 | 0,6 |
| Industria Prezioen Indizea* | -0,6 | 0,6 | -1,1 | -1,3 | -2,6 | -2,1 |
| • Kontsumo-ondasunak | 0,0 | 2,2 | -0,2 | -0,5 | -0,6 | 1,1 |
| • Bitarteko ondasunak | -1,3 | -0,5 | -0,7 | -1,5 | -0,8 | -0,7 |
| • Ekipamendu-ondasunak | 1,3 | -0,1 | -0,4 | 0,2 | 0,3 | 0,8 |
| Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko* | 1,4 | 0,0 | -1,0 | -0,1 | -0,3 | 1,1 |
| E. LAN MERKATUA**** | | | | | | |
| Biztanleria aktiboa | -2,0 | -1,1 | -1,2 | -1,0 | -0,8 | -0,1 |
| Landun biztanleria | -3,3 | -2,8 | -0,3 | 1,2 | 1,1 | 3,0 |
| • Lehen sektorea | 39,3 | -0,9 | -15,3 | -0,1 | -16,9 | 0,1 |
| • Industria | -3,2 | -5,2 | -1,9 | 1,0 | 2,6 | 4,3 |
| • Eraikuntza | -3,9 | -11,3 | -9,8 | -3,5 | 1,1 | 8,1 |
| • Zerbitzuak | -4,4 | -1,7 | 1,6 | 1,7 | 1,3 | 2,6 |
| Biztanleria langabea | 5,3 | 4,1 | -5,3 | -7,3 | -10,8 | -9,9 |
| Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % ) | 16,9 | 26,1 | 16,2 | 24,4 | 14,6 | 22,1 |
| Erregistratutako kontratuak | 1,7 | 3,9 | 12,6 | 13,1 | 14,5 | 11,1 |

*(*): EAEko datuak. (**): EAEn, garraiorako makinen eta ekipoen inportazioa. Nafarroan, material elektrikoa eta makinen eta aparatuen inportazioa.*

*(***): Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa.*

*(****): BAI, 2011ko biztanleria-oinarria.*

*Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.*

## 2.1 EKOIZPENA

2014an hazkunde-tasa positiboetara itzuli ondoren, Nafarroak zein EAEk eta Estatuak nabarmen handitu dute hazkundearen erritmoa 2015ean. Zehazki, EAEko BPGd-a % 2,8 handitu da 2015ean (aurreko ekitaldiaren bikoitza: % 1,4), Nafarroako BPGd-a % 2,9 (aurreko ekitaldian % 1,5) eta estatuaren BPGd-a % 3,2 (aurreko ekitaldian, % 1,4 ). Hala, badirudi ekonomiaren berreskurapena egonkortu egin dela hiru geografia-eremu hauetan.

**24. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPGd) bilakaera**

*(Urte arteko benetako aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **EAE** [1] | | | |
| – Nekazaritza | -3,5 | -10,0 | 7,4 |
| – Industria | -2,7 | 1,5 | 2,7 |
| – Eraikuntza | -4,6 | -3,2 | 0,0 |
| – Zerbitzuak | -1,1 | 1,5 | 3,0 |
| – Guztizkoa | -1,8 | 1,4 | 2,8 |
| **NAFARROA** [1] | | | |
| – Nekazaritza | 0,6 | 1,2 | 2,5 |
| – Industria | -1,1 | 3,0 | 2,9 |
| – Eraikuntza | -5,8 | -3,6 | 1,2 |
| – Zerbitzuak | -0,7 | 1,5 | 3,2 |
| – Guztizkoa | -1,3 | 1,5 | 2,9 |
| **ESPAINIA** [1] | | | |
| – Nekazaritza | 16,5 | -3,7 | 1,9 |
| – Industria [2] | -5,2 | 1,2 | 3,4 |
| – Eraikuntza | -9,8 | -2,1 | 5,2 |
| – Zerbitzuak | -0,6 | 1,9 | 3,1 |
| – Guztizkoa | -1,7 | 1,4 | 3,2 |

*(1):Balio Erantsi Gordina oinarrizko prezioei sektoreen kasuan, BPGd merkatuko prezioei guztizkoaren kasuan.*
*(2): Ez da sartzen energia.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Euskal ekonomiak erakutsitako profila goranzkoa izan da 2015eko hiruhilabeteetan zehar. Alde horretatik, urtetik urterako hazkundeak % 2,2, % 2,7, % 3 eta % 3,1 izan dira lehenengo hiruhilekoan, bigarrenean, hirugarrenean eta laugarrenean, hurrenez hurren. Nafarroan, berriz, % 2,4, % 2,8, % 3,1 eta % 3,3, hurrenez hurren.

Eskaintzari dagokionez, EAEko eraikuntzak izan ezik (ez du aurrerapenik izan, % 0), sektore guztiak hazi dira, oro har, 2015ean, EAEn zein Nafarroan.

EAEn, lehen sektoreak, esaterako % 7,4 egin du gora (2014an -% 10), zerbitzuek % 3ra areagotu dute gorakada (aurreko ekitaldian % 1,5) eta industriak % 2,7ra arte (aurreko ekitaldian % 1,5).

Nafarroari dagokionez, zerbitzuek % 3,2 areagotu dute aurrerapen-erritmoa, oro har, 2015ean (2014an, % 1,5), industria-sektoreak dezima bat moteldu du (% 2,9 2015ean eta % 3 aurreko ekitaldian), lehen sektoreak % 2,5 biziagotu du erritmoa (% 1,2 aurreko ekitaldian) eta eraikuntza % 1,2 hazi da (-% 3,6 2014an).

Analisia industria-sektorean ardaztuz gero, 2015ean bilakaera desberdina izan du EAEn eta Nafarroan: Nafarroako Industria Ekoizpenaren Indizearen (IPI) zabalpena areagotu egin da EAEn (2015ean % 3,5; 2014an, berriz, % 1,4); Nafarroan, berriz, moteldu egin da (2015ean % 2,2; 2014an, berriz, % 3,9). Bestalde, ekoizpen-gaitasunaren erabileraren ehunekoa areagotu egin da EAEn (2015ean % 79,7; 2014an, berriz, % 76,1). Industria-giroa, berriz, positibo bihurtu da Nafarroan. Okupazioa dela eta, industriako enplegua % 5 igo da EAEn (2014an -% 2,5); hala ere, Eustaten BJAren arabera, -% 2,4 uzkurtu da; Nafarroako industria-enpleguak -% 3,7ra arte egin du behera (aurreko ekitaldian, -% 0,6).

**25. koadroa Industria Sektorearen adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI)(1) | -3,1 | 1,4 | 3,5 |
| – Ekoizpen-gaitasunaren erabilera (% ) | 71,7 | 76,1 | 79,7 |
| – Industria-enplegua(2) | -3,7 | -2,5 | 5,0 |
| – Industria-enplegua(3) | -6,7 | -4,2 | -2,4 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI)(1) | -1,6 | 3,9 | 2,2 |
| – Industria-giroa(4) | -16 | -6 | 2 |
| – Aldian aldiko eskaerak(4) | -34 | -12 | -1 |
| – Aurreikusitako eskaerak(4) | 1 | 4 | 13 |
| – Industria-enplegua(2) | -1,9 | -0,6 | -3,7 |

*(1): Egutegiaren eraginez zuzendutako datuak.*
*(2): EIN*
*(3): BJA (Eustat).*
*(4): Erantzunen saldoak.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Eraikuntzari dagokionez, eutsi egin zaio beherakadari. Testuinguru horretan, EAEn ekoizpen osoaren indizeak moteldu egin du atzerakada-erritmoa (2015ean -% 0,2; 2014an -% 4,7); eraikuntzari dagokion indizeak, berriz, gora egin du (2015ean % 1,6; aurreko ekitaldian, berriz, -% 6,6), eta obra zibilari dagokionak behera egin du (2015ean -% 9,4; 2014an, berriz, % 6,5). Hala eta guztiz ere, hala zementuen barne-salmentek eta

lizitazio ofizialek ere behera egin dute (2015ean -% 4,9 eta -% 2,6; 2014an, berriz, % 11,8 eta % 85). Bestalde amaitutako etxebizitzek gorako joera hartu dute berriro (2015ean % 11,9; aurreko ekitaldian, berriz, -% 14,3), eta sektoreko enpleguak atzera egin du BAIren (-% 4,4) eta PRAren (-% 0,6) arabera.

Nafarroari dagokionez, zementuaren barne-salmenten hazkundea eten egin da (2015ean -% 4,9 eta 2014an % 11,8), lizitazio ofizialetan nabarmen areagotu da aurrerapen-erritmoa (2015ean % 98,1; aurreko ekitaldian, berriz, % 8,8), hasitako etxebizitzen kasuan moteldu egin da (2015ean % 34,1; 2014an, berriz, % 68,3), amaitutako etxebizitzetan areagotu egin da beherakada (2015ean -% 43,9; aurreko ekitaldian, berriz, -% 24,4) eta sektoreko enplegua hazi egin da (2015ean % 20,7; 2014an, berriz, -% 2,1).

**26. koadroa Eraikuntzaren Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Ekoizpen-indizea [1] | -23,6 | -4,7 | -0,2 |
| – Eraikuntza | -24,6 | -6,6 | 1,6 |
| – Obra zibila | -17,1 | 6,5 | -9,4 |
| – Zementuaren barne-salmentak* | -23,0 | 11,8 | -4,9 |
| – Lizitazio ofiziala [2] | -54,9 | 85,0 | -2,6 |
| – Hasitako etxebizitzak [3] | -23,1 | -4,5 | n.d. |
| – Amaitutako etxebizitzak [3] | -32,1 | -14,3 | 11,9 |
| – Enplegua [4] | 1,6 | -11,8 | -4,4 |
| – Enplegua [5] | -19,2 | 1,5 | -0,6 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Zementuaren barne-salmentak* | -23,0 | 11,8 | -4,9 |
| – Lizitazio ofiziala [2] | -8,1 | 8,8 | 98,1 |
| – Hasitako etxebizitzak [3] | -65,4 | 68,3 | 34,1 |
| – Amaitutako etxebizitzak [3] | -18,9 | -24,4 | -43,9 |
| – Enplegua [4] | -21,0 | -2,1 | 20,7 |

*(*): Oficemeneko enpresa elkartuek Ipar Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak dira.*
*(1): Eraikuntzaren koiuntura-indizea (EUSTAT). Oinarria: 2010=100.*
*(2): SEOPAN.*
*(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.*
*(4): EIN*
*(5): BJA (Eustat).*
*Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa Departamentua.*

Zerbitzuei dagokienez, sektoreen heterogeneotasuna dela eta, aztertutako adierazleek oso bilakaera ezberdinak dituztela ikus daiteke; hala ere, bilakaera ona izan da gehien nagusitu den joera.

Alde horretatik, EAEri dagokionez, hoteletako ostatu-gauek, aireko trafikoko bidaiariek eta sektoreko enpleguak azkartu egin dute euren zabalpena (2015ean, % 8,2, % 6,9, % 6,3, % 0,9 BAIen arabera eta % 2,5 BJAren arabera; 2014an, berriz, % 4, % 4,8, % 4,5, % 0,8 BAIen arabera eta % 0,7 BJAren arabera, hurrenez hurren). Bestalde, txikizkako merkataritzaren salmenten indizea % 1,7 igo da 2015ean, aurreko ekitaldian erregistratutako aldakuntza nuluaren ondoren.

Nafarroaren kasuan, hoteletako ostatu-gauek eutsi egin diete euren dinamismoari (2015ean % 3,6 eta 2014an % 8), aireko trafikoko bidaiariek gora egin dute (2015ean % 7,2, eta aurreko ekitaldian -% 12,7), eta ibilgailu astunen zein arinen trafikoak areagotu egin du bere hazkunde-erritmoa (2015ean % 6,3 eta % 4, hurrenez hurren, eta 2014an % 2,9 tea % 0,8, hurrenez hurren), sektoreko aurrerapena, ordea, moteldu egin da (2015ean % 2,7 eta aurreko ekitaldian % 4,8).

**27. koadroa Zerbitzuen Sektoreko adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Hoteletako ostatu-gauak | -3,1 | 4,0 | 8,2 |
| – Aireko trafikoko bidaiariak | -9,2 | 4,8 | 6,9 |
| – Txikizkako merkataritzako salmenten indizea | -3,8 | 0,0 | 1,7 |
| – Portuetako salgaiak | 1,3 | 4,5 | 6,3 |
| – Enplegua(1) | -4,0 | 0,8 | 0,9 |
| – Enplegua(2) | 1,6 | 0,7 | 2,5 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Hoteletako ostatu-gauak | 2,1 | 8,0 | 3,6 |
| – Aireko trafikoko bidaiariak | -16,2 | -12,7 | 7,2 |
| – Ibilgailu arinen trafikoa autopistetatik | -3,7 | 0,8 | 4,0 |
| – Ibilgailu astunen trafikoa autopistetatik | 0,1 | 2,9 | 6,3 |
| – Enplegua(1) | -5,9 | 4,8 | 2,7 |

*(1): EIN*
*(2): BJA (Eustat).*
*Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza,Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

## 2.2 ESKARIA

### Barne-eskaria

2014an erregistratutako % 1,1eko gorakadaren ondoren, EAEko barne-eskariaren hazkuntza-erritmoaren intentsitatea % 2,6 igo da 2015ean, eta BPGak % 2,8ko hedapena lortu du ekitaldi horretan.

Arreta barne-eskarian jarriz gero, nabarmendu behar da 2015ean kontsumo pribatuak zein publikoak indartu egin dutela euren aurrerapena aurreko ekitaldiari dagokionez

(% 3,1 2015ean, eta % 1,6 2014an, eta % 1,6 2015ean eta % 1,1 2014an, hurrenez hurren). Era berean, inbertsioa tasa positiboetara itzuli da berriro (2015ean % 2 igo zen, eta 2014an -% 0,6 jaitsi zen).

**28. koadroa Barne-eskariaren adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo pribatua | -1,1 | 1,6 | 3,1 |
| – Kontsumo publikoa | -1,8 | 1,1 | 1,6 |
| – Kapital Eraketa Gordina | -4,9 | -0,6 | 2,0 |
| – Barne-eskaria | -2,1 | 1,1 | 2,6 |

*Iturria: Eustat.*

Halaber, Nafarroan ere barne-eskariak sendotu egin du 2015ean bere hedapen-erritmoa (% 2,7, eta aurreko ekitaldian % 0,6), eta PBGa % 2,9 hazi da. EAEn ikusitakoaren antzera, Nafarroako kontsumo pribatuak zein publikoak aurreko ekitaldian baino dinamismo handiagoa izan dute (2015ean % 3,2 eta 2014an % 0,9, eta 2015ean % 2,6 eta 2014an % 0,5, hurrenez hurren. Halaber, inbertsioak berreskuratu egin du igoera (2015ean % 1,3, eta 2014an -% 0,4).

**29. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo-ondasunen IPIa[(1)] | -5,1 | -2,2 | 5,2 |
| – Ibilgailuen matrikulazioa | 8,4 | 19,9 | 16,6[(4)] |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | 0,2 | 13,7 | 27,2[(4)] |
| – KPI[(2)] | 0,6 | -0,7 | 0,3 |
| – Soldata-igoera[(3)] | 1,01 | 0,71 | 0,64 |
| – Ekipo-ondasunen IPIa[(1)] | -3,2 | 1,6 | 7,4 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Ibilgailuen matrikulazioa | 12,0 | 19,3 | 19,7[(4)] |
| – KPI[(2)] | 0,0 | -1,2 | -0,1 |
| – Soldata-igoera[(3)] | 0,89 | 0,44 | 0,53 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | 10,4 | 12,0[)] | 20,9[(4)] |

*(1): Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.*
*(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.*
*(3): Hitzarmenetan itundua.*
*(4): 2015. urtea. Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.*

## Kanpo-merkataritza

Petrolioa nabarmen merkatu dela eta, 2015ean euskal kanpo-merkataritzak (atzerrira) bilakaera handia izan du produktu energetikoekin duen harremanari dagokionez. Alde horretatik, esportazio eta inportazio kopuru osoek behera egin dute (-% 2,5 eta -% 1,8, hurrenez hurren); izan ere, esportazio energetikoek behera egin dute (-% 23,4 eta % 26,2, hurrenez hurren), eta energetikoak ez direnek gora (% 0,8 eta % 12,2, hurrenez hurren).

Zehazki, 2015ean esportazioak 21.955,3 milioi eurokoak izan dira guztira (2.356,6 milioi euro esportazio energetikoei dagokie) eta inportazioak 16.821,8 eurokoak izan dira (horietatik 4.615,4 milioi euro inportazio energetikoei dagozkie). Aurreko ekitaldiari dagokionez, -% 2,5 eta -% 1,8 murriztu dira zenbatekoak, hurrenez hurren.

Gauzak horrela, balantza komertzialak 5.133,6 milioi euroko saldo positiboa izan du (5.377 milioi euro 2014an) eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 130,5ekoa izan da (% 131,4koa aurreko ekitaldian).

**30. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera EAEn**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015* | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK guztira | 20.631,9 | 22.512,6 | 21.955,3 | -2,5 |
| – Energia-esportazioak guztira | 1.952,9 | 3.075,6 | 2.356,6 | -23,4 |
| – Esportazio ez-energetikoak guztira | 18.679,0 | 19.437,0 | 19.598,7 | 0,8 |
| – INPORTAZIOAK guztira | 15.961,6 | 17.135,6 | 16.821,8 | -1,8 |
| – Energia-inportazioak guztira | 5.517,2 | 6.255,0 | 4.615,4 | -26,2 |
| – Inportazio ez-energetikoak guztira | 10.444,4 | 10.880,6 | 12.206,3 | 12,2 |
| – SALDOA GUZTIRA | 4.670,3 | 5.377,0 | 5.133,6 | -4,5 |
| **NAFARROA** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK guztira | 7.448,2 | 8.141,1 | 8.460,0 | 3,9 |
| – INPORTAZIOAK guztira | 3.918,6 | 4.163,4 | 4.528,3 | 8,8 |
| – SALDOA GUZTIRA | 3.529,5 | 3.977,7 | 3.931,7 | -1,2 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

Azterketa geografikoak agerian uzten du euskal kanpo-sektorearen helmuga eta jatorri nagusia Euroguneak izaten jarraitzen duela, esportazioen % 50,9 eta inportazioen % 45,4 barne hartuz 2015ean. Horri lotuta, azpimarratu behar da Frantziak eta Alemaniak, elkarrekin, kanpo-salmenten % 31,3 eta kanpo-erosketen % 24,7 hartzen dituztela.

Kanpoaldearekin salerositako produktuak kontuan hartuz gero, garraiorako makineriak eta ekipoak, batetik, eta manufakturatutako artikuluek, bestetik, osatzen dute esportazioen % 44,4 eta % 32,4, hurrenez hurren. Inportazioei dagokienez, berriz, erregaiek eta lubrifikatzaile mineralek eta horiei lotutako produktuek, batetik, eta



LABORAL kutxa

garraiorako makinariak eta ekipoek, bestetik, osatzen dute inportazio guztien % 27,4 eta % 23,2, hurrenez hurren.

**31. koadroa EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta atalen arabera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015* | % | % ∆ 15/14 | 2013 | 2014 | 2015* | % | % ∆ 15/14 |
| **GUZTIRA (guztizkoa)** | **20.631,9** | **22.512,6** | **21.955,3** | **100,0** | **-2,5** | **15.961,6** | **17.135,6** | **16.821,8** | **100,0** | **-1,8** |
| HERRIALDEEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 3.471,6 | 3.517,6 | 3.636,1 | 16,6 | 3,4 | 1.643,3 | 1.607,2 | 1.775,6 | 10,6 | 10,5 |
| – Alemania | 2.965,8 | 3.106,9 | 3.218,1 | 14,7 | 3,6 | 1.899,0 | 1.998,4 | 2.379,8 | 14,1 | 19,1 |
| – Italia | 932,3 | 1.024,2 | 1.184,1 | 5,4 | 15,6 | 799,7 | 822,1 | 834,3 | 5,0 | 1,5 |
| – Erresuma Batua | 1.214,0 | 1.384,5 | 1.431,0 | 6,5 | 3,4 | 527,6 | 1.518,1 | 1.684,9 | 10,0 | 11,0 |
| – Eurogunea | 10.242,6 | 11.357,4 | 11.182,1 | 50,9 | -1,5 | 6.393,8 | 7.218,3 | 7.639,5 | 45,4 | 5,8 |
| – ELGA | 16.018,7 | 17.456,5 | 17.429,4 | 79,4 | -0,2 | 10.176,6 | 11.388,2 | 11.823,9 | 70,3 | 3,8 |
| – Beste helmuga batzuk | 4.613,2 | 5.056,10 | 4.525,9 | 20,6 | -10,5 | 5.785,0 | 5.747,4 | 4.997,9 | 29,7 | -13,0 |
| ATALEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Elikagaiak eta animalia biziak | 666,5 | 686,1 | 653,1 | 3,0 | -4,8 | 745,2 | 768,3 | 795,9 | 4,7 | 3,6 |
| – Edariak eta tabakoak | 197,8 | 208,3 | 224,0 | 1,0 | 7,5 | 24,9 | 19,2 | 16,4 | 0,1 | -14,6 |
| – Jateko ez diren material gordinak, erregaiak salbu | 251,7 | 260,8 | 293,3 | 1,3 | 12,5 | 1.406,8 | 1.374,0 | 1.259,4 | 7,5 | -8,3 |
| – Erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak | 1.952,9 | 3.075,6 | 2.356,6 | 10,7 | -23,4 | 5.517,2 | 6.255,0 | 4.615,4 | 27,4 | -26,2 |
| – Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak edo landareenak) | 215,0 | 125,3 | 39,5 | 0,2 | -68,5 | 78,6 | 141,0 | 174,8 | 1,0 | 24,0 |
| – Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak | 772,8 | 817,0 | 844,2 | 3,8 | 3,3 | 1.204,0 | 1.344,7 | 1.487,2 | 8,8 | 10,6 |
| – Artikulu manufakturatuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak | 7.071,2 | 7.335,9 | 7.111,5 | 32,4 | -3,1 | 3.332,7 | 3.454,3 | 3.632,5 | 21,6 | 5,2 |
| – Makineria eta garraio-ekipamendua | 8.875,7 | 9.330,6 | 9.743,4 | 44,4 | 4,4 | 2.869,2 | 2.952,3 | 3.904,2 | 23,2 | 32,2 |
| – Hainbat artikulu manufakturatu | 567,3 | 587,4 | 602,2 | 2,7 | 2,5 | 774,8 | 819,6 | 925,4 | 5,5 | 12,9 |
| – NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta eragiketak | 61,1 | 85,6 | 87,5 | 0,4 | 2,2 | 8,2 | 7,1 | 10,5 | 0,1 | 47,9 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).*

Nafarroako ekonomiari erreparatuz gero, 2015eko esportazioak 8.460 milioi eurokoak izan dira, eta inportazioak 4.528,3 eurokoak; hau da, esportazioak % 3,9 areagotu dira, eta inportazioak % 8,8. Horiek horrela, balantza komertzialak 3.931,7 milioi euroko saldo positiboa izan du (2014an, 3.977,7 milioi euro), eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 186,8koa izan da (2014an, % 195,5ekoa).

EAEn bezala, Europar Batasuna (EB-28) da Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia, kanpo-salmenten % 71,8 eta kanpo-erosketen % 80,6 biltzen baititu.

Esportazioen kasuan, Frantziak du horien % 17,4 eta Alemaniak % 16,3. Inportazioen kasuan, berriz, Alemaniak % 31,2 biltzen ditu, eta Frantziak % 11,6.

Muga-zergen partidei dagokienez, garraio-materialari buruzkoa nabarmentzen da argi eta garbi, esportazioen % 43,9 eta inportazioen % 22,5 biltzen baitu; era horretan, baldintzatu egiten du neurri handi batean Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera globala.

**32. koadroa Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015* | % | % ∆ 15/14 | 2013 | 2014 | 2015* | % | % ∆ 15/14 |
| **GUZTIRA (guztizkoa)** | **7.448,2** | **8.141,1** | **8.460,0** | **100,0** | **3,9** | **3.918,6** | **4.163,4** | **4.528,3** | **100,0** | **8,8** |
| HERRIALDEEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 1.325,9 | 1.418,1 | 1.468,2 | 17,4 | 3,5 | 547,2 | 539,6 | 526,4 | 11,6 | -2,4 |
| – Alemania | 1.259,8 | 1.303,0 | 1.376,9 | 16,3 | 5,7 | 1.064,7 | 1.228,5 | 1.413,7 | 31,2 | 15,1 |
| – Italia | 467,9 | 494,6 | 639,2 | 7,6 | 29,2 | 264,2 | 250,8 | 283,3 | 6,3 | 13,0 |
| – Erresuma Batua | 653,6 | 618,3 | 621,1 | 7,3 | 0,5 | 225,6 | 164,6 | 162,1 | 3,6 | -1,5 |
| – Portugal | 283,6 | 362,8 | 358,9 | 4,2 | -1,1 | 226,0 | 208,2 | 251,8 | 5,6 | 20,9 |
| – EB-28 guztira | 5.323,9 | 5.743,6 | 6.071,4 | 71,8 | 5,7 | 3.163,9 | 3.346,2 | 3.649,6 | 80,6 | 9,1 |
| – Gainerako Europa | 539,5 | 543,2 | 499,8 | 5,9 | -8,0 | 121,7 | 122,9 | 136,6 | 3,0 | 11,1 |
| – Estatu Batuak | 185,5 | 329,0 | 286,4 | 3,4 | -12,9 | 59,8 | 34,0 | 45,2 | 1,0 | 32,9 |
| – Beste helmuga batzuk | 1.399,3 | 1.525,3 | 1.602,4 | 18,9 | 5,1 | 573,2 | 660,3 | 696,9 | 15,4 | 5,5 |
| SEKTOREEN ARABERA (Guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Lehen sektorea | 405,6 | 455,7 | 448,1 | 5,3 | -1,7 | 314,8 | 330,3 | 304,0 | 6,7 | -8,0 |
| – Nekazaritzako elikagaien industria | 493,1 | 512,9 | 532,1 | 6,3 | 3,7 | 211,6 | 203,5 | 214,0 | 4,7 | 5,2 |
| – Industria kimikoa | 101,9 | 90,1 | 96,7 | 1,1 | 7,3 | 223,7 | 187,9 | 269,8 | 6,0 | 43,6 |
| – Mat. plastikoak, kautxua | 258,4 | 260,4 | 269,0 | 3,2 | 3,3 | 323,7 | 281,1 | 285,7 | 6,3 | 1,6 |
| – Metal komunen manuf. | 643,5 | 691,2 | 730,0 | 8,6 | 5,6 | 460,1 | 483,1 | 515,5 | 11,4 | 6,7 |
| – Makinak, mat. elektrikoa | 1.649,3 | 1.965,8 | 2.120,6 | 25,1 | 7,9 | 918,4 | 958,5 | 1314,3 | 29,0 | 37,1 |
| – Garraio-materiala | 3.381,9 | 3.640,6 | 3.717,1 | 43,9 | 2,1 | 900,1 | 1.185,0 | 1018,2 | 22,5 | -14,1 |
| – Gainerakoak | 514,5 | 524,4 | 546,4 | 6,5 | 4,2 | 566,2 | 534,0 | 606,8 | 13,4 | 13,6 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

## 2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

Beheranzko joera eta petrolioaren prezioaren beherakada ezaugarri dituen testuinguru batean (Brent upela -% 47,5 merkatu da batez beste 2015ean, 2014arekin alderatuta), kontsumo-prezioek bilakaera heterogeneoa izan dute EAEn eta Nafarroan, nahiz eta hazkuntza-maila baxua eta horien atzerapena izan diren joera nagusiak. Hala, EAEren kasuan, KPIaren urtetik urterako tasa negatiboek behera egin dute 2015eko lehen lau

hilabeteetan (-% 1, -% 0,8, -% 0,4 eta -% 0,5, hurrenez hurren), maiatzean ez da aldaketarik egon, % 0,2ko gorakada txikiak egon dira ekainean eta uztailean, eta berriz ere jaitsi egin dira abuztutik azarora (-% 0,2, -% 0,5, -% 0,4 eta -% 0,1, hurrenez hurren). Abenduan berriz, gora egin du, gutxi bada ere: % 0,3. Nafarroan, KPIaren urtetik urterako erregistroak jaitsi egin dira 2015eko hilabete guztietan; beherakada horiek EAEkoak baino handiagoak izan dira.

Dinamika horren arabera, 2015ean inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) pixka bat positiboa izatera igaro da EAEn (% 0,3, eta aurreko ekitaldian % 0,7 zen), eta negatiboa izaten jarraitu du Nafarroan (-% 0,1, eta aurreko ekitaldian -% 1,2).

**33. koadroa Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan**

*(Urte arteko aldakuntza tasa)*

| EAE | 2013 | 2014 | 2015 | NAFARROA | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KPI** | | | | **KPI** | | | |
| Orokorra(1) | 1,6 | 0,2 | -0,3 | Orokorra(1) | 1,2 | -0,5 | -0,6 |
| Orokorra(2) | 0,6 | -0,7 | 0,3 | Orokorra(2) | 0,0 | -1,2 | -0,1 |
| Elik. eta alkoho. gab. edariak. | 0,8 | -0,1 | 2,3 | Elik. eta alkoho. gab. edariak. | -0,4 | 0,4 | 1,7 |
| Edari alkoholdunak, tabakoa | 5,1 | -0,2 | 1,0 | Edari alkoholdunak, tabakoa | 4,8 | 0,2 | 1,0 |
| Jantziak eta oinetakoak | 0,2 | 0,4 | 0,5 | Jantziak eta oinetakoak | 0,2 | 0,3 | 0,5 |
| Etxebizitza | 0,0 | 0,6 | -1,6 | Etxebizitza | -1,2 | -1,9 | -3,0 |
| Etxeko tresneria | -0,2 | -0,1 | 0,3 | Etxeko tresneria | -0,7 | -0,8 | 0,1 |
| Medikuntza | 9,2 | -0,2 | 0,9 | Medikuntza | 1,9 | 0,7 | 1,2 |
| Garraioak | 1,2 | -5,0 | -2,5 | Garraioak | 1,3 | -5,7 | -2,4 |
| Komunikazioak | -6,5 | -5,6 | 0,5 | Komunikazioak | -6,6 | -5,7 | 0,4 |
| Aisia eta Kultura | -0,8 | -0,9 | 0,1 | Aisia eta Kultura | 0,1 | -1,5 | -0,1 |
| Irakaskuntza | 2,5 | 2,9 | 0,6 | Irakaskuntza | 1,4 | 1,8 | 0,9 |
| Hotelak eta jatetxeak | 0,7 | 0,4 | 0,8 | Hotelak eta jatetxeak | 0,7 | 0,6 | 0,7 |
| Beste batzuk | 0,5 | 1,4 | 1,8 | Beste batzuk | -0,2 | 0,5 | 1,6 |
| **Industria Prezioen Indizea (IPRI)** | | | | **Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea** | | | |
| Orokorra | -0,6 | -1,1 | -2,6 | Orokorra | 7,9 | -2,6 | -16,8 |
| Kontsumoa | 0,0 | -0,2 | -0,6 | Nekazaritza-produktuak | 13,9 | -2,8 | -24,8 |
| Ekipamendua | 1,3 | -0,4 | 0,3 | Baso-produktuak | -0,6 | 0,7 | 53,4 |
| Bitartekoak | -1,3 | -0,7 | -0,8 | Animalia-produktuak | 2,0 | -2,5 | -8,5 |

*(1): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*(2): Abendutik abendura*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Ondasun talde desberdinei erreparatuz garo, bai EAEn bai Nafarroan elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak izan du inflazio handiena (% 2,3 eta % 1,7, hurrenez hurren). Bi lekuetan, "beste batzuk" taldea izan da bigarren (% 1,8 eta % 1,6, hurrenez hurren). Horien atzetik datoz, EAEn, edari alkoholdunak eta tabakoa (% 1), medikuntza (% 0,9), hotelak eta jatetxeak (% 0,8), irakaskuntza (% 0,6), jantziak eta oinetakoak (% 0,5), komunikazioak (% 0,5), etxeko tresneria (% 0,3) eta aisia eta kultura (% 0,1). Bestalde, etxebizitzaren eta garraioen prezioak jaitsi egin dira (-% 1,6 eta -% 2,5, hurrenez hurren). Nafarroan, inflazio handiena izan duen hirugarren taldea medikuntza izan da (% 1,2), eta, ondoren, edari alkoholdunak eta tabakoa (% 1), irakaskuntza (% 0,9), hotelak eta

jatetxeak (% 0,7), jantziak eta oinetakoak (% 0,5), komunikazioak (% 0,4) eta etxeko tresneria (% 0,1). Gainerako ondasunek tasa negatiboak izan dituzte.

EAEko industria-prezioei dagokienez, indize orokorrak haien beherapen-erritmoa indartu du (2015ean -% 2,6 eta 2014an -% 1,1). Hala, murriztu egin dira bai bitarteko ondasunen prezioak (-% 0,8) bai kontsumokoenak (-% 0,6), eta igo egin dira ekipamendu-ondasunenak (% 0,3).

Nafarroako nekazariek jasotako prezioei dagokienez, indize orokorraren beherakada indartu egin da (2015ean -% 16,8 eta 2014an -% 2,6), batez ere, nekazaritza- eta animalia-produktuen beherakada sendotu delako (lehenengoa -% 2,8tik -% 24,8ra igaro da aurreko ekitalditik, eta bigarrena -% 2,5etik -% 8,5era). Basoko produktuen prezioek, berriz, gorakada handia izan dute (aurreko ekitaldian % 0,7 eta oraingoan % 53,4).

**34. koadroa Soldata-adierazleak**

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | 1,6 | -1,9 | 0,4 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | 1,4 | -1,0 | -0,3 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 485 | 537 | 336 |
| – Eraginpeko langileak | 202.195 | 204.026 | 119.938 |
| – Adostutako soldata-igoera | 1,01 | 0,71 | 0,64 |
| **NAFARROA** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | -0,5 | 0,5 | 0,5 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | -0,3 | 1,9 | -0,1 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 150 | 181 | 113 |
| – Eraginpeko langileak | 72.793 | 113.933 | 27.346 |
| – Adostutako soldata-igoera | 0,89 | 0,44 | 0,53 |

*Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.*

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, horiek bilakaera desberdina izan dute EAEn eta Nafarroan. Ildo horretan, EAEn ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua hazi egin da 2015ean (% 0,4, eta aurreko ekitaldian -% 1,9), baina langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostuak behera egiten jarraitu du (-% 0,3, eta aurreko ekitaldian -% 1). Nafarroan, aldiz, ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostuak aurreko ekitaldiko dinamismoari eutsi dio (% 0,5 bai 2014an bai 2015ean), eta langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua pixka bat jaitsi da (2015ean -% 0,1 eta 2014an % 1,9).

## 2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

**Estatuko gizarte- eta lan-arloari buruzko araudi esanguratsua[1]**

Jarraian, labur azaltzen da 2015ean gizarte- eta lan-arloari buruz onartutako estatuko araudi esanguratsua, maila eta oinarrizko edukia kontuan hartuta; haren aurkezpen laburra egingo da.

[1] Azpiepigrafe hau egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluaren "EAEko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak, 2015" txostena erabili da informazio-iturri gisa.

### 35. koadroa 2015ean gizarte- eta lan-arloari buruz onartutako estatuko araudi esanguratsua

| Maila | Oinarrizko edukia | Oharrak |
|---|---|---|
| 30/2015 Legea, irailaren 9koa, Lan-arloan Enplegurako Lanbide Heziketako Sistema arautzen duena. | Sistemaren erreforma integralari heltzen dio, helburu hauekin: enplegatuen eta langabeen prestakuntzarako eskubidea baliatzeko bermea; enpresek lehiakortasunerako prestakuntzari eginiko ekarpen eraginkorra; negoziazio kolektiboa indartzea ekoizpen-sistemaren beharretara egokitzeko prestakuntza-eskaintzaren barnean; eta efizientzia eta gardentasuna baliabide publikoen kudeaketan. | Lege honen aurretik, martxoaren 22ko 4/2015 Errege Lege Dekretua onetsi zen (Lan-arloko Enplegurako Lanbide Heziketako Sistemaren premiazko erreformarakoa).<br><br>Hiruko negoziaziorako proposamenen akordioa jasotzen du, hazkunde ekonomikoa eta enplegua indartzeko, Gobernuak eta solaskide sozialek 2014ko uztailaren 29an sinatutakoa.<br><br>Enpresaren eredu berrian, nolabait, enpresa guztiek hartuko dute parte, beren baliabideekin, beren langileen prestakuntzaren finantzaketan.<br><br>Era berean aurreikusten du administrazioek, beren eskumeneko eremuetan, prestakuntza-eskaintza beren langile okupatuentzako programazioarekin osatuko dutela. Bertan, enpresa- eta sindikatu-erakundeek utzi egingo diote prestakuntza-planen titular izateari, emateari eta funtsak kudeatzeari, baina horien diseinuan, programazioan eta zabalkundean parte hartuko dute. |
| 23/2015 Legea, uztailaren 21ekoa, Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako sistema arautzekoa. | Arau honen helburua da gizarte- eta lan-ordenamenduan egon diren araudi-aldaketetara egokitzea, batez ere langile orok Lan Ikuskaritzara eta Gizarte Segurantzara jotzeko duen eskubidea, bere eskubideak urratu direla uste duenean.<br><br>Helburua da funtzio-unitateko funtsezko printzipioen bizikidetza eta sistema ulertzeko modu bakarra eta integrala autonomia-erkidegoetako eskumenen garapenarekin bateratzea. Eta erakundetik indartzea Ikuskaritza bera eta, horretarako, lankidetza- eta kooperazio-mekanismoak tartean diren administrazioekin antolatzea. | Sistema ulertzeko modu bakarrean eta integralean eta funtzioa- eta jarduketa-unitatearen printzipioan oinarritzen den eredua ezartzen da, administrazio eskudun guztien parte-hartzearen aurrerapenarekin batera.<br><br>Legeak arreta berezia eskaintzen dio ikuskaritzako jardueraren plangintzari herritarren eskari handia duten eremuetan, besteak beste, lan-kontratazioaren erregimenari buruzkoan, lanpostuen sarbideari, berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritutako baldintzen araberako prestazioari, laneko segurtasunari eta osasunari eta gizarte-segurantzako erregimen publikoko bermeari eta biziraupenari buruzkoan. Gainera, bitartekari-zeregina indartzen da lan-gatazketan, eta informazioaren eta enpresentzako laguntza teknikoaren lana. |
| 44/2015 Legea, urriaren 14koa, Lan Sozietateei eta Partaidetzako Sozietateei buruzkoa. | Helburua da lan-sozietateei buruzko legea araudi-esparru berrira egokitzea.<br><br>Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen (martxoaren 29ko 5/2011) zazpigarren xedapen gehigarriak Gobernuari agintzen zion Gorteei bidaltzeko aurreko Lan Sozietateei buruzko Legea (martxoaren 24ko 4/1997) eguneratzen duen lege-proiektua. | Araubide juridikoa aldatzen du, langileen parte-hartzea enpresan sustatzeko eta, horrela, bazkide-izaerari bide emateko; eta langileen kontrol-neurri berriak jasotzen ditu. |
| 47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, Itsas eta arrantza-sektoreko langileen babes soziala arautzen duena. | Itsasoko langileen erregimen berezia eta Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatutako gainerako prestazio eta zerbitzuak arautzen ditu. | |

*Iturria: Geuk egina, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluaren "EAEko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak, 2015" txostena oinarri hartuta.*

**Lan-merkatua Euskal Autonomia Erkidegoan**

Hazkunde ekonomikoaren areagotzeak 2015ean, bai EAEn bai Nafarroan, eta baita estatu osoan ere, enpleguaren hedapena ekarri du, eta langabeen beherakada, bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai estatuan.

2015ean, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboa 1.335 mila pertsona izan ziren; bolumen horrek urte arteko -% 0,8ko murrizketa dakar, 1.140,7 mila pertsona okupatuta egonik. Maila horrek % 1,1eko gorakada egon dela adierazten du eta 194,3 mila pertsona langabezian, alegia, -% 10,8ko beherakada egon da. Datu erlatiboetan, estatu osoak nabaritu du biztanleria aktiboaren beherakada txikiagoa (-% 0,1), enpleguaren gorakada nabarmen handiagoa (% 3) eta biztanleria langabearen antzeko beherakada (-% 9,9).

Sexua kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan 2015ean erregistratu den okupazioaren gorakada enpleguaren hazkundeak ekarri du, bai gizonezkoena (% 1,1) bai emakumezkoena (% 1,2); dinamika hori estatu-mailan ere ikusi da (% 3,4ko igoera okupazioan gizonezkoen kasuan eta % 2,6 emakumezkoenean). Biztanleria langabearen beherakada dela eta, orokorra izan da bi sexuetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (-% 12,8 gizonezkoen kasuan; -% 8, emakumezkoenean) bai Estatu osoan (-% 12,2 eta -% 7,3, hurrenez hurren). Horrela, bada, gizonezko aktiboek behera egin dute EAEn (-% 1,2) eta Estatu osoan (-% 0,3), eta emakume aktiboek atzera egin dute EAEn (-% 0,4) eta gora egin dute pixka bat Estatu osoan (% 0,1).

Euskal jarduera-tasa urritu egin da pixka bat, % 57,2ra, 2015ean (2014an % 57,6), eta behera egin du pixka bat bai EAEn (2015ean % 56,7 eta aurreko ekitaldian % 57) bai Nafarroan (2015ean % 58,8 eta aurreko ekitaldian % 59,8). Estatu-mailan, jarduera-tasa ia ez da aldatu (2015ean % 59,5; 2014an % 59,6). Horrela, 2015eko EAEren eta Estatuaren artean diferentzia ehuneko 2,3 puntukoa izan da.

Generoa kontuan hartuta, EAEko jarduera-tasak behera egin du bai gizonen kasuan bai emakumeen kasuan (2014an % 63,5 izatetik 2015ean % 62,8ra igaro da, eta % 52,1etik % 51,9ra, hurrenez hurren), eta pixka bat jaitsi da bi tasen arteko diferentziala. Datu konparatiboetan, Nafarroak EAEri dagokiona baino jarduera-tasa handiagoa izan du, bai gizonezkoen kasuan bai emakumezkoenean. Estatu osoan, bestalde, gizonezkoen eta emakumezkoen jarduera-tasak (% 65,7 eta 53,7, hurrenez hurren) EAEkoak (% 62,8 eta % 51,9, hurrenez hurren) baino handiagoak dira.

Langabezia kontuan hartuta, EAEn 194,3 mila pertsona langabe izan dira 2015ean, eta maila horrek dakar urte arteko -% 10,8ko beherakada, pertsona langabeen

atzerapenaren ondorioz, bai EAEn (-% 10,1) bai Nafarroan (-% 13,3). Estatuaren kasuan, aurretik esan den bezala, pertsona langabeen beherakada -% 9,9koa izan da.

Testuinguru horretan, EAEri dagokion langabezia-tasak behera egin du ehuneko 1,6 puntu (2015ean % 14,6 eta 2014an % 16,2), eta beheranzko bilakaera izan du EAEn (2015ean % 14,8 eta 2014an % 16,3), bai eta Nafarroako eremuan ere (2015ean % 13,8 eta 2014an % 15,7). Aldi berean, Estatuko langabezia-tasak ere behera egin du (2015ean % 22,1 eta 2014an % 24,4), nahiz eta Estatuko erregistroa bigarren altuena den EB-28 mailan, Greziari dagokionaren ondoren.

**36. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia**

*(urteko batez bestekoak milakotan)*

| Eremua | | 2014 | | | 2015 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gizonak | Emakumeak | Guztizkoa | Gizonak | Emakumeak | Guztizkoa |
| EAE | Poten. aktiboak | 872,9 | 941,1 | 1.814,0 | 871,7 | 941,0 | 1.812,7 |
| | Aktiboak | 548,6 | 485,5 | 1.034,2 | 544,1 | 484,2 | 1.028,3 |
| | Landunak | 458,0 | 407,3 | 865,3 | 463,2 | 413,2 | 876,4 |
| | Langabeak | 90,6 | 78,2 | 168,9 | 80,9 | 71,1 | 151,9 |
| | Jarduera-tasa | 62,8 | 51,6 | 57,0 | 62,4 | 51,5 | 56,7 |
| | Langabezia-tasa | 16,5 | 16,1 | 16,3 | 14,9 | 14,7 | 14,8 |
| | Erregistratutako langabezia* | 80,4 | 85,3 | 165,8 | 70,4 | 79,6 | 150,0 |
| Nafarroa | Poten. aktiboak | 257,6 | 263,6 | 521,2 | 257,6 | 264,0 | 521,5 |
| | Aktiboak | 168,9 | 142,6 | 311,5 | 165,0 | 141,6 | 306,7 |
| | Landunak | 142,7 | 119,8 | 262,5 | 144,1 | 120,2 | 264,3 |
| | Langabeak | 26,1 | 22,8 | 48,9 | 20,9 | 21,5 | 42,4 |
| | Jarduera-tasa | 65,6 | 54,1 | 59,8 | 64,1 | 53,6 | 58,8 |
| | Langabezia-tasa | 15,5 | 16,0 | 15,7 | 12,7 | 15,2 | 13,8 |
| | Erregistratutako langabezia* | 23,0 | 24,8 | 47,8 | 20,1 | 23,1 | 43,1 |
| EAE | Poten. aktiboak | 1.130,5 | 1.204,7 | 2.335,2 | 1.129,3 | 1.205,0 | 2.334,2 |
| | Aktiboak | 717,5 | 628,1 | 1.345,7 | 709,1 | 625,8 | 1.335,0 |
| | Landunak | 600,7 | 527,1 | 1.127,8 | 607,3 | 533,4 | 1.140,7 |
| | Langabeak | 116,7 | 101,0 | 217,8 | 101,8 | 92,6 | 194,3 |
| | Jarduera-tasa | 63,5 | 52,1 | 57,6 | 62,8 | 51,9 | 57,2 |
| | Langabezia-tasa | 16,3 | 16,1 | 16,2 | 14,4 | 14,8 | 14,6 |
| | Erregistratutako langabezia* | 103,4 | 110,2 | 213,6 | 90,4 | 102,7 | 193,2 |
| Espainia | Poten. aktiboak | 18.774,5 | 19.740,1 | 38.514,6 | 18.753,2 | 19.744,3 | 38.497,6 |
| | Aktiboak | 12.359,1 | 10.595,4 | 22.954,6 | 12.319,6 | 10.602,4 | 22.922,0 |
| | Landunak | 9.442,7 | 7.901,5 | 17.344,2 | 9.760,3 | 8.105,7 | 17.866,0 |
| | Langabeak | 2.916,5 | 2.693,9 | 5.610,4 | 2.559,3 | 2.496,7 | 5.056,0 |
| | Jarduera-tasa | 65,8 | 53,7 | 59,6 | 65,7 | 53,7 | 59,5 |
| | Langabezia-tasa | 23,6 | 25,4 | 24,4 | 20,8 | 23,5 | 22,1 |
| | Erregistratutako langabezia* | 2.112,5 | 2.335,2 | 4.447,7 | 1.875,2 | 2.218,3 | 4.093,5 |

*(*): Abendua.*
*Iturria: EIN (BAIren biztanleria-oinarria, 2011. 2016ko maiatzeko datuak) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.*

Sexuaren arabera, EAEn 2015ean ikusitako langabezia-tasa orokorra izan da: gizonezkoen tasak behera egin du % 16,3tik (2014an) % 14,4ra (2015ean), eta emakumezkoenak % 16,1etik % 14,8ra, eta kontrakzio-dinamika orokor hori bi sexuetan erregistratu da bai EAEn bai Nafarroan, eta baita Estatu osoan ere (eremu horretan gizonezkoei dagokien langabezia-tasa % 23,6tik –2014an– % 20,8ra –2015ean– igaro da, eta emakumezkoena % 25,4tik % 23,5era). Bai Nafarroan bai Euskal Herri osoan eta Estatu osoan, emakumeek gizonezkoek baino langabezia-tasa handiagoa izan dute, EAEn ez bezala.

Puntu horretan, gogorarazi behar da aurten ere langabezia aztertu daitekeela Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistratutako langabezia kontuan hartuta, eta aintzat hartu behar da kasu zehatz honetan eskainitako informazioa abendukoa dela eta ez ekitaldi osokoa. Hori horrela, iturri horrekin, 2015eko abenduan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Euskal Herriko bulegoetan erregistratutakoaren arabera, langabezian 193,2 mila pertsona egon dira, eta bolumen hori aurreko ekitaldian lortutakoa baino % 9,6 txikiagoa izan da, zeina 150 mila pertsona baita EAEn eta 43,1 mila pertsona Nafarroan; maila horiek urte arteko -% 9,5eko eta -% 9,8ko beherakadak dakartzate, hurrenez hurren. Estatu osoaren kasuan, 2015eko abenduan erregistratutako langabezia 4.093,5 mila pertsonakoa da, alegia, urte arteko beherakada -% 8koa izan da.

**37. koadroa Langabezia-tasa, adin-tarteen arabera. Urteko batez bestekoak**

*(% )*

| Eremua | Urtea | 16-19 | 20-24 | 25-54 | 55 eta gehiago | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2013 | 64,5 | 43,5 | 15,9 | 9,9 | 16,6 |
| | 2014 | 52,9 | 44,2 | 16,1 | 9,2 | 16,3 |
| | 2015 | 53,8 | 38,6 | 14,5 | 8,7 | 14,8 |
| Nafarroa | 2013 | 68,2 | 45,5 | 17,3 | 8,7 | 17,9 |
| | 2014 | 75,0 | 39,1 | 14,5 | 9,6 | 15,7 |
| | 2015 | 51,9 | 35,2 | 13,2 | 8,2 | 13,8 |
| Euskal Herria | 2013 | 65,3 | 44,0 | 16,2 | 9,6 | 16,9 |
| | 2014 | 61,4 | 42,8 | 15,8 | 9,3 | 16,2 |
| | 2015 | 53,2 | 37,8 | 14,2 | 8,6 | 14,6 |
| Espainia | 2013 | 74,0 | 51,8 | 24,5 | 19,4 | 26,1 |
| | 2014 | 68,6 | 50,3 | 22,8 | 19,3 | 24,4 |
| | 2015 | 67,2 | 44,6 | 20,6 | 17,9 | 22,1 |

*Iturria: EIN (BAIren biztanleria-oinarria, 2011. 2016ko maiatzeko datuak).*

Biztanleria aktiboari buruzko inkesta berriro kontuan hartuta (urteko batez besteko datuak), langabezia-tasaren analisiak, adin-tarteen arabera, agerian uzten ditu taldeen artean dauden desberdintasun handiak; tasarik handiena gazteenei dagokie. Horrela, 2015ean, 16 eta 19 urte bitarteko pertsonek % 53,2ko langabezia-tasa bizi dute Euskal

Herrian, 20 eta 24 urte bitartekoek % 37,8koa, 25 eta 54 urte bitartekoek % 14,2koa eta, azkenik, 55 urte eta hortik gorakoek % 8,6koa.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, euskal langabezia-tasak behera egin du adin-tarte guztietan: gazteenen adin-tartean, 2014an % 61,4koa zen eta % 53,2koa 2015ean; 20 eta 24 urte bitarteko adin-tartean, % 42,8koa 2014an eta % 37,8koa 2015ean; 25 eta 54 urte bitarteko adin-tartean, % 15,8koa 2014an eta % 14,2koa 2015ean, eta nagusiagoen artean % 9,3koa 2014an eta % 8,6koa 2015ean.

Estatuan ere langabezia-tasarik altuena gazteenen artean erregistratu da (% 67,2), eta, era berean, urte arteko datuetan oro har jaitsi egin da adin-tarte guztietan.

**38. koadroa Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batez bestekoak**

*(m pertsona)*

| Eremua | Urtea | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2013 | 14,3 | 179,1 | 56,8 | 623,4 |
| | 2014 | 12,3 | 174,7 | 50,1 | 628,3 |
| | 2015 | 11,2 | 183,4 | 47,9 | 633,9 |
| Nafarroa | 2013 | 15,1 | 67,3 | 14,3 | 161,3 |
| | 2014 | 12,6 | 66,9 | 14,0 | 169,0 |
| | 2015 | 9,5 | 64,4 | 16,9 | 173,5 |
| Euskal Herria | 2013 | 29,4 | 246,4 | 71,1 | 784,7 |
| | 2014 | 24,9 | 241,6 | 64,1 | 797,3 |
| | 2015 | 20,7 | 247,8 | 64,8 | 807,4 |
| Espainia | 2013 | 736,6 | 2.355,5 | 1.029,5 | 13.017,5 |
| | 2014 | 735,8 | 2.379,9 | 993,5 | 13.234,9 |
| | 2015 | 736,8 | 2.482,3 | 1.073,7 | 13.573,3 |

*Iturria: EIN (BAIren biztanleria-oinarria, 2011. 2016ko maiatzeko datuak). (CNAE-09).*

Enpleguak Euskal Herrian izan duen bilakaera sektoriala dela eta, lehen sektoreak baino ez dio eutsi 2015ean bere okupazio-mailari (-% 16,9), eta handitu egin dute industria-sektoreak (% 2,6), zerbitzuek (% 1,3) eta eraikuntzak (% 1,1). Hirugarren sektoreak, 807,4 mila pertsona landunekin, Euskal Herriko enplegu osoaren % 70,8 hartzen du, eta horren gehiengoa EAEn dago. Jarraian, honako hauek daude, ordena honetan: industria-sektorea, 247,8 mila pertsona landunekin eta % 21,7ko parte-hartzearekin; eraikuntza, 64,8 mila pertsonarekin eta % 5,7ko kuotarekin; eta lehen sektorea, 20,7 mila pertsonarekin eta % 1,8ko pisu erlatiboarekin.

Estatu osoan, sektore guztiek handitu dute beren okupazio-maila, oro har: eraikuntzak % 8,1, industriak % 4,3, zerbitzuek % 2,6 eta lehen sektoreak % 0,1.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak kontuan hartuta, 2015ean horiek hazi egin dira aintzat hartu diren eremu geografiko guztietan. Horrela,

Euskal Herrian erregistratutako 1.206.253 kontratuek urte arteko % 14,5eko gorakada dakarte (% 14,2 EAEn, % 15,3 Nafarroan), eta Estatuan inskribatutako 18.576.280 kontratuek % 11,1eko hedapena erakusten dute.

Kontratu-motagatik, Euskal Herrian aldi baterako kontratazioa kontratazio mugagabea baino intentsitate handiagoz hazi zen (% 14,7 eta % 12,7, hurrenez hurren), eta, estatu-mailan, kontrakoa gertatu zen (kontratu mugagabeak % 11,8 areagotu ziren, eta aldi baterako kontratuak % 11).

**39. koadroa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulegoetan erregistratutako kontratuak**

| Eremua | Urtea | Mugagabeak | | | Aldi baterakoak | | | | KONTRATUAK, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Mugagabea | Konber-tsioak | Guztizkoa | Obra eta Zerbitzua | Aldi baterakoak | Ginera-koak | Guztizkoa | |
| EAE | 2013 | 30.172 | 14.422 | 44.594 | 212.600 | 256.771 | 164.980 | 634.351 | 678.945 |
| | 2014 | 38.377 | 14.066 | 52.443 | 230.324 | 297.338 | 179.044 | 706.706 | 759.149 |
| | 2015 | 42.890 | 17.147 | 60.037 | 252.493 | 353.862 | 200.863 | 807.218 | 867.255 |
| Nafarroa | 2013 | 7.697 | 4.759 | 12.456 | 61.870 | 101.556 | 80.063 | 243.489 | 255.945 |
| | 2014 | 10.581 | 5.078 | 15.659 | 68.085 | 124.113 | 86.122 | 278.320 | 293.979 |
| | 2015 | 10.777 | 5.962 | 16.739 | 76.452 | 144.796 | 101.011 | 322.259 | 338.998 |
| Euskal Herria | 2013 | 37.869 | 19.181 | 57.050 | 274.470 | 358.327 | 245.043 | 877.840 | 934.890 |
| | 2014 | 48.958 | 19.144 | 68.102 | 298.409 | 421.451 | 265.166 | 985.026 | 1.053.128 |
| | 2015 | 53.667 | 23.109 | 76.776 | 328.945 | 498.658 | 301.874 | 1.129.477 | 1.206.253 |
| Espainia | 2013 | 735.048 | 399.901 | 1.134.949 | 5.932.482 | 6.078.973 | 1.646.210 | 13.657.665 | 14.792.614 |
| | 2014 | 935.822 | 414.509 | 1.350.331 | 6.680.679 | 6.883.223 | 1.812.856 | 15.376.758 | 16.727.089 |
| | 2015 | 1.030.460 | 478.705 | 1.509.165 | 7.334.750 | 7.722.400 | 2.009.965 | 17.067.115 | 18.576.280 |

*Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.*

Gizarte- eta lan-giroa dela eta, 2015ean negoziazio kolektiboak garapen txikiagoa izan du aurreko ekitaldian baino, aintzat hartutako hiru eremuetan (EAE, Nafarroa eta Estatua), eta hitzarmen gutxiago negoziatu ziren, pertsona-kopuru txikiagoari eraginez. Hori horrela, 2015ean negoziatutako hitzarmen-kopuruan egon diren beherakadak -% 37,4koak izan dira EAEn, -% 37,6koak Nafarroan eta -% 37koak Estatuan.

**40. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak**

| Eremua | Urtea | Hitzarmen kolektiboak | | | Grebak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Kop. | Eraginpean dauden lang. | Hitzartutako soldataren gorakada | Kop. | Lang. parte-hartz. | Lang. greba bakoitzeko | Lan egin ez diren jardunaldiak |
| EAE | 2013 | 485 | 202.195 | 1,01 | 318 | 36.782 | 116 | 139.472 |
| | 2014 | 537 | 204.026 | 0,71 | 192 | 15.375 | 80 | 54.655 |
| | 2015 | 336 | 119.938 | 0,64 | 154 | 10.847 | 70 | 18.862 |
| Nafarroa | 2013 | 150 | 72.793 | 0,89 | 104 | 24.262 | 233 | 48.753 |
| | 2014 | 181 | 113.933 | 0,44 | 52 | 2.977 | 57 | 12.269 |
| | 2015 | 113 | 27.346 | 0,53 | 38 | 1.930 | 51 | 10.721 |
| Espainia | 2013 | 4.589 | 10.265.402 | 0,53 | 994 | 448.024 | 451 | 1.098.480 |
| | 2014 | 5.048 | 10.191.438 | 0,50 | 777 | 217.047 | 279 | 620.568 |
| | 2015 | 3.180 | 7.190.717 | 0,82 | 615 | 170.528 | 277 | 497.483 |

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2016ko maiatzeko datuak.*

Era berean, 2015ean, lan-gatazkaren beherakada orokorra ikusi da; behera egin du bai greba-kopuruak bai eraginpean dauden langileek, baita lan egin ez diren lanaldien kopuruak ere, aztertutako hiru eremu geografikoetan. Zehazki, greba-kopuruak behera egin du EAEn ia -% 19,8, Nafarroan -% 26,9 eta estatu-mailan -% 20,8. Eraginpean dauden langileak direla eta, beherakadak honakoak izan dira: -% 29,5, -% 35,2 eta -% 21,4, hurrenez hurren; eta lan egin ez diren lanaldiak direla eta, -% 65,5, -% 12,6 eta -% 19,8, hurrenez hurren.

### EAEko gizarte- eta lan-arloari buruzko araudi esanguratsua[1]

Lan-merkatuaren bilakaera aztertu ondoren, jarraian labur eskaintzen da EAEn 2015ean onetsitako gizarte- eta lan-arloari buruzko araudia; horretarako, kontuan hartu dira maila eta oinarrizko edukia eta haren aurkezpen laburra egin da.

[1] Azpiepigrafe hau egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluaren "EAEko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak, 2015" txostena erabili da informazio-iturri gisa.

**41. koadroa 2015ean gizarte- eta lan-arloari buruz onartutako autonomia-erkidegoko araudi esanguratsua**

| Maila | Oinarrizko edukia | Oharrak |
|---|---|---|
| 31/2015 Dekretua, martxoaren 17koa. | Ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua (Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa) aldatzen du. | Dekretu berriak, seme-alaba adingabeak zaintzeko langileen kontratazioagatiko laguntzak direla eta, horiek eskuratzeko baldintza ekonomikoak ezartzen ditu; horietarako familia-errenta estandarizatuko irizpideei jarraitzen zaie. |

*Iturria: Geuk egina, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluaren "EAEko egoera ekonomikoa eta lan-harremanak, 2015" txostena oinarri hartuta.*

## Biztanleria

Urte arteko murrizketa txikiaren ondoren, -% 0,2koa, 2014an Euskal Herriko biztanleria 2.829.775 izan da, eta intentsitate gutxiagorekin egin du behera EAEn (-% 0,1) Nafarroan baino (-% 0,6); eremu horietan biztanleak 2.188.985 eta 640.790 izan dira, hurrenez hurren. Estatuan, oro har, biztanleriaren beherakada konparazioan handiagoa izan da (-% 0,8); 46.771.341 pertsona izan dira.

Euskal Herriko jaiotzak direla eta, 2014an 25.562 izan dira, aurreko ekitaldian baino % 1,5 gehiago. Heriotzak, bestalde, 25.677 izan dira, aurreko ekitaldian baino % 2,5 gehiago. Ondorioz, saldo begetatiboa negatiboa izan da, -115 pertsonakoa, eta, horrela, eten egin da azken urteotan izan den hazkunde begetatibo positiboen joera.

**42. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2014**

| Eremua | Jaiotzak | Heriotzak | Hazkunde begetatiboa | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotza-tasa (‰) |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 3.277 | 2.476 | 801 | 10,2 | 7,7 |
| Bizkaia | 9.740 | 11.159 | -1.419 | 8,5 | 9,7 |
| Gipuzkoa | 6.362 | 6.531 | -169 | 8,9 | 9,1 |
| EAE | 19.379 | 20.166 | -787 | 8,9 | 9,2 |
| Nafarroa | 6.183 | 5.511 | 672 | 9,6 | 8,6 |
| Euskal Herria | 25.562 | 25.677 | -115 | 9,0 | 9,1 |
| Espainia | 427.595 | 395.830 | 31.765 | 9,1 | 8,5 |

*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2015eko abenduko datuak.*

Testuinguru honetan, jaiotza- eta heriotza-tasek gora egin dute pixka bat Euskal Herrian (2014an ‰ 9 eta 2013an ‰ 8,9; eta 2014an ‰ 9,1 eta 2013an ‰ 8,8 2013an, hurrenez hurren); Estatu osoak jaiotza-tasa pixka bat altuagoa izan du (‰ 9,1) eta heriotza-tasa baxuagoa (‰ 8,5).

Ezkontzak direla eta, 9.325 egin dira, 2013an erregistratutako zifra baino % 0,4 gehiago, eta zifra horrek gora egin du estatu-mailan, baina askoz ere intentsitate handiagoarekin, % 3,8 (2014an 159.279 eta 2013an 153.375).

**43. koadroa Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera**

| Urtea | Biztanleria | Ezkontzak | Jaiotzak | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotzak | Heriotza-tasa (‰) | Hazkunde begetatiboa | Migrazio-saldoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2004 | 2.700.013 | 12.963 | 25.867 | 9,6 | 23.682 | 8,8 | 2.185 | -3.464 |
| 2005 | 2.718.318 | 12.227 | 25.847 | 9,5 | 24.613 | 9,1 | 1.234 | -3.384 |
| 2006 | 2.735.558 | 11.921 | 26.577 | 9,7 | 23.459 | 8,6 | 3.118 | -4.147 |
| 2007 | 2.747.736 | 11.767 | 27.189 | 9,9 | 24.414 | 8,9 | 2.775 | -1.715 |
| 2008 | 2.777.489 | 11.720 | 28.339 | 10,2 | 24.725 | 8,9 | 3.614 | 2.481 |
| 2009 | 2.802.753 | 10.985 | 27.749 | 9,9 | 24.761 | 8,8 | 2.988 | 3.543 |
| 2010 | 2.815.263 | 10.665 | 27.948 | 9,9 | 24.344 | 8,6 | 3.064 | 3.882 |
| 2011 | 2.826.657 | 10.304 | 27.902 | 9,9 | 24.990 | 8,8 | 2.912 | 5.702 |
| 2012 | 2.837.659 | 10.171 | 27.264 | 9,6 | 25.657 | 9,0 | 1.607 | 4.764 |
| 2013 | 2.836.159 | 9.286 | 25.191 | 8,9 | 25.043 | 8,8 | 148 | 3.469 |
| 2014 | 2.829.775 | 9.325 | 25.562 | 9,0 | 25.677 | 9,1 | -115 | 5.103 |

*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN). 2015eko abenduko datuak.*

Azkenik, nabarmendu behar da 2014an Euskal Herriak migrazio-saldo positiboa erregistratu duela, 5.103 pertsonakoa, immigrazio-kopuru handiagoa egon delako emigrazio-kopurua baino. Zehazki, EAEk migrazio-saldo positiboa izan du, 4.441 pertsonakoa, eta Nafarroak, 662 pertsonakoa.



LABORAL kutxa



# 2. INDUSTRIA

# 1. EGOERA OROKORRA

Egoera orokorra hobe den honetan, Euskal Herriko industria-sektorean jarduera berriro hedatu da 2015ean eta, horrela, aurreko ekitaldian hasitako goranzko dinamikari eutsi dio.

Eremu geografikoak kontuan hartuta, Nafarroan hedapenerako joera EAEn baino handiagoa da. Zehazki, 2015ean, balio erantsi gordin sektorialak % 2,7ko gorakada erregistratu zuen EAEn (2014an % 1,5), eta % 2,9koa Nafarroan (2014an % 3,0). Bai EAEn eta bai Nafarroan, industriak urtean zehar hazkunde-erritmoa berreskuratzeko joera erakutsi du: % 0,3, % 3,1, % 3,1 eta % 4,3 lehenengo hiruhilekotik laugarrenera EAEren kasuan; eta % 2,4, % 3,1, % 3,3 eta % 2,9 Nafarroaren kasuan. Aipatu behar da EAEn eta Nafarroan antzemandako industria-jardueraren hobekuntza 2015ean Estatu osoan erregistratutakoa (% 3,4) baino pixka bat txikiagoa izan dela.

Industria-enpleguaren joera dela-eta, eta BAIren arabera, 2015ean % 5,0ko hobekuntza izan du EAEn (-% 2,4, BJAren arabera); gorakada hori ez dator bat Nafarroan erregistratutako % 3,7ko murrizketarekin (2014an -% 0,6), eta Estatu mailan egon den % 4,3ko hedapenaren antzekoa da (2014an % 1,0).

2015ean erregistratutako jardueraren hobekuntza euskal industria-enpresen emaitzen kontuan ere ikusi da, eta errentagarritasunen gorakada argia antzeman da.

### Produkzio-adierazleak

Industria-jardueraren beste adierazle batzuk kontuan hartuta, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) EAEn % 3,5eko gorakada erregistratu du 2015ean (% 1,4koa 2014an). Nafarroan ere gorakada erregistratu du (% 2,2), baina 2014an baino baxuagoa (% 3,9). Bestalde, Estatuko IPIak ere hobera egin du, kasu honetan % 3,4 (2014an % 1,3). Beraz, industria-produkzioen indizeek 2015ean hobekuntza nabarmena izan dute, aurreko ekitaldiaren aldean.

**44. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

*(% )*

| Urtea | EAE IPI(*) | Nafarroa IPI (*) | Estatua IPI (*) |
|---|---|---|---|
| 2008 | -3,1 | 0,4 | -7,3 |
| 2009 | -21,4 | -20,3 | -15,8 |
| 2010 | 1,8 | 6,4 | 0,8 |
| 2011 | 4,1 | -2,1 | -1,6 |
| 2012 | -5,9 | -8,0 | -6,7 |
| 2013 | -3,1 | -1,6 | -1,6 |
| 2014 | 1,4 | 3,9 | 1,3 |
| 2015 | 3,5 | 2,2 | 3,4 |

*(*): Egutegiaren eraginez zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.*

**45. koadroa Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helmuga ekonomikoen arabera**

*(% )*

| Urtea | Bitarteko ondasunak | | Ekipo-ondasunak | | Kontsumo-ondasunak | | Energia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa |
| 2008 | -4,2 | 2,0 | -1,2 | -1,4 | -8,3 | -4,2 | 3,0 | 20,3 |
| 2009 | -25,9 | -30,1 | -22,6 | -25,2 | -16,1 | -6,4 | -6,4 | -6,5 |
| 2010 | 7,1 | 2,4 | -3,2 | 21,6 | 0,6 | -6,5 | -5,4 | 18,8 |
| 2011 | 5,8 | -2,4 | 11,2 | -1,2 | -0,1 | 5,9 | -7,6 | -30,8 |
| 2012 | -7,4 | -6,7 | -6,2 | -10,3 | -4,1 | -4,9 | -2,8 | -7,1 |
| 2013 | -2,5 | -4,6 | -3,2 | 3,3 | -5,1 | -0,2 | -2,5 | -6,8 |
| 2014 | 2,4 | 10,0 | 1,6 | 3,4 | -2,2 | 3,2 | 0,1 | -6,0 |
| 2015 | 1,3 | -0,8 | 7,4 | 4,9 | 5,2 | 2,4 | 1,4 | 6,9 |

*(*): Egutegiaren eraginez zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina, Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.*

Ondasun-motak direla eta, 2015ean hobekuntzak antzeman dira bai EAEn bai Nafarroan. EAEn, zehazki, zifra positiboak erregistratu dira helmuga ekonomiko guztien IPIan: % 1,3 bitarteko ondasunetan, % 7,4 ekipo-ondasunetan, % 5,2 kontsumo-ondasunetan eta % 1,4 energian. Bestalde, Nafarroan antzeko zerbait gertatu da eta, bitarteko ondasunak salbu (-% 0,8), datu positiboak erregistratu dira ondasun guztietarako (% 4,9 ekipo-ondasunetan, % 2,4 kontsumo-ondasunetan eta berreskurapen nabarmena energian, % 6,9koa, 2014ko -% 6,0ren aldean).

Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera kontuan hartuta, jarduera-adarren arabera, EAEn 2015ean hobekuntza egon da horietako batzuetan, aurreko ekitaldiaren aldean, baina beste adar batzuetan bilakaera okerragoa izan da. Hori hala izan da, esaterako, Erauzketa-industrietan (-% 6,3), Ehungintza, jantzigintza, larru eta oinetakoetan (-% 1,6) eta Farmaziako produktuetan (-% 6,3); horiek 2014a ondo igaro

ondoren, balio negatiboak izan dituzte. Hala gertatu da, halaber, Elikagai, edari eta tabakoaren industrietan (% 1,3), Kokeria eta petrolio-findegietan (% 5,2) edo Metalurgian (% 1,3), horien zifrek okerrera egin baitute aurreko ekitaldiaren aldean.

Alabaina, Altzariak eta beste manufaktura batzuen adarraren hobekuntza nabarmena azpimarratu behar da; aurreko urtean geldi egon da (2014an -% 0,1) eta 2015ean gorakada nabarmena izan du, % 22,3koa; Informatikako eta elektronikako produktuen adarra ere nabarmendu behar da, zeinek bikoiztu egin duen gorakada (2015ean % 15,7) aurreko ekitaldiaren aldean (% 7,0).

**46. koadroa EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera***

*(% )*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Erauzketa-industriak | -17,6 | 10,0 | -6,3 |
| Elikagai, edari eta tabakoaren ind. | 0,5 | 3,9 | 1,3 |
| Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza | -14,3 | 5,1 | -1,6 |
| Zura, papera eta arte grafikoak | -2,5 | 5,8 | 6,5 |
| Kokeriak eta petrolio-findegiak | 16,9 | 16,4 | 5,2 |
| Industria kimikoa | -1,8 | 4,9 | 5,0 |
| Farmaziako produktuak | 2,8 | 7,1 | -6,3 |
| Kautxua eta plastikoak | -6,0 | -0,3 | -0,1 |
| Metalurgia | -3,0 | 2,2 | 1,3 |
| Informatikako eta elektronikako produk. | -5,7 | 7,0 | 15,7 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -7,6 | -7,9 | -0,5 |
| Makineria eta ekipoa | -0,1 | 1,3 | 6,9 |
| Garraio-materiala | -2,9 | 0,3 | 3,8 |
| Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk | -5,6 | -0,1 | 22,3 |

*(*): Egutegiaren eraginez zuzendutako datuak.*
*Iturria: Eustat.*

**47. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera**

*(% )*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaien industria | -2,2 | 0,4 | 0.3 |
| Metalurgia eta produktu metalikoak | 0,6 | 11,1 | 3.8 |
| Papera, zura eta altzariak | -4,4 | -12,5 | 4.3 |
| Garraio-materiala | 2,0 | 6,1 | 1.5 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | -3,4 | 6,1 | -0.4 |

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).*

Nafarroan ere bilakaera heterogeneoa izan da, baina testuinguru horretan jarduera-adar guztiek izan dute aldakuntza positiboa 2015ean, aurreko urtearen aldean, Beste manufaktura-industria batzuen adarrak salbu.



LABORAL kutxa

Zehazki, Papera, zura eta altzariak adarrak % 4,3ko gorakada izan du (2014an -% 12,5), Nekazaritzako elikagaien industriaren (% 0,3), Metalurgia eta produktu metalikoen (% 3,8) eta Garraio-materialaren (% 1,5) kasuetan bezala. Bestalde, Beste manufaktura-industria batzuk adarrak okerrera egin du, eta % 0,4 egin du behera, 2014an erregistratutako % 6,1eko gorakadaren aldean.

**Enpresa-emaitzak**

Aurretik esan bezala, 2015ean erregistratutako industria-jardueraren hobekuntza euskal industria-enpresen emaitzen kontuaren hobekuntzan islatu da, eta errentagarritasunen hedapen argia antzeman da; horrela, bada, krisiaren aurreko urteetan erregistratutako mailetara hurbiltzen ari da.

Hori horrela, azken urteotan jarraitu diren euskal industria-enpresa nagusien laginari dagozkion onura/salmenten eta onura/berezko funtsen ratioak (zergen aurretik kalkulatu dira) 2015ean % 7,7 eta % 14,6 dira, hurrenez hurren, eta bi kasu horietan tasak 2014an erregistratutakoak baino altuagoak dira (% 6,8 eta % 12); horrela, 2013an hasitako goranzko joerari eusten zaio.

**48. koadroa Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako**

*(% )*

| Ratioak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Bitarteko kontsumoak/salmentak | 58,7 | 57,6 | 55,8 | 56,4 | 56,7 |
| Langileen kostuak/salmentak | 18,9 | 20,4 | 21,2 | 21,5 | 20,8 |
| Finantza-karga garbia/salmentak | 1,5 | 2,4 | 2,8 | 1,3 | 1,6 |
| Mozkinak/salmentak | 3,5 | -0,6 | 3,8 | 6,8 | 7,7 |
| Mozkinak/berezko funtsak | 6,3 | -1,2 | 7,4 | 12,0 | 14,6 |
| Cash flow/salmentak | 7,2 | 2,8 | 7,9 | 8,2 | 10,2 |
| Salmentak/langileak (m euro) | 196,4 | 187,0 | 174,6 | 186,6 | 196,8 |

*Iturria: CNMV eta geuk egina.*

Testuinguru horretan, 2015ean salmenta osoen gaineko tarteko kontsumoen partaidetza pixka bat igo da (2015ean % 56,7 eta 2014an % 56,4), eta beherakada txikia egon da langileen kostuen pisuan (2015ean % 20,8 eta 2014an % 21,5). Finantza-karga garbiak, bestalde, gorakada txikia izan du (2015ean % 1,6 eta 2014an % 1,3). Bestalde, ibilgetu garbiaren aldakuntza inbertsioaren bilakaeraren adierazle gisa erabiltzen bada, 2015ean % 4,3ko gorakada ikusten da (2014an % 12,5eko beherakada erregistratu zen).

**4. grafikoa Industria-errentagarritasuna**




*Iturria: Geuk egina.*

Oro har, euskal industria-enpresa nagusien laginaren jardueraren emaitzek izan duten bilakaerari buruz aurretik aipatutakoa berretsi egiten da, Espainiako Bankuaren[1] Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren (HBZ) emaitzak aztertzean; informazio horrek, nahiz eta Estatu osoari buruzkoa den, aukera ematen du euskal enpresek 2015 ekitaldi honetan izandako joeretara hurbiltzeko.

Zehazki, Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren 2015erako informazioak agerian uzten du enpresen jarduera ekonomikoa berreskuratzeko joera finkatzen ari dela; izan ere, lagin horien guztien balio erantsi gordinak (BEG) % 5,6ko gorakada izan du urtetik urtera (aurreko urtean soberakin horrek ez zuen ia aldakuntzarik izan). BEG gehiago handitu da enpresa txikienetan, 2013an berreskuratze-aldia hasi zenetik gertatzen den moduan. Jarduera-fluxuaren hazkuntza hau barneko eskaria berraktibatzen ari zen testuinguru batean geratu da, esportazioen dinamismoa handia zelako.

Langileen gastuek % 2,3 egin dute gora, aurreko urtean baino gehiago (% 0,9). 2015ean partida horretan ikusitako dinamismo handiagoaren arrazoia izan daiteke, nagusiki, enpleguak bilakaera positiboa izan duela, % 1,7 hazi baita.

[1] Espainiako 896 enpresa ez-finantzariok 2015eko lau hiruhilekoei buruzko datuak bidali dituzte eta lagin horren emaitzak erabili ditugu (lagina aldatu egiten da urtero, eta manufaktura-industriak du ordezkaritza txikiena bertan); enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 13,4 osatzen dute enpresa horiek.

**49. koadroa  Emaitzen kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)**

| OINARRIAK | Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala(*) | | |
|---|---|---|---|
| | I-IV 13/ I-IV 12 | I-IV 14/ I-IV 13 | I-IV 15/ I-IV 14 |
| Enpresen kopurua/Nazioko guztizko estaldura | 839/% 11,8 | 880/% 13,4 | 896/% 13,4 |
| 1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak sartuta) | -3,9 | -0,1 | -2,6 |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak | -3,3 | 1,8 | -2,4 |
| 2. Bitarteko kontsumoak (zergak sartuta) | -3,7 | -0,2 | -6,1 |
| Erosketa garbiak | -7,0 | 0,1 | -9,2 |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | 1,4 | 0,8 | 0,9 |
| S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2) | -4,3 | -0,0 | 5,6 |
| 3. Langile-gastuak | -1,7 | 0,9 | 2,3 |
| S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3) | -6,7 | -1,0 | 9,3 |
| 4. Diru-sarrera finantzarioak | 14,5 | -24,7 | -11,0 |
| 5. Finantza-gastuak | -0,7 | -7,7 | -9,4 |
| 6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak | -1,5 | -2,4 | -0,3 |
| S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 –5 –6) | 0,2 | -14,4 | 14,9 |
| 7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak | 35,1 | 96,6 | -- |
| 8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak | -0,5 | 43,7 | -88,1 |
| 9. Mozkinen gaineko zergak | -- | -- | 74,8 |
| S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9) | 192,9 | 137,1 | -41,3 |
| EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1) | 11,1 | 24,1 | 14,4 |
| ERRENTAGARRITASUNAK | | | |
| R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik) | 5,6 | 5,2 | 5,1 |
| R.2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideei dagokienez | 3,5 | 3,3 | 3,0 |
| R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik) | 7,5 | 6,8 | 6,6 |
| R.4. Errentagarritasunaren aldea – finantza-kostua (R.1. - R.2.) | 2,1 | 1,9 | 2,1 |

*(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.*
*Iturria: Espainiako Bankua.*

Ohiko emaitza garbia % 14,9 hazi da 2015ean. Ohiko soberakinak areagotu badira ere, errentagarritasun-maila erantsiek pixka bat behera egin dute aurreko urtearekin alderatuta; emaitza horrek, alabaina, enpresa handi batzuen bilakaeraren eragin garbia du, izan ere, diru-sarrera finantzarioen beherakadak enpresa horiek kaltetu ditu. Azterketa zehatzagoa egiten badugu, ikus dezakegu errentagarritasun-mailak hobetu egin direla gero eta enpresa gehiagotan, baita sektore gehienetan ere. Edonola ere, aktiboaren errentagarritasunaren eta batez besteko finantzaketa-kostuaren arteko aldea bi hamarren handitu da (% 2,1era arte), interes-tasen beherakadari esker.

Azkenik, ezohiko diru-sarrerek eta gastuek eragin negatiboa dute ekitaldiko emaitzetan. Zehazki, iaz, gure lagineko enpresek finantza-aktiboak saltzeko eragiketetan sortutako minusbalioak izan zituzten; hori aipagarria da, 2014an erregistratu ziren plusbalio garrantzitsuarekin alderatuta. Gainera, langileen doikuntzen ondoriozko gastuek ere eragin zieten lagin honetako konpainia handietako batzuei. Horren guztiaren ondorioz, azken emaitzak beherakada nabarmena erakusten du (% 41,3koa); izan ere, 2014an balio erantsiaren % 24,1 hartzen zuen, eta 2015ean % 14,4 besterik ez.

## 2. ENERGIA

2015. urtea Parisko Klimaren Goi Bileran eginiko akordio historiko batekin itxi zen. Akordio horrek xede zuen klima-aldaketari aurre egitea. Abenduaren 12an, Klima Aldaketari buruzko XXI. Biltzarraren (COP21) harira Parisen bilduriko 195 nazioek mundu-mailako protokolo bat ixtea lortu zuten lehen aldiz. Hala, akordio lotesle eta unibertsal bat lortu zuten, helburu komun honen aurrean indarrak bateratzeko: igorpen gutxiko etorkizuna lortzea. Protokolo berri horrek Kiotokoa ordeztuko du 2020tik aurrera, eta, hark ez bezala, ez dizkio $CO_2$ igorpenak murrizteko banakako helmugak ezarriko herrialde bakoitzari, baizik eta herrialde bakoitzari aukera emango dio klimaren arloan aurkeztu nahi dituen jarduketa-konpromisoak aurkezteko. 180 herrialde inguruk goi-bileran bertan aurkeztu zituzten berotegi-efektuko gasen igorpenak "lehenbailehen" murrizteko programak.

Badirudi "Parisko Akordio" handinahi horrek beharrezko osagai guztiak dituela berotze globalari 2 gradu zentigradutik behera eusteko. Horrez gain, akordioak % 100ean garbiak diren energietaranzko aldaketa ekarriko du. Horretarako, Klimarako Funts Berde bat du, urtean 100.000 milioi dolarrekoa. Herrialdeek 2020tik aurrera mobilizatuko dute funts hori, konpromisoak gorantz berrikusiz 5 urtez behin.

Kiotoko protokoloari dagokionez, bigarren konpromiso-aldiak (2013-2020) COP21aren helburu eta printzipio berak barne hartzen ditu; alabaina, urrats bat gehiago ezartzen du, parte hartzen duten herrialdeek (EB, Europako beste herrialde batzuk eta Australia) konpromisoa hartu baitute juridikoki lotesleak diren banakako helburuak lortzeko, berotegi-efektuko gas-igorpenen aurkako borrokan. Aldi horretan Dohako zuzenketa aplikatu da eta, horren bidez, herrialde parte-hartzaileek (garatutako 38 herrialde) beren igorpenak gutxienez % 18 murrizteko konpromisoa hartu dute, abiapuntu gisa 1990eko mailak hartuta. Nabarmendu behar da Kiotoko protokoloan parte hartzen ez duten herrialdeentzako betebeharrik ezartzen ez badu ere, garatutako eta garapen bidean dauden 70 herrialdek hainbat konpromiso ez-lotesle hartu dituztela, beren berotegi-efektuko gasen igorpenak murrizteko edo mugatzeko.

Hori esanda, eta EBko energia-politikari dagokionez, hauek dira oraindik ere bete nahi diren hiru helburu nagusiak: hornikuntzaren segurtasuna, lehiakortasuna eta iraunkortasuna. Horretarako, klimaren eta energiaren arloko 2030era arteko jarduketa-esparruaren baitan, EBk etorkizunean landu beharreko politikei buruzko eztabaidei ekitea proposatzen du, honako gai hauek kontuan hartuta, besteak beste:

- hemendik 2050era bitartean, berotegi-efektuko gasen igorpenak % 80-95 artean murriztea, 1990eko maila abiapuntutzat hartuta
- energiaren prezio altuak eta EBk etorkizuneko prezioen gorakadarekiko duen zaurgarritasun ekonomikoa (bereziki gasarena eta petrolioarena)
- EBren mendekotasuna energia-inportazioekiko (askotan politikoki ezegonkorrak diren eremuetatik datoz, gainera)
- energia-azpiegiturak ordezteko eta hobetzeko, eta inbertitzaile posibleentzat araudi-esparru egonkor bat ezartzeko beharra
- EBk 2030erako berotegi-efektuko gasen igorpenak murrizteko helburu bati buruzko akordio bat lortzeko beharra, klima-aldaketari buruzko beste nazioarteko akordio baterako hurrengo negoziazioetarako ekarpen gisa

Bestetik, aurreko urteetan bezala, 2008an EBk klima-aldaketaren eta energiaren alorrean erabakitako politika integratuak indarrean jarraitzen du, 2020rako asmo handiko helburu batzuk eta 2030erako eta 2050erako helburu berriak barne.

Hiru hauek dira 2020rako neurrien helburu nagusiak:

- Berotegi-efektuko gasen igorpenak % 20 murriztea, 1990eko mailak abiapuntu hartuta
- % 20 energia berriztagarriak izatea EBn
- Energia-eraginkortasuna % 20 hobetzea

Hiru hauek dira 2030erako funtsezko helburuak:

- Berotegi-efektuko gasen igorpenak gutxienez % 40 murriztea, 1990eko mailak abiapuntu hartuta
- Gutxienez energia berriztagarrien % 27ko kuota lortzea
- Energia-eraginkortasuna % 27 hobetzea
- % 15eko interkonexio elektrikoa lortzea

2050ari dagokionez, ekonomia hipokarbonikoranzko ibilbide-orriak hau ezartzen du:

- 2050rako, EBk bere igorpenak % 80-95 artean murriztu beharko ditu, 1990eko mailak abiapuntu hartuta
- Horretarako, lehenengo % 40 murriztea lortu beharko du 2030erako, eta % 60 2040rako

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa da sektore guztiek parte hartzea. Trantsizio hori, adituen arabera, bideragarria eta ekonomikoki gauzatzeko modukoa da.

Analisiarekin jarraituz, eta Estatuari dagokionez, badirudi Gobernuak sustatutako erreforma energetikoak bere helburua lortu duela: defizit elektrikoa, hau da, kostuen eta erregulatutako tarifaren bidez lortutako diru-sarreren arteko aldea moteltzea. Elkarren segidako 14 urtez defizita sortu ondoren, 2014an emaitza positiboa izan da lehen aldiz; izan ere, sistema elektrikoak 550 milioi euroko superabita izan du. Badirudi 2015ean ere sistema elektrikoak superabita izango duela (datuak itxi gabe daude oraindik), eta, aurreikus daitekeenez, 900 milioi inguruko balioetara helduko da. Dena den, horren ondorio logikoa badirudi ere, ez da aurreikusten argiaren prezioa jaitsiko denik konpainia elektrikoen bezeroentzat. Hori Lege Elektrikoaren ondorio da; izan ere, Lege horrek, diru-sarreren desdoitze jakin batetik aurrera ordainketak automatikoki igotzeko mekanismo bat ezartzen badu ere, ez du prezioen murrizketarik ezartzen superabit kasuetarako, helburu gisa baitu sektorearen zor historikoa estaltzea. Ildo horretan, eta CNMCk (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala) argitaratutako informazioaren arabera, sistema elektrikoaren zorra 25.056 milioi eurotan zegoen 2015eko abenduaren 31n. Horrek esan nahi du 1.890 milioi euro murriztu dela (% 7 gutxiago) 2014tik (26.946,3 milioi euro).

Horrez gain, erreforma energetikoaren kaltea jasan duen beste sektoreetako bat energia berriztagarriena izan da. Oraindik ere neurrien “bidegabekeriaren” zalantzarik balego, Auzitegi Gorenak, 2016ko ekainean, energia berriztagarriei ezarritako 1.700 milioi euroko murrizketa babestu zuen, oinarri hartuta instalazio horien ordainketa-erregimen berria arautzen duen 2014ko errege-dekretua konstituzionala dela eta Erkidegoko zuzenbideari jarraitzen diola. Beraz, Auzitegi Gorenak arrazoia eman dio Gobernuari eta atzera bota ditu hiru ekoizle hauek aurkeztutako errekurtsoak: Ingeniería Civil, Alternativa y Medioambiental (Incam), Renovables Samca, eta, azkenik, Llerena Solar, Temcli eta Powersol 2007. Energia berriztagarrien egoera horrek aurrekaririk gabeko krisia sortu du, eta sektoreak honako gertakari hauen ondorioei aurre egin behar die orain: batetik, energia berriztagarriek erreformaren aurretik jasotzen zituzten primak kentzea; eta, bestetik, inbertitzaile posibleek ihes egitea. APPAren arabera (Energia Berriztagarrien Enpresen Elkartea), sektoreak 2.000 milioi euro inguruko murrizketak jasan ditu bere ordainketetan, 2015eko datuak soilik kontuan hartuta. Nabarmendu behar da energia berriztagarriek rol esanguratsua dutela Estatuko ekoizpenean, ekoiztutako elektrizitate guztiaren % 36,3 beren gain hartzen baitute.

## 2.1 EAE-KO ENERGIA-BALANTZEA

EAEren energia-balantzea Eurostat metodologiari jarraikiz kalkulatzen da, eta energia mota guztien jarraipen zehatza erakusten du, jatorrizko erauzketa edo inportazioarekin hasi eta eraldaketa eta kontsumoarekin buka. Hala, balantzea bi ataletan zatitzen da. Lehen atalean (1.-5. puntuak) iturri primarioen energia-hornidura jaso da, bai erauzketa bidez lortutakoa (1. Energia primarioaren produkzioa) bai inportatutakoa (2. Guztizko sarrerak). Zenbateko horien guztizkoa (izakinen mugimenduarengatik (3), esportazioengatik (4) eta itsas garraioarengatik (5) doituta) bat dator barne kontsumorako erabilgarri dagoen zenbatekoarekin (6. puntua = 1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren zatiak energiaren eraldaketa-prozesuei eta azken kontsumorako erabilgarri dagoen energiari (12 = 6-7+8+9-10-11) egiten die erreferentzia (konbertsio-prozesuen (7 eta 8), elkartrukeen (9), energia-sektorearen beraren kontsumoaren (10) eta galeren (11) ondoren). Kontsumorako erabilgarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren lortuko dugu azken kontsumo energetikoa (14).

**50. koadroa EAEko energia-balantzea, 2014**

*(m ptb)*

| Sektorea | Ikatza eta deribatuak | Petrolioa eta deribatuak | Gas naturala | Energia deribatuak | Energia berriztagarriak | Energia elektrikoa | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Energia primarioaren produkzioa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 25,1 | 390,1 | 0,0 | 415,2 |
| 2. Guztizko sarrerak | 22,8 | 8.110,6 | 1.426,1 | 0,0 | 86,0 | 852,0 | 10.497,5 |
| 3. Stocken mugimendua | 0,0 | 137,7 | -123,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 14,0 |
| 4. Guztizko irteerak | -22,0 | 5.641,1 | -899,2 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 4.719,9 |
| 5. Bunkerrak (itsas garraioa) | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| *6. Barne-kontsumo gordinerako erabilgarria | 44,8 | 2.607,2 | 2.201,6 | 25,1 | 476,052 | 852,0 | 6.206,8 |
| 7. Eraldatzen ari diren sarrerak | 0,0 | 8.913,4 | 805,6 | 9,8 | 104,7 | 0,0 | 9.833,4 |
| 7.1 Zentral termoelektrikoak | 0,0 | 0,0 | 563,0 | 0,0 | 26,0 | 0,0 | 589,0 |
| 7.2 Kogenerazioa | 0,0 | 5,2 | 242,7 | 9,8 | 78,6 | 0,0 | 336,3 |
| 7.3 Koke-fabrikak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| 7.4 Findegiak | 0,0 | 8.908,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 8.908,1 |
| 8. Eraldatze-irteerak | 0,0 | 8.727,1 | 0,0 | 0,5 | 0,0 | 483,3 | 9.210,9 |
| 8.1 Zentral termoelektrikoak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 297,1 | 297,1 |
| 8.2 Kogenerazioa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 0,0 | 186,1 | 186,6 |
| 8.3 Koke-fabrikak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| 8.4 Findegiak | 0,0 | 8.727,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 8.727,1 |
| 9. Trukeak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | -69,5 | 69,5 | 0,0 |
| 10. Energia-sektorearen kontsumoa | 0,0 | 265,4 | 71,0 | 0,0 | 0,0 | 79,7 | 416,1 |
| 11. Garraio- eta banaketa-galerak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 46,1 | 46,1 |
| **12. Azken kontsumorako erabilgarria | 44,8 | 2.155,6 | 1.324,9 | 15,8 | 301,9 | 1.279,0 | 5.122,1 |
| 13. Azken kontsumo ez-energetikoa | 0,0 | 138,9 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 138,9 |
| ***14 Azken kontsumo energetikoa | 44,8 | 2.016,8 | 1.324,9 | 15,8 | 301,9 | 1.279,0 | 4.983,2 |

** 6=1+2+3-4-5*
*** 12=6-7+8+9-10-11*
****14=12-13*
*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).*

EEEk (Energiaren Euskal Erakundea) eskainitako EAEko energia-balantzearen arabera, 2014ko ekitaldian ez dugu aldaketa handirik ikusten azken energia-kontsumoan 2013 urtearekin alderatuta. Zehazki, % 1,3ko desbideratze negatiboarekin (-% 1,3 2013an), azken energia-kontsumoa 4.983,2 mila ptb-koa izan da (5.048,3 mila ptb 2013an). Barne-kontsumo gordinak ere beheranzko bilakaera erakutsi du (–% 2,5), 2013an 6.366,5 mila ptb izatetik 2014an 6.206,8 mila ptb izatera jaitsi baita.

Informazioan sakonduz, eta energia motari dagokionez, energia-kontsumoaren maparen konfigurazioak aldaketa gutxi izan ditu azken ekitaldian. Kontsumoan nagusi izaten jarraitzen dute, alde batetik, petrolioa eta deribatuak, % 40,5ko pisu espezifikoarekin eta % 0,6ko hazkunde txikiarekin, eta bestetik, gas naturala, 2013an guztizkoaren % 28,1 izatetik 2014an % 26,6 izatera pasa delarik % 6,6ko hazkundea erregistratu ondoren. Energia elektrikoa % 25,7ko parte-hartzea izanik, 2013 urteko balio antzekoetan mantentzen da. Energia berriztagarriek, aldiz, taldeko bilakaera positiboena erregistratu dute % 10,6ko hazkundearekin eta 2013an % 5,4 suposatzetik 2014an % 6,1 suposatzera pasa dira. Ikatzak eta deribatuek eta energia deribatuek pasa den ekitaldiko pisu espezifikoak mantentzen dituzte, hau da, % 0,9 eta % 0,3, hurenez hurren, baina kontrako portaerak izan dituzte: ikatzak eta deribatuek % 4,9ko beherakada izan dute eta energia deribatuen kontsukoak, berriz, % 7,5eko hazkundea erregistratu du.. Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea azken energia-kontsumoa 5.000 mila ptb-en azpitik kokatzen dela urte asko eta gero lehen aldiz.

**51. koadroa Azken kontsumoa EAEn, energia motaren arabera**

*(m ptb)*

| Sektorea | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | % ∆ 14/13 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ikatza eta deribatuak | 59,2 | 51,4 | 47,1 | 44,8 | -4,9 |
| Petrolioa eta deribatuak | 1.900,5 | 2.016,9 | 2.003,8 | 2.016,8 | 0,6 |
| Gas naturala | 1.302,3 | 1.444,6 | 1.418,0 | 1.324,9 | -6,6 |
| Energia deribatuak | 142,7 | 0,5 | 14,7 | 15,8 | 7,5 |
| Energia berriztagarriak | 315,2 | 302,5 | 272,8 | 301,9 | 10,6 |
| Energia elektrikoa | 1.419,6 | 1.316,5 | 1.291,9 | 1.279,0 | -1,0 |
| **Guztizkoa** | **5.139,6** | **5.132,4** | **5.048,3** | **4.983,2** | **-1,3** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

**5. grafikoa Azken kontsumoa EAEn, energia motaren arabera (m ptb)**




*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE).*

**52. koadroa Azken kontsumoa EAEn, sektoreen arabera**

*(m ptb)*

| Sektorea | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | % ∆ 14/13 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 82,2 | 82,5 | 78,0 | 69,4 | -11,0 |
| Industria | 2.308,3 | 2.169,2 | 2.102,2 | 2.074,1 | -1,3 |
| Garraioa | 1.738,7 | 1.822,4 | 1.846,9 | 1.862,1 | 0,8 |
| Zerbitzuak | 444,0 | 457,1 | 438,7 | 427,8 | -2,5 |
| Bizitegia | 566,4 | 601,3 | 582,4 | 549,9 | -5,6 |
| **Guztizkoa** | **5.139,6** | **5.132,5** | **5.048,3** | **4.983,2** | **-1,3** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

Azterketan sakonduz sektore-ikuspegitik begiratuta, beste urte batez industriak eta garraio-sektoreak kontsumoaren zati handiena berenganatu dute (% 79). 2014an, industriak, % 41,6ko parte-hartzearekin, kontsumoan -% 1,3 behera egin duen bitartean, garraioak, % 0,8ko igoera txikia izan du, aurreko ekitaldiko bilakaera errepikatuz. Gauzak horrela, pisu espezifiko baxuagoak izanik, zerbitzu-sektoreak (% 8,6) eta bizitegitarakoak (% 11) beheranzko bilakaera izan dute (-% 2,5 eta -% 5,6, hurrenez hurren). Azkenik, lehen sektoreak taldearen bilakaerarik txarrena izan du berriz ere, kontsumoan % 11 beherakadarekin eta 2013ko beherakada bikoiztuz (–% 5,5), gainerako sektoreek baino askoz ere pisu espezifiko txikiagoa izanik (% 1,4).

Aurreko txostenetan adierazi dugunez, 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak datozen urteetako (2016-2030 aldirako) euskal energia-politika zehaztuko du. EEEk argitaratutako informazioaren arabera, Estrategia hori epe luzeagorako ikuspegi baten barnean sartzen da, gero eta energia-sistema iraunkorragoa lortzeko asmoz, honako alderdi hauei dagokienez: lehiakortasuna, hornikuntzaren segurtasuna eta karbono gutxi.

Beraz, hauek dira, zehatzago esanda, 2030erako ezarritako helburuak:

- Urtean 1.250.000 ptb aurreztea energia primarioan 2016-2030 aldian; horrek % 17ko aurrezkia ekarriko luke 2030ean, eta aldi horretan intentsitate energetikoa % 33 hobetuko litzateke.
- Energia berriztagarrien aprobetxamendua % 126 sendotzea, 2030. urtean 966.000 ptb lortzeko, horrek berekin ekarriko lukeelako berriztagarriek azken kontsumoaren % 21eko kuota izatea.
- Euskal administrazio publikoaren ereduzko konpromisoa sustatzea, horrek bere instalazioetako energia-kontsumoa % 25 murriztea ahalbidetu baitu 10 urtetan, eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak ezartzea administrazioen eraikinetako % 25etan. Horrez gain, ibilgailu alternatiboak erabili beharko dituzte ibilgailuen parkeetan eta zerbitzu publikorako flotetan.
- Energia alternatiboen % 25eko kuotara iristea errepide bidezko garraioan, eta garrantzia ematea petrolioarekiko pixkanakako desloturari eta ibilgailu iraunkorragoen erabilerari.
- Kogenerazioak eta berriztagarriek elektrizitatea sortzean duten partaidetza handitzea, 2015ean % 20 izatetik 2030ean % 40 izatera igarotzeko.
- Euskal enpresen, zentro teknologikoen eta zientzia-eragileen sarearen lehiakortasuna sendotzea, ikerketarako, garapen teknologikorako eta industria-garapenerako lehentasunezko 9 arlo sustatuz energiaren esparruan, bat etorriz Euskadiko espezializazio adimendunerako RIS3 estrategiarekin.
- Klima-aldaketa arintzen laguntzea, neurri energetikoen bidez urtean berotegi-efektuko gasen 3 Mt murriztuz. Horrek BEGen energia-emisioak % 35 murriztea ekarriko du, 2005ekin alderatuta.

## 2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Energia elektrikoari dagokionez, eta Unesak (Industria Elektrikoaren Espainiako Elkartea) argitaratutako behin-behineko datuen arabera, 2015ean pixka bat gora egin du energia-kontsumoak (% 1,7). Gorazko bilakaera horrek eten egin du duela urte batzuetatik hona egon den joera negatiboa, eta Estatuko guztizko kontsumoa 237.443 milioi kWh-koa



LABORAL kutxa

izatea ekarri du. Ekoizpenari dagokionez, bilakaera ez da ia nabaritu ere egiten 2014arekin alderatuta, eta urtetik urterako aldakuntza-tasa % 0,4koa besterik ez da. Hala, guztizko ekoizpen gordina 281.150 milioi kWh-koa izan da. Eskualdeei dagokienez, eta, zehatzago, Euskal Herriko egoera aztertuz, antzekotasun handiak ikusi dira kontsumoaren bilakaerari dagokionez, ez ordea ekoizpenaren atalean. Nazio-mailan % 1,7ko hazkundea erregistratu da kontsumoan, eta Euskal Herrian ia gorakada bera egon da (% 1,6), guztira 7.707,5 milioi kWh-ra iritsiz. Ekoizpenari dagokionez, Euskal Herriko bilakaera nabarmendu behar da (% 11,2) Estatuko geldialdiaren alboan, bere gain hartzen baitu 1.126,2 milioi kWh-ko ekoizpena guztira.

Estatu-mailako informazioarekin jarraituz, eta kontuan hartuta Unesak argitaratutako energia elektrikoaren balantzea, 2015ean kontsumo garbia 237.443 milioi kWh-koa izan da. Ekoizpen gordinetik (281.150 milioi kWh) kontsumo propioak (12.223 milioi kWh), ponpaketa-kontsumoak (4.520 milioi kWh), nazioarteko saldoa (-133 milioi kWh) eta garraio- eta banaketa-galerak (26.831 milioi kWh) kentzearen emaitza da kontsumo hori.

Ekoizpenaren egiturari dagokionez, berriz, 2015ean ohiko erregimenak bere gain hartzen du ekoizpen gordin osoaren % 63, eta esparru horretan potentzia termoelektrikoa nabarmendu behar da; izan ere, urtetik urterako % 18,6ko hazkundea izan du eta guztizkoan izan duen partaidetza % 53koa da (2014an % 46). Bilakaera positibo hori ahalbidetu dute ekoizpen termoelektrikoa osatzen duten hiru energia-iturriek, eta, gainera, garrantzi handienekoek izan dute bilakaera onena. Zehatzago esanda, lehen postuan ikatza dugu (% 60,3ko partaidetza eta % 21,5eko gorakada), bigarrenean ziklo konbinatuak (% 32,3, eta % 17,4ko hazkundea) eta, azkenik, fuel-gasa (% 7,4 eta % 3,7ko ekoizpen-gorakada). Ekoizpen nuklearrari dagokionez, aurreko ekitaldiko balioen antzekoetan dago (-% 0,3), bere gain hartzen baitu ohiko erregimeneko ekoizpenaren heren bat. Ohiko erregimeneko ekoizpenarekin amaitzeko, ekoizpen hidroelektrikoa da bilakaerarik okerrena izan duena; izan ere, bere jarduera nabarmen murriztu da (-% 28,7) eta, ondorioz, urte hau hidraulikotasun txikikoa izan da. Hain zuzen ere, ekoizpen hidroelektrikoaren garrantzi espezifikoa 7 portzentaje-puntu murriztu da (2015ean % 17 eta 2014an % 21). Dena dela, ohiko erregimeneko ekoizpenak (176.449 milioi kWh) bilakaera positiboa izan du (% 2,4), 2014ko joera positiboari bere horretan eutsiz.

Ordainketa Erregimen Espezifikoaren ekoizpen-jarduera berriz, 104.701 milioi kWh-rekin eta % 37ko garrantzi erlatiboarekin, % 2,9 murriztu da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Berriztagarriek eta hondakinek, jardueraren gehiengoa hartzen dute beren gain (% 75), eta beren ekoizpena beherantz doitu dute (-% 5,5). Aldi berean, kogenerazioaren eta hondakinen tratamenduaren ekoizpen-mailak hobetu dituzte (% 4,8). Zehatzago esanda,

energia berriztagarrien artean energia eolikoa da nagusi garrantziari dagokionez (guztira ekoitzitakoaren % 17,4), baina ez bilakaerari dagokionez, haren ekoizpenak pixka bat behera egin baitu 2014. urtetik (-% 5,8). Eguzki-energiak eta gainerako berriztagarriek, gorakadak izan badituzte ere, ekoizpen txikiagoa izaten jarraitzen dute (% 5 inguru bi kasuetan).

Laburbilduz, hau da 2015eko ekoizpenaren egitura: energia nuklearrak guztizko ekoizpen gordinaren % 20,3 hartzen du, eta ikatzak % 20,1. Bi horiek estatu-mailako sorkuntza elektrikoaren lehenengo eta bigarren iturriak dira. Atzetik dituzte, garrantziari dagokionez, energia eolikoa (% 17,4), ziklo konbinatua (% 10,8), kogenerazioa eta hondakinen tratamendua (% 10) eta, azkenik, hidroelektrikoa (% 9,1). Azkenik, bolumen txikiagoarekin ditugu eguzki-energia (% 4,9) eta gainerako berriztagarriak (% 4,9), eta, ekoizpen-egitura osatzeko, fuel-gasa (% 2,5eko partaidetzarekin).

Analisi hori bera egiten badugu Euskal Herrian, Iberdrolak emandako informazioaren arabera, euskal sektore elektrikoko ekoizpen-mailek pixka bat gora egin dute 2015ean (% 11,2ko gorakada). Alabaina, argitu behar da urtetik urterako aldakuntza 2014ko balioak oinarri hartuta egiten dela, eta balio horiek 2008tik erregistratu diren baxuenak direla. Hori esanda, energia motaren araberako ekoizpenaren osaerari dagokionez, kogenerazioa dago lehen postuan, % 24,9ko gorakadarekin (bere gain hartzen du ekoizpen osoaren % 38,9), eta atzetik du energia hidraulikoa (% 9,5eko gorakada eta % 31,2ko partaidetza). Testuinguru horretan, energia eolikoaren ekoizpen-jarduerak behera egin du pixka bat 2015ean (-% 0,7), eta % 29ko garrantzi erlatiboa lortu du. Energia mini-hidraulikoak, aldiz, beherakada handiagoa izan du (-% 14,6), guztizko ekoizpen elektrikoaren % 0,9 bakarrik hartuz bere gain.

**53. koadroa Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian**

*(M kWh)*

| Urtea | Guztizko ekoizpena: Hidraulikoa 1 | Termikoa 2 | Eolikoa 3 | Mini hidraulikoa 4 | Kogenerazioa 5 | Guztira: (1+2+3+4+5) 6 | Guztizko kontsumoa 7 | Autogenerazioa % -tan (6/7) x 100 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2009 | 279,9 | 4.560,6 | 324,1 | 11,2 | 276,0 | 5.451,9 | 20.313,2 | 26,83 |
| 2010 | 331,8 | 2.578,0 | 342,7 | 15,2 | 408,3 | 3.675,9 | 21.428,4 | 17,15 |
| 2011 | 235,6 | 1.310,6 | 334,6 | 11,5 | 451,7 | 2.344,0 | 21.064,5 | 11,13 |
| 2012 | 264,6 | 1.922,9 | 323,2 | 11,8 | 443,5 | 2.966,1 | 19.698,9 | 15,06 |
| 2013 | 477,5 | 745,6 | 336,6 | 13,1 | 435,9 | 2.008,7 | 8.409,8 | 23,88 |
| 2014 | 320,9 | 0 | 328,5 | 12,4 | 350,7 | 1.012,5 | 7.583,7 | 13,35 |
| 2015 | 351,3 | 0 | 326,2 | 10,5 | 438,0 | 1.126,2 | 7.707,5 | 14,61 |

*Iturria: Iberdrola. Geuk egina.*

Kontsumoari dagokionez, azken urteetako beheranzko joera hautsiz, gorakada txiki bat egon da guztizko kontsumoan, % 1,6koa. Beraz, 2015ean, energia elektrikoaren kontsumoa 7.707,5 milioi kWh-ra iritsi da; 2010ean erregistratutakoaren herena besterik ez. Hala ere, autogenerazio-tasa % 14,61ekoa da; alegia, 2014an erregistratukoa baino altuxeagoa (% 13,35).

**54. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera**

*(M kWh)*

| Lurraldea | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 2.547,6 | 1.126,5 | 972,1 | 1.062,8 | 9,3 |
| Bizkaia | 6.943,6 | 1.997,0 | 3.016,7 | 2.794,8 | -7,4 |
| Gipuzkoa | 5.847,7 | 3.161,1 | 1.905,0 | 2.032,1 | 6,7 |
| EAE | 15.338,9 | 6.284,6 | 5.893,9 | 5.889,7 | -0,1 |
| Nafarroa | 4.360,0 | 2.125,2 | 1.689,8 | 1.817,7 | 7,6 |
| Euskal Herria (1) | 19.698,9 | 8.409,8 | 7.583,7 | 7.707,4 | 1,6 |
| Espainia (2) | 245.876,0 | 236.225,0 | 233.392 | 237.443,0(*) | 1,7 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*(1): Fakturatutako energia elektrikoa. Iberdrolaz aparteko banatzaileak ez dira aintzat hartu, ezta Iberdrolaren kontsumo propioa ere.*
*(2): Energia elektrikoaren kontsumo garbia.*
*Iturria: Iberdrola eta Unesa.*

Kontsumo-datuak sakonago aztertuz, 2015ean urtetik urterako aldakuntzak desberdinak izan dira lurraldeen artean. Ekitaldi honetan, aztergai ditugun 4 lurraldeetako 3k hobetu egin dituzte 2014ko balioak, eta Bizkaia izan da behera egin duen bakarra. Zehatzago esanda, Bizkaiaren garrantzi espezifikoa % 40 ingurukoa da, eta bertako kontsumoak % 7,4 inguru egin du behera. Gipuzkoa da barneratze handieneko lurraldea (% 25,1), eta bilakaera positiboa izan du, % 7 inguruko hazkundearekin. Nafarroak Gipuzkoaren antzeko portaera izan du; bertako kontsumo-mailak % 7,6 areagotu dira, eta % 22,3ko partaidetza izan du guztizkoan. Azkenik, Arabak, partaidetza txikiagoa izan du (% 12,8), baina taldeko bilakaerarik onena (% 9,3).

Kapituluaren ondorio gisa, 170 urte baino gehiagoko ibilbidea duen Iberdrola taldearen 2014ko zifra nagusiak ikus daitezke.

Enpresak argitaratutako informazioaren arabera, 2015ean Iberdrola taldeak (mundu guztian 360.000 langile baino gehiago ditu) 2.422 milioi euroko irabazi garbia lortu du (2014an baino % 4,1 gehiago) eta 7.306 milioi euroko EBITDA (% 4,9 gehiago). Emaitza on horiek 2014-2016 aldirako aurreikuspenetan ezarritako helburuak urtebete lehenago erdiestea ahalbidetu dute, eta taldearen negozio guztiek, oro har, izan duten bilakaera positiboaren eta, zehazki, berriztagarrien bilakaera positiboaren ondorio izan dira; izan ere, azken horien EBITDA % 18,6 areagotu da, 1.572,3 milioi eurora iritsi arte.

Euskal Herrian, Iberdrolak 1.520 milioi euroko eragin ekonomikoa izan zuen 2015ean, 560 milioi euroko erosketak egin baitzizkien Euskal Herriko 650 enpresa hornitzaile baino gehiagori. Enpresak 87 milioi euro inguru inbertitu zituen Euskal Herriko zenbait proiektutan eta, horrez gain, 2.100 langile inguru ditu lurralde horretan.

Etorkizunari dagokionez, Iberdrola taldeak 2016an bere EBITDA areagotzea aurreikusten du bai Sareetan bai Sorkuntza eta Merkataritzan. Horrez gain, egungo EBITDAri eutsi edo hura areagotu egin nahi du berriztagarrien arloan, haien irabazi garbia areagotuz. Bestalde, 2016. eta 2020. urteen artean 24.000 milioi euro inbertituko dituela iragarri du. Horietatik % 88 araututako jardueretara edo epe luzerako kontratuetara bideratuko ditu, eta bere emaitzak urtean batez beste % 6 haziko direla aurreikusten du.

# 3. SIDERURGIA

## 3.1 EGOERA OROKORRA

Munduko ekonomia garai zailetan badago ere, etorkizunean altzairuaren industria haztea espero da; izan ere, material hori beharrezkoa da egungo gizarterako, erresistentzia, egokitzeko gaitasun, malgutasun eta iraunkortasun handia dituelako. Horrez gain, kontuan hartu behar da munduko biztanleriak gora egitea aurreikusten dela, altzairuarentzako aplikazio berriak sortuko direla eta merkatu berriak garatuko direla.

Orain arte, siderurgiaren sektorearen erronka nagusienetako bat altzairua egitean ahalik eta karbono-emisio gutxien sortzea izan da; alabaina, etorkizunera begira beste erronka bat sortu da: altzairuak aplikazioetan duen balioa hobetzea. Horrenbestez, produktuen diseinuak eta fabrikazioak ahalbidetu behar du horiek konpontzea, aurrefabrikatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea.

Aipatu behar da azken urteetan kezka sortzen duela gehiegizko ahalmenak eta, ildo horretan, World Steel Associationek dioen moduan, "gehiegizko ahalmena mundu-mailako arazoa denez, mundu-mailako konponbidea behar du; egitura-doikuntzak egin behar dira. Egiturak berregiteko prozesua industria bera bezain zaharra da, eta gobernuek industria-politika egoki bat garatzea eskatzen du, industriarekin lankidetzan".

Hori guztia kontuan hartuta, eta nazioartean bizi dugun testuinguru ekonomiko zail honetan, gero eta garrantzitsuagotzat jotzen da politikak ezartzea, baldintzen berdintasuna bermatzeko. Hartara, eskualde jakin batzuetako altzairu-enpresak ez dira desabantailan egongo beste eskualde batzuetatik datozen altzairu-fabrikatzaileen edo lehia gisa dituzten gainerako materialen ondoan.

Horri horrela, eta World Steel Associationek argitaratutako azken datuen arabera, altzairuaren mundu-mailako ekoizpen gordina 1.621 milioi tonatara iritsi zen 2015ean, eta altzairu-kontsumoa 1.500,1 milioi tonatara; alegia, bi datuek behera egin zuten 2014. urtearekin alderatuta (% 2,9 eta % 3, hurrenez hurren).

Nazioarteko merkatu nagusien bilakaerak kontuan hartuta, aipatu behar da herrialde gehienek behera egin dutela altzairuaren ekoizpenari dagokionez. Hala, garatutako herrialdeetako altzairuaren guztizko ekoizpena 376 milioi tonakoa izan da urte-amaieran; hortaz, urtetik urterako % 5,3ko beherakada izan du, herrialde hauetako merkatuen beherakadaren ondorioz: AEB (-% 10,5), Kanada (-% 2,2), Japonia (-% 5) eta EB-28 (-% 1,8). Garapen bidean dauden Latinoamerikako eta Asiako herrialdeetako

beherakadak % 2 baino pixka bat gehiagokoak izan dira, Txinako merkatuan gertatu den moduan. Azken hori, Txina, munduko altzairu-ekoizle nagusia da (guztizkoaren % 49,6).

Europako merkatuetan, Espainia izan da ekoizpena berreskuratu duen herrialde bakarretakoa (+% 4,2); herrialde hauetan, aldiz, altzairu-ekoizpenak behera egin du: Alemania (-% 0,5), Italia (-% 7,2), Frantzia (-% 6,8) eta Erresuma Batua (-% 9,9), besteak beste.

**55. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena**

| Herrialdea | 2014 | | | 2015 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | ∆ % | % | M Tm | ∆ % | % |
| AEB eta Kanada | 100,9 | 1,6 | 6,0 | 91,3 | -9,5 | 5,6 |
| Japonia | 110,7 | 0,1 | 6,6 | 105,2 | -5,0 | 6,5 |
| Txina | 822,8 | 0,1 | 49,3 | 803,8 | -2,3 | 49,6 |
| India | 87,3 | 7,4 | 5,2 | 89,4 | 2,4 | 5,5 |
| Alemania | 42,9 | 0,7 | 2,6 | 42,7 | -0,5 | 2,6 |
| Italia | 23,7 | -1,7 | 1,4 | 22 | -7,2 | 1,4 |
| Frantzia | 16,1 | 2,5 | 1,0 | 15 | -6,8 | 0,9 |
| Erresuma Batua | 12,1 | 1,7 | 0,7 | 10,9 | -9,9 | 0,7 |
| Espainia | 14,2 | -0,7 | 0,9 | 14,8 | 4,2 | 0,9 |
| EB-28 | 169,3 | 1,8 | 10,1 | 166,2 | -1,8 | 10,3 |
| **Mundu osoa** | **1.669,9** | **1,3** | **100,0** | **1.620,9** | **-2,9** | **100,0** |

*Iturria: World Steel Association (lehen IISI).*

Jardueraren bilakaeraren ondorio gisa, Ipar Amerikak, Japoniak eta EB-28k osatutako ekonomia aurreratuen multzoak munduko ekoizpenaren laurden bat baino gutxixeago hartzen du (% 23,1), eta Mendebaldeko Europako agregatua ez da hamarrenera ere iristen (% 7,6). Garapen bidean dauden ekonomiek, aldiz, munduko altzairu-ekoizpen osoaren % 69,3 hartzen dute.



LABORAL kutxa

**6. grafikoa Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena**




*Iturria: World Steel Association.*

Munduko altzairu-kontsumoak askotariko bilakaerak izan ditu 2015ean; guztira 1.500 milioi tona kontsumitu dira, alegia, urtetik urterako datuek % 3 egin dute atzera. Hazkunde nabarmenenak herrialde hauei dagozkie: Espainia (% 9,5), Italia (% 8,6) eta India (% 4,5). Beste hauek, aldiz, behera egin dute altzairu-kontsumoari dagokionez: AEB eta Kanada (-% 11,1), Japonia (-% 7,1) eta Txina (-% 5,4).

**56. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa**

| | 2014 | | | 2015 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | ∆ % | % | M Tm | ∆ % | % |
| AEB eta Kanada | 123,9 | 12,8 | 8,0 | 110,2 | -11,1 | 7,3 |
| Japonia | 67,7 | 3,8 | 4,4 | 62,9 | -7,1 | 4,2 |
| Txina | 710,8 | -3,3 | 45,9 | 672,3 | -5,4 | 44,8 |
| India | 76,1 | 3,3 | 4,9 | 79,5 | 4,5 | 5,3 |
| Alemania | 39,6 | 4,2 | 2,6 | 39,0 | -1,5 | 2,6 |
| Italia | 22,0 | 0,0 | 1,4 | 23,9 | 8,6 | 1,6 |
| Frantzia | 12,5 | -0,8 | 0,8 | 12,5 | 0,0 | 0,8 |
| Erresuma Batua | 10,7 | 11,5 | 0,7 | 10,5 | -1,9 | 0,7 |
| Espainia | 11,6 | 8,4 | 0,7 | 12,7 | 9,5 | 0,8 |
| EB-28 | 149,1 | 5,0 | 9,6 | 153,3 | 2,8 | 10,2 |
| **Mundu osoa** | **1.546,9** | **0,8** | **100,0** | **1.500,1** | **-3,0** | **100,0** |

*Iturria: World Steel Association.*

## 3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Siderurgia-produktuen prezioen beherakadaren ondorioz (petrolioarena eta burdinazko mineralarena nabarmendu behar dira), 2015. urtea zaila izan da Espainiako siderurgiarentzat. Txinako eta garapen bidean dauden beste herrialde batzuetako ekonomiak hozteak ere eragina izan dute sektorean, inbertsioak murriztu egin baitira.

Dena dela, emaitzak krisialdiaren aurreko urteetakoak baino okerragoak izan badira ere, azken urtean hobera egin dute aztertutako sektoreko ia magnitude guztiek. Zehazki, altzairuaren ageriko kontsumoak % 8,5eko gorakada izan du 2014ko zifrekin alderatuta, eta altzairu-ekoizpena % 4,3 hazi da aldi berean. Kanpo-merkataritzari dagokionez, Espainiako siderurgia-enpresen inportazioak % 8,1 hazi dira azken urtean, eta esportazioak % 3,4 murriztu dira.

**57. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak***

*(mila Tm)*

| Urtea | Ekoizpena | Esportazioa | Inportazioa | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2008 | 18.640 | 9.249 | 11.649 | 18.095 |
| 2009 | 14.362 | 8.115 | 6.921 | 11.945 |
| 2010 | 16.342 | 9.696 | 8.689 | 13.344 |
| 2011 | 15.556 | 9.875 | 8.870 | 11.211 |
| 2012 | 13.639 | 9.803 | 7.802 | 9.048 |
| 2013 | 14.252 | 9.875 | 7.605 | 9.540 |
| 2014 | 14.249 | 9.969 | 8.307 | 9.860 |
| 2015 | 14.857 | 9.630 | 8.976 | 10.702 |

*(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza siderurgia-produktu guztiei.*

*Iturria: Unesid.*

Datu absolutuetan, altzairuaren ageriko kontsumoa 10.000 mila tonatik igaro da (ez du halakorik lortu 2011tik), 2015ean 10.702 mila tonara arte iritsiz. Bestalde, altzairu-ekoizpena 14.857 mila tonakoa izan da azken urtean. 2014. urtearekin alderatuta gora egin badu ere, emaitza urrun dago oraindik 2008an lortutako zifretatik; urte hartan, bai altzairuaren ekoizpena bai kontsumoa 18.000 mila tonatik gorakoak izan ziren. Esportazioek, berriz, 9.630 mila tona egin dute gora, eta inportazioek 8.976 mila tona.

**7. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak**




*Iturria: Unesid.*

Enpleguari dagokionez, 2015ean Espainiako siderurgia-sektoreak enplegua galdu du berriz ere, baina beherakada aurreko urteetan baino arinagoa izan da. Aipatu behar da azken urteetan sektoreko enpresek zenbait doikuntza egin behar izan dituztela, eta horrek eragina izan duela enpleguan, aldi baterako erregulazioak egin behar izan baitituzte. Hala ere, siderurgia-sektoreak 22.364 langileri eman die lana zuzenean; horrek esan nahi du % 2,2ko beherakada egon dela azken urtean (495 enplegu gutxiago datu absolutuetan).

Amaitzeko, inportatutako lehengai nagusien bilakaerari dagokionez, aztertutako hiruren kontsumoa areagotu egin da azken urtean. Hala, burdin mearen eta pelleten kontsumoak izan du gorakada handiena (% 11,9), eta, atzetik, koke bihur daitekeen harrikatzak (% 5,4) eta txatarrak (% 3,9). Kontsumoak gora egin badu ere, prezioak behera egin du hiru kasuetan. Zehazki, burdin meak eta pelletak % 31,5 egin dute behera, 51 euro/Tm-ra arte; txatarraren prezioak % 11,1 egin du behera eta 293 euro/Tm-n geratu da; eta koke bihur daitekeen harrikatzak % 2 egin du behera (103 euro/Tm).

58. koadroa   Inportatutako lehengaiak

| Urtea | Koke bihur daitekeen harrikatza | | Burdin mea eta pelletak | | Txatarra | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) |
| 2006 | 3.623 | 107 | 5.511 | 45 | 7.437 | 274 |
| 2007 | 3.682 | 91 | 5.719 | 48 | 6.317 | 344 |
| 2008 | 3.371 | 147 | 6.328 | 69 | 7.408 | 342 |
| 2009 | 2.058 | 133 | 3.951 | 62 | 4.654 | 211 |
| 2010 | 2.984 | 161 | 6.707 | 87 | 6.186 | 311 |
| 2011 | 2.610 | 215 | 5.373 | 129 | 5.271 | 390 |
| 2012 | 2.492 | 176 | 5.220 | 100 | 4.747 | 375 |
| 2013 | 2.528 | 129 | 6.259 | 103 | 4.925 | 318 |
| 2014 | 1.632 | 105 | 5.699 | 75 | 4.928 | 330 |
| 2015 | 1.720 | 103 | 6.377 | 51 | 5.120 | 293 |
| Hazk. % 14-15 | 5,4 | -2,0 | 11,9 | -31,5 | 3,9 | -11,1 |

*Iturria: Unesid.*

Etorkizunera begira, UNESIDek siderurgia-sektorearentzat erronka garrantzitsuak diren zenbait zeregin ezarri ditu. Ildo horretan, enpleguaren eta ekonomiaren garapenaren alde lan egiten jarraitzen du; horretarako, I+G jarduerak jarri ditu martxan, PLATEAn (Altzairuaren Plataforma Teknologikoa). Horrez gain, ekonomia zirkulazioaren erregulazio berriak siderurgia-industriari ahalbidetzen dion potentzial guztia emateko eta baliatzeko prestatzen jarraitzen du. Era berean, sektorea oso konprometituta dago pertsonen segurtasuna eta osasuna hobetzearekin. Hori dela eta, laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko lanean jarraituko du. Ahalegin hori ikus daiteke 11,8ko maiztasun-indize baxuan (aurreko urtean erregistratutakoa baino bi puntu gutxiago, eta Ministerioak gure industria barne hartzen duen industria-sektorearentzat argitaratutako azken datuaren erdia baino gutxiago: 27,8).

## 3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Euskal siderurgia-sektoreak, nazioartekoak eta Estatukoak bezalaxe, hainbat faktoreren eragina jasan du 2015ean: garapen bidean dauden ekonomien hazkundearen dezelerazioa (batez ere Txinan), lehengaien prezioen beherakada, eta AEBko diru-politika pixkanaka gogortzea, hain zuzen ere, beste ekonomia garrantzitsu batzuetako banku zentralak beren diru-pizgarriak areagotzen ari direnean. Horren guztiaren ondorioz, urte hau zaila izan da sektoreko euskal enpresentzat.

**8. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena**




*Iturria: Geuk egina.*

Hori horrela, 2014an euskal siderurgia-sektoreko esportazioek nabarmen gora egin ostean (+% 19,3 tonatan eta +% 9,6 eurotan), 2015ean kanporako salmentak pixka bat igo dira, 2.810,3 tonatara iritsiz (+% 0,7). Bilakaera hori Estatu osoan erregistratutakoa baino optimistagoa izan da. Diruari dagokionez, aldiz, bilakaera negatiboa izan da

(-% 5,8), 1.745,3 mila eurora iritsiz. Ondorioz, esportatutako tonaren batez besteko prezioa 621 mila eurokoa da.

Euskal siderurgia-inportazioek antzeko bilakaera izan dute; izan ere, inportatutako kopurua 4.595,9 mila tonakoa izan da (2014an baino +% 6,1 gehiago) eta 1.879,8 mila eurokoa (urtetik urtera -% 3,7). Hala ere, batez besteko prezioa 409 mila eurokoa izan da.

**59. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza**

| Urtea | Inportazioak | | Esportazioak | |
|---|---|---|---|---|
| | m Tm | M euro | m Tm | M euro |
| 2006 | 6.927,3 | 2.403,4 | 1.848,0 | 1.558,2 |
| 2007 | 7.091,1 | 2.928,6 | 2.101,7 | 2.060,6 |
| 2008 | 6.287,6 | 3.052,3 | 2.734,6 | 2.468,0 |
| 2009 | 3.556,5 | 1.189,7 | 2.509,6 | 1.290,2 |
| 2010 | 5.394,5 | 2.057,1 | 2.990,0 | 1.964,9 |
| 2011 | 4.154,7 | 2.292,8 | 2.813,2 | 2.219,8 |
| 2012 | 3.371,8 | 1.829,7 | 2.348,5 | 1.843,6 |
| 2013 | 4.085,3 | 1.856,8 | 2.340,8 | 1.690,9 |
| 2014 | 4.330,5 | 1.951,4 | 2.791,9 | 1.852,9 |
| 2015 | 4.595,9 | 1.879,8 | 2.810,3 | 1.745,3 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Finantza Saila eta Eustat.*

EAEko siderurgia-jarduerari buruzko datu hauek Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dira. Garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza- eta/edo produktu-sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiei dagokie.

Orain arte argitaratutako estatistiken arabera (azken datu erabilgarria 2014koa da), sektorearen ekarpena 2.218 milioi eurokoa da; balio hori pixka bat igo da (% 0,6) aurreko urtearekin alderatuta. Orokorrean, jarduera siderometalurgikoek % 28,7ko ekarpena egin diote industria osoak sortutako BEGari, eta jarduera horretan lanean ari diren pertsonak 65.763ra jaitsi dira (-% 0,3).

**60. koadroa Siderurgia-jarduerak EAEko industriari eginiko ekarpena**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | BEG | | | Enplegua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2012 | 2013 | 2014 | 2012 | 2013 | 2014 |
| Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia | 785 | 646 | 680 | 11.420 | 10.787 | 10.530 |
| Galdaketa | 429 | 423 | 441 | 7.848 | 7.206 | 7.009 |
| Metalezko eraikuntzak | 466 | 432 | 419 | 10.681 | 10.038 | 9.663 |
| Forjaketa eta estanpazioa | 387 | 379 | 416 | 5.982 | 5.689 | 6.342 |
| Ingeniaritza mekanikoa | 933 | 896 | 938 | 17.655 | 17.202 | 17.849 |
| Metalezko artikuluak | 852 | 877 | 861 | 15.203 | 15.054 | 14.370 |
| **Multzo siderometalurgikoa guztira** | **3.852** | **3.652** | **3.756** | **68.789** | **65.976** | **65.763** |
| **Industria** | **13.984** | **12.950** | **13.102** | **203.174** | **195.633** | **192.387** |
| Partaidetza (% ) | | | | | | |
| – Siderurgia/Industria | 5,6 | 5,0 | 5,2 | 5,6 | 5,5 | 5,5 |
| – Siderometalurgia/Industria | 27,5 | 28,2 | 28,7 | 33,9 | 33,7 | 34,2 |

*Iturria: Industria Kontuak (Eustat).*

### Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

UNESIDen arabera, 2015ean, altzairu gordinaren ageriko kontsumoa 10.702 mila tonakoa izan da, horrek esan nahi du % 8,5eko gorakada izan duela aurreko urteko zifrarekin alderatuta (842 mila tona datu absolutuetan). Altzairuaren ageriko kontsumoaren desberdintasunak produktu motaren arabera aztertzen baditugu, bilakaera ona da kasu guztietan, lingoteen eta produktu amaitugabeen kasuan izan ezik; horien kontsumoa % 16,6 murriztu da azken urtean. Gainerako produktuetan, aldiz, kontsumoa areagotu egin da 2014. urtearekin alderatuta: produktu lau beroak (+% 19,3), produktu lau hotz eta estaliak (+% 6,9), eta produktu lau amaituak (+% 6,5).

**61. koadroa Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera**

*(m Tm)*

| Produktuak | Ageriko kontsumoa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Amaitutako produktu motaren arabera* | | | | |
| – Lingoteak eta amaitugabeak | 104 | 393 | 330 | -16,2 |
| – Produktu luze amaituak | 3.091 | 3.422 | 3.643 | 6,5 |
| – Produktu lau beroak | 2.598 | 2.157 | 2.572 | 19,3 |
| – Prod. lau hotz eta estaliak | 3.747 | 3.888 | 4.157 | 6,9 |
| **Altzairua guztira** | **9.540** | **9.860** | **10.702** | **8,5** |

*(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.*
*Iturria: Unesid.*

Produktu ijeztuei dagokienez, bai produktu luzeen bai lauen ekoizpena areagotu egin da 2015ean (+% 1 eta +% 3, hurrenez hurren). Hala ere, datu absolutuak aztertuz gero, produktu lauen ekoizpena 4.744 mila tonara arte areagotu da, eta produktu luzeena 9.070 mila tonakoa da.

Azken horrek gorakada izan du, hain zuzen ere, egiturazko profilen ekoizpena areagotu egin delako (+% 13), eta baita trenbideetako materialarena (+% 6,5) eta beste merkataritza-profil batzuena ere (+% 2). Hormigoirako biribilen eta alanbre-burdin biribilduaren ekoizpenak berriz behera egin du azken urtean (-% 9,8 eta -% 2, hurrenez hurren).

**62. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena***

(m Tm)

| Produktuak | Ekoizpena | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena* | 8.898 | 8.978 | 9.070 | 1,0 |
| – Trenbideetako materiala | 217 | 276 | 294 | 6,5 |
| – Egiturazko profilak | 2.477 | 2.272 | 2.567 | 13,0 |
| – Alanbre-burdin biribildua | 2.650 | 2.735 | 2.681 | -2,0 |
| – Hormigoirako biribilak | 1.955 | 2.042 | 1.841 | -9,8 |
| – Beste merkataritza-profil batzuk | 1.600 | 1.653 | 1.686 | 2,0 |
| Beroan ijeztutako produktu lauak | 4.349 | 4.605 | 4.744 | 3,0 |

*(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.*
*Iturria: Unesid.*

*CIE Automotive*

CIE Automotive aipatu behar da sektoreko euskal enpresa esanguratsu gisa. Enpresa horren ardatz nagusia produktu lauak dira. CIE Automotive 2002an sortu zen, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean. Bere jardueraren xede nagusia da automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziazko talde bilakatzea. Konpainiak bere burua definitzean dioen moduan, helburu gisa dute teknologia anitzeko eskaintza bat egitea, testuinguru globalizatu batean. Horretarako, presentzia eraginkorra dute hainbat lekutan: Amerikan (Brasil, AEB, Mexiko, Guatemala, Honduras, Argentina, Txile, Peru eta Kolonbia), Europan (Espainia, Portugal, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Danimarka, Txekia, Lituania, Errumania, Errusia eta Polonia), Asian (Txina eta India), Afrikan (Maroko eta Hegoafrika) eta Ozeanian (Australia).

Jarduera honako segmentu hauetan gauzatzen du: plastikoa (15 fabrika), aluminioa (6 fabrika), mekanizazioa (19 fabrika), estanpazioa (19 fabrika), forjaketa (12 fabrika), galdaketa (3 fabrika), konpositeak (2 fabrika) eta sabai-sistema (5 fabrika).

Konpainiak markak hautsi ditu 2015 ekitaldiko itxieran ekonomia- eta finantza-parametro nagusietan. Zehazki, CIE Automotivek erregistratu duen irabazi garbia 2014an

baino % 59,4 handiagoa izan da, eta fakturazioa aurreko ekitaldian baino % 21,8 handiagoa.

Konpainiak azken urtean hartu dituen neurrien artean nabarmendu behar da, batetik, CIE Automotiven perimetroa finkatzea, Mahindrarekiko aliantzaren eta Dominioneko integrazioen ondoren. Bestetik, Gizarte Erantzukizun Korporatiborako Plan Estrategiko bat jarri du martxan; horren bidez, gizarte- eta ingurumen-konpromisoa birdefinitu eta indartu nahi du.

Horrez gain, 2015ean negozio-plan estrategiko berri bat egin du datozen bost urteetarako, eta 2020an 2015eko irabazi gordina bikoizteko konpromisoa hartu du.

### Soldadurarik gabeko hodiak

UNESIDek argitaratutako informazioaren arabera, soldadurarik gabeko hodien esportazioek eta inportazioek behera egin dute aurreko urteko zifrekin alderatuta. Hala, 2015ean, kanporako salmentek % 15,8 egin dute behera 2014arekin alderatuta; kanporako erosketek ere behera egin dute aldi berean (% 4,8).

**63. koadroa Soldadurarik gabeko hodien ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza**

*(m Tm)*

| Urtea | (1) Barne-kontsumoa | (2) Esportazioa | (3) Inportazioa | (4) Ekoizpena | 3/1 (% ) | 2/4 (% ) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 232 | 251 | 178 | 304 | 76,9 | 82,6 |
| 2007 | 296 | 253 | 245 | 305 | 82,6 | 83,1 |
| 2008 | 294 | 304 | 248 | 316 | 84,5 | 96,1 |
| 2009 | 149 | 167 | 122 | 160 | 81,4 | 104,1 |
| 2010 | -- | 212 | 144 | 248 | -- | 85,3 |
| 2011 | -- | 290 | 161 | 279 | -- | 103,9 |
| 2012 | -- | 267 | 152 | 254 | -- | 105,1 |
| 2013 | -- | 230 | 109 | e.d.d. | -- | e.d.d. |
| 2014 | -- | 282 | 124 | e.d.d. | -- | e.d.d. |
| 2015 | -- | 238 | 118 | e.d.d. | -- | e.d.d. |

*e.d.d.: ez dago daturik.*
*Iturria: Unesid.*

Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritzaren bilakaera aztertuz gero, agerian geratzen da 2015ean EB-28k lidergoa berreskuratu duela, azpisektoreko merkatu nagusi gisa (guztizkoaren % 37,2). Lidergo hori Estatu Batuek kendu zioten 2014an, eta orain bigarren postura igaro dira (% 29,3). Bi kasuetan, beherakadak egon dira esportazioetan, aurreko urteko zifrekin alderatuta (-% 9,9 eta -% 34,8, hurrenez hurren). Europako herrialdeetarako esportazioen bilakaera kontuan hartuta, nabarmendu behar da Frantziak eta Erresuma Batuak behera egin dutela (-% 17,7 eta -% 23, hurrenez hurren),

baita Alemaniak eta Italiak ere (-% 7,1 eta -% 6,3, hurrenez hurren), nahiz eta azken horien beherakadak txikiagoak izan diren.

**64. koadroa Soldadurarik gabeko hodien esportazioak helmugako herrialdeen arabera**

*(m Tm)*

| Eremua | 2013 | 2014 | 2015 | % | % Δ 15/14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 57,5 | 88,6 | 57,7 | 29,3 | -34,8 |
| Italia | 26,3 | 20,9 | 19,6 | 13,4 | -6,3 |
| Alemania | 15,2 | 20,7 | 19,3 | 7,8 | -7,1 |
| Frantzia | 13,2 | 14,7 | 12,1 | 6,7 | -17,7 |
| Hego Korea | 16,4 | 12,6 | 9,6 | 8,4 | -24,2 |
| Iran | 0,6 | 2,4 | 6,2 | 0,3 | 160,8 |
| India | 2,4 | 6,3 | 5,3 | 1,2 | -14,5 |
| Saudi Arabia | 3,8 | 6,2 | 4,7 | 1,9 | -23,6 |
| Belgika | 2,0 | 2,5 | 4,4 | 1,0 | 76,8 |
| Arabiar Emirerri Batuak | 4,2 | 4,5 | 4,2 | 2,1 | -7,4 |
| Erresuma Batua | 6,8 | 5,4 | 4,2 | 3,5 | -23,0 |
| Singapur | 2,9 | 8,8 | 4,0 | 1,5 | -54,7 |
| Txina | 3,5 | 4,8 | 3,5 | 1,8 | -26,5 |
| Egipto | 0,4 | 0,6 | 3,2 | 0,2 | 412,3 |
| Portugal | 4,7 | 3,4 | 3,1 | 2,4 | -8,6 |
| **EB-28 guztira*** | **79,2** | **80,4** | **72,5** | **37,2** | **-9,9** |
| **Mundu osoa** | **196,1** | **244,2** | **194,9** | **100,0** | **-20,2** |

*(*): 2013ra arte, EB-27*
*Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.*

*Tubacex*

2015. urtea konplexua izan da Tubacexentzat; izan ere, lehengaien eta petrolioaren prezioaren beherakadaren ondorioz, bere salmenten kopurua % 2,4 murriztu da (533,4 milioi euro) eta 8,4 milioi euroko irabazi garbia izan du. Bestalde, EBITDA 48,9 milioi eurokoa izan da.

2015. urtean inbertsioen aldeko apustua egin dute, konpainiaren iraunkortasuna bilatuz epe ertain eta luzean, eta posizionamendua motzean. Gauzatutako ekintzen artean, IBF eta Prakash Steelage integratu dira. Horri esker, Tubacex merkatuko portfolio zabalena duen altzairu herdoilgaitzezko hodi-produktuen hornitzaile bilakatu da.

Enpleguari dagokionez, 2015ean 2.295 pertsonak egin dute lan Tubacex taldean; horietatik, % 59 Espainiatik kanpo daude.

Azkenik, taldeak egiten dituen salmenten eremu geografikoen araberako banaketa aztertzen badugu, Europa da taldearen merkatu nagusia. Behera egin du urtean zehar, baina merkatu asiarreko salmentetan izan duen garrantziak gora egin du pixkanaka.



LABORAL kutxa

**9. grafikoa    Tubacex taldearen 2015eko salmenten banaketa geografikoa**




*Iturria: Tubacex taldea.*

*Tubos Reunidos*

Tubos Reunidosen 2015eko emaitzek petrolioaren prezioen eragina jasan dute. Ondorioz, taldearen salmentak eta marjinak murriztu egin dira. Zehazki, negozio-zifra 352.478 mila eurora arte jaitsi da (-% 13,6). Era berean, erregistratutako emaitza garbia negatiboa izan da (-16.188 mila euro). Horrek guztiak agerian uzten du sektoreak oraindik bizi duen egoera zaila.

### 65. koadroa Tubos Reunidos taldearen negozio-arloak eta enpresa-unitateak. 2015

| Negozio-arloak | Unitateak/establezimenduak |
|---|---|
| Soldadurarik gabeko hodiak | Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba)<br>Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia)<br>Acecsa (Iruñea, Nafarroa) |
| Banaketa | Grupo Almesa (Almesa-Procalsa). Nazio-mailan jarduten du.<br>TR América (Houston, Estatu Batuak)<br>TR Beijing Office (Pekin, Txina)<br>TR Francia (Metz Cedex, Frantzia)<br>TR Italia (Milan, Italia)<br>TR Jakarta (Cilandak-Jakarta, Indonesia)<br>TR Dubai Office (Dubai)<br>Madrid (Madril, Espainia) |
| Automobilgintza | Inauxa (Amurrio, Araba)<br>Acecsa (Iruñea, Nafarroa)<br>Inautek (Kunshan, Jiangsu. Txina)<br>Inaumex (Guanajuato, Mexiko)<br>Edai (Zornotza, Bizkaia) |
| Beste industria-negozio batzuk | Tr-Lentz (Komunioi, Araba)<br>Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia) |

*Iturria: Urteko Memoria-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea.*

### 66. koadroa Fabrikatutako produktuak, merkatuaren eta industria-sektorearen arabera. Tubos Reunidos taldea. 2015

| Merkatuak | Produktuak |
|---|---|
| Petrolioa eta gasa | Presio-hoditeria eta eroanbideak<br>Petrolio- eta gas-zuloetarako hodiak. |
| Kimika eta petrokimika | Eroapen-hoditeriak<br>Galdara eta labeetarako hoditeria |
| Automobilgintza | Hotzean tenkatutako arbastuak<br>Hotzeko tenkaketa<br>Hodi mekanikoa |
| Mekanika, eraikuntza eta Ingeniaritza | Hodi piloteak eta mikropiloteak<br>Eroapen-hoditeria<br>Doitasunezko hodi mekanikoa<br>Presio- eta neke-hodiak |
| Energia-sorrera eta beroaren transferentzia | Beroan ijeztutako hodiak<br>Hotzean tenkatutako hodiak<br>Errifle-hodiak<br>“U” urkillak, hodi hegatuak, adarkatuak... |
| Arbastuak | Hotzeko tenkaketak<br>Hotzeko eraldaketa |

*Iturria: Urteko Memoria-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea.*



LABORAL kutxa

# 4. ONTZIGINTZA

## 4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Mundu-mailako ekonomiaren hazkunde txikiarekin bat etorriz, munduko itsas merkataritza ere % 2 bakarrik hazi da 2015ean, eta are hazkunde txikiagoa izan du tona-miliako garraioaren eskariak (% 1,6). Hala ere, 2015ak alde positibo bat izan du: petrolioa merkatu dela. Horri esker, itsas erregaien prezioak izugarri jaitsi dira, eta euroaren kanbio-tasak egonkor jarraitu du.

Testuinguru horretan, 2015ean itsasontzi berrien mundu-mailako kontratazioa -% 17,3 jaitsi da (pisu hileko 98,5 tonara arte), baina entregek % 6,7 egin dute gora (pisu hileko 948 milioi tonara arte), hiru urtez behera egin ostean.

**67. koadroa Munduko merkataritzako ontzidia**

*(MGT)**

| Urtea | Tonak | % ∆ |
|---|---|---|
| 1985 | 399,2 | - |
| 1990 | 398,6 | - |
| 1995 | 451,1 | - |
| 2000 | 515,4 | 14,3 |
| 2005 | 601,7 | 16,7 |
| 2010 | 840,6 | 39,7 |
| 2011 | 910,1 | 8,3 |
| 2012 | 991,2 | 8,9 |
| 2013 | 1.027,0 | 3,6 |
| 2014 | 1.067,1 | 3,9 |
| 2015 | 1.107,8 | 3,8 |

*(*): EGT (Erregistro Gordineko Tona) 1994ra arte, GT (Erregistroko Tonaje Gordina) 1995etik aurrera.*
*Iturria: ANAVE.*

Mundu-mailako merkataritzako ontzidia aztertuz gero, 2015ean 1.107,8 milioi tona gordinekoa izan da; horrek esan nahi du urtetik urtera % 3,8 hazi dela, aurreko bi ekitaldien antzera (2014an % 3,9 eta 2013an % 3,6).

Merkataritzako ontzidiaren jatorrizko herrialdeen arabera, aurreko ekitaldietan bezala, 2015ean ere Panama da protagonista nagusia, mundu osoko merkataritzako ontzidiaren % 19,2 hartzen baitu. Atzetik ditu, tarte handi samarrarekin, Liberia (% 11,1) eta Marshall Uharteak (% 9,5), eta ondoren Hong Kong eta Singapur (% 8,3 eta % 6,8, hurrenez hurren). Horiek mundu-mailan duten garrantzia aurreko ekitaldian erregistratutakoaren antzekoa da. Arreta Europar Batasunari eskainiz gero, Malta da ontzien jatorrizko herrialdeetan

nagusi, mundu-mailako merkataritzako ontzidiaren % 5 hartzen baitu. Atzetik ditu Grezia (% 3,8), Erresuma Batua (% 2,7), Txipre (% 1,8) eta Italia (% 1,4), besteak beste.

**68. koadroa Munduko merkataritzako ontzidia, jatorrizko herrialdearen arabera**

| Herrialdea | 2013 | | 2014 | | 2015 | | % Δ 15/14 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | MGT | % | MGT | % | MGT | % | |
| Panama | 214,4 | 20,9 | 214,2 | 20,1 | 212,9 | 19,2 | -0,6 |
| Liberia | 122,8 | 12,0 | 123,1 | 11,5 | 123,5 | 11,1 | 0,3 |
| Marshall Uharteak | 81,8 | 8,0 | 91,4 | 8,6 | 105,4 | 9,5 | 15,3 |
| Hong Kong | 78,2 | 7,6 | 85,5 | 8,0 | 92,2 | 8,3 | 7,8 |
| Singapur | 58,9 | 5,7 | 67,8 | 6,4 | 75,2 | 6,8 | 10,9 |
| Malta | 43,9 | 4,3 | 49,4 | 4,6 | 55,9 | 5,0 | 13,2 |
| Bahamak | 48 | 4,7 | 48 | 4,5 | 49,8 | 4,5 | 3,7 |
| Grezia | 41,1 | 4,0 | 41,7 | 3,9 | 42,3 | 3,8 | 1,4 |
| Txina | 38,7 | 3,8 | 41 | 3,8 | 42,2 | 3,8 | 2,9 |
| Erresuma Batua | 32,6 | 3,2 | 32 | 3,0 | 30 | 2,7 | -6,3 |
| Txipre | 19,5 | 1,9 | 20,3 | 1,9 | 20,3 | 1,8 | 0,0 |
| Japonia | 17,7 | 1,7 | 18,9 | 1,8 | 20,2 | 1,8 | 6,9 |
| Italia | 17,9 | 1,7 | 17,5 | 1,6 | 15,6 | 1,4 | -10,9 |
| Danimarka | 11,3 | 1,1 | 12,1 | 1,1 | 14,2 | 1,3 | 17,4 |
| Norvegia | 14,3 | 1,4 | 14,1 | 1,3 | 13,6 | 1,2 | -3,5 |
| Hego Korea | 11,1 | 1,1 | 11,3 | 1,1 | 11,4 | 1,0 | 0,9 |
| Indonesia | 10,1 | 1,0 | 10,9 | 1,0 | 11,4 | 1,0 | 4,6 |
| Alemania | 13 | 1,3 | 12,1 | 1,1 | 10,8 | 1,0 | -10,7 |
| Bermuda | -- | -- | 10,5 | 1,0 | 10,5 | 0,9 | 0,0 |
| Antigua eta Barbuda | -- | -- | 10,6 | 1,0 | 9,5 | 0,9 | -10,4 |
| Estatu Batuak | -- | -- | 8,5 | 0,8 | 8,5 | 0,8 | 0,0 |
| India | -- | -- | 8,3 | 0,8 | 8,2 | 0,7 | -1,2 |
| Holanda | 7,6 | 0,7 | 7,7 | 0,7 | 7,7 | 0,7 | 0,0 |
| Frantzia | 5,4 | 0,5 | 5,3 | 0,5 | 5,3 | 0,5 | 0,0 |
| Belgika | 3,6 | 0,4 | 3,8 | 0,4 | 5,1 | 0,5 | 34,2 |
| Portugal | 1,3 | 0,1 | 4,5 | 0,4 | 4,5 | 0,4 | 0,0 |
| Suedia | 2,8 | 0,3 | 2,6 | 0,2 | 2,6 | 0,2 | 0,0 |
| Luxenburgo | 0,6 | 0,1 | 2,8 | 0,3 | 2,4 | 0,2 | -14,3 |
| Espainia | 2,5 | 0,2 | 2,3 | 0,2 | 2,1 | 0,2 | -8,7 |
| Finlandia | 1,7 | 0,2 | 1,6 | 0,1 | 1,6 | 0,1 | 0,0 |
| Kroazia | 1,4 | 0,1 | 1,3 | 0,1 | 1,3 | 0,1 | 0,0 |
| Beste herrialde batzuk | 124,8 | 12,2 | 86,0 | 8,1 | 91,6 | 8,3 | 6,5 |
| EB-15 guztira | 141,7 | 13,8 | 143,4 | 13,4 | 144,4 | 13,0 | 0,7 |
| EB-28 guztira | 207,4 | 20,2 | 215,5 | 20,2 | 222,9 | 20,1 | 3,4 |
| **Mundu osoa** | **1.027,0** | **100,0** | **1.067,1** | **100,0** | **1.107,8** | **100,0** | **3,8** |

*Iturria: ANAVE.*

Mundu-mailako merkataritzako ontzidia itsasontzi motaren arabera aztertzen badugu, aurreko urteetan bezala, 2015ean solteko gaien itsasontziak izan dira nagusi, guztizko ontzidiaren % 36,6 hartuz. Horien atzetik daude petrolio-ontziak (% 21,7), edukiontziak garraiatzeko itsasontziak (% 18,1), merkataritzako beste ontzi batzuk (% 12,8) eta, azkenik, kargaontziak eta gasa garraiatzeko itsasontziak (% 5,7 eta % 5,1, hurrenez hurren).

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, aurrerapen erlatibo handiena gasa garraiatzeko itsasontziek egin dute (% 7); alabaina, aldi zabalagoa hartzen badugu aintzat (2012-2015), dinamismo handiena solteko gaien itsasontziei dagokie (% 19ko gorakada).

**69. koadroa Munduko merkataritzako ontzidia, itsasontzi motaren arabera**

*(MGT)*

| Itsasontzi mota | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|
| Petrolioa garraiatzekoak | 230,0 | 235,7 | 239,8 | 240,0 |
| Gasa garraiatzekoak | 50,6 | 50,3 | 52,6 | 56,3 |
| Solteko gaienak | 340,8 | 364,9 | 386,8 | 405,4 |
| Kargaontziak | 64,3 | 62,0 | 62,7 | 62,7 |
| Edukiontziak garraiatzekoak | 171,8 | 179,4 | 188,1 | 200,3 |
| Beste merkataritzako ontzi batzuk | 133,8 | 134,8 | 137,1 | 141,6 |
| **Merkataritzako ontziak guztira** | **991,2** | **1.027,0** | **1.067,1** | **1.107,8** |

*Iturria: ANAVE.*

Azkenik, adierazi behar da 2015ean ia ez dela aldatu mundu-mailako merkataritzako ontzidiaren batez besteko adina, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 17,5 urtekoa izan baita (2014an 17,4 urtekoa izan zen). Segmenturik berriena solteko gaien itsasontziena da (9,6 urte) eta zaharrena hozkailu-kargaontziena (27,3 urte).

## 4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

Ikusi dugunez, nazioartean -% 17,3 jaitsi da mundu-mailako itsasontzi berrien kontratazioa. Alabaina, Estatuko ekoizpenak nabarmen egin du gora 2015ean. Zehazki, 179 mila tona konpentsatu[1] erregistratu dira ekitaldi horretan; hots, % 16,2ko urtetik urterako gorakada egon da, 2014an -% 4,3ko jaitsiera erregistratu ondoren.

Ekoizpen-fase desberdinei dagokienez, entregatutako tonajea izan ezik (-% 37,7), gainerako guztiek gora egin dute 2015ean. Hain zuzen ere, hasitako tonajeak % 54,7 egin du gora eta uretaratutako tonajeak % 23,4.

[1] Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan dago emanda, kontrakoa adierazten denean salbu.

### 70. koadroa Espainiako itsasontzien ekoizpena

(mCGT)[1]

| Urtea | Tonaje haztatua[2] | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea | on. koefizientea[3] |
|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 295 | 339 | 306 | 228 | 0,68 |
| 2007 | 366 | 460 | 327 | 348 | 0,70 |
| 2008 | 404 | 469 | 401 | 343 | 0,79 |
| 2009 | 351 | 291 | 413 | 287 | 0,69 |
| 2010 | 237 | 74 | 258 | 358 | 0,71 |
| 2011 | 175 | 121 | 132 | 318 | 0,63 |
| 2012 | 107 | 86 | 124 | 93 | 0,55 |
| 2013 | 161 | 153 | 161 | 169 | 0,48 |
| 2014 | 154 | 181 | 137 | 159 | 0,43 |
| 2015 | 179 | 280 | 169 | 99 | 0,92 |

*(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitzeko konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.*

*(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.*

*(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).*

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.*

Espainiako ontziolen eskabide-zorroari dagokionez, 2015. urtearen amaieran 459 mila tona erregistratu dira; horrek esan nahi du urtetik urterako aurrerapena % 58,3koa izan dela, eta hazi egin direla esportazioak (% 6,3) eta, bereziki, nazioarteko zorroa (% 800). Hori horrela, barne-merkatuan ikusitako dinamismoa askoz ere handiagoa da kanpo-merkatukoa baino, eta, horrenbestez, nabarmen jaitsi da azken horren garrantzi erlatiboa (2015ean, guztizko zorroaren % 63; eta 2014an, % 93).

### 71. koadroa Eskabide-zorroa urte-amaieran

| Urtea | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztizkoa |
|---|---|---|---|---|---|
| | mCGT | % | mCGT | % | mCGT |
| 2006 | 312 | 33 | 620 | 67 | 932 |
| 2007 | 306 | 29 | 748 | 71 | 1.054 |
| 2008 | 268 | 25 | 785 | 75 | 1.053 |
| 2009 | 200 | 25 | 615 | 75 | 815 |
| 2010 | 109 | 20 | 441 | 80 | 550 |
| 2011 | 13 | 6 | 222 | 94 | 235 |
| 2012 | 15 | 5 | 298 | 95 | 313 |
| 2013 | 21 | 8 | 238 | 92 | 259 |
| 2014 | 19 | 7 | 271 | 93 | 290 |
| 2015 | 171 | 37 | 288 | 63 | 459 |

*Iturria: Geuk egina, Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.*

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eskabide-zorroaren tonajea handiagoa izan da, batez ere, zorroan itsasontzi gehiago zeudelako (2015ean 65 eta 2014an 48). Gorakada horren erantzule bakarra barne-merkatua izan da (26 itsasontzi zorroan 2015ean, eta 5 aurreko

ekitaldian), kanpo-merkatuko zorroko itsasontzien kopuruak behera egin baitu (2015ean 39 eta 2014an 43).

**72. koadroa Eskabide-zorroa itsasontzi motaren arabera, urte-amaieran (2015)**

| Itsasontzi mota | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztizkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Itsasontzi kop. | CGT | Itsasontzi kop. | CGT | Itsasontzi kop. | CGT |
| Petrolio gordina garraiatzekoak | 5 | 124.780 | 0 | 0 | 5 | 124.780 |
| Petrolio- eta kimika-produktuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Kargaontziak | 2 | 9.022 | 0 | 0 | 2 | 9.022 |
| Hozkailuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ferryak | 0 | 0 | 2 | 38.161 | 2 | 38.161 |
| Bidaiariak | 0 | 0 | 1 | 5.279 | 1 | 5.279 |
| Arrantza-ontziak | 2 | 3.677 | 8 | 38.599 | 10 | 42.276 |
| Beste itsasontzi batzuk | 17 | 33.924 | 28 | 205.709 | 45 | 239.633 |
| **Guztizkoa** | **26** | **171.403** | **39** | **287.748** | **65** | **459.151** |

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.*

Itsasontzi motari dagokionez, etxeko eskabide-zorroa honako hauek osatzen dute: beste batzuk (17), gordina garraiatzeko petrolio-ontziak (5), kargaontziak oro har (2) eta arrantza-ontziak (2). Kanpoko eskabide-zorroa, berriz, honako hauek osatzen dute: beste batzuk (28), arrantza-ontziak (8), ferryak (2) eta bidaiarien itsasontziak (1).

Azkenik, nabarmendu behar da 2015eko uztailean Navantiak eta Ondimar Transportes Marítimosek (Ibaizabal taldeko ontzigintza-sozietatea) berretsi egin dituztela bai ekainean sinatutako kontratuak bai Suezmax-erako lau petrolio-ontzi eraikitzeko finantza-egitura (beste bi gehiago ere izan daitezke). Navantiarentzat, kontratu horiek esan nahi dute errentagarritasun ekonomiarekin itzuliko dela petrolio-ontzien eraikuntza-lanetara; izan ere, ia bi hamarkada daramatza halako itsasontzirik egin gabe. Zehazki, ontzi bakoitzaren eraikuntzak 725.000 lanordu eskatuko dizkie Navantiako ontziolei (Cadizeko badia eta Ferrolgo itsasadarra) eta enpresa laguntzaileei.

## 4.3 ONTZIGINTZA EAE-N

Nazio-mailan erregistratutako ekoizpenaren gorakadarekin bat etorriz, ontzigintzaren euskal sektorearen ekoizpen-bolumena ere areagotu egin da 2015ean; hain zuzen ere, 42 milioi tona gordinetara iritsi da, alegia, aurreko ekitaldian baino % 55,6 gehiago.

Ekoizpen-fase desberdinei arreta eskainiz gero, entregatutako tonajeak soilik egin du behera 2015ean (-% 17,4); gora egin dute, aldiz, hasitako tonajeak eta uretaratutako tonajeak (% 113,9 eta % 45,8, hurrenez hurren).

**73. koadroa Ontzigintza EAEn**

*(mGT)*

| Urtea | Tonaje haztatua | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea |
|---|---|---|---|---|
| 2006 | 66 | 27 | 110 | 17 |
| 2007 | 64 | 80 | 29 | 116 |
| 2008 | 69 | 104 | 71 | 31 |
| 2009 | 81 | 73 | 95 | 60 |
| 2010 | 59 | 5 | 64 | 103 |
| 2011 | 37 | 51 | 21 | 57 |
| 2012 | 35 | 16 | 49 | 23 |
| 2013 | 28 | 17 | 19 | 55 |
| 2014 | 27 | 36 | 24 | 23 |
| 2015 | 42 | 77 | 35 | 19 |

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.*

Tonaje konpentsatuaren kasuan, euskal ontzigintzak gora egin du urtetik urterako balioetan (% 16,4), eta ez da aldatu Estatuko guztizkoan duen partaidetza (guztizko nazionalaren % 40, 2014an eta 2015ean).

**74. koadroa Ontzigintza EAEn. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua**

| Kontzeptua | 2014 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|
| | mCGT | Espainiako % | mCGT | Espainiako % |
| Tonaje haztatua | 61 | 40 | 71 | 40 |
| Hasitako tonajea | 71 | 39 | 96 | 34 |
| Uretaratutako tonajea | 58 | 42 | 70 | 41 |
| Entregatutako tonajea | 56 | 35 | 48 | 49 |

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.*

Tonaje konpentsatuari dagokion analisiarekin jarraituz, entregatutako tonajea izan da behera egin duen bakarra 2015ean (-% 14,3); hasitako tonajeak eta uretaratutako tonajeak gora egin dute (% 35,2 eta % 20,7, hurrenez hurren). Hala, bai hasitako tonajeak bai uretaratutakoak eutsi egin diote Estatuko guztizkoan duten partaidetzari (2015ean % 34 eta 2014an % 39; eta 2015ean % 41 eta aurreko ekitaldian % 42, hurrenez hurren). Entregatutako tonajearen kasuan, partaidetza horrek gora egin du (2015ean % 49 eta 2014an % 35).

Euskal ontziolen eskabide-zorroari dagokionez, 2015ean % 24,4 hazi da; hain zuzen ere, konpentsatutako 148 milioi tona zeuden zorroan ekitaldiaren amaieran.



LABORAL kutxa

**10. grafikoa Ontzigintzako eskabide-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)**

**Eskabide-zorroa**




**Ekoizpen haztatua (konpentsatutako tonajea)**




*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.*

**75. koadroa Eskabide-zorroa EAEn**

| Urtea | mCGT |
|---|---|
| 2006 | 218 |
| 2007 | 240 |
| 2008 | 271 |
| 2009 | 201 |
| 2010 | 173 |
| 2011 | 89 |
| 2012 | 114 |
| 2013 | 100 |
| 2014 | 119 |
| 2015 | 148 |

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.*

Euskal ontzigintzaren enpresa-egoera kontuan hartuta, hasteko nabarmendu behar da Sestaoko La Naval ontziolak jakinarazi duela 2016. urte-hasieran kontratu bat sinatu duela, Baleria enpresarentzako bidaiarien ferry bat eraikitzeko. Kontratuaren zenbatekoa 175 milioi eurokoa izango da, eta horren berdina izango den beste itsasontzi bat eraiki behar izateko aukera ere badago (asmoen akordioa). Ontzi berriak 1.600 bidaiarirentzako lekua izango du, eta munduko ferry handienen artean egongo da. Gainera, gas natural likidotu bidez ibiliko den bidaiarien lehen ferrya izango da Mediterraneoan.

**76. koadroa Eskabide-zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak enpresen arabera**

*(CGT unitateak)*

| Enpresa | Eskabide-zorroa | | Amaitutako itsasontziak | | Hasitako itsasontziak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Astilleros Murueta | 28.469 | 15.972 | 13.279 | 19.254 | 16.471 | 7.136 |
| Astilleros Balenciaga | 17.492 | 18.512 | 14.382 | 8.002 | 16.004 | 18.512 |
| Astilleros Zamakona | 53.678 | 29.067 | 20.063 | 20.972 | 18.705 | 4.313 |
| CNN Sestao | 19.659 | 84.472 | 7.799 | 0 | 19.659 | 65.600 |

*Iturria: Industria eta ETEen Idazkaritza Nagusia. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.*

Euskal ontziola txikiagoei dagokienez, Astilleros Murueta ontziolak 2015. urte-amaieran uretaratutako itsasontzia nabarmendu behar da: *Pendruc* atunketaria, Frantziako CFTO armadorearentzat egindakoa. Udan horren itsasontzi berdina uretaratu zen, eta biak batera gertakari garrantzitsua izan dira euskal ontziolentzat; izan ere, orain arte CFTO armadoreak Frantzian enkargatzen zituen bere itsasontzi guztiak. Astilleros Balenciaga ontziolaren kasuan, nabarmendu behar da 2015 amaieran *Grampian Freedom* stand-by ontzia entregatu zuela, Ipar itsasoan dauden plataformetan egon daitezkeen naufragoak erreskatatzea xede duena. Astilleros Zamakona ontziolari dagokionez, aipatu behar da 2015. urtearen erdialdean offshore petrolio-plataformei eta instalazio eolikoei babesa eta laguntza emateko itsasontzi bat eraikitzeko kontratua sinatu zuela. Horrek 350.000 ordu inguruko lan-karga ekarri zuen, eta 2017ra arteko lana bermatu dio ontziolari.

Azkenik, nabarmendu behar da duela gutxi Euskal Herriko Itsas Foroaren Klusterraren biltzarrean berretsi egin zela 2016an sektorea berreskuratu egingo dela, “tax lease”-aren krisialdiaren ondoren. Bertan aurreikusi zuten sektoreak % 9ko hazkundea izango duela ekitaldi horretan, eta horri loturiko enplegua % 2 areagotuko dela. Aipatu behar da, halaber, foro horretan aitortu zutela petrolioaren prezio baxuek kaltetu egin dituztela *oil&gas*-aren negozioarekin lotura duten eraikuntzak. Hain zuzen ere, nitxo horretan espezializatuta daude euskal ontziolak; horrenbestez, beharrezkoa da beste sektore batzuetaranzko dibertsifikazioaren alde apustu egitea, offshore sektore eolikoa, ferryak edo megayateak kasu.

# 5. AUTOMOBILGINTZA

2015ean, datu positiboekin itxi da munduko ekoizpena orokorrean, baina urte arteko bilakaera aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino baxuagoa izan da. Urte arteko hazkundea % 1ekoa izan da (% 2,6koa 2014an), eta munduko ekoizpenak urte batean ekoitzitako 90 milioi ibilgailuen kopurua gainditzen du, herrialdeen arabera ekoizpen-jarreran desberdintasun esanguratsuak ezarri diren urte batean. Herrialde batzuetan argi ikus daiteke sektorea berreskuratzen ari dela, eta fabrikatzaile askorentzat urterik onena da krisia hasi zenetik; beste batzuentzat, ordea, errealitatea askoz ere negatiboagoa izan da.

Hala ere, industriaren portaera onaren ondoriozko nolabaiteko testuinguru optimista honetan, 2015aren ezaugarri nagusia Volkswagenen motorrek sorrarazitako zalaparta izango da. Munduan gehien saldu den bigarren marka da (9,93 milioi 2015ean); 12 marka ditu, 106 ekoizpen-planta, ibilgailuak 153 herrialdetan merkaturatzen ditu, eta nazioarte-mailako zalapartan murgilduta egon da, ordura arte automobilgintzaren historian sekula ezagutu ez den bezala. Irailaren 18an jakin zen 11 milioi ibilgailu baino gehiagotan iruzurrez ezarri zela software bat, isuri kutsakorren kontrol teknikoen emaitzak aldatzeko (isuriak muga baino 40 aldiz handiagoak ziren). Harrezkeroztik, enpresak krisi historikoa bizi du, eta horrek, era berean, herrialde ugaritako gobernuak, EB, EPA (AEBko Ingurumen Babeseko Agentzia), kontsumitzaileen erakundeak eta abar barne hartzen dituen eskala handiko eztabaida sakona eragin du. Enpresaren etorkizuna ilun-iluna da; zalantza ugari dago Volkswagenek nola egingo ote dion aurre egoerari: hainbat arazo ditu, burtsan behera egin du, milioi batzuetako isuna du, eraginpean dauden ibilgailuak “konpontzeko” kostuak, kaleratzeak, prestigio-galera, salmenten jaitsierak eta abar.

## 5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Aurretik esan dugun bezala, 2015ak aldaketa gutxi dakar ekoizpen-atal globalean, eta ekoitzitako ibilgailu kopurua pixka bat hazi da (% 1), 2014ko balioen aldean. Hala ere, azken ekitaldian herrialde ugarik, besteak beste Espainiak, beren kokapena hobetu edo indartu dute munduko rankingean. Zehatzago esateko, eta Asia-Ozeaniari dagokion jarduerarekin hasteko, eremu horrek 47.786.156 unitateko gutxi gorabeherako ekoizpena du (ekoizpen osoaren % 53), batez ere Txinari esker, jardueran % 3,3ko igoera izan baitu (ekoizpen osoaren % 27 hartzen du; beraz, oso urrun geratu da duela hamarkada bateko % 9tik). Ekoizpen-eremuan erreferentea den Asiako beste herrialde bat Japonia da; 2015ean indarra galdu bazuen ere eta ekitaldia ekoitzitako unitateak murriztuz itxi bazuen ere (-% 5,1), eutsi egiten dio bere lekuari, 9 milioi baino pixka bat gehiagoko

ekoizpenarekin. Indiak eta Hego Koreak, halaber, postu esanguratsuak lortu dituzte munduko rankingean, izan ere, 4.125.744ko eta 4.555.957ko ekoizpenak izan dituzte, hurrenez hurren; hazkunde-urtea izan da lehenarentzat (% 7,3) eta nolabaiteko egonkortasunekoa bigarrenarentzat (% 0,7).

Amerikari dagokionez (bertako fabriketatik dator munduan fabrikatutako ibilgailuen % 23), AEB ekoizpenaren buru da, 12,1 milioi unitaterekin, eta hori % 3,8ko gorakadaren emaitza da bere jardueran; horrenbestez bigarren postuan jarraitzen du mundu-mailan. Horretan aktiboki laguntzen dute Amerikako ekoizpen-mapan presentzia handiena duten hiru markek; alegia: General Motors, Ford eta Fiat-Chrysler. Mexikok, ibilgailuen 3,5 milioi inguruko ekoizpenarekin, ekitaldia oso bilakaera positiboarekin itxi du (% 5,9), ez, ordea, Kanadak, zeinek % 4,6ko jaitsiera izan duen ekoizpen-mailetan eta 2.283.474 unitatera iritsi den. Hego Amerikan, ekoizpen-erreferente gisa Brasil nabarmendu behar da; hala ere, uzkurdura nabarmena izan du ibilgailuen ekoizpenean (-% 22,8), jarduera 2,5 milioien mugatik behera murriztuz.

Afrikako herrialdeen blokearekin jarraitzeko, ekoizpen-mapan presentzia txikiagoa izanik (milioi bat ibilgailutik behera), ekoizpena bost herrialderen artean banatuta dago. Hegoafrika (615.658 unitate) eta Maroko (288.329) nabarmenak dira, eremuaren ekoizpenari laguntzen baitiote, baita Aljeria ere, azken urteko hazkundeagatik (+% 1.507; 20.000 unitatera iritsi da). Egiptok –36.000 ibilgailu– eta Tunisiak –540 eskas– osatzen dute ekoizpen-mapa.

Europari dagokionez, ekitaldia 18.177.481 ibilgailuren ekoizpenarekin itxi da EB-27rentzat (2014an baino % 6,1 gehiago), eta 14.441.935 ibilgailurekin (% 7,1 gehiago) EB-15eko datua aintzat hartuta. Herrialdeen araberako analisiak, hala ere, ez ditu jarrera oso homogeneoak erakusten. Ekoizpen-eremuan pisu gehien duten herrialdeekin hasteko, Alemania da zerrendaburu, ekoitzitako 6 milioi unitaterekin, eta % 2,1 hobetu ditu zifrak aurreko ekitaldiaren aldean. Bigarrenik, jardueraren % 13,7ko igoera nabarmenarekin, Espainia dago, une garrantzitsua erakutsiz ekoizpen-bolumenetan, urtean 2.733.201 ibilgailu ekoitzita. Frantziak egoki egiten du aurrera, baina pixka bat geldoago, eta % 8,2ko igoera esleitzen zaio aurreko ekitaldiko zifretan, 1.970.000 unitatera iritsiz. Antzeko jarrera du Erresuma Batuak; % 5,2ko ekoizpen-igoera izan du 2015ean, eta 1.682.156 unitatetara iristen den industria-jarduera izan du. Italiak ematen duen ekoizpen-jauzi garrantzitsua nabarmendu behar da; jarduerak gorakada izan du, % 45,3koa, eta milioi bat ibilgailuko barrera gainditu du. Nabarmendu behar da, halaber, Belgikak izan duen beherakada, beren fabriketan ekoitzitako ibilgailuak % 20,8 gutxiago izan baitira, ekoizpena 409.340 unitatetara murriztuz.

Herrialdeen araberako datuetan are gehiago zehaztuz, aurreko urteetan gertatu bezala, Txinak jarraitzen du nazioarteko taulako buru izaten, kontuan hartuta munduan fabrikatutako ibilgailuen % 30 inguru Txinakoak direla (24.503.326). Pisu gehien duen hurrengoak, AEBk, asiar erraldoiari dagokion ekoizpenaren erdia du, eta horrek are gehiago nabarmentzen du Asiako herrialdeak ekoizpen-mapan duen presentzia izugarria. Nabarmendu behar da Asiako lau herrialdetan baino ez dela batzen munduko ekoizpenaren erdia, aintzat hartuta Txinaren ekarpena (ekoitzitako guztizkoaren % 27), Japoniarena (% 10,2), Hego Korearena (% 5) eta Indiarena (% 4,5) % 47ra iristen dela. Europan, Alemania Europako lehen ekoizle gisa finkatzen da; % 6,7ko partaidetza du guztizkoan. Espainiak hartu du bigarren lekua (% 3), munduko rankingean postu bat irabazten duela, batetik, bere jarduera egokiagatik, eta, bestetik, Brasilek (-% 22,8) eta Kanadak (-% 4,6) izandako beherakada garrantzitsuagatik.

Matrikulazioak oro har aztertzean, esan daiteke, 2015 ekitaldiak baieztatzen duela 2014an antzematen zen joera positiboa. Urtean 89.677.983 matrikulazio izan ziren, 2014an baino % 2 gehiago, eta adierazleek hobera egin dute, baina kasu batzuetan oraindik krisi aurreko balioen azpitik daude. AEBren kasuan ez da berdina gertatzen. Izan ere, 2015ean une historikoa izan zuen salmenten bolumenean; 17.470.659 unitatera iritsi zen, 2014an baino % 5,7 gehiago eta, horrela, bere erregistrorik onena gainditu zuen, 2000. urtekoa –17.402.486 matrikulazio–; sei urtez gora egin du, elkarren segidan. Amerika kontinentearekin jarraitzeko, Mexikon ibilgailuen salmentek nabarmen egin dute gora (% 19); joera bera izan du Kanadak, baina intentsitatea txikiagoa da (% 2,6). Guzti hori kontuan hartuta, hiru NAFTA herrialdeek ibilgailuen salmenten % 23,2 hartzen dute, eta AEB da, logikoa den bezala, ekarpen handiena egiten diona, merkatu globalean % 19,5eko ekarpena egin baitu.

Europan, hazkundea nagusi den testuinguru batean, 5 merkatu nagusiek hazkunde esanguratsuak izan dituzte, baina Italiak eta Espainiak baino ez dituzte erregistratu bi digituko hazkundeak. Zehatzago esateko, Frantziak –2.345.092 matrikulazio–, Erresuma Batuak –3.061.406– eta Alemaniak –3.539.825– 2015ean gora egin dute matrikulazio kopuruan –% 6,1, % 7,7 eta % 5,5, hurrenez hurren–, eta Italiak –1.725.387 matrikulazio (% 15,8)– eta Espainiak –1.214.059 (% 23)– askoz ere hazkunde-erritmo handiagoa izan dute. Tamaina txikiagoko merkatuak, besteak beste, Belgikak (571.524 ibilgailu), Holandak (521.168), Poloniak (432.439), Suediak (396.693) edo Austriak (349.597) ere oso bilakaera positiboa izan dute (% 4,8, % 15,7, % 10,2, % 12,5 eta % 2,2, hurrenez hurren). Laburbilduz, EB-28ko herrialde guztiek, Luxenburgok izan ezik, 2014an erregistratutako balioetatik gorakoekin itxi dute ekitaldia, eta 16.446.203 dira guztizkoaren matrikulazioak (2014an baino % 10 gehiago); horrenbestez, % 18ko merkatu-kuota izan dute.

Asiari dagokionez, beste urtebetez, Txina da munduko ibilgailuen kontsumitzaile nagusia –baita fabrikatzaile nagusia ere–, kontuan hartuta salmenta guztien % 27,4k zigilu txinatarra daramatela, alegia, 24,6 milioi unitatek. Japoniak –5 milioi matrikulazio ditu– hirugarren postuan jarraitzen du (Txinaren eta AEBren ondoren), nahiz eta bere salmentak % 9,3 gutxitu diren. Indiak, berriz, salmentetan laugarren herrialdea izanik, % 7,8ko hazkundea izan du.

Herrialde batzuen berreskurapen ekonomiko txikiari lotuta, aurreikuspenek erakusten dute pare bat urtean autoen ekoizpenak 100 milioi unitateren muga gaindi dezakeela. Alabaina, adituak hasi dira sektorearen hazkundeari buruzko aurreikuspenak murrizten, batez ere gorantz ari diren herrialde batzuetako "ezusteko" dezelerazio ekonomikoarengatik, besteak beste Txinakoa edo Brasilekoa, baita Japoniakoa ere. Horrenbestez, hazkunde-aukerak berriro ere Amerikako merkatuan eta Mendebaldeko Europako merkatuan bilatzen dira.

**77. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa**

*(unitateak)*

| HERRIALDEA | Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Alemania | Ekoizpena | 5.907.548 | 6.033.164 | 2,1 |
| | Matrikulazioa | 3.356.718 | 3.539.825 | 5,5 |
| Frantzia | Ekoizpena | 1.821.464 | 1.970.000 | 8,2 |
| | Matrikulazioa | 2.210.927 | 2.345.092 | 6,1 |
| Espainia | Ekoizpena | 2.402.978 | 2.733.201 | 13,7 |
| | Matrikulazioa | 987.281 | 1.214.212 | 23,0 |
| Erresuma Batua | Ekoizpena | 1.598.879 | 1.682.156 | 5,2 |
| | Matrikulazioa | 2.843.025 | 3.061.406 | 7,7 |
| Italia | Ekoizpena | 697.864 | 1.014.223 | 45,3 |
| | Matrikulazioa | 1.493.008 | 1.725.387 | 15,6 |
| Belgika | Ekoizpena | 516.831 | 409.340 | -20,8 |
| | Matrikulazioa | 545.255 | 571.524 | 4,8 |
| EB-15 | Ekoizpena | 13.483.961 | 14.441.935 | 7,1 |
| | Matrikulazioa (1) | 13.913.204 | 15.223.297 | 9,4 |
| Txekiar Errepublika | Ekoizpena | 1.251.220 | 1.303.603 | 4,2 |
| | Matrikulazioa | 215.594 | 260.070 | 20,6 |
| EB-27 | Ekoizpena | 17.127.469 | 18.177.481 | 6,1 |
| | Matrikulazioa (2) | 14.998.211 | 16.466.203 | 9,8 |
| Errusia | Ekoizpena | 1.887.193 | 1.384.399 | -26,6 |
| | Matrikulazioa | 2.592.396 | 1.437.930 | -44,5 |
| Estatu Batuak | Ekoizpena | 11.660.702 | 12.100.095 | 3,8 |
| | Matrikulazioa | 16.522.663 | 17.470.659 | 5,7 |
| Mexiko | Ekoizpena | 3.368.010 | 3.565.469 | 5,9 |
| | Matrikulazioa | 1.135.409 | 1.351.648 | 19,0 |
| Brasil | Ekoizpena | 3.146.386 | 2.429.463 | -22,8 |
| | Matrikulazioa | 3.498.012 | 2.568.976 | -26,6 |
| Kanada | Ekoizpena | 2.394.154 | 2.283.474 | -4,6 |
| | Matrikulazioa | 1.890.387 | 1.939.949 | 2,6 |
| Japonia | Ekoizpena | 9.774.665 | 9.278.238 | -5,1 |
| | Matrikulazioa | 5.562.888 | 5.046.511 | -9,3 |
| India | Ekoizpena | 3.844.857 | 4.125.744 | 7,3 |
| | Matrikulazioa | 3.177.005 | 3.425.336 | 7,8 |
| Thailandia | Ekoizpena | 1.880.587 | 1.915.420 | 1,9 |
| | Matrikulazioa | 881.810 | 797.579 | -9,6 |
| Hego Korea | Ekoizpena | 4.524.932 | 4.555.957 | 0,7 |
| | Matrikulazioa | 1.661.868 | 1.833.786 | 10,3 |
| Txina | Ekoizpena | 23.731.600 | 24.503.326 | 3,3 |
| | Matrikulazioa | 23.499.001 | 24.597.583 | 4,7 |

*(1): EB-15 + EFTA*
*(2): EB-28 + EFTA*
*Iturria: ANFAC eta OICA.*

## 5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Automobilgintzaren sektorea, zalantzarik gabe, sektore estrategikoa da nazio-mailan. 17 dira lurralde osoan dauden fabrikak; bertan, 9 eraikitzailek dihardute eta 44 modelo fabrikatzen dira, 20 esklusiba mundialean. 2015ean, automobilen marken fakturazioa 60.855 milioi eurokoa izan da, 2014an baino % 11,2 gehiago. Kopuru horri osagaien sektorearen ekarpena gehitzen badiogu (32.011 milioi euro) fakturazioa 92.000 milioi eurotik gorakoa da. Guzti hori kontuan hartuta, automobilgintzako industriak Espainiako KPIaren % 8,7 hartzen du, 2014an baino 9 hamarren gehiago, eta enplegua ematen dio zuzenean edo zeharka biztanleria aktiboaren % 9ri. 2015a, halaber, marka historikoarekin itxi da, superabit komertzialarekin, 17.000 milioi eurotik gorakoa. Ohikoa den bezala, ustiapenak, alegia, guztizko nazionalaren % 18k –bigarren sektore esportatzailea, ekipo-ondasunen sektorearen atzetik– gogor esku hartu du adierazle sektorialen igoeran. Egoera horrek nazio mailako fabrikatzaileak –guztira, 2.733.201 ibilgailu ekoitzita urtean– Europako buru bilakatzen ditu; Espainia da Europan ibilgailuen bigarren ekoizlerik nagusiena, Alemaniaren ondoren, eta zortzigarrena mundu-mailan; gainera, postu bat gehiago lortu du 2014aren aldean.

Zehatzago esateko, automobilgintzako industria nazionalaren ekoizpena 2015ean amaitzen da, oso emaitza positiboekin, batez ere, autoen bilakaera bikainaren ondorioz; segmentu horren ekoizpena % 17,6 hazi da eta ekoitzitako guztizkoaren % 81 hartzen du. Horren erakusgarri da, zalantzarik gabe, industria nazionalari dagokiola munduko fabrikatzaileetako lehen 10en taldearen bilakaera-portaera onena –ekoizpenari dagokionez– (% 13,7). Autoek ekoitzitako 2,2 milioi unitate gainditzen dituzten testuinguruan, komertzial arinek eta furgoiek –pisu gehieneko hurrengo segmentua (% 17)– % 2,1eko hazkundea izan dute. Industria-ibilgailuek, ordea, oso garrantzi espezifiko baxuarekin (% 2), aldaketa gutxi izan dituzte beren ekoizpen-mailetan (% 0,6). Lur orotakoek, berriz, atzerakada esanguratsua izan dute (-% 36,9).

**78. koadroa Automobilgintzaren Espainiako industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza**

*(unitateak)*

| Azpisektorea | Ekoizpena | | | Esportazioak | | | Matrikulazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ |
| Autoak | 1.871.985 | 2.202.348 | 17,6 | 1.631.744 | 1.893.724 | 16,1 | 855.308 | 1.034.232(*) | 20,9 |
| Lur orotakoak | 26.357 | 16.632 | -36,9 | 25.509 | 16.181 | -36,6 | -- | --(*) | |
| Komer. arinak eta furgoiak | 446.847 | 456.093 | 2,1 | 331.672 | 331.478 | -0,1 | 113.782 | 154.765 | 36,0 |
| Industria-ibilgailuak | 57.789 | 58.128 | 0,6 | 50.968 | 32.349 | -36,5 | 16.214 | 22.435 | 38,4 |
| Autobusak | 0 | 0 | | 0 | | | 1.977 | 2.780 | 40,6 |
| **Guztira** | **2.402.978** | **2.733.201** | **13,7** | **2.039.893** | **2.273.732** | **11,5** | **987.281** | **1.214.212** | **23,0** |

*(*): Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotakoen matrikulazioak ere jasotzen ditu.*
*Iturria: ANFAC.*

Aurretik esan den bezala, esportazioek nabarmen lagundu dute autoen salmenten maila igotzen, baina ez intentsitate desberdineko murrizketak jasan dituzten gainerako ibilgailuena. Zehatzago esateko, urtarriletik abendura, turismoen esportazioen % 16,1eko gorakada erregistratu da, eta gainerakoek, berriz, beheranzko aldakuntzak izan dituzte. Lur orotakoen eta industria-ibilgailuen esportazio-jarduerak behera egin du 2014aren aldean, % 37 inguru, eta komertzial arinek eta furgoiek beherakada txikia izan dute, % 0,1ekoa. Guzti hori kontuan hartuta, esportatutako ibilgailu kopurua 2.273.732 da, aurreko ekitaldian baino % 11,5 gehiago, eta, beraz, ekoizpenaren % 83 xurgatzen du.

Matrikulazioei dagokienez, 2015a 1.214.212 ibilgailu matrikulaturekin itxi da, eta bikoiztu egin du merkatu nazionalak EBren batez besteko hazkuntza, azpisektore guztiek urte arteko aldakuntza-tasa oso positiboak izan dituztela. Horren ondorioz, matrikulazioen guztizkoak % 23ko guztizko hazkundea dakar. Autoen atalean, salmenten mailak berriro ere gainditu du milioi bat unitateren zifra sinbolikoa; egoera hori ez zen errepikatzen 2008tik. Bilakaera positibo horren oinarrian hainbat eragile daude, besteak beste: finantzaketarako sarbide hobea, langabezia-tasa baxuagoa, PIVE planaren zortzigarren belaunaldia, ekonomia-klima positiboagoa, etab. Horrela, kontsumitzailearen konfiantza hobetu eta erosketarako motibatzen da. Sustapen horren arduradunetako bat da, zalantzarik gabe, PIVE 8 Plana; kontsumoaren dinamizazioan lagundu du, 2015ean 300.000 ibilgailutik gora izan direla laguntza horri heldu dioten ibilgailuak.

Komertzial arinen eta furgoien azpisektorean, igoera, aurreko ekitaldiaren aldean, esanguratsua da; % 36 gehiago. Horrela, 154.765 unitate matrikulatu lortu dira; zifra hori ez zen lortzen 2008tik. Industria-ibilgailuei dagokienez –2015ean 22.435 matrikulazio, horietatik 19.151 ibilgailu astunenak direla–, % 38,4ko gorakada izan dute; joera bera izan dute autobusek (% 40,6), baina askoz ere balio txikiagoekin (2.780 matrikulazio).

**79. koadroa Autoen matrikulazioa, marken arabera**

*(unitateak)*

| Marka nagusiak | 2014 | 2015 | % Δ |
|---|---|---|---|
| Volkswagen | 76.958 | 88.300 | 14,7 |
| Seat | 67.894 | 77.529 | 14,2 |
| ***Seat-Volkswagen taldea*** | ***144.883*** | ***165.829*** | ***14,5*** |
| Peugeot | 62.570 | 76.314 | 22,0 |
| Citroën | 54.614 | 58.855 | 7,8 |
| ***PSA taldea(*)*** | ***117.197*** | ***135.169*** | ***15,3*** |
| Renault | 65.043 | 77.087 | 18,5 |
| Opel | 66.700 | 76.470 | 14,6 |
| Ford | 58.818 | 64.327 | 9,4 |
| Nissan | 39.858 | 55.313 | 38,8 |
| Toyota | 41.242 | 49.120 | 19,1 |
| Dacia | 36.485 | 45.241 | 24,0 |
| KIA | 31.452 | 45.028 | 43.2 |
| Hyundai | 35.054 | 44.154 | 26,0 |
| Audi | 37.658 | 44.062 | 17,0 |
| Mercedes | 30.782 | 39.058 | 26,9 |
| Fiat | 29.357 | 37.764 | 28,6 |
| B.M.W | 30.157 | 35.927 | 19,1 |
| Gainerako markak | 90.622 | 119.683 | 32,1 |
| **Guztira** | **855.308** | **1.034.232** | **20,9** |

*(*): Peugeot eta Citroën.*
*Iturria: DGT eta ANFAC.*

2015ean, matrikulazioen gorakada esanguratsua izan da; ekitaldia positiboan itxi dute marka nagusiek. Volkswagen taldeko motorren iruzurraren inguruko eztabaidak, irailaren 18an sortu zenak, badirudi ez duela eraginik izan –oraingoz– bere salmenten bilakaeran. Zehatzago esateko, Volkswagenek eta Seatek parean egin dute aurrera (% 14 inguruko hazkundea), eta merkatuaren % 16 hartu dute; ondoren Grupo PSA dago, % 13,1eko partaidetza izan duena. Tandem frantsesak, Peugeotek eta Citroënek osatzen dutenak, ordea, izandako portaerak ez dira hain homogeneoak; Peugeot askoz ere dinamikoagoa da (% 22) Citroën baino (% 7,8). % 7,5 inguruko merkatu-kuotekin, zerrendako buru da Renault marka frantsesa (% 18,5eko igoera), gero Opel (% 14,6) eta Ford, partaidetza- eta aldakuntza-tasa txikiagoarekin (% 6,2 eta % 9,4, hurrenez hurren). Nissan, Toyota eta Daciak osatzen dute 10 marka salduenen rankinga, eta hirurek izan dituzte hazkunde nabarmenak (% 38,8, % 19,1 eta % 24, hurrenez hurren). Baina nabarmendu behar da bilakaera onena KIAk izan duela (% 43,2), eta, beraz, hamaikagarren postuan geratzen dela (hamahirugarrena 2014an).

**80. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialdea | 2014 | 2015 | % ∆ |
|---|---|---|---|
| Frantzia | 546.083 | 392.143 | -28,2 |
| Alemania | 299.855 | 383.242 | 27,8 |
| Erresuma Batua | 277.885 | 363.499 | 30,8 |
| Italia | 158.368 | 202.107 | 27,6 |
| Turkia | 77.872 | 114.546 | 47,1 |
| Belgika | 59.059 | 76.205 | 29,0 |
| Herbehereak | 41.840 | 69.876 | 67,0 |
| Austria | 36.075 | 51.397 | 42,5 |
| AEB | 52.113 | 42.433 | -18,6 |
| Aljeria | 52.644 | 31.291 | -40,6 |
| **10 herrialde nagusiak, guztira** | **1.601.794** | **1.726.739** | **7,8** |
| Gainerakoak | 438.339 | 546.999 | 24,8 |
| **Esportazioak, guztira** | **2.040.133** | **2.273.738** | **11,5** |

*Iturria: ANFAC.*

Esportazioei dagokienez, garrantzitsua da nabarmentzea sektorean duten eta izan duten funtsezko zeregina. Esportazioak, krisi handieneko uneetan, jasangarritasun-iturri izan dira eta, une arrakastatsuenetan, salmentak sustatzen lagundu dute. Hori horrela, industria nazionalak ahalegina egin du beti maila esportatuak areagotzeko; horretarako, batetik, merkatu tradizionalenen leialtasuna bilatzen zuen eta, bestetik, ahalegina egin du bere salmentak ibilbide txikiagoa duten merkatuetan finkatzeko, besteak beste, Asiako herrialdeetan, Txinan edo Hego Korean. Salmenten banaketa geografikoa dela eta, produktu nazionalaren % 50en helburua Frantzia da (% 17,2), baita Alemania (% 16,9) eta Erresuma Batua (% 16) ere, Frantzia izanik ekitaldi honetan portaera okerrenekoa (-% 28,2); beste bi herrialdeek oso bilakaera positiboa izan dute (% 27,8 eta % 30,8, hurrenez hurren). Erritmo horretan mugitzen da Italia (% 27,6), baina askoz ere ordezkaritza txikiagoarekin (ordezkaritzaren % 9). Hain zuzen ere, Turkiak (% 47,1), Herbehereek (% 67) eta Austriak (% 42,5) izan dute hazkunderik handiena 2015ean.

**81. koadroa Automobilgintzaren sektorearen esportazioa eta inportazioa**

*(M euro)*

| Ibilgailuak | Europar Batasunaren barruko esportazioak eta entregak | | | Europar Batasunaren barruko inportazioak eta erosketak | | | Esportazio-inportazioen saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ | 2014 | 2015 | % ∆ |
| Autoak | 23.249 | 29.071 | 25,0 | 11.185 | 14.504 | 29,7 | 12.064 | 14.566 | 20,7 |
| Kamioiak | 5.387 | 4.931 | -8,5 | 1.593 | 2.385 | 49,7 | 3.794 | 2.545 | -32.9 |
| Ibilgailu bereziak | 127 | 77 | -38,9 | 40 | 56 | 39,8 | 87 | 22 | -75,1 |
| Autobusak | 212 | 233 | 9,9 | 94 | 170 | 81,1 | 118 | 63 | -46,9 |
| **Guztira** | **28.974** | **34.312** | **18,4** | **12.912** | **17.116** | **32,6** | **16.063** | **17.196** | **7,1** |

*Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.*

Aurretik esan den bezala, sektoreak 2015ean marka historikoa lortu zuen superabit komertzialean; 17.000 milioi euro gainditu zituen, eta esportazioen balioa 34.000 milioi eurotik gorakoa izan zen. Gainera, ekitaldia inportazioetarako aproposa dela ikusi da; izan ere, inportazioak 17.196 milioi eurokoak izan dira, beraz, balioak handitu dituzte (% 32,6). Informazioa ibilgailu-moten arabera banatuta, eta turismoekin hasita, esportazioen ia % 85en arduradun izanik, nabarmendu behar da gorakada garrantzitsua egon dela atal horretan (% 25), eta hazkunde-erritmoa indartu egin dela 2014aren aldean, % 10,3ko igoera egon zenean. Inportazioek ere gora egin dute nabarmen (% 29,7), baina aurreko ekitaldian baino motelago (% 32,6). Guzti hori kontuan hartuta, urtea saldo positiboarekin itxi da autoentzat, 14.566 milioi eurorekin (aurreko urtean baino % 20,7 gehiago). Beste magnitude-ordena batean mugitzen dira gainerako ibilgailuak; horietan, kanpo-merkataritzarekiko trafiko komertzialaren bilakaera oso bestelakoa izan da. Esportazioek behera egin dute bai kamioientzat (-% 8,5) bai ibilgailu berezientzat (-% 38,9); autobusek baino ez dute izan igoera esportazio-jardueran (% 9,9). Inportazioei dagokienez, hiru ibilgailu-motetan gora egin dute nabarmen kanpo-merkataritzarekiko fluxu komertzialek (% 49,7, % 39,8 eta % 81,1); horiek guztiek ekitaldia saldo komertzial positiboarekin itxi dute, baina 2014ko adierazleen oso azpitik.

Industria eraikitzailearen adierazle nagusiak aztertu ondoren, jarraian industria hornitzailearen magnitude handiak aurkezten dira; horietako enpresek funtsezko garrantzia dute balio-katean, kontuan hartuta ibilgailuaren balioaren % 75 baino gehiagoko ekarpena egiten dutela. Balio-igoera hori alde batera utzita, nabarmendu beharra dago, halaber, sektore osagarriaren industria-jarduerak BEGd-aren 6.600 milioi euro sortzen dituela, automobilgintzaren sektorearen erdia baino gehiago. Hori esanda, 2015a, zalantzarik gabe, urte ona izan da ekipo eta osagaien sektorerako, eta adierazleetako askok krisi aurreko adierazleak lortu dituzte.

Sernautok[1] argitaratutako informazioaren arabera, Europako herrialde batzuetako berreskurapen ekonomikoa, krediturako sarbide handiagoarekin batera eta petrolioaren eta lehengaien prezioaren beherakadarekin batera, erabakigarria izan da berreskurapen horretan. Fakturazioak % 7,7 egin du gora, eta 32.000 milioi euroko muga gainditu du; hori kanpo-merkatuetan antzemandako jarduketa baten emaitza da (% 7,5), eta horri ere etxeko merkataritzako jarduera positiboa gehitu behar zaio (% 8,2). Esportazioen atalean 18.898 milioi eurorekin, guztira, kanpoko salmentek jarraitzen dute etxeko salmentak gainditzen, guztizko fakturazioaren % 60ra helduz. Enpresa nazionalen ezaugarria da izaera esportatzaile handia, 35 herrialdetan daudela presente, hurbiltasuna bilatuz bezeroen ekoizpen-zentroekin. Etxeko merkatuari dagokionez, 2015 ekitaldian, antzeko hazkundea izan genuen merkatuko bi segmentuetan, alegia, % 8,3 jatorrizko ekipoari

[1] Asociación Española de Fabricantes de Equipos y Componentes para Automoción

bideratutako salmentetan, guztizkoaren % 65en ordezkaritzarekin, eta % 8 ordezko piezari bideratutakoetan.

**82. koadroa Automobilgintzarako ekipo eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak**

*(M euro)*

| KONTZEPTUA | 2014 | 2015 | % Δ 15/14 |
|---|---|---|---|
| Fakturazioa | 29.723 | 32.011 | 7,7 |
| Merkatu nazionaleko salmentak | 12.121 | 13.114 | 8,2 |
| - Jatorrizko ekipoa | 7.834 | 8.482 | 8,3 |
| - Ordezko pieza | 4.287 | 4.632 | 8,0 |
| Esportazioak | 17.602 | 18.898 | 7,5 |
| Inbertsioak | 1.811 | 1.833 | 1,2 |
| Inbertsioak I+G+Bn | 905 | 1.207 | 33,5 |
| Enplegua (langile-kop.) | 196.600 | 204.200 | 3,9 |

*Iturria: Sernauto.*

Gainerako adierazleei dagokienez, sektoreak argi egiten du apustu berrikuntzaren alde, eta 1.207 milioi euro inbertitu ditu partida horretan; horrela, zabal gainditzen dira (% 33,5) aurreko ekitaldiko balioak. Kopuru horri 1.800 milioi euro gehitu behar zaizkio, ekoizpen-gaitasunak hazteko eta hobetzeko. Enpleguaren ildotik, 2015ean 7.600 lanpostu berri sortu dira, % 3,9ko igoeraren ondorioz, eta 204.200 enplegu zuzenetara iritsi da; kalkulatzen da 330.000 dela enplegu-kopurua, guztira, zuzenak eta zeharkakoak kontuan hartzen badira.

Guzti hori kontuan hartuta, etorkizuneko ikuspegiak positiboak dira gorantz ari den eta berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta, batez ere, urterik urtera erronka berriei aurre egiteko kalitatezko enpleguaren alde egiten duen sektore honentzat. Sernautoren hitzetan, kalkulatzen da 2016an sektoreak % 7 egin dezakeela gora fakturazioan eta % 3 enpleguan.

## 5.3 AUTOMOBILGINTZAREN INDUSTRIA HORNITZAILEA EAE-N

2015ean, EAEko automobilgintzaren industria hornitzaileari ere onura ekarri dio sektoreak ekitaldi honetan izan duen egoera onak. Hain zuzen ere ACICAEk[1] argitaratutako datuek berresten dute osagaien euskal enpresen jarduerak nabarmen egin duela hobera. Zehazki, 2015ean marka historikoa erregistratu da sektoreko fakturazioan, 15.000 milioi euroko muga gaindituz.

[1] Euskadiko Automobilgintzaren Klusterra



LABORAL kutxa

Hori horrela, nabarmendu behar da automobilgintzaren sektoreak euskal ekonomian duen garrantzia, estrategikoa baita, zalantzarik gabe. Sektorea 300 enpresa hornitzaile inguruk osatzen dute, eta ia 250 instalazio ekoizle ditu 29 herrialdetan; gehienak sortzen ari diren merkatu berrietan. Enpresa-sare garrantzitsu horri Mercedesek Gasteizen duen fabrikako jarduera gehitu behar zaio; izan ere, EAEko BGParen % 22 baino gehixeago hartzen du. Daimler talde alemanaren lantegiak (EAEko enpresa eraikitzaile bakarra) 3.500 langile ditu, eta urtean, batez beste, 100.000 ibilgailu ekoizten ditu. Horrez gain, enpresarekin lotura duten azken albisteak oso optimistak dira; hain zuzen ere, 2016ko lehen hiruhilekoa enpresaren historiako onena izan da furgoneten segmentuari dagokionez, 76.000 unitate entregatu baititu. Beraz, eskari-aurreikuspenei erantzuteko, Mercedes-Benzek bere Gasteizko instalazioan 41 milioi euro inbertituko dituela aurreikusten da.

Magnitude sektorial handiak sakonago aztertuz, eta lehen ere aipatu dugun moduan, EAEko automobilgintzako osagaien sektoreak 15.004 milioi euroko fakturazioarekin itxi zuen 2015 ekitaldia, alegia, aurreko urtean baino % 9,1 gehiago. Fakturazio horretatik, 14.254 milioi euro (% 95) oso-osorik automobilgintzako salmentetara bideratutakoak dira, urtetik urterako % 5,8ko gorakadarekin. Zehatzago esanda, salmenten % 60 ibilgailuen eraikitzaileei egin zaizkie, % 38 lehen mailako hornitzaileei, eta % 2 besterik ez dira bideratu ordezko piezen merkatura.

**83. koadroa EAEko automobilgintzaren sektore hornitzailearen bilakaera**

| Kontzeptua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Fakturazioa (M euro) | 11.598 | 12.421 | 13.071 | 13.747 | 15.004 |
| Automobilgintzako salmentak (M euro) | 11.250 | 11.780 | 12.286 | 13.472 | 14.254 |
| Enplegua (pertsona kop.) | 36.764 | 35.376 | 34.851 | 36.093 | 36.583 |

*Iturria: ACICAE.*

Enpleguari dagokionez, horrek ere goranzko joera izan du, eta enplegatuen gorakada ia 500 pertsonakoa izan da; hala, 36.583 langile izan dira, 2014an baino % 1,4 gehiago. I+G+Bra bideratutako aurrekontu-zatiari dagokionez, enpresek beren fakturazioaren % 3 inbertitu dute arlo horretan, eta adierazle horrek % 7ra arte egiten du gora enpresa-taldeez edo multinazionalez ari garenean.

**11. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera**




*Iturria: ACICAE.*

Bestalde, EAEko automobilgintzako industria hornitzailearen ezaugarrietako bat da profil esportatzailea duela; izan ere, bere fakturazioaren % 90 esportatzen du. Zehatzago esanda, 2015ean salmenten % 40 Europako merkatuetan egin ziren (EB-27), eta % 47 munduko gainerako herrialdeetako merkatuetan. Merkataritza-jardueraren % 2 besterik ez da egiten EAEn, eta gainerako % 10a lurralde nazionalak hartzen du bere gain.

**12. grafikoa  Sektoreko ekoizpenaren helmugako merkatuak***




*(*): Grafikoan jasotako informazioa ACICAEko bazkide diren enpresei bakarrik dagokie.*

*Iturria: ACICAE.*

Interesgarria da aipatzea 2015ean ACICAEk (helburu nagusi gisa du sektoreko lehiakortasuna areagotzea) bere enpresen eraginen eta aukeren azterketa bat egin duela, azpimultzoetan eta moduluetan izan dezaketen pisua areagotu ahal izateko, eraikitzaileek plataformen pisua areagotzeko hartu duten joerari jarraikiz (kostuak arrazionalizatzeko eta "time to market"-a murrizteko). Ildo horretan, euskal enpresek aukera interesgarriak dituzte enpresen dimentsioari dagokionez; sinergiak sortu eta batera landu ditzakete moduluen edo azpimultzoen garapena, fabrikazioa eta hornikuntza, produktuaren balioa handituz. Berehalako etorkizunari dagokionez, Klusterrean optimista agertu dira; izan ere, 2016an osagaien euskal industriak 2015eko zifrak hobetuko dituela uste dute, % 5 inguru.

# 6. MAKINA-ERREMINTA

## 6.1 MUNDUKO EGOERA

Mundu-mailan, makina-erremintaren ekoizpenak ez du oso bilakaera homogeneoa eduki azken bost urteetan. 2009 ekitaldia historiako okerrenetakoa izan zen; hain zuzen, ekoizpena ez zen 40.000 milioi eurora iritsi. Alabaina, bi urte geroago, 2012an, industriak ekoizpen-markak hautsi zituen, 72.500 milioi euroko barrera gainditu baitzuen. Dena den, sektorearen suspertzeak ez zuen askorik iraun, hurrengo ekitaldian ekoizpen-jarduera izugarri jaitsi baitzen (-% 29). Hurrengo bi urteetan gora egin zuen berriz, eta 2015ean ia goreneko balioetara iritsi zen (72.308 milioi euro).

Lurraldeen araberako analisiak erakusten duenez, krisiaren aurretik bai Asiak bai Europak aktiboki laguntzen zuten sektoreko adierazleak igotzen; alabaina, 2009tik aurrera, kontinente asiarrak, Txina buru zuela, gero eta protagonismo handiagoa hartu zuen. Egoera hori agerian geratu zen 2014an, Txinak bere aurreko ekitaldiko balioak hirukoiztu zituenean; nabarmen sustatu zituen ekoizpena eta kontsumoa, eta asko aldatu zituen magnitude sektorial nagusiak. 2015ean, Asiako herrialde indartsu horrek berretsi egin zuen bere nagusitasuna, bai ekoizpenaren bai kontsumoaren arloan, baina pixkanaka bere hazkunde-erritmoa jaisten hasi zen. Hala ere, Txinako makina-erremintaren ekoizpena % 11,2 areagotu zen, 2014ko kopuruekin alderatuta; zehazki, 19.927 milioi eurora arte iritsi zen (munduko ekoizpenaren % 28). Hazkundea txikiagoa izan zen kontsumoaren arloan (% 3,9), baina nabarmentzekoa hala ere: 25.797 milioi euro (munduko guztizkoaren % 34).

Analisiarekin jarraituz eta gainerako herrialdeei dagokienez, 2015ean berritasunak egon dira ekoizpenaren rankingaren osaeran. Japoniak 12.163,7 milioi euro eta taldeko urtetik urterako aldakuntza onena (% 25,9) lortu ditu, eta bigarren lekuan jarri da; hala, Alemania hirugarren postura igaro da, 11.201,1 milioi eurorekin eta % 5eko hazkundearekin. Nabarmendu behar da industriaren kontzentrazio geografikoa; izan ere, 10 makinatik 6 fabrika txinatarretan (% 28), japoniarretan (% 17) edo alemaniarretan (% 15) egiten dira. Gainerako herrialdeek ekoizpenaren % 40 hartzen dute beren gain. Italia, Hego Korea eta AEB dira garrantzitsuenak (% 6 eta % 7 artean, hurrenez hurren); ondoren, Taiwan (% 5) eta Suitza (% 4); eta, azkenik, Espainia (% 1). Azken honek postu bat gora egin du, eta hamargarren postura bidali du Austria.

Analisia sakonago aztertuz, eta kontsumoari dagokionez, lehen ere esan dugu gertakari aipagarriena Txinaren presentzia ikaragarria dela. Hain zuzen ere, 25.000 milioi euro inbertitu ditu 2015ean. Asiako herrialde indartsuak bere gain du munduko makina-



LABORAL kutxa

erremintaren kontsumoaren % 34; beraz, argi dago magnitude sektorialen joera aldatzeko gaitasuna baduela. Rankingeko hurrengo herrialdea da, % 9,5eko hazkunde-indizearekin eta 6.640 milioi euro inguruko balioekin. Alemaniak % 3,1eko hazkundea izan du eta guztira 5.735,6 milioi euro inbertitu ditu, Japoniaren antzera (5.234 milioi euro). Azken horrek, ordea, dinamismo handiagoa izan du kontsumoari dagokionez, bere markak nabarmen areagotu baititu aurreko ekitalditik (% 35). Gainerako herrialdeek beste magnitude batzuk izan dituzte; horien artean nabarmentzekoa da Italiak izandako kontsumoaren hazkundea (aurreko ekitaldian baino % 50,8 gehiago), baita Espainiarena ere (% 35,7). Hego Koreak baino ez du izan urtetik urterako aldakuntza negatiboa (-% 6,4).

**84. koadroa Makina-erremintaren mundu-mailako ekoizpena, merkataritza eta kontsumoa**

*(M eurotan)*

| Herrialdea | 2015(*) | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ekoizpena | Esportazioa | Inportazioa | Kontsumoa |
| Txina | 19.927,9 | 2.885,5 | 7.754,7 | 24.797,1 |
| Japonia | 12.163,7 | 7.777,7 | 848,1 | 5.234,0 |
| Alemania | 11.201,1 | 7.927,9 | 2.462,4 | 5.735,6 |
| Italia | 4.784,8 | 3.283,2 | 1.326,3 | 2.827,9 |
| Hego Korea | 4.290,4 | 2.111,8 | 1.268,7 | 3.447,2 |
| AEB | 4.147,9 | 1.573,5 | 4.063,1 | 6.637,5 |
| Taiwan | 3.633,9 | 2.872,9 | 649,2 | 1.410,3 |
| Suitza | 2.752,8 | 2.332,3 | 515,5 | 936,0 |
| Espainia | 940,2 | 771,8 | 416,8 | 585,1 |
| Austria | 845,8 | 628,6 | 357,3 | 574,6 |
| Erresuma Batua | 744,2 | 595,6 | 708,5 | 857,1 |
| Gainerako herrialdeak | 6.875,3 | 6.066,7 | 18.456,9 | 19.265,6 |
| **Guztizkoa** | **72.308,0** | **38.827,5** | **38.827,5** | **72.308,0** |

*(*): Balioespenak.*
*Iturria: AFM.*

Esportazioei dagokienez, ekitaldi honetan hazkundeak izan dituzte, handiagoak edo txikiagoak, aztergai ditugun herrialde guztiek, Espainiak eta Austriak izan ezik (-% 0,7 eta -% 10,6). Bi herrialde horiek salbuespenak izan dira baikortasuna nagusi izan den urte honetan. Analisia zehazte aldera, eta datuak ikusita, Alemania eta Japonia izan dira buru esportazioen arloan, % 20ko barneratzearekin, hurrenez hurren. Herrialde asiarrak, gainera, taldeko urtetik urterako aldakuntzarik onenetakoa izan du (% 23,1). Italia dugu hirugarren postuan, % 4,2ko gorakada txikiarekin, eta, esportazioen rankingean, atzetik ditu Txina eta Taiwan, ia-ia balio berdinekin (lehenengoak % 16,2ko hazkundea izan du, eta bigarrenak % 1,7ko igoera txiki bat). Suitza, Hego Korea eta AEB ditugu esportazioen sailkapen honen amaieran, gorakada desberdinekin: % 8,4, % 25,5 eta % 0,2, hurrenez hurren.

Inportazioei buruzko datuak aztertuz gero, Txinak, bere zifrak % 8 murriztu baditu ere, mundu-mailako makina-erremina inportatzaile garrantzitsuena izaten jarraitzen du; nazioarteko jardueraren % 20 hartzen du, hain zuzen. Nabarmendu behar da herrialde honetan bakarrik erregistratu dela aldakuntza-tasa negatiboa; gainerakoek goranzko aldakuntzak izan dituzte beren inportazioen kopuruetan. Bi digituko hazkundeak izan dituzte Japoniak (% 57,4), Italiak (% 56,2), Espainiak (% 26,1), Taiwanek (% 16,6) eta Hego Koreak (% 12,7); alabaina, guztizkoan duten garrantzia % 1 eta % 3 artekoa besterik ez da. Hazkunde txikiagoak izan dituzte AEBk (% 3) eta Alemaniak (% 7,5), baina, hala ere, guztira inportatutako fluxuaren % 10 eta % 6 hartzen dute beren gain, hurrenez hurren.

Nazioarteko atala ixte aldera, eta CECIMOk[1] argitaratutako informazioaren arabera, Europako makina-erremintaren industriarako aurreikuspenak nahiko onak dira. Hain zuzen ere, elkarteak dio 2016an markak hausteko moduko balioak lortuko direla esportazioaren esparruan. Horretarako, fabrikazio gehigarria eskala handian egin behar da, ahalik eta modu azkarren eta errentagarrienean, eta industriaren balio-katea osatzen duten enpresa guztiek mota horretako fabrikazioa egiteko gai izan behar dute, *sine qua non* baldintza gisa, Europako fabrikatzaileen lehiakortasuna areagotzeko.

## 6.2 MAKINA-ERREMINTA EAE-N

2015 ekitaldiko itxiera oso ona izan da makina-erremintarentzat; itxiera-aurreikuspenak gainditu ere egin ditu. Makina-erremintako enpresen % 90 EAEn daude, eta ekoizpena % 7,1 areagotu dute; 940 milioi eurora iritsi dira. Hala, 2013ko ekoizpen-mailak berreskuratu dituzte, 2014an datu nahiko txarrak lortu ondoren. Hazkunde horren arrazoi dira, batetik, esportazioen egonkortasuna (funtsezko zeregina dute sektorearen egoera onean), eta, bestetik, etxeko merkatuko salmenten sustapen erabakigarria (2014an gertatutakoaren jarraipen gisa).

[1] European Association of The Machine Tool Industries.

**85. koadroa Makina-erremintako sektorearen aldagai nagusien bilakaera espainiar estatuan**

*(m eurotan)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Ekoizpena | 937.010 | 877.710 | 940.170 | 7,1 |
| 2. Barne-salmentak | 72.980 | 100.530 | 168.330 | 67,4 |
| 3. Esportazioak | 864.030 | 777.190 | 771.840 | -0,7 |
| 4. Inportazioak | 236.640 | 330.610 | 416.790 | 26,1 |
| 5. Barne-kontsumoa | 309.620 | 431.140 | 585.120 | 35,7 |
| 6. Esportazio-proportzioa = 3/1 | 92,2 | 88,5 | 82,1 | -7,3 |
| 7. Inportazio-proportzioa = 4/5 | 76,4 | 76,7 | 71,2 | -7,1 |

*Iturria: AFM.*

Hori esanda, eta kanpoko jardueraren analisiarekin hasiz, esportazioek beherakada nabarmena izan zuten 2014an (-% 10,1). Kontuan hartuta 2011-2013 hirurtekoan esportazioak izan zirela sektorea berreskuratzearen erantzule, beherakada horrek asko zaildu zuen industria nazionalaren egoera. 2015ean, urtea oraindik datu negatiboekin itxi bazen ere (-% 0,7), ez ziren horren negatiboak izan, eta esportazioak 771,8 milioi eurora igo ziren (oraindik zalantza zegoen haien bilakaerari buruz). Kanpoko merkatuen zalantzazko egoera horren faktoreak dira, besteak beste, Europako herrialde batzuen egonkortasunik eza eta Asiako merkatua pixkana bere hazkundea moteltzen hasi izana. Dena dela, kanpoko merkataritza-jardueraren bilakaerak oso garrantzitsua izaten jarraitzen du sektorearentzat, kontuan izaten badugu sektore honen profila ia erabat esportatzailea dela (makina-erremintaren industria nazionalaren esportazio-proportzioa % 82,1ekoa da).

Kanpoko salmenten intentsitatea behera egiten ari den testuinguru honetan, etxeko merkatuak profil askoz ere dinamikoagoa du, haren jarduera nabarmen areagotu baita (% 67,4). Goranzko bilakaera horrek bat egiten du aurreko ekitaldikoarekin (% 37,8), eta badirudi horrek baieztatu egiten duela barne-salmentak pixka bat berpizten ari direla. Dena den, argitu behar da abiapuntu genituen zifrak oso txarrak zirela. Ildo horretan, adierazi behar da Eusko Jaurlaritzak sustatutako Industria Makinen Renove Programak arrakasta handia izan duela. Horren baitan, 9 milioi euro inbertitu dira 297 makina berritzeko, eta horietatik 219 makina-erremintakoak izan dira. Zalantzarik gabe, programa hori eta aurreko ekitaldikoa erabakigarriak izan dira luzaroan lozorroan egon den etxeko merkatua berpizteko.

Inportazioei dagokienez, horiek ere 2014ko zabalkuntza-joerari jarraitu diote (% 39,7), eta beste gorakada bat izan dute, oraingoan % 26,1ekoa. Garrantzitsua da adieraztea inportazioak ez direla 250 milioitik igaro 2008tik eta ekitaldi honetan 416,8 milioi eurora iritsi direla. Horrek adierazten du eskaria nabarmen berreskuratzen ari dela, nahiz eta zalantza eta inbertitzeko zuhurtzia nagusi diren oraindik ere.

### 13. grafikoa Makina-erremintaren sektoreko merkataritza-balantza

*(M eurotan)*




*Iturria: AFM.*

### 86. koadroa Espainiako makina-erremintako ekoizpenaren banaketa, makineria motaren arabera

*(m eurotan)*

| Makina-erreminta mota | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Fresatzeko makinak | 168.930 | 146.910 | 164.890 | 12,2 |
| Tornuak | 114.010 | 138.180 | 156.210 | 13,0 |
| Makina bereziak eta transferrak | 95.020 | 94.090 | 79.450 | -15,6 |
| Mekanizazio-zentroak | 54.250 | 53.970 | 55.180 | 2,2 |
| Artezteko makinak | 51.060 | 65.240 | 53.610 | -17,8 |
| Prozesu fisiko-kimikoen makinak | 15.010 | 19.250 | 23.820 | 23,7 |
| Zulatzeko makinak | 17.800 | 15.450 | 20.900 | 35,3 |
| Mandrinatzeko makina | 13.810 | 10.260 | 17.820 | 73,7 |
| Zerrak eta trontzatzeko makinak | 1.730 | 5.080 | 6.440 | 26,8 |
| Harroketa bidezko beste batzuk | 31.900 | 29.140 | 24.400 | -16,3 |
| **Harroketa bidezko M-E guztira** | **563.510** | **577.570** | **602.720** | **4,4** |
| Prentsa mekanikoak | 127.350 | 153.400 | 166.760 | 8,7 |
| Zizailatzeko makina | 94.090 | 52.950 | 39.180 | -26,0 |
| Kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak | 76.470 | 30.630 | 31.060 | 1,4 |
| Prentsa hidraulikoak | 32.900 | 12.160 | 19.620 | 61,3 |
| Puntzonatzeko edo hozkatzeko makinak | 12.610 | 15.670 | 12.170 | -22,3 |
| Deformazio bidezko beste batzuk | 30.080 | 35.330 | 68.660 | 94,3 |
| **Deformazio bidezko M-H guztira** | **373.500** | **300.140** | **337.450** | **12,4** |
| **Makina-eremintak GUZTIRA** | **937.010** | **877.710** | **940.170** | **7,1** |

*Iturria: AFM.*

Analisiarekin jarraituz eta ekoizpenaren bilakaerari dagokionez, 2015 ekitaldian bilakaera benetan desberdina izan da makina motaren arabera. Hala, urtea ona izan da bi azpisektorerentzat: harroketa bidezkoa eta deformazio bidezkoa.

Zehatzago esanda, eta harroketa bidezko azpisektorea osatzen duten makinekin hasiz (horren garrantzi espezifikoa % 64ra arte igo da), guztira % 4,4 areagotu bada ere, alde handiak daude bilakaeran, makina motaren arabera. Fresatzeko makinekin eta tornuekin hasiko gara; horiek dira ekoizpen nazionaleko buru, eta bilakaera positiboa izan dute (% 12,2 eta % 13, hurrenez hurren). Bi makina moten artean harroketa bidezko makina-erremintaren ekoizpenaren erdia baino gehiago osatu dute (% 27,4 eta % 25,9, hurrenez hurren) eta guztizkoaren herena baino gehiago. Makina bereziek eta transferrek % 13,2ko garrantzi espezifikoa izan dute 2015ean, eta haien ekoizpena nabarmen jaitsi da (-% 15,6), aurreko urteetako ekoizpen-mailetatik urrunduz. Izan ere, mekanizazio-zentroek, % 9,2ko barneratzearekin, hazkundea izan dute, txikia bada ere (% 2,2), eta artezteko makinek (% 8,9ko kuota) izan dute taldeko bilakaerarik okerrena (-% 17,8). Harroketaren azpisektorea osatzen dute prozesu fisiko-kimikoen makinek, zulatzeko makinek, mandrinatzeko makinek eta zerrek eta trontzatzeko makinek, partaidetza txikiagoarekin baina zifrak nabarmen hobetuz. Hain zuzen ere, urtetik urterako % 23,7ko aldakuntza izan dute, eta % 4ko partaidetza: % 35,3 eta % 3,5, % 73,7 eta % 3, eta % 26,8 eta % 1,1, hurrenez hurren.

Orain analisi hori bera egingo dugu deformazio bidezko makinekin. Haien ekoizpen-balioa ia 338 milioi eurokoa izan da 2015ean, eta ekoizpen-mailak berreskuratzen ari da (% 12,4), 2014an beherakada handia izan ondoren (-% 19,6). Aurreko ekitaldian bezala, prentsa mekanikoak dira nagusi ekoizpen nazionalean, 166.760 milioi euroko ekoizpen-balioarekin, eta ekoizpen-erritmoa azkartzen jarraitzen dute, aurreko ekitaldian baino motelago bada ere (2015ean % 8,7 eta 2014an % 20,5). Nabarmendu behar da prentsa mekanikoak direla deformazio bidezko ekoizpenaren ia % 50en erantzule, eta baita guztizkoaren ia % 18rena ere. Horren azpitik daude, tarte pixka batekin, honako makina hauek, magnitude-ordenaren arabera: zizailatzeko makinak (hauen datuek -% 26 egin dute behera, eta, beraz, okertu egin da ekoizpenari dagokionez duten posizioa); kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak, ia aurreko ekitaldiko maila berberei eutsiz (urtetik urterako % 1,4ko aldakuntza); prentsa hidraulikoak, nabarmen areagotu direnak (% 61,3), nahiz eta balio oso baxuak zituzten abiapuntu; eta, azkenik, puntzonatzeko edo hozkatzeko makinak. Azken horien ekoizpena ere nabarmen murriztu da (-% 22,3).

**87. koadroa Makina-erreminten esportazio espainiarrak, herrialdeen arabera**

*(m eurotan)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 38.890 | 54.460 | 97.050 | 78,2 |
| Alemania | 152.610 | 87.130 | 80.070 | -8,1 |
| Txina | 114.730 | 154.490 | 51.340 | -66,8 |
| Portugal | 34.380 | 41.210 | 51.310 | 24,5 |
| Italia | 25.320 | 30.990 | 51.070 | 64,8 |
| Erresuma Batua | 39.460 | 40.720 | 48.750 | 19,7 |
| Mexiko | 48.810 | 40.110 | 46.650 | 16,3 |
| Frantzia | 66.210 | 42.470 | 45.060 | 6,1 |
| Polonia | 10.730 | 13.310 | 35.270 | 165,0 |
| Brasil | 48.060 | 31.710 | 33.080 | 4,3 |
| Errusia | 39.840 | 26.750 | 22.090 | -17,4 |
| India | 34.510 | 28.830 | 20.390 | -29,3 |
| Txekiar Errepublika | 7.670 | 10.020 | 16.240 | 62,1 |
| Turkia | 19.960 | 14.390 | 15.570 | 8,2 |
| Suedia | 2.110 | 9.120 | 11.060 | 21,3 |
| Belgika | 3.190 | 4.190 | 10.970 | 161,8 |
| Beste batzuk | 177.550 | 147.290 | 135.870 | -7,8 |
| **Guztizkoa** | **864.030** | **777.190** | **771.840** | **-0,7** |

*Iturria: AFM.*

2015ean, aldaketa esanguratsuak ikus daitezke esportazio nazionalen egoeran. Lehenengo aldaketak zerikusia du Txinarekin; duela urte batzuk salmenta nazional gehien zituena bazen ere, 2015ean hirugarren geratu da, bere balioak nabarmen jaitsi baitira (-% 66.8). AEB, 97.050 milioi eurorekin, makina-erremintako industria nazionaleko merkataritza-fluxu handiena izan duen herrialdea izan da lehen aldiz, gorakada handia izan baitu 2014arekin alderatuta (% 78,2). Gertutik jarraitzen dio Alemaniak (-% 8,1), aurreko ekitaldian baino portaera egonkorragoarekin (aurreko ekitaldian esportazio nazionalen mapan zuen presentzia ia erdira murriztu zuen). 2015ean bigarren postuan geratu da, % 10,4 hartzen duela. Alemaniaren atzetik, hiru herrialde hauek ditugu: Portugal, Italia eta Erresuma Batua. Hirurek garrantzi espezifiko antzekoa dute (% 7), eta bilakaera positiboak izan dituzte, intentsitate desberdinekin bada ere: % 24,5, % 64,8 eta % 19,7, hurrenez hurren. Hurrengo herrialdeak, Mexikok, joera bera izan du, goranzko bilakaera izan baitu (% 16,3), eta baita Frantziak ere (% 6,1). Biek % 6 inguruko partaidetza izan dute guztizkoan. % 5 baino gutxiagoko barneratzea izan dute beste zenbait herrialdek, Polonia buru dutela. Azken horrek izan du talde honetako urtetik urterako aldakuntza onena (% 165), eta hamahirugarren postutik (2014an) zortzigarrenera (2015ean) igaro da. Datuak ikusita, badirudi merkatu-aukera onenak mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan daudela. Beste herrialde hauetan, berriz, kontsumoak indarra galdu du: Txina, India, Errusia, Brasil eta Alemania. Dirudienez, azken hori urrun dago oraindik lortu nahi duen berreskuratze ekonomikotik.

Esportazioaren esparrura mugatzen bagara, 2014ko bilakaera-joera bera errepikatzen da; alegia, egoera askoz ere okerragoa da deformazioaren segmentuan harroketaren

segmentuan baino. Zehatzago esanda, harroketaren azpisektorearekin hasteko, 2015ean kanpoko merkataritza-jarduerak % 3,9 egin du gora, eta ia 554 milioi eurora iritsi da. Gorakada hori fresatzeko makinen joerari esker izan da; izan ere, harroketaren azpisektoreko esportazioen % 30en erantzule izan dira, eta horien atzerriarekiko merkataritza-trafikoa % 16,9 areagotu da. Tornuak dira gehien esportatzen diren produktuen artean bigarrenak, eta ez dute aldaketa handirik izan 2014arekin alderatuta (-% 0,2). Ekitaldi hau ez da oso ona izan, ordea, makina berezientzat eta transferrentzat (-% 22,6), mekanizazio-zentroentzat (-% 8,3) eta artezteko makinentzat (-% 13,4). Mandrinatzeko eta zulatzeko makinek, berriz, gora egin dute (% 88,2 eta % 42,9), nahiz eta presentzia txikiagoa izan duten esportazioen mapan.

**88. koadroa Esportazioa makina-erreminta motaren arabera**

*(m eurotan)*

| Makina-erreminta mota | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Fresatzeko makinak | 157.160 | 140.900 | 164.750 | 16,9 |
| Tornuak | 101.660 | 115.120 | 114.910 | -0,2 |
| Makina bereziak eta transferrak | 88.110 | 90.650 | 70.160 | -22,6 |
| Mekanizazio-zentroak | 53.420 | 53.260 | 48.850 | -8,3 |
| Artezteko makinak | 49.670 | 53.710 | 46.520 | -13,4 |
| Prozesu fisiko-kimikoen makinak | 14.250 | 18.810 | 20.950 | 11,4 |
| Mandrinatzeko makina | 12.240 | 9.320 | 17.540 | 88,2 |
| Zulatzeko makinak | 14.050 | 8.000 | 11.430 | 42,9 |
| Zerrak eta trontzatzeko makinak | 1.520 | 4.930 | 4.810 | -2,4 |
| Harroketa bidezko beste batzuk | 34.430 | 28.920 | 44.060 | 52,4 |
| **Harroketa bidezko M-E guztira** | **526.520** | **523.590** | **543.980** | **3,9** |
| Prentsa mekanikoak | 111.960 | 109.320 | 104.740 | -4,2 |
| Zizailatzeko makina | 90.390 | 52.230 | 34.420 | -34,1 |
| Kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinak | 66.750 | 29.680 | 24.410 | -17,8 |
| Prentsa hidraulikoak | 24.560 | 11.580 | 19.130 | 65,2 |
| Puntzonatzeko edo hozkatzeko makinak | 14.470 | 15.640 | 10.750 | -31,3 |
| Deformazio bidezko beste batzuk | 29.380 | 35.150 | 34.410 | -2,1 |
| **Deformazio bidezko M-E guztira** | **337.510** | **253.600** | **227.860** | **-10,1** |
| **Makina-erremintak GUZTIRA** | **864.030** | **777.190** | **771.840** | **-0,7** |

*Iturria: AFM.*

Deformazio bidezko makina-erremintaren atalean, prentsa hidraulikoek baino ez dituzte hobetu beren erregistroak aurreko ekitalditik, baina hobekuntza izugarria izan da (% 65,2). Alabaina, gorakada hori ez da nahikoa gainerako makinek izan duten beherakada konpentsatzeko; beraz, % 10,1eko beherakada egon da deformazio bidezko makinen azpitaldeko esportazio-jardueran. Prentsa mekanikoek (esportatutako bolumenaren ia erdia hartzen dute) % 4,2 egin dute behera, eta joera hori bera izan dute gainerako makinek ere, askoz ere intentsitate handiagoarekin: % 34,1eko beherakada zizailatzeko makinek; % 17,8koa kurbatzeko, tolesteko eta lautzeko makinek; eta, azkenik, % 31,3koa puntzonatzeko edo hozkatzeko makinek.

**89. koadroa  Makina-erreminten inportazio espainiarrak, herrialdeen arabera**

*(m eurotan)*

| Herrialdea | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Alemania | 64.750 | 90.780 | 98.070 | 8,0 |
| Italia | 39.060 | 57.000 | 61.520 | 7,9 |
| Japonia | 20.000 | 27.700 | 43.030 | 55,3 |
| Belgika | 14.240 | 20.510 | 38.590 | 88,2 |
| Taiwan | 17.770 | 23.380 | 33.440 | 43,0 |
| Txina | 15.490 | 17.640 | 20.760 | 17,7 |
| Erresuma Batua | 10.010 | 13.310 | 18.730 | 40,7 |
| Suitza | 10.690 | 17.740 | 17.670 | -0,4 |
| Frantzia | 7.860 | 11.860 | 16.380 | 38,1 |
| Hego Korea | 10.520 | 7.590 | 15.870 | 109,1 |
| Turkia | 2.190 | 5.480 | 9.450 | 72,4 |
| India | 2.560 | 6.480 | 7.810 | 20,5 |
| Herbehereak | 2.780 | 3.960 | 4.780 | 20,7 |
| Danimarka | 1.800 | 1.000 | 4.690 | 369,0 |
| Estatu Batuak | 5.840 | 7.010 | 3.920 | -44,1 |
| Beste batzuk | 11.080 | 19.170 | 22.080 | 15,2 |
| **Guztizkoa** | **236.640** | **330.610** | **416.790** | **26,1** |

*Iturria: AFM.*

Nazioarteko merkataritzaren atalarekin amaitzeko, eta inportazioei dagokienez, 2015ean nabarmen areagotu da horien balioa; 416,8 milioi eurora iritsi da. Inportazioen banaketari dagokionez, nagusi dira Alemania eta Italia, % 8ko gorakadekin, hurrenez hurren. Bien artean, inportazio-jardueraren ia % 40 hartzen dute. Jarraian datoz, hazkunde nabarmenarekin hauek ere, Japonia, Belgika eta Taiwan (% 55,3, % 88,2 eta % 43, hurrenez hurren), eta horiei guztizko trafikoaren % 10,3, % 9,3 eta % 8 dagokie. Gainerako herrialdeek partaidetza askoz ere txikiagoak dituzte, baina Hego Korea nabarmendu behar da, taldeko gorakadarik handiena izan baitu (% 109,1).

Etorkizuneko perspektibei dagokienez, 2016an sektoreak hazten jarraituko duela aurreikusten da, eta fakturazioa % 5 areagotuko dela. Baliteke etxeko merkatua izatea hazkunde horren erantzule nagusia, pixkanaka zabaltzen hasi baita; dena den, duela urte batzuk lortutako gehieneko kuotetatik urrun dago oraindik. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak 2016an beste Makinen Renove Plan bat martxan jarriko duela baieztatu da, eta horrek, zalantzarik gabe, berriz aktibatuko du makina-erremintaren sektoreko inbertsioa. Gure mugetatik kanpo, merkatu batzuk ahuldu egin direla ikusi da azken ekitaldian. Hori dela eta, enpresek inoiz baino lehiakorragoak izan behar dute, eta produktuak espezializatu behar dituzte. Tamaina txikiagoko enpresek, berriz, aukera berriak bilatu behar dituzte, aliantzen bitartez.



LABORAL kutxa

# 7. ESKU-ERREMINTA

Krisi ekonomikoak nabarmen murriztu zituen zenbateko sektorial handiak, eta urte zail horien ondoren, 2014an inflexio-puntu bat ezarri zen eta joera kaltegarri horren ondoren, hobekuntza bat nabaritzen hasi zen esku-erreminta sektorearen magnitude nagusietan. Joera positibo horrek jarraitu egin du 2015ean, eta, hala, arnasa hartu ahal izan dute Eskuin, Burdindegi eta Industrial Hornikuntzaren Klusterra (lehen, Herramex) osatzen duten 27 enpresek. 2015 ekitaldia ixtean, beraz, 328,9 milioi euro lortu ziren salmentetan; aurreko urtean baino % 3,5 gehiago. Horretan eragina izan dute, neurri berean, lurralde nazionaleko salmentek (163,7 milioi euro) zein kanpo-merkatukoek (165,1 milioi euro); hala ere, azken horiek bilakaera handiagoa izan dute urtetik urtera (% 4,4, eta merkatu nazionalean % 2,7 erregistratu da). Hazkuntza-testuinguru horretan, salbuespena izan da enpleguak izan duen beheraka; 2.028 enplegutik (2014) 1.953 enplegura jaitsi da.

**90. koadroa Sektoreko magnitude nagusien bilakaera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2013(*) | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Salmenta guztiak | 303.350 | 317.670 | 328.880 |
| Barne-salmentak | 154.170 | 159.440 | 163.740 |
| Esportazioak | 149.180 | 158.240 | 165.140 |
| Enplegua (pertsona kop.) | 2.048 | 2.028 | 1.953 |

*(*): 2013. urtean, bazkide berriak gehitu zitzaizkion Eskuini, eta horrek nabarmen areagotu zituen magnitude sektorialak.*

*Iturria: Eskuin -Burdindegi eta Industrial Hornikuntzaren Klusterra.*

Azpimarratu beharra dago Eskuinekoak direla esku-erremintak eta sarrailak fabrikatzen dituzten 27 enpresak; hau da, nazio-mailako sektorearen % 85 gutxi gorabehera eta ekoizpenaren % 90. Hala, haien enpresa-kide gehienak Euskadikoak dira. Elkartea osatzen duten enpresa-sarearen ezaugarriei dagokienez, enpresa ertainak eta txikiak dira gehienak. Zehazki, % 54k 20 eta 100 langile bitartean ditu, % 32k 20 langile baino gutxiago ditu, eta, azkenik, gainerako % 14ak 100 langile baino gehiago ditu.

Analisiarekin jarraituz eta nazio-mailako salmenten banaketari dagokionez, nekazaritzara bideratutako esku-erremintek salmenta-mailek % 7,4 egin dute gora, eraikuntzari dagokienek % 10,5 eta industriara bideratutakoek % 11,4. Eskuin-eko enpresek sektore profesionalerako salmenta-bideak erabiltzen dituzte batez ere, esaterako, hornikuntza eta burdindegi industrialak, bai eta azken bezerotzat kalitatezko produktuak baloratzen dituzten industria-enpresak edo profesionalak dituzten salmenta-taldeak ere.

Nazioartean, esportazioen bilakaerak oso ona izaten jarraitzen du; 2015ean beste bultzada bat izan zuten (% 4,4), nahiz eta ez zen aurreko ekitaldian bezain handia izan (% 6,1). Esku-erremintaren fabrikatzaile nazionalentzat, barneko merkataritza-jarduerak dauka oraindik lehentasuna, eta ahalegin handia egiten dute horretan. Alde batetik, urte askotako merkataritza-harremana duten merkatu tradizionalenetako salmenta-mailak sendotzea bilatzen da, eta, bestetik, lehentasuna prezioari ez baizik eta kalitateari ematen dioten merkatu berriak irekitzea, esaterako, industria, petrolioa, gasa eta eraikuntza.

**91. koadroa Esportazioen banaketa, eremu geografikoen arabera**

*(% )*

| Eremua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Europa | 64 | 69 | 69 |
| Amerika | 14 | 13 | 14 |
| Asia | 3 | 2 | 3 |
| Afrika | 17 | 14 | 13 |
| Ozeania | 2 | 1 | 1 |
| **Guztizkoa** | **100** | **100** | **100** |

*Iturria: Eskuin.*

Salmenten banaketa geografikoari dagokionez, aldaketa gutxi izan dira aurreko ekitaldiko argazkiarekin alderatuta. Hamar esku-erremintatik ia zazpi Europako merkatuetara bideratzen dira; % 65,5 EBra eta % 3,2 Ekialdeko Europara (Errusia barne). Amerika da pisu handiena duen bigarren kontinentea (% 14), eta ekarpen antzekoa egiten da Ipar Amerikara (% 6,9) zein Erdialdeko Amerikara eta Hego Amerikara (% 6,8). Afrikari dagokionez, 2015ean arindu egin da 2014ko beheranzko joera, eta pisu espezifikoa ez da ia aldatu (% 13 2015ean eta % 14 2014an). Azkenik, hala Asia nola Ozeania, esportazio-mapa nazionalean presente badaude ere, haien ordezkaritza lekukotasunezkoa da ia (% 3 eta % 1, hurrenez hurren).

**92. koadroa Inportazioaren banaketa, eremu geografikoen arabera**

*(% )*

| Eremua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Europa | 66 | 56 | 63 |
| Asia | 29 | 34 | 32 |
| Amerika | 3 | 3 | 5 |
| Gainerakoak | 2 | 7 | 0 |
| **Guztizkoa** | **100** | **100** | **100** |

*Iturria: Eskuin.*

Inportazioaren datuak aztertuko ditugu orain. Hiru eremu geografikotan kontzentratzen da inportazio-jarduera nazionala. Europa da zerrendaburua, eta garrantzia berreskuratu du aurreko ekitaldiarekin alderatuta; hau da, inportatutako produktu guztien % 63

hartzen du. Ondoren, Asiak % 32 hartzen du, eta Amerikak, gutxiago, inportazioen % 5 besterik ez.

Kapituluaren ondorio gisa, sektoreko enpresa garrantzitsuenen hainbat datu interesgarri aurkezten dira jarraian. IZAR Cutting Tools enpresa, esaterako, ebaketa-erreminten fabrikatzaile nazionala da, eta 2015ean enpresak fakturazio kopuruaren errekorra lortu du, 23 milioi euro gainditu baititu lehen aldiz bere 100 urtetik gorako ibilbidean. Jarduketa bikain horren arrazoia da emaitza onak lortu dituela etxeko merkatuko zein enpresak bere produktuak merkaturatzen dituen 80tik gora herrialdetako salmentetan. Enpresak emandako informazioaren arabera, hazkuntza honen arrazoiek zerikusia dute fabrikazio nazionalarekin, fokua kalitatean jartzearekin, berritasunarekin eta zerbitzuarekin. Hala ere, konpainiak gainerakoen aldean duen desberdintasuna bezeroekiko gertutasuna eta merkataritza-harremanetan duen gardentasuna da. Halaber, enpresak aurreratu du jardueraren bultzada honen aurrean eta kontuan izanda oraindik ez dela ziurra sektorearen etorkizuna, IZARek hazkuntza-plan bat proposatzen du 2016rako, eta bere Zornotzako instalazioan 1,5 milioi eurotik gorako inbertsio-plan produktibo handi bat egitea da planaren oinarria.

Legazpiko Bellota Herramientas enpresa enblematikoa, berriz, Kanadako Ingersool Tillage Group taldearen parte da 2014ko martxotik, eta aurten bere salmenten % 10eko gorakadarekin itxi du 2015. urtea, merkatuan zabaltzeko estrategia indartsu bati esker. Enpresa liderra da merkatu nazionalean eta sendo egin du apustu Europako eta, zehatzago, Ingalaterrako, Frantziako eta Belgikako merkatu-kuota areagotzeko. Europako merkatuetan lidergoa bilatzeko apustuak, gainera, merkatu bakoitzaren beharretarako egokitzen diren produktu berriak ekoizteko eskatzen du, baina horrez gain, ez du deskuidatu AEBetan, Mexikon edo Kolonbian duen jarduera, eta salmenten kopurua handitzen jarraitzen du han ere. Merkataritza-dinamismo berari jarraitu dio beste negozio-unitateak ere, Bellota Agrisolutionsek. Unitate hori mundu osoan da ezaguna nekazaritza-makineriaren errendimendu altuko osagarriak fabrikatzen dituelako; 8.000 erreferentzia baino gehiago fabrikatzen ditu urtean, eta 80 herrialdetan baino gehiagotan zabaltzen ditu bere produktuak. Bi enpresek merkataritza-estrategia indartsu baten alde egiten dute apustu, eta, horretarako, inbertsio handia egiten dute I+G+Bn. 2014an, milioi bat euro inbertitu zituzten produktu berrietan, eta nabarmen areagotu zituzten aurreko ekitaldiko kopuruak. Gainera, ahalegin horri esker, 30 patente berri sortu dituzte azken bi urteotan.

Sektorean lider den beste enpresetako bat da EGA Master. Arabako multinazional honek kalitate handiko esku-erremintak ekoizten ditu eta nazioan gehien esportatzen duen enpresetako bat delako da ezaguna; izan ere, bere salmenten % 90 atzerriko merkatuetara bideratzen du. Enpresak 112 langile ditu (81 Gasteizen), 150 herrialdetan

baino gehiagotan ditu bezeroak, eta bere produktuen % 35 Europan saltzen ditu, % 25 Amerikan, % 20 Erdialdeko Ekialdean eta % 10 Afrikan eta Asia-Australian, hurrenez hurren.

EGA Masterrentzat, 2015 mugarri historikoa izan da enpresaren merkataritza-ibilbidean; izan ere, 2,5 milioi dolarrera iristen diren hiru kontratu lortu ditu Arabia Saudi, Kuwait eta Algeriarentzat. Zehazki, urteko lehen hiruhilekoan industria-erreminten 1 milioi euroko kontratu bat itxi zuen Arabia Saudirekin, enpresaren 25 urteetan egin den kontraturik handiena. Hala ere, gertaera hori hilabete batzuen ondoren gainditu zuen 1,1 milioi dolarreko bigarren kontratu batek. Kasu horretan Kuwaiten izan zen, eta ondoren beste bat Algerian; hau, ordea, txikiagoa izan zen. Zalantzarik gabe, enpresaren arrakastaren faktore garrantzitsu bat da bere erreminten balio gehigarri altuari eustea; hortaz, bere fakturazioaren % 6 I+G+B proiektuetara bideratzen da urtero. 2017rako, enpresak uste du urtean bi digituko gorakadari eutsi diezaiokeela, nahiz eta merkatuetan ziurgabetasun handia egon.

Kapituluan zehar aipatu den moduan, sektorea egonkor dago, eta hazten ari da pixka bat, nahiz eta oraindik hodei beltzak antzematen diren eremu batean mugitu. Enpresek bat egiten dute kalitatezkoak diren eta balio gehigarria duten produktuen alde egiten jarraitzeko borondatean, oso lehiakorra den merkatu batean gailentzeko eta Txina bezala kostu baxua duten produktuak dituzten herrialdeen lehiatik urruntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da ikerketa; ezinbesteko baldintza da merkatu exijenteetan mantentzeko eta bertan negozio-aukera berriak sortzeko.

# 8. PAPERA

## 8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta (ASPAPEL) elkartearen informazioa kontuan hartuta eta aldi berean, Confederation of European Paper Industries-en (CEPI) datuetatik abiatuta, esan daiteke 2015ean eremu horretan paperaren eta kartoiaren ekoizpena 90.700 mila tonakoa izan dela; bolumen hori -% 0,3 baxuagoa da aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino. Horrela, 2011n hasitako beheranzko joerari ematen zaio jarraipena.

**93. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)**

| Urtea | m Tm | % ∆ |
|---|---|---|
| 2010 | 96.614 | 9,1 |
| 2011 | 93.557 | -3,2 |
| 2012 | 92.081 | -1,6 |
| 2013 | 91.128 | -1,0 |
| 2014 | 90.949 | -0,2 |
| 2015 | 90.700 | -0,3 |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.*

Paperaren ekoizpenaren eskualde-banaketa aintzat hartuta, eta, kasu honetan, informazioa 2014 ekitaldiari buruzkoa dela kontuan hartuta, CEPI osatzen duten herrialdeen multzoari paperaren munduko ekoizpenaren % 22,4 dagokio; kuota hori Asiari dagokiona baino askoz ere baxuagoa da (% 45,9), kontuan hartuta Asia munduko lehen ekoizlea dela. Bestalde, Ipar Amerikari dagokiona baino altuagoa da (munduko ekoizpen guztiaren % 20,7).

Analisia 2015ean zentratuz gero, CEPIren esparruan, paperaren esportazioek behera egin dute (-% 1,1), eta inportazioek eta kontsumoak gora egin dute (% 6,3 eta % 0,5, hurrenez hurren). Zehazki, paperaren esportazioak 18.915 mila tona izan dira, eta Europako gainerako herrialdeetara eta Asiara bideratutakoek behera egin dute (-% 2,5 eta -% 4, hurrenez hurren), eta gora egin dute Ipar Amerikara (% 6), Latinoamerikara (% 2,1) eta munduko gainerako lekuetara (% 0,8) bideratutakoek. Kontsumoa dela eta, bestalde, 77.416 mila tona izan dira; inportazioek 5.459 mila tona gora egin dute, oro har, Asiatik eta munduko gainerako lekuetatik datozen kasuetan salbu (-% 2,1 eta -% 11,6, hurrenez hurren).

Horrela, bada, CEPI osatzen duten herrialdeetako paperari buruzko balantza komertzialak saldo positiboa izan du, 13.456 mila tonakoa, 2015ean; maila hori aurreko ekitaldian lortutakoa baino -% 3,8 baxuagoa izan da (2014an, 13.990 mila tonako superabita izan zuen).

**94. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2014* | Guztizkoaren % |
|---|---|---|
| Alemania | 22.540 | 5,5 |
| Austria | 4.865 | 1,2 |
| Belgika | 2.044 | 0,5 |
| Bulgaria | 258 | 0,1 |
| Danimarka | 63 | 0,0 |
| Espainia | 6.036 | 1,5 |
| Finlandia | 10.409 | 2,6 |
| Frantzia | 8.191 | 2,0 |
| Grezia | 295 | 0,1 |
| Hungaria | 713 | 0,2 |
| Italia | 8.818 | 2,2 |
| Holanda | 2.773 | 0,7 |
| Polonia | 4.223 | 1,0 |
| Portugal | 2.201 | 0,5 |
| Erresuma Batua | 4.397 | 1,1 |
| Txekiar Errepublika | 703 | 0,2 |
| Eslovakia | 752 | 0,2 |
| Suedia | 10.419 | 2,6 |
| Norvegia | 1.023 | 0,3 |
| Suitza | 1.258 | 0,3 |
| Brasil | 10.397 | 2,6 |
| Kanada | 11.076 | 2,7 |
| Txina | 107.579 | 26,5 |
| Estatu Batuak | 73.188 | 18,0 |
| India | 10.866 | 2,7 |
| Japonia | 26.471 | 6,5 |
| Errusia | 8.012 | 2,0 |
| **Mundua osorik**** | **406.335** | **100,0** |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2014. urterako informazioa baino ez dugu.*
*(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.*
*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Ore-ekoizpena dela eta, CEPIn bertan, 2015ean, 36.265 mila tona izan dira; bolumen horrek gainditu egiten du -% 0,8ko urte arteko murrizketa. Ore-ekoizpenaren eskualdeko banaketa dela eta, kontuan hartuta kasu honetan informazioa 2014 ekitaldikoa dela, adierazi behar da CEPIko herrialdeek orearen munduko ekoizpenaren % 20,5 dutela; partaidetza hori Ipar Amerikakoa (% 36,6) baino askoz ere txikiagoa da, eta Asiari dagokionaren nahiko antzekoa (munduko ekoizpen guztiaren % 22,6).

**95. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2014* | Guztizkoaren % |
|---|---|---|
| Alemania | 2.604 | 1,5 |
| Austria | 1.496 | 0,8 |
| Belgika | 502 | 0,3 |
| Bulgaria | 208 | 0,1 |
| Danimarka | 0 | 0,0 |
| Espainia | 1.863 | 1,0 |
| Finlandia | 10.197 | 5,7 |
| Frantzia | 1.654 | 0,9 |
| Grezia | 0 | 0,0 |
| Hungaria | 0 | 0,0 |
| Italia | 391 | 0,2 |
| Holanda | 94 | 0,1 |
| Polonia | 1.065 | 0,6 |
| Portugal | 2.557 | 1,4 |
| Erresuma Batua | 200 | 0,1 |
| Txekiar Errepublika | 442 | 0,2 |
| Eslovakia | 610 | 0,3 |
| Suedia | 11.009 | 6,2 |
| Norvegia | 763 | 0,4 |
| Suitza | 135 | 0,1 |
| Brasil | 16.461 | 9,2 |
| Kanada | 16.961 | 9,5 |
| Txina | 9.707 | 5,4 |
| Estatu Batuak | 48.408 | 27,2 |
| India | 1.736 | 1,0 |
| Japonia | 8.958 | 5,0 |
| Errusia | 7.175 | 4,0 |
| **Mundua osorik**** | **178.298** | **100,0** |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2014. urterako informazioa baino ez dugu.*

*(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.*

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

## 8.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta (ASPAPEL) elkartearekin bat etorriz, 2015ean, Espainiako paperaren eta kartoiaren ekoizpena 6.195,2 mila tonakoa izan da; bolumen hori aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino % 2,6 handiagoa izan da, eta dinamika hori CEPI osatzen duten herrialdeetan ikusi den atzerakada txikiaren kontrakoa izan da.

Antzera, ageriko kontsumoak eta paper-inportazioek (6.607,3 eta 3.208,3 mila tona, hurrenez hurren) gora egin dute (% 5,6 eta % 2,3, hurrenez hurren), eta esportazioek (2.796,2 mila tona), ordea, behera (-% 4,1). Horrela, paperaren estatuko balantza

komertzialak saldo negatiboa izan du, -412,1 mila tonakoa, 2015ean (-221,6 mila tonako defizita 2014an).

**96. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainiakoa, guztira.**

*(m Tm)*

| Urtea | Ekoizpena | Inportazioa | Esportazioa | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2006 | 6.353,3 | 4.312,2 | 2.797,5 | 7.868,0 |
| 2007 | 6.713,3 | 3.763,3 | 2.769,6 | 7.707,1 |
| 2008 | 6.414,3 | 3.815,9 | 2.964,6 | 7.265,6 |
| 2009 | 5.679,2 | 3.323,2 | 2.809,8 | 6.192,4 |
| 2010 | 6.193,4 | 3.316,9 | 3.062,4 | 6.447,9 |
| 2011 | 6.202,6 | 3.180,4 | 2.955,3 | 6.427,7 |
| 2012 | 6.176,7 | 2.938,2 | 2.957,0 | 6.157,9 |
| 2013 | 6.181,5 | 2.950,8 | 3.047,4 | 6.084,9 |
| 2014 | 6.035,7 | 3.136,7 | 2.915,1 | 6.257,4 |
| 2015 | 6.195,2 | 3.208,3 | 2.796,2 | 6.607,3 |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

**14. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian**

*(Indizea: 1985=100)*




*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Aurreko urteetan bezala, EBk jarraitzen du izaten Estatuko bazkide komertzial nagusia; inportazioen % 86,7 eta esportazioen % 60,2 hartzen ditu. Zehazki, Frantziak eta Finlandiak kanpo-erosketen % 17,5 eta % 17,4 hartzen dituzte, hurrenez hurren, eta Portugalek eta Frantziak kanporako salmenten % 20 eta % 19, hurrenez hurren.

Paper moten kasuan, prentsarako eta inpresiorako eta idazketarako ekoizpenak, eta kartoi iztukaturakoak behera egin dute (-% 1,6 eta -% 1,7, hurrenez hurren), eta beste paper batzuei dagokienak, higienikoak eta sanitarioak, uhin-kartoiak eta beste ontzi eta enbalaje batzuek gora egin dute (% 15,3, % 9,2, % 2,2 eta % 1, hurrenez hurren).

**97. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Ekoizpena | | Inportazioa | | Esportazioa | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Prentsa eta inpresioa eta idazketa | 1.386,7 | -1,6 | 1.281,2 | -1,7 | 1.188,8 | -3,5 | 1.479,1 | -0,1 |
| Higienikoak eta sanitarioak | 741,3 | 9,2 | 135,1 | -9,0 | 189,5 | 8,1 | 686,9 | 5,3 |
| Uhin-kartoirako | 2.897,3 | 2,2 | 961,8 | 8,7 | 881,6 | -8,7 | 2.977,4 | 8,2 |
| – Uhinetarako | 1.244,2 | 2,4 | 330,9 | 10,8 | 342,5 | -15,1 | 1.232,6 | 11,1 |
| – Test Liner eta Kraft Liner | 1.221,3 | 2,4 | 587,0 | 5,9 | 470,7 | -3,4 | 1.337,6 | 6,2 |
| – Bikoak eta larruak | 431,8 | 1,2 | 43,8 | 37,2 | 68,5 | -8,8 | 407,1 | 6,1 |
| Kartoi iztukatua | 274,4 | -1,7 | 503,7 | 7,4 | 131,7 | -7,6 | 646,4 | 6,8 |
| Beste ontzi eta enbalaje batzuk | 466,8 | 1,0 | 271,1 | 3,0 | 318,9 | -6,8 | 419,1 | 9,3 |
| Beste paper batzuk | 428,7 | 15,3 | 55,4 | -18,7 | 85,7 | 51,1 | 398,3 | 3,9 |
| **Papera eta kartoia, guztira** | **6.195,2** | **2,6** | **3.208,3** | **2,3** | **2.796,2** | **-4,1** | **6.607,3** | **5,6** |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Paperaren eta kartoiaren kasuan, aipatutako gorakadarekin kontrajarrita, ekoizpenak -% 11,9 egin du atzera 2015ean; zehazki, 1.640,9 mila tona izan dira. Era berean, paper-orearen esportazioek (724,8 mila tona) ere behera egin dute (-% 34) eta, ordea, ageriko kontsumoak eta inportazioek (2.074,6 eta 1.158,5 mila tona, hurrenez hurren) gora egin dute (% 14,4 eta % 10,6, hurrenez hurren).

Testuinguru honetan, paper-orearen balantza komertziala defizitarioa izan da 2015ean; saldo negatiboa izan du, -433,7 mila tonakoa (50,2 mila tonako superabit-saldoa 2014an); eta % 62,6ko estaldura-tasa izan du (2014an % 104,8).

Ore motaren arabera bereizitako analisiak erakusten du ore mekanikoa eta kimikoa direla nagusi, bai ekoizpenari dagokionez (guztizkoaren % 98,5) bai esportazioari/inportazioari dagokionez, eta bai ageriko kontsumokoak ere; ekoizpenak beheranzko joera izan du (1.616,2 mila tona, -% 12,1eko murrizketa), bai eta esportazioek ere (707,5 mila tona, -% 34,5eko beherakada), eta goranzkoa ageriko kontsumoak (2.014,5 mila tona, % 14,8ko aurrerapena) eta inportazioek (1.105,7 mila tona, % 11,1eko gorakada).

Berreskuratutako paperarekin jarraituz, 2015ean kontsumoa 5.181,2 mila tonakoa izan zen; bolumen horrek urte arteko % 2,5eko gorakada dakar.

**98. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa ore motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Ekoizpena | | Inportazioa | | Esportazioa | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Ore mekanikoa eta kimikoa | 1.616,2 | -12,1 | 1.105,7 | 11,1 | 707,5 | -34,5 | 2.014,5 | 14,8 |
| Erdikimikoa eta beste batzuk | 24,7 | -1,7 | 52,8 | 1,6 | 17,4 | -5,5 | 60,2 | 2,5 |
| Ore birjinak, guztira | 1.640,9 | -11,9 | 1.158,5 | 10,6 | 724,8 | -34,0 | 2.074,6 | 14,4 |
| Paper zaharra (ageriko bilketa) | 4.567,5 | 2,9 | 1.627,5 | 8,1 | 1.013,8 | 13,7 | 5.181,2 | 2,5 |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*

Aurreko txostenetan eginiko lanarekin jarraitzeko, jarraian berreskuratutako paperaren erabilera aztertzen da, honako adierazle hauek kontuan hartuta: ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 69,1 2015ean eta % 70,9 2014an; erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): % 83,6 2015ean eta % 83,7 2014an; birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 78,4 2015ean eta % 80,8 2014an.

Estatuko datuak CEPIren datuekin erkatuta, nabarmendu behar da Espainiako paperaren sektoreak joera positiboagoa izan duela, erkatuz gero, paperaren eta kartoiaren ekoizpenari dagokionez (% 2,6ko gorakada, nazio mailan, eta -% 0,3ko beherakada CEPIren esparruan), eta negatiboagoa esportazioei dagokienez (-% 4,1eko beherakada nazio-mailan, eta -% 1,1ekoa CEPI barruan).

## 8.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

Estatu-mailan ikusi den paperaren eta kartoiaren ekoizpenaren gorakadarekin (% 2,6) bat etorriz, 2015ean, paperaren sektoreak Euskal Herrian gora egin du pixka bat paperaren eta kartoiaren ekoizpen-bolumenean (% 0,4); 1.409,5 mila tona izan ditu. Horrela, bada, nazio-mailako erkaketa-hazkunde handiena izanik, paperaren euskal sektoreak partaidetza-kuota jaitsi egin du Estatuko guztizkoaren aldean (guztizkoaren % 22,8 2015ean eta % 23,3 2014an).

**99. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Papera eta kartoia, guztira | 1.403,8 | 1.403,5 | 1.409,5 | 0,4 |
| Orea, guztira | 473,9 | 497,0 | 494,6 | -0,5 |

*Iturria: Asociación Nacional de Fabricantes de Papel y Pasta.*



LABORAL kutxa

Oreari dagokionez, Euskal Herrian ekoizpenean erregistratu den beherakada txikiak (-% 0,5) hobetu egiten du nabarmen Estatuan antzemandako beheranzko dinamika argia (-% 11,9), eta CEPIren esparruan egon den beherakada txikiaren (-% 0,8) parean jartzen da. Zehazki, orearen euskal ekoizpena 494,6 mila tonakoa izan da 2015ean (bolumen horrek esan nahi du -% 0,5eko beherakada egon dela urtetik urtera); horrela, gora egin du Euskal Herriak Estatuan izandako partaidetzak (% 26,7koa 2014an eta % 30,1ekoa 2015ean).

Kanpo-merkataritza dagokionez, kontuan hartuta kasu honetan analisia diru terminoetan egiten dela, aipatu behar da 2015ean Euskal Herriko paperaren eta orearen esportazioek % 2,4 egin dutela gora, eta inportazioek % 19,6. Zehazki, sektorearen kanpo-salmentak 809.281 mila eurokoak izan direla, eta kanpotik etorritako erosketenak, 487.727 mila eurokoak. Horrela, superabit komertzialak behera egin du 321.554 mila eurora arte (382.696 mila euro 2014an).

**100. koadroa Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Euskal Herrian**

| Enpresak | Kokapena | Ekoizpena |
|---|---|---|
| Sarriopapel y Celulosa SA | Leitza, Uranga | Inpresio eta idazketarako p. eta orea |
| Indarkia S.L.- Ezten FCR | Aranguren, Artziniega | Tisu papera |
| Papresa | Errenteria | Prentsa papera |
| Smurfit Kappa Nervión | Iurreta | Orea, kraft papera |
| Smurfit Kappa Navarra | Zangoza, Cordovilla | Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak |
| Sca Hygiene Spain | Allo | Tisu papera |
| Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel) | Hernani | Orea eta inpresio eta idazketarako papera |
| Munksjö Paper DECOR SA | Tolosa | Ijezketarako oinarri-papera |
| Papelera del Oria | Zizurkil | Inpresio eta idazketarako papera |
| Papelera del Ebro | Viana | Papera eta uhin-kartoia |
| Bertako | Uharte | Papera eta uhin-kartoia |
| Newark San Andrés SL | Atarrabia | Uhin-kartoia |
| Papelera de Amaroz | Legorreta | Inpresio eta idazketarako papera |

*Iturria: Ekoizpenaren Sustapena. "Las 2.500 mayores empresas españolas", eta enpresen memoriak.*

Magnitude sektorial nagusiak aztertu ondoren, jarraian Euskal Herrian sektoreak bizi duen enpresa-panoramaren gaineko ohar laburra egingo dugu, txosten hau egitean eskuragarri izan dugun informazioa kontuan hartuta.

Lehenengo eta behin, aintzat hartuta Papresa (Errenterian dago), gogorarazi behar da Grupo Industrial Alfonso Gallardon dagoen konpainia dela estatu-mailan prentsa paperaren fabrikatzaile nagusia; 2015ean 122,9 milioi euroko fakturazioa izan du, aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino % 3,7 txikiagoa. Testuinguru horretan, paper-fabrikak -1,5 milioi euroko galerak izan ditu (zergen aurretik), 2014an izan zuen 5,6 milioi euroko onuren aurrean (zergen aurretik).

Smurfit Kappa Nervióni dagokionez (Iurretan dago), Kraft paperaren eta orearen azpisektoreetan zentratzen den paper-fabrikak 2015ean 118 milioi euroko salmentak izan ditu; horrek esan nahi du -% 2,6ko urte arteko murrizketa egon dela, eta onurari eutsi zaiola (zergen aurretik), 4 milioi euro arte; zifra hori aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino askoz ere baxuagoa da (zergen aurretik 13,2 milioi euroko onurak 2014an).

Smurfit Kappa Navarrari dagokionez (orea fabrikatzen du, eta Kraft-liner, Test-liner, zakuetarako Krafteta enbalajerako Kraft eraldatzen du, bai eta uhin-kartoia fabrikatu eta enbalaje-kutxa bihurtu ere), nabarmendu behar da 2015ean Cordovillako fabrikak 35 milioi euro inguruko fakturazioa izan duela; horrela, % 7 gainditu du aurreko ekitaldiko bolumena.

Inpresioaren eta idazketaren azpisektorea dela eta, Sarriopapel y Celulosa SA nabarmendu behar dira (Leitzan dago), bai eta Gipuzkoako paper-fabriken nukleoa ere (Zikuñaga, Munksjö Paper DECOR SA eta Papelera del Oria, besteak beste); izan ere, Estatuko azpisektorearen ekoizpenaren zati handia hartzen dute. Sarriopapel y Celulosa SAren kasuan, gogorarazi behar da 2014an Lecta taldean sartu zirela, eta, zehatzago esateko, Torraspapel SAren barruan; azken konpainia horrek 2015ean fakturazioa % 5,8 handitu duela urtetik urtera, 785,9 milioi eurora arte, nahiz eta -11,3 milioi euroko galerak izan dituen (zergen aurretik), urtebete lehenago kontatutakoak baino pixka bat handiagoak (-10,5 milioi euro 2014an).

Azkenik, etxeko paperen eta higienikoen azpisektoreari dagokionez, 2015. urtearen amaieran Allo udalerrian ireki den SCAren nazioarteko banaketarako zentro berriaren inaugurazioa nabarmendu behar da; 18,5 milioi euro inbertitu dira bertan. Gainera, kontuan hartu behar da fabrika horretan bertan zeudenei gehitutako ekoizpen-lerro berrien bidez bikoiztu ahal izan dela haren ekoizpen-gaitasuna; gaur egun 400 pertsona baino gehiago daude bertan lanean, 2012an (Georgia Pacific-ek hartu zuenean) baino % 50 gehiago.

# 9. KAUTXUA

## 9.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Maila globalean izan duen hazkunde moderatua kontuan hartuta, kautxuaren munduko kontsumoak pixka bat gora egin du 2015ean. Hori horrela, International Rubber Study Group-ek emandako informazioaren arabera, kautxuaren munduko kontsumoak % 1,2 egin du gora 2015ean, eta 26.731 milaka tonara iritsi da. Bestalde, ekoizpena dinamikoagoa izan da (% 1,8ko hedapena), eta 26.774 milaka tonara iritsi da; beraz, kautxuaren munduko stockak 44 milaka tonako saldo positiboa izan du (-110 milaka tonako saldo negatiboa 2014an).

Kautxu-mota kontuan hartuta, kautxu naturala dela eta, ekoizpena kontsumoa baino handiagoa izan da, eta, horrela, 147 milaka tonako stock positiboa egon da. Kautxu sintetikoari dagokionez, ordea, ekoizpena kontsumoa baino txikiagoa izan da, eta -103 milaka tonako stock negatiboa eskuratu da.

**101. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa**

*(m Tm)*

| Arloa | Kautxu naturala | | | Kautxu sintetikoa | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Asia/Pazifikoa | 8.872 | 8.862 | -0,1 | 7.800 | 7.847 | 0,6 | 16.672 | 16.709 | 0,2 |
| EMEA* | 1.553 | 1.597 | 2,8 | 3.537 | 3.647 | 3,1 | 5.090 | 5.244 | 3,0 |
| Amerika | 1.712 | 1.709 | -0,2 | 2.930 | 3.069 | 4,7 | 4.642 | 4.778 | 2,9 |
| **Guztira** | **12.137** | **12.167** | **0,2** | **14.267** | **14.564** | **2,1** | **26.404** | **26.731** | **1,2** |

*(*): EMEA: Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika.*
*Iturria: International Rubber Study Group.*

Maila geografikoan, kautxuaren kontsumoak gora egin du, oro har: % 3 Europan, Ekialde Ertainean eta Afrikan; % 2,9 Amerikan, eta % 0,2 Asia/Pazifikoan, alegia, kautxuaren munduko kontsumo guztiaren % 19,6, % 17,9 eta % 62,5 diren arloetan, hurrenez hurren.

## 9.2 KAUTXUA ERALDATZEKO SEKTOREA ESPAINIAN[1] ETA EAE-N

Nazioartean antzemandako jarrerarekin bat, Estatuko kautxuaren eraldatuen ekoizpenak ere gora egin du 2015ean, baina, kasu honetan, ustezko kontsumoaren

[1] Sektorearen jardueraren zati handi bat, batik bat pneumatikoen azpisektorean, Euskal Herrian egiten da; beraz, analisiak euskal egoera erakusten duela uste da (Euskal Herrian eraldaketa ez-pneumatikoaren enpresen % 15 dago, eta, pneumatikoen kasuan, Michelin multinazionalaren plantak Gipuzkoan eta Araban eta Bridgestone-Firestonerena Bizkaian).

dinamismoa ekoizpenari dagokiona baino askoz ere handiagoa izan da. Horrela, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalarekin bat etorriz, Espainiako ekoizpena 795.142 tonakoa izan da 2015ean; zifra horrek adierazten du urte arteko % 2,7ko gorakada egon dela eta, aldi berean, ustezko kontsumoa 678.241 tonakoa izan dela; bolumen hori aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino % 7,1 altuagoa da.

Testuinguru horretan, fakturazio sektorialak % 1,4 egin du gora, 4.843,9 milioi eurora iritsi arte; pneumatikoen eta birkautxutuaren azpisektoreko salmentak egonkor mantendu dira (aldakuntza nulua, % 0), eta pieza teknikoari dagozkionek gora egin dute (% 4,8).

Sektorearen ekoizpenak % 2,7 egin duenez gora eta enplegu sektoriala % 1,3 areagotu denez, Estatuko kautxuaren sektorearen produktibitateak % 1,4 egin du gora, eta 36,5 tonara iritsi da enplegatuko, 2015ean.

Hori horrela, azpimarratu behar da automobilgintzako sektoreak kautxuaren industria eraldatzailean izan duen garrantzi handia kontuan hartuta, kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta birkautxutuaren azpisektoreari eskainitako epigrafearen esparruan), haren analisi berezia eta laburra egin dela.

**102. koadroa Kautxua eraldatzeko sektorearen oinarrizko datuak[1] Espainian**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|
| 1. Ekoizpena | 774.234 | 795.142 | 2,7 |
| 2. Ustezko kontsumoa | 633.128 | 678.241 | 7,1 |
| 3. Esportazioa | 713.503 | 737.269 | 3,3 |
| 4. Inportazioa | 572.397 | 620.368 | 8,4 |
| 5. Saldo komertziala | 141.106 | 116.901 | -17,2 |
| 6. Esportazioaren batez besteko prezioa[2] | 4,17 | 3,99 | -4,3 |
| 7. Inportazioaren batez besteko prezioa[2] | 4,26 | 4,17 | -2,0 |
| 8. Esportazioa/Ekoizpena (% ) | 92,2 | 92,7 | 0,6 |
| 9. Inportazioa/Ustezko Kontsumoa (% ) | 90 | 91 | 1,2 |
| 10. Enplegua | 21.476 | 21.760 | 1,3 |
| 11. Produktibitatea (1/10)[3] | 36,1 | 36,5 | 1,4 |

*(1): Honako hauek barne: CNAE 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutua) eta CNAE 22.19 (kautxuaren beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexko pieza teknikoa).*
*(2): Euro/kg.*
*(3): Tm/Enplegatu/urte.*
*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kanpo-merkataritzari dagokionez, bolumenaren kasuan, kautxu eraldatuen Espainiako esportazioek eta inportazioek gora egin dute 2015ean. Zehazki, kanporako salmentak 737.269 tonakoak izan dira, 2014ko zifra baino % 3,3 handiagoa, eta kanpoko erosketak 620.368 tona izan dira; alegia, % 8,4ko aurrerapena egon da. Hala ere, diruari dagokionez, esportazioek behera egin dute (-% 1,1), eta inportazioek gora egin dute (% 6,2). Horrela,



LABORAL kutxa

bada, superabit komertzialak, bolumenari dagokionez, -% 17,2 egin du behera 2015ean, 116.901 tonara iritsi arte.

**103. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza azpisektore handien arabera**

*(Tm)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Pneumatikoak eta birkautxutua | 581.663 | 591.549 | 1,7 | 410.464 | 446.352 | 8,7 | 171.199 | 145.197 | -15,2 |
| Pieza teknikoa | 131.840 | 145.720 | 10,5 | 161.933 | 174.016 | 7,5 | -30.093 | -28.296 | -6,0 |
| **Guztira** | **713.503** | **737.269** | **3,3** | **572.397** | **620.368** | **8,4** | **141.106** | **116.901** | **-17,2** |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Azpisektoreak kontuan hartuta, bolumenari dagokionez, pieza teknikoaren esportazioek pneumatiko eta birkautxutuen esportazioek baino intentsitate handiagoz egin dute gora (% 10,5 eta % 1,7, hurrenez hurren), eta, inportazioak direla eta, aurrerapenak datu erlatiboetan nahiko antzekoak izan dira: % 8,7 pneumatiko eta birkautxutuen kasuan, eta% 7,5 pieza teknikoaren kasuan.

Guzti hori kontuan hartuta, diruari dagokionez, kanpora eginiko pneumatiko eta birkautxutuen salmentak behera egin du (-% 4), eta pieza teknikoarenak gora (% 5,4). Kanpo-merkataritzari eginiko erosketak ordea, gora egin dute bai pneumatiko eta birkautxutuen kasuan, bai pieza teknikoaren kasuan (% 6,5 eta % 5,6, hurrenez hurren).

**104. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera**

*(M eurotan)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| Pneumatikoak eta birkautxutua | 2.081,2 | 1.998,9 | -4,0 | 1.501,8 | 1.599,6 | 6,5 | 579,4 | 399,2 | -31,1 |
| Pieza teknikoa | 895,4 | 943,5 | 5,4 | 937,3 | 989,9 | 5,6 | -42,0 | -46,4 | 10,5 |
| **Guztira** | **2.976,5** | **2.942,4** | **-1,1** | **2.439,1** | **2.589,5** | **6,2** | **537,4** | **352,8** | **-34,3** |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kautxuaren EAEko sektore eraldatzailea dela eta, lehenengo eta behin Eustaten Industria Ekoizpenaren Indizea (IEI) kontuan hartuta, kautxuari eta plastikoari buruzkoa, esan beharra dago 2015ean horrek jarraitu duela atzerakada-erritmoa neurtzen (-% 0,1 2015ean eta -% 0,3 2014an eta -% 6 2013an). Kanpo-merkataritzaren kasuan, kautxuaren eta manufakturen esportazioek -% 3,1 egin dute behera, 1.153.515 mila eurora, eta inportazioek gora egin dute, % 6,5, 432.237 mila eurora. -% 8,1 egin du behera balantza komertzialaren saldo positiboak, 721.278 mila eurora.

EAEko eta Estatu osoko informazioa erkatuta, egiaztatzen da euskal kanpo-merkataritzaren partaidetzak, diruari dagokionez, Estatuarenaren aldean behera egin duela pixka bat esportazioen kasuan (guztizkoaren % 39,2 2015ean eta % 40 2014an), baina inportazioetan ia ez dela aldatu (guztizkoaren % 16,7 2015ean eta % 16,6 2014an).

## 9.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTUAREN AZPISEKTOREA

Berriro ere Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak argitaratutako informazioa kontuan hartuta eta analisia pneumatiko eta birkautxutuaren azpisektorera bakarrik eramanda, 2015ean ekoizpena 601.883 tona izan dira, eta ustezko kontsumoa 456.686 tona; bolumen horiek urte arteko gorakadak erakusten dituzte, % 1,4koa eta % 8,2koa, hurrenez hurren.

Esportazioak, bestalde, 591.549 tonara iritsi dira, eta inportazioak, 446.352 tonara; maila horiek urte arteko gorakadak dakartzate, % 1,7koa eta % 8,7koa, hurrenez hurren, joera esportatzailea % 98,3koa eta inportatzailea % 97,7koa izanik.

**105. koadroa Pneumatiko eta birkautxutuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|
| 1. Ekoizpena | 593.377 | 601.883 | 1,4 |
| 2. Esportazioa | 581.663 | 591.549 | 1,7 |
| 3. Inportazioa | 410.464 | 446.352 | 8,7 |
| 4. Ustezko kontsumoa | 422.178 | 456.686 | 8,2 |
| 5. 2/1 x 100 | 98,0 | 98,3 | 0,3 |
| 6. 3/4 x 100 | 97,2 | 97,7 | 0,5 |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kontuan hartuta kautxuaren sektorearen eta automobilgintzaren artean dagoen lotura, egokitzat jotzen da ohar txikia egitea azken sektore horrek 2015ean izan duen bilakaerari buruz. Horren harira esan behar da, Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearekin (ANFAC) bat etorriz, Estatuko ibilgailuen ekoizpenak (2.733.201 unitate), esportazioek (2.273.732 unitate) eta matrikulazioek (1.214.212 unitate) 2015ean gora egin dutela (% 13,7, % 11,5 eta % 23, hurrenez hurren).



LABORAL kutxa

**106. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainiako Estatuan**

*(unitateak)*

| Kontzeptua | Ekoizpena | | | Esportazioa | | | Matrikulazioak[1] | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % Δ 15/14 | 2014 | 2015 | % Δ 15/14 | 2014 | 2015 | % Δ 15/14 |
| Turismoak | 1.871.985 | 2.202.348 | 17,6 | 1.631.744 | 1.893.724 | 16,1 | 855.308 | 1.034.232 | 20,9 |
| Industria-ibilgailuak[2] | 530.993 | 530.853 | 0,0 | 408.149 | 380.008 | -6,9 | 129.996 | 177.200 | 36,3 |
| Autobusak eta autokarrak | 0 | 0 | -- | 0 | 0 | -- | 1.977 | 2.780 | 40,6 |
| **Guztira** | **2.402.978** | **2.733.201** | **13,7** | **2.039.893** | **2.273.732** | **11,5** | **987.281** | **1.214.212** | **23,0** |

*(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne daude. Turismoen matrikulazioen zifrak ere lur orotako ibilgailuen matrikulazioak hartzen ditu barne.*

*(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.*

*Iturria: ANFAC.*

Azkenik, aurreko txostenetan bezala, jarraian Euskal Herrian pneumatikoen fabrikatzaile nagusien gaineko ohar laburra ekarri dugu.

Michelínekin hasteko –Euskal Herrian dihardu Vitoria-Gasteiz, Araia (Araba zentro logistikoa da) eta Lasarte (Gipuzkoa) udalerrietako fabriketan–, enpresa-taldeak, guztira, 1.163 milioi euroko etekin garbia izan du 2015ean, aurreko ekitaldian baino % 12,8 gehiago (1.031 milioi euro 2014an). Euskal Herriari dagokionez, nabarmendu beharra dago 2016ko martxoan Araiako zentro logistikoaren zabalkundea eta eginiko inaugurazioa; bertan, multinazionalak 13 milioi euro inbertitu zituen. Instalazio horren bidez, Gasteizen fabrikatutako turismoen pneumatikoen ekoizpena ez ezik, Lasarteko fabrikako motozikletaren pneumatikoen ekoizpena ere sartzen da, bai eta beste herrialde batzuetan Europako eta Ameriketako merkatuetarako ekoitzitako bi gurpildun ibilgailuentzako pneumatikoena ere.

Bridgestonen –Euskal Herrian Basauriko plantan dihardu–, azpimarratzekoa da 2016aren hasieran "low-cost" pneumatikoen linea berri baten ("Dayton" izenez bataiatua) aurkezpena; gaur egun mundu mailan planta horretan baino fabrikatzen ez dena.

# 10. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA[1]

## 10.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Informazioaren Teknologien Europako Behatokiaren arabera (EITO), IKTen mundu-mailako merkatua 2,8 bilioi eurora iritsi zen 2015ean. Zifra horrek urtetik urterako % 3,8ko hazkundea dakar; beraz, hedapen-erritmoa sendotu egin du aurreko ekitalditik (% 2,4ko hazkundea 2014an). Egoera horretan, India eta Txina izan dira IKTen esparruan merkaturik dinamikoena erakutsi dutenak.

Hasteko, informazioaren teknologiei eskainiko diegu arreta. 2015ean, horien salmentak 1,2 bilioi eurokoak izan dira; alegia, urtetik urterako hazkundea % 3,1ekoa izan da, baina esparru horren baitako negozio-arloek bilakaera heterogeneoa izan dute. Hala, *softwarearen* negozioak % 6,8 egin du gora, 331 mila milioi eurora iritsi arte. *Zerbitzuenak*, berriz, % 2,8 egin du gora, 515 mila milioi eurora arte, eta *hardwareari* dagokiona 339 mila milioi eurotan geratu da.

Telekomunikazioei dagokienez, 2015ean horien mundu-mailako fakturazioa 1,6 bilioi eurokoa izan da; alegia, aurreko ekitaldian baino % 4,3 gehiago. Zehazki, *telekomunikazio-azpiegituren* salmentek nabarmen egin dute gora (% 9,9), 463 mila milioi eurora iritsi arte, eta *telekomunikazio-zerbitzuek* % 2,2, 1,2 mila milioi eurora iritsi arte. Ildo horretan, nabarmendu behar da *telekomunikazio-zerbitzu* horien esparruan datu mugikorren zerbitzuen arloa izan dela dinamikoena, % 9,2 hazi baita, 324 mila milioi eurora arte.

Eremu geografikoen arabera, Indiak eta Txinak izan dute hedapenik handiena 2015ean beren IKTen merkatuei dagokienez (% 9,8 eta % 8,1, hurrenez hurren); kontuan izan behar da Indiako ekonomiak, oro har, indar handiagoa izan duela Txinakoak baino, 1999tik lehen aldiz.

Azkenik, aipatu behar da etorkizunera begira ekonomia digitala dela herrialdeen erronkarik handiena.

---

[1] Sektorea modu orokorrean aipatzen dugunean, horrek barne hartzen ditu sektorean sartzen diren jarduera elektroniko-informatiko guztiak eta telekomunikazioetakoak, baina ez telekomunikazio-zerbitzuen operadore/hornitzaile handiak.



LABORAL kutxa

## 10.2 SEKTOREA ESPAINIAN[1]

Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkartearen (AMETIC) arabera, informazioaren teknologien Estatuko hipersektoreak gora egin du 2015ean, bigarren urtez jarraian, eta 22.694 milioi euro fakturatzera iritsi da. Horrek esan nahi du urtetik urterako aurrerapena % 7koa izan dela. Sektoreen arabera, guztiak hazi dira oro har, baina *zerbitzuak* eta *hardwarea* dinamikoagoak izan dira, argi eta garbi, *softwarea* baino.

Zehatzago esanda, informazioaren teknologiekin lotutako *zerbitzuek* 15.168 milioi euroko salmentak izan dituzten 2015ean (teknologia horien elementu nagusi bihurtu dira), urtetik urterako balioetan % 7,6 hazi ostean. Hazkunde horren arrazoi nagusiak eraldaketa digitalaren beharra eta ekonomiaren gorakada izan dira.

Bestalde, *hardwarearen* arloak 4.534 milioi euro fakturatu ditu 2015ean. Horrek esan nahi du urtetik urterako % 7,3ko hazkundea izan duela, zaharkituta geratu zen parke bat berritzeko beharrak eta mugikortasunaren aldeko apustuak bultzatuta. Ildo horretan, bereziki nabarmendu behar dira mugikortasun-inguruneetara bideratutako ekipamendu-soluzioak.

*Softwarearen* negozioari arreta eskainiz, arlo horretako salmentak 2.992 milioi eurokoak izan dira 2015ean; alegia, aurreko ekitaldian baino % 3,4 gehiago. Besteak beste, hauek izan dira gorakada horren faktoreak: pirateriarengatiko zigorrak gogortzea (Jabetza Intelektualaren Lege Berria eta Zigor Kode berria) eta *bussiness intelligence*-ak gora egitea (datu-analisirako soluzioak). Zehazki, negozio-arlo honen sustatzaile nagusia hodeiko soluzioen garapena izan da.

Amaitzeko, adierazi behar da AMETICek berriki azpimarratu duela beharrezkoa dela administrazioak esku-hartze esanguratsuagoa izatea sektorearen hazkundean, bai inbertitzaile bai dinamizatzaile gisa, gizarte digitalaren garapena sustatzeko.

[1] Atal hau Elektronikaren, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien, Telekomunikazioen eta Eduki Digitalen Enpresen Sektore Anitzeko Elkarteari (AMETIC) buruzko informazioan dago oinarrituta. AMETICek 2.000 bazkide inguru zituen 2011n; horietatik 300 banakako enpresak ziren eta gainerakoak askotariko enpresa-erakunde eta -multzoak. Horien guztien jarduerak lotura zuen elektronikaren, informazioaren teknologien eta telekomunikazioen sektoreekin.

## 10.3 SEKTOREA EAE-N[1]

2015ean, Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarteko (GAIA) enpresek egonkor eutsi diete aurreko ekitaldiko datuei; hala, elkarteak 245 bazkide izan ditu bai 2014an bai 2015ean.

**107. koadroa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpresen bilakaera EAEn**

| Urtea | Enpresak |
|---|---|
| 2006 | 170 |
| 2007 | 217 |
| 2008 | 231 |
| 2009 | 240 |
| 2010 | 265 |
| 2011 | 267 |
| 2012 | 260 |
| 2013 | 265 |
| 2014 | 245 |
| 2015 | 245 |

*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektoreen araberako ekoizpenari dagokionez, 2015ean 2.909 milioi eurokoa izan da; alegia, urtetik urterako hazkundea % 5,1ekoa izan da, hau da, aurreko ekitaldiko hazkunde-erritmoa bikoiztu egin da. 2014an, hain zuzen ere, eten egin zen 2009tik 2013ra bitartean ikusitako beheranzko joera (2014an % 2,4 egin zuen gora). Hori horrela, badirudi sektore elektroniko-informatikoa eta telekomunikazioena suspertzen ari direla EAEn.

[1] Atal hau Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioa erabiliz egin da. Informazio hori elkarteko kide diren enpresei buruzkoa da, horiek EAEko sektorearen egoera orokorraren adierazle baitira.



LABORAL kutxa

**108. koadroa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko ekoizpenaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Ekoizpena M eurotan | ∆ % | Estatuko ekoizpeneko partaidetza* |
|---|---|---|---|
| 2006 | 2.484,0 | 17,0 | 14,0 |
| 2007 | 3.032,0 | 22,0 | 15,6 |
| 2008 | 3.315,0 | 9,3 | 16,4 |
| 2009 | 3.060,0 | -7,7 | 16,6 |
| 2010 | 2.994,9 | -2,1 | 16,0 |
| 2011 | 2.911,0 | -2,8 | 15,8 |
| 2012 | 2.742,0 | -5,8 | -- |
| 2013 | 2.702,1 | -1,5 | -- |
| 2014 | 2.768,0 | 2,4 | -- |
| 2015 | 2.909,0 | 5,1 | -- |

*(*): Kalkulu honetan ez dira sartzen telekomunikazio-zerbitzuen operadore/hornitzaileen fakturazio-bolumenak, ezta zerbitzuak ere.*

*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Ildo horretan, nabarmendu behar da ekoizpenaren gorakada orokorra izan dela; izan ere, gora egin dute IKTen azpisektoreak eta elektronikari dagokionak, bai enpresa handietan bai enpresa txiki nahiz ertainetan.

Sektoreko esportazioak aztertuz gero, 2015ean 1.117 milioi eurokoak izan dira. Bolumen hori aurreko ekitaldikoa baino % 3 handiagoa da; beraz, jarraipena izan du 1995ean hasitako etenik gabeko hedapen-joerak.

Kontuan izanda esportazioetan erregistratutako dinamismoa ekoizpenean jasotakoa baino txikiagoa izan dela, sektoreko esportazioen tasak (esportutako ekoizpen-portzentajea) behera egin du pixka bat, % 39,2tik (2014an) % 38,4ra (2015ean).

**109. koadroa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko esportazioen bilakaera EAEn**

| Urtea | Esportazioak (M euro) | ∆ % | Esportazioak/ Ekoizpena | Estatuko esportazioko partaidetza |
|---|---|---|---|---|
| 2006 | 682,0 | 4,1 | 27,5 | 16,3 |
| 2007 | 702,0 | 2,9 | 23,2 | 15,5 |
| 2008 | 749,0 | 6,7 | 22,6 | 16,6 |
| 2009 | 765,0 | 2,1 | 25,0 | 18,3 |
| 2010 | 850,0 | 11,1 | 28,4 | 19,3 |
| 2011 | 943,0 | 10,9 | 32,4 | 21,6 |
| 2012 | 1.053,0 | 11,7 | 38,4 | -- |
| 2013 | 1.076,8 | 2,3 | 39,8 | -- |
| 2014 | 1.084,2 | 0,7 | 39,2 | -- |
| 2015 | 1.117,0 | 3,0 | 38,4 | -- |

*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektoreko enpleguari dagokionez, nabarmendu behar da 2015ean berriz ere gora egiten hasi dela, 2012., 2013. eta 2014. urteetan behera egin ondoren. Hain zuzen ere, 11.007 pertsona aritu dira lanean sektore honetan; alegia, % 4,2 egin du gora enpleguak.

Dena dela, kontuan hartu behar da, datu absolutuetan, sektoreko enplegua oraindik ere 2008ko gehieneko datuen oso azpitik dagoela; zehatzago esanda, mila pertsona inguru gutxiago ari dira lanean (12.053 langile zeuden sektorean ekitaldi hartan).

**110. koadroa Sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen arloko enpleguaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Enplegatuak | ∆ % |
|---|---|---|
| 2006 | 10.150 | 11,4 |
| 2007 | 11.058 | 8,9 |
| 2008 | 12.053 | 9,0 |
| 2009 | 12.000 | -0,4 |
| 2010 | 11.400 | -5,0 |
| 2011 | 11.410 | 0,1 |
| 2012 | 10.807 | -5,3 |
| 2013 | 10.797 | -0,1 |
| 2014 | 10.564 | -2,2 |
| 2015 | 11.007 | 4,2 |

*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Arreta I+Gko inbertsioari eskaintzen badiogu, GAIAko bazkide diren enpresek guztira 113 milioi euro inbertitu dituzte 2015ean (sektoreko fakturazioaren % 3,9). Datu hori aurreko ekitaldikoa baino % 1,1 altuagoa da, baina hazkundea mugatua izan da, lurralde-esparru guztietan I+Gri laguntzeko politikak berriz diseinatzen ari direlako eta horrek zuhurtzia eskatzen duelako.

Testuinguru horretan, 2016rako sektoreko aurreikuspenak positiboak dira (ekoizpenak % 4,7 gora egitea espero da), eta sektoreko enpresek aukera ugari izango dituztela esan daiteke. Gainera, enpresa horiek funtsezko zeregina ari dira gauzatzen EAEko enpresen eta ekonomiaren eraldaketan, *4.0 industria* deiturikoaren eskutik.



LABORAL kutxa

# 11. ERAIKUNTZA

2015ean, elkarren segidako zazpi urtez krisiaren gorabeherak jasan ondoren, oraindik ez da argi ikusten eraikuntzak berreskuratzeari ekingo dionik, ez berehala eta modu iraunkorrean behintzat. Azken ekitaldi honen ezaugarri nagusiak lizitazioen etenaldia eta bizileku-eraikuntzaren hobekuntza izan dira. Azken horren arrazoia salmentetan egon den gorakada txikia izan da. Hainbat faktorek bat egitearen ondorioz, eskaria pixkanaka suspertzen hasi da, finantzaketarako sarbidea hobetu delako eta ekonomia pixkanaka hobetzen hasi delako. Hala, hainbat urteren ostean, etxebizitza librearen prezioak gora egin du pixka bat (% 2 estatu-mailan); kontuan hartu behar da haren balioa % 30 inguru jaitsi dela krisialdiko zortzi urteetan. Edonola ere, datuak alderatzeko asmoz, esan behar da 2007an eraikitzen hasitako eta amaitutako etxebizitzen kopurua 600.000 unitate baino gehiagokoa zela Estatu osoan. Azken ekitaldi honetan, ordea, amaitutako etxebizitzen kopurua ez da 50.000tik igaro. Sektore honetako ekonomiaren narriadura argi ikus daiteke eraikuntzak BPGd-ari egiten dion ekarpenean: 2007an % 10etik gorakoa zen eta 2015ean % 5,5 ingurukoa da. EAEn, azken hiru urteetan aldaketa esanguratsuak egon dira sektore honen bilakaeran, baina oraindik ez da joera argirik ikusten. 2013 ekitaldia historiako okerrenetakoa izan zen, eta 2014an jarduera pixka bat indartu zen, sektoreko zifrak hobetu egin baitziren. 2015ean bultzada horrek aurrera jarraitu du, baina modu lasai eta selektiboagoan.

Hori esanda, eta sektorekako magnitude nagusien analisiari ekiteko, jarraian datorren koadroan jasotako datuek agerian uzten dute goranzko joera gutxi eta txikiak erregistratu direla 2015ean. Hain zuzen ere, atzerapenak izan dira nagusi ekitaldi horretan, eta horietako batzuk oso nabarmenak gainera. Zehatzago esanda, lizitazio-jardueraren geraldia nabarmendu behar da: Estatuan izugarrizko beherakada izan du (-% 28,2) eta EAEn ere moteldu egin da, nahiz eta urtea nahiko ondo amaitu den (% 5,6; 2014an % 75eko gorakada izan zuen). Urtea datu negatiboekin amaitu duen beste adierazle bat amaitutako etxebizitzena da; kasu horretan, aztergai ditugun bi eremu geografikoetako balioek behera egin dute (-% 2,6 EAEn eta -% 4,9 Estatuan). Adierazle horrek agerian jartzen dituen kopuruak nahiko urrun geratu dira krisiaren aurreko datuetatik; izan ere, 2017. urtean 24.000 etxebizitza amaitu ziren EAEn, eta ia 650.000 Estatuan. Alegia, etxebizitzen kopurua 2015ean erregistratutakoa baino ia lau aldiz handiagoa izan zen EAEn, eta hiru aldiz handiagoa Estatuan.

### 111. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

(% Δ)

| Kontzeptua | EAE | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Enplegua | -9,8 | 1,1 | -3,5 | 8,1 |
| Zementuaren barne-salmentak(*) | 11,8 | -4,9 | 0,4 | 5,5 |
| Amaitutako etxebizitzak | -17,2 | -2,6 | -16,6 | -4,9 |
| Hasitako etxebizitzak | 5,6 | -- (**) | 0,2 | -- (**) |
| Lizitazio ofiziala | 75,0 | 5,6 | 42,6 | -28,2 |

*(*): Oficemeneko elkartuek Ipar Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren (zakuak eta solteko salmenta) barne-salmentak dira.*
*(**): Txosten hau egin denean ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik.*
*Iturria: Geuk egina, EIN, Seopan eta Oficemenen datuetatik abiatuta.*

Analisiarekin jarraituz, eta zementuaren barne-salmentei dagokienez, lurraldeen araberako aldakuntzek joera desberdinak izan dituzte; hain zuzen ere, hobekuntza egon da Estatuan (% 5,5), baina beherakada EAEn (-% 4,9). Enpleguaren adierazleak bakarrik izan du bilakaera positiboa bi lurraldeetan; alabaina, adierazle horren berreskurapena ere modu desberdinean gauzatu da, alegia, % 1,1eko gorakada izan du EAEn eta % 8,1ekoa Estatu osoan.

### 112. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala* (EAE)

(% Δ)

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015** |
|---|---|---|---|
| Okupatutako langileen indizea | -13,0 | -5,6 | -1,7 |
| Ekoizpen-indizea | -23,6 | -4,7 | -0,2 |
| Eraikuntza | -24,6 | -6,6 | 1,6 |
| Obra zibila | -17,1 | 6,5 | -9,4 |

*(*): Urtaroen arabera banatu gabeko datuak.*
*(**): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK).*

EAEko Eraikuntzaren Indize Koiunturalari buruzko informazioari arreta eskaintzen badiogu, 2015ean berretsi egin da sektoreak atzera egiten jarraitzen duela; izan ere, lau adierazle nagusietatik hiruk beheranzko mugimenduak izan dituzte. Zehatzago esanda, bai okupatutako langileen indizea (-% 1,7) bai ekoizpen-indizea (-% 0,2) negatiboak izan dira ekitaldiaren amaieran. Kasu honetan, eta 2014an gertatu ez bezala, obra zibilaren azpisektoreak datu negatiboekin itxi du urtea, eta % 9,4ko urtetik urterako beherakada izan du. Eraikuntzaren azpisektoreak, aldiz, 7 urtez aldakuntza-tasa negatiboak eduki ondoren, % 1,6ko gorakada txiki bat izan du. Hori horrela, EAEko Eraikuntzaren Indize Koiunturalaren urteko balantzeak % 0,2ko atzerapena izan du.

**113. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa**

*(M eurotan)*

| Eremua | 2014 | | | | 2015(*) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztizkoa | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztizkoa |
| Araba | 2,7 | 7,5 | 64,4 | 74,6 | 6,6 | 60,2 | 46,1 | 112,9 |
| Bizkaia | 135,0 | 162,9 | 284,7 | 582,6 | 121,8 | 190,5 | 237,1 | 549,3 |
| Gipuzkoa | 298,0 | 42,3 | 143,5 | 483,8 | 292,1 | 52,5 | 105,3 | 449,9 |
| EAE | 435,7 | 213,9 | 492,6 | 1.142,2 | 420,4 | 303,2 | 388,5 | 1.112,2 |
| Nafarroa | 12,6 | 30,3 | 58,5 | 101,3 | 58,7 | 118,8 | 23,2 | 200,8 |
| EAE | 448,3 | 244,2 | 551,0 | 1.243,5 | 479,1 | 422,1 | 411,7 | 1.312,9 |
| Espainia | 6.274,4 | 2.760,7 | 4.042,5 | 13.077,7 | 4.296,1 | 2.539,6 | 2.559,4 | 9.395,1 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Seopan.*

Analisia lizitazio-jarduerara mugatzen badugu, 2015eko datuek erakusten dute joera-aldaketa egon dela esparru horretan. Aurreko biurtekoan Estatuko lizitazioen kopuruak gora egin zuen (% 23,2 eta % 42,6), hainbeste desiratutako berreskurapenaren hasiera bazetorrela ikustaraziz. Alabaina, ekitaldi honetan datu horrek nabarmen egin du behera (-% 28,2), eta are ziurgabetasun handiagoa sorrarazi du lehendik ere zalantzaz beterik ikusten zen sektorearen etorkizunean. Beraz, 2014ko urtarriletik abendura lizitatutako bolumena 13.077,7 milioi eurokoa izan zen 2014an, baina 2015ean zifra hori 9.395,1 milioi eurokoa besterik ez da izan. Estatu-mailan, badirudi joera-aldaketa horren zati batek lotura izan duela obra zibilaren beherakadarekin (-% 38). Horren baitan, beherakada handiena garraioetan gertatu da, eta, zehatzago, trenbideetan.

Euskal Herriari dagokionez, 2015ean lizitatutako bolumena % 6 inguru areagotu da, Araban eta, batez ere, Nafarroan lizitazio publikoak hazkunde-erritmo ona izan duelako. Foru Erkidegoan, ia bikoiztu egin dira iazko balioak, eta EAEn pixka bat behera egin dute 2014ko mailen alboan (-% 2,6). Hain zuzen ere, 2014. urteak sektore honen hazkunde handia izan zuen bereizgarri (% 75). Atzera begiratuz, EAEko lizitazio-jarduerak izan duen joera aztertzen badugu, ondorio gutxi atera ditzakegu; izan ere, azken hirurtekoan goranzko nahiz beheranzko mugimendu handiak egon dira. Nafarroak ere antzeko joera izan du, baina gorakaden eta beherakaden aldiak ez dira beti bat etorri EAEkoekin. Hori horrela, Euskal Herrian lizitatutako guztizko bolumena 1.312,9 milioi eurokoa izan da.

Orain administrazio publiko bakoitzak lizitazioen egoeran duen papera aztertuko dugu. Datuak gainetik begiratuta, argi geratzen da tokiko esparruari dagozkion partidek behera egin dutela oro har, beherakadak izan baitzituzten aztertutako esparru geografiko guztietan. Analisia EAEra mugatzen badugu, beste urte batzuetan ez bezala, administrazio-motaren araberako lizitatutako bolumena banatuago dago; alabaina, administrazio zentralak lehen postuan egoten jarraitzen du, 479,1 milioi eurorekin.

Gertutik du administrazio autonomikoa; hazkunde handia izan du (% 73koa) eta 422,1 milioi eurotara iritsi da. Eta, azkenik, tokiko administrazioa dugu hirugarren lekuan, 411,7 milioi euroko partidarekin. Beraz, banaketa aurreko urteetan baino homogeneoagoa izan da: administrazio zentralari lizitazio-jardueraren % 36,5 dagokio, administrazio autonomikoari % 32,2 eta, azkenik, tokiko administrazioari % 31,4 (2014an % 36,1, % 19,6 eta % 44,3, hurrenez hurren).

**114. koadroa Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2015)**

| Eremua | % | | | | ∆% 15/14 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autono-mikoa | Tokikoa | Guztizkoa | Zentrala | Autono-mikoa | Tokikoa | Guztizkoa |
| Araba | 5,8 | 53,3 | 40,8 | 100,0 | 144,4 | 702,7 | -28,4 | 51,3 |
| Bizkaia | 22,2 | 34,7 | 43,2 | 100,0 | -9,8 | 16,9 | -16,7 | -5,7 |
| Gipuzkoa | 64,9 | 11,7 | 23,4 | 100,0 | -2,0 | 24,1 | -26,6 | -7,0 |
| EAE | 37,8 | 27,3 | 34,9 | 100,0 | -3,5 | 41,7 | -21,1 | -2,6 |
| Nafarroa | 29,2 | 59,2 | 11,6 | 100,0 | 365,9 | 292,1 | -60,3 | 98,2 |
| Euskal Herria | 36,5 | 32,1 | 31,4 | 100,0 | 6,9 | 72,9 | -25,3 | 5,6 |
| Espainia | 45,7 | 27,0 | 27,2 | 100,0 | -31,5 | -8,0 | -36,7 | -28,2 |

Iturria: Seopan.

Hori esanda, lurraldeen araberako analisi horrek berak agerian jartzen du aldaketak egon direla lizitazioen konfigurazioan. Aldaketa horiek bereziki esanguratsuak izan dira esparru autonomikoaren eta tokikoaren garrantzi erlatiboen kasuan; administrazio zentralaren lizitazio-ahalmena, ordea, uniformeagoa izan da. Arabarekin hasteko, 2015. urtearen amaieran % 51,3 egin du gora lizitazio-jarduerak, lizitatutako 112,9 milioi eurotara iritsiz. Inbertsio-hedapen horren arrazoi nagusiak dira administrazio zentraletik (% 144,4 eta % 5,8ko garrantzi espezifikoa) eta autonomikoetatik (% 703ko hazkundea eta % 53,3ko barneratzea) etorritako esleipenen jokabide ona. Tokiko administrazioarena, ordea, ez da ona izan, lehen ere aipatu dugun moduan, % 28,4ko beherakada eta % 40,8ko garrantzi espezifikoa izan baititu. Bizkaiari dagokionez, ekitaldia datu negatiboekin itxi da. Guztira 549,3 milioi euro lizitatu dira (-% 5,7, 2014rekin alderatuta) eta beherakada horren arrazoi nagusiak hauek dira: batetik, tokiko administrazioaren kontrako portaera (-% 16,7), lizitatutako bolumenaren % 43,2 hartuz; eta, bestetik, administrazio zentralaren portaera (% 22,2ko garrantzi espezifikoa izan du, eta % 10 inguruko beherakada). Administrazio autonomikoaren lizitazio-jardueraren gorakada da (% 17) inbertsioaren % 34,7ren erantzule, baina ez da nahikoa izan gainerako beherakadak konpentsatzeko. Gipuzkoari dagokionez, oro har, Bizkaiko jokabide-eredu berari jarraitzen dio: aldakuntza-tasa negatiboak tokiko administrazioan (-% 26,6) eta administrazio zentralean (-% 2), baina ez autonomikoan (% 24,1eko hazkundea). Dena dela, Gipuzkoako organo kontratatzaileen araberako banaketak agerian uzten du administrazio zentralari loturiko jarduera nagusi dela (% 64,9), eta

gainerakoen partaidetza askoz ere txikiagoa dela (tokiko administrazioarena % 23,4 eta administrazio autonomikoaren % 11,7). Azkenik, Nafarroako egoerak ez du zerikusirik EAEn gertatutakoarekin. Euskal Herrian urtetik urterako portaera hoberena izan duen lurraldea izan da; izan ere, hazkunde nabarmena izan du (% 98,2) eta bere lizitazio-jarduera bikoiztu egin da 2014tik. Guztira 200,8 milioi euro inbertitu ditu 2015 ekitaldian, eta lizitazio-jarduerak hazkunde nabarmena izan du bertan, bai esparru zentralean bai autonomikoan. Jarduera horien garrantzi erlatiboak % 29,2 eta % 59,2koak izan dira, hurrenez hurren, eta marjina txikia utzi dio tokiko esparrutik datorren inbertsio ahulduari (-% 60,3). Azken horrek gainerakoek baino askoz ere garrantzi txikiagoa izan du (% 11,6).

Amaitzeko, eta Estatuari dagokionez, 2015ean nabarmen aldatu da lizitazioen egoera, inbertsioak nabarmen egin baitu behera aztergai ditugun hiru esparruetan (batzuetan besteetan baino gehiago). Administrazio zentralak, % 45,7ko barneratzearekin, % 31,5ean doitu ditu bere partidak 2014arekin alderatuta; tokiko administrazioak % 36,7an, lizitazioen esparruan duen presentzia murriztuz (% 27,2ko partaidetza). Administrazio autonomikoak, berriz, garrantzi espezifiko antzekoa izan badu ere (% 27), portaera lasaiagoa izan du, balioen doikuntza txikiagoarekin (-% 8).

**115. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2015)**

| Obra mota | Euskal Herria | | | Espainia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M eurotan | ∆ % 15/14 | % | M eurotan | ∆ % 15/14 | % |
| Etxebizitzak | 69,3 | 31,5 | 69,3 | 211,6 | -35,4 | 2,3 |
| Gizarte-ekipamendua | 159,5 | 18,1 | 159,5 | 1.340,9 | -23,6 | 14,3 |
| Gainerako etxegintza | 125,5 | 201,4 | 125,5 | 1.428,5 | 18,0 | 15,2 |
| **Guztizko etxegintza** | 354,3 | 54,4 | 354,3 | 2.981,1 | -9,4 | 31,7 |
| Garraioak | 655,8 | -6,5 | 655,8 | 3.854,9 | -39,5 | 41,0 |
| Urbanizazioak | 126,8 | -16,1 | 126,8 | 1.096,0 | -29,1 | 11,7 |
| Hidraulikoak | 154,8 | 5,2 | 154,8 | 1.222,9 | -24,2 | 13,0 |
| Ingurumena | 21,4 | 49,1 | 21,4 | 240,2 | -5,7 | 2,6 |
| **Obra zibila guztira** | 958,7 | -5,5 | 958,7 | 6.414,1 | -34,5 | 68,3 |
| **Guztizkoa** | **1.312,9** | **5,6** | **1312,9** | **9.395,1** | **-28,2** | **100,0** |

Iturria: Seopan.

Informazioa obra motaren arabera xehatuta, eta Estatuko esparrutik hasiz, adierazleek oro har behera egin dutela ikus daiteke, Gainerako etxegintza atalak izan ezik. Arlo hori izan da 2015ean gora egin duen bakarra (% 18). Dena den, nabarmendu behar da hazkunde hori ez dela nahikoa izan Etxegintza azpisektorea osatzen duten beste bi ataletan erregistratutako aldakuntza-tasa negatiboak konpentsatzeko. Alde batetik, etxebizitzen lizitazio-jarduera nabarmen murriztu da (-% 35,4), baita gizarte-ekipamenduena ere (-% 23,6), 2,981 miloi euroko lizitazio-bolumena izan baitu ekitaldi honetan (2014an baino % 9,4 gutxiago). Obra zibilari dagokionez (lizitazio ofizialaren % 70,8 hartzen du), beherakada handia izan dute garraioek (-% 39,5). Obra horiek guztira lizitatutakoaren ia erdia izaten dute esleituta tradizionalki, baina ekitaldi honetan

% 41era murriztu da haien partaidetza. Era berean, beherakada handiak egon dira urbanizazioetan (-% 29,1) eta hidraulikoetan (-% 24,2); ingurumenak ere behera egin du, baina lasaiago (-% 5,7). Nabarmendu behar da aurreko ekitaldian beheranzko mugimendu bakarra hidraulikoen atalekoa izan zela; oraingoan, berriz, obra zibila izan da hiru administrazio-mailen aurrekontu-mugen ondorioz kalte gehien jasan dituena.

Orain analisi hori bera egingo dugu, baina Euskal Herria ardatz hartuta. Bertan, aldakuntza positiboak eta negatiboak jaso dira, jarduketa-esparruaren arabera. Lehen segmentuak, Etxegintzari dagokionak, % 54,4ko hazkundea izan du, hori osatzen duten hiru obra-motek gora egin dutelako, baina, batez ere, Gainerako etxegintza atalak izugarrizko gorakada izan duelako (% 201,4). Dena den, eta bai etxebizitzek bai gizarte-ekipamenduek bilakaera positiboa izan badute ere (% 31,5 eta % 18,1, hurrenez hurren), zehaztu behar da zifra oso txarrak genituela abiapuntu: 354,3 milioi euro (1.224,2 milioi euro 2008an). Bigarren segmentuak, obra zibilari dagokionak, % 73ko partaidetza izan du guztizkoari dagokionez, eta estatu-mailan erregistratu den okerrerako joera bera izan du; zehazki, 958,7 milioi euroko lizitazio-bolumena izan du (% 5,5eko beherakada). Obra zibileko jardueraren barnean, honako atal hauek izan dituzte hazkundeak: ingurumena (% 49,1), guztizkoan ordezkaritza txikiena izan duena (% 1,6); eta hidraulikoak (% 5,2), % 11,8ko partaidetzarekin. Beste bi epigrafeek urtetik urterako aldakuntza negatiboak izan dituzte. Aipagarrienak urbanizazioena (-% 16,1) eta garraioena (-% 6,5) izan dira. Azken atal horren joerak, gainera, azpisektorearen bilakaera baldintzatzen du, obra zibileko inbertsioaren erdia hari baitagokio. Hori horrela, EAEn lizitatutako bolumena 1.312,9 milioi eurora igo da (2014an baino % 5,6 gehiago), Nafarroako portaera onari esker nagusiki.

**15. grafikoa Lizitazio ofiziala**




*Iturria: Seopan.*

**116. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak**

*(etxebizitza kopurua)*

| Eremua | Kontzeptua | Hasitako etxebizitzak | | | | Amaitutako etxebizitzak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2012 | 2013 | 2014 | 2015(*) | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
| Araba | Babestuak | 280 | 0 | 20 | 15 | 1.700 | 515 | 679 | 0 |
| | Libreak | 478 | 129 | 79 | - | 881 | 400 | 389 | 184 |
| Bizkaia | Babestuak | 1.479 | 1.426 | 1.020 | 781 | 1.003 | 630 | 969 | 1.537 |
| | Libreak | 1.258 | 1.086 | 1.102 | - | 1.699 | 1.893 | 1.159 | 1.965 |
| Gipuzkoa | Babestuak | 504 | 395 | 456 | 306 | 1.132 | 697 | 792 | 448 |
| | Libreak | 1.007 | 814 | 1.000 | - | 2.177 | 1.701 | 1.012 | 1.462 |
| EAE | Babestuak | 2.263 | 1.821 | 1.496 | 1.102 | 3.835 | 1.842 | 2.440 | 1.985 |
| | Libreak | 2.743 | 2.029 | 2.181 | - | 4.757 | 3.994 | 2.560 | 3.611 |
| Nafarroa | Babestuak | 902 | 141 | 406 | 329 | 1.398 | 1.446 | 1.165 | 425 |
| | Libreak | 889 | 478 | 636 | 1.068 | 1.467 | 878 | 591 | 560 |
| Euskal Herria | Babestuak | 3.165 | 1.962 | 1.902 | 1.431 | 5.233 | 3.288 | 3.605 | 2.410 |
| | Libreak | 3.632 | 2.507 | 2.817 | - | 6.224 | 4.872 | 3.151 | 4.171 |
| Espainia | Babestuak | 17.155 | 6.489 | 5.898 | 5.306 | 53.332 | 17.059 | 15.046 | 7.931 |
| | Libreak | 34.580 | 29.232 | 29.883 | - | 80.083 | 43.230 | 35.226 | 39.891 |

*(*): Txosten hau egin denean ez dago hasitako etxebizitza libreei buruzko daturik.*
*(-): Ez dago daturik.*
*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.*

2015ean hasitako eta amaitutako etxebizitzei dagokienez, azken urteetan bezala, hutsuneak daude hasitako etxebizitza libreei buruzko informazioan. Hori dela eta, ezin da alderaketa bidezko analisi osatu bat egin. Beraz, babestutako hasitako etxebizitzen datuak kontuan hartuta, Euskal Herrian % 25 inguru murriztu direla ikusi da: 2014an 1.902 unitate zeuden eta 2015ean 1.431. Igoera horretan zerikusia izan dute, neurri desberdinetan bada ere, lurralde guztiek. Arabatik hasita, 15 etxebizitza babestu besterik ez dira hasi aztergai dugun urtean (-% 25); Gipuzkoan adierazle hori 306koa izan da (-% 32,9); eta Bizkaian adierazlea % 23,4 jaitsi da 2014tik (hasitako 781 etxebizitza). Nafarroan beherakada % 19koa izan da, hasitako 329 etxebizitza babesturekin; beherakada hori Estatukoa baino zertxobait baxuagoa izan da (-% 10). Nabarmendu behar da 2012tik Euskal Herriko etxebizitzen kopurua erdia baino gehiago murriztu dela, eta nazio-mailan % 70.

Amaitutako etxebizitzei dagokienez, 2015ean amaitutako etxebizitzen kopurua % 5 murriztu da Estatuan eta % 2,6 Euskal Herrian. Alegia, 2014an jasotako portaeraren alderantzizkoa erregistratu da. Kasu honetan, etxebizitza libreek babestuek baino portaera hobea izan dute, eta azken horiek, oro har, beherakadak izan dituzte. Zehatzago esanda, lurraldeka, Bizkaian bakarrik izan ditu gorakadak bi adierazleetan (% 58,6 babestuetan eta % 69,5 libreetan); aztergai ditugun gainerako esparru geografikoetan, aldiz, etxebizitza babestuek behera egin dute. Ildo horretan, Arabako Lurralde Historikoa nabarmendu behar da, zero etxebizitza babesturekin. Atzetik ditu

Gipuzkoa eta Nafarroa, elkarren arteko balio antzekoekin (448 eta 425 unitate, hurrenez hurren). Kopuru horiek aurreko ekitaldian bolumenek jasandako murrizketaren ondorio dira (% 43,5 eta % 64,5, hurrenez hurren). Analisi hori bera egiten badugu nazio-mailan, egoera antzekoa dela ikusiko dugu: babestutako etxebizitza amaituen kopurua % 47,3 murriztu da, guztira 7.931 etxebizitzetara iritsiz. Amaitutako etxebizitza libreei dagokienez, goranzko joera izan da nagusi, Araban eta Nafarroan izan ezik. Arabak 184 unitate erregistratu ditu, % 52,7ko beherakadaren emaitza gisa (beheranzko joera argia). Nafarroako erroldak ere behera egin du, lasaiago bada ere (-% 5,2); lurralde horretan, 560 etxebizitza erregistratu dira atal honetan. Gipuzkoak % 44,5eko hazkundea izan du amaitutako etxebizitza libreetan (1.462 etxebizitza). Euskal Herrian, oro har, eta amaitutako etxebizitzei dagokienez, guztira 6.581 unitate erregistratu dira, eta bai libreek bai babestuek % 33 inguruko urtetik urterako aldakuntza-tasak izan dituzte. Aldakuntza horiek, dena den, desberdinak izan dira elkarren artean: positiboak etxebizitza libreentzat eta negatiboak babestuentzat (libreei dagokien guztizkoaren % 63). Esparru nazionalean analisi hori bera eginez gero, argi eta garbi ikusten da amaitutako etxebizitza libreak nagusi direla, guztizkoaren % 83 hartzen baitute eta urtetik urterako % 13,2ko hazkundea izan baitute.

16. grafikoa    Amaitutako etxebizitza kopurua




*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.*

**117. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn***

| Urtea | Birgaitutako etxebizitza kop. | Emandako diru-laguntzak (eurotan) | Batez besteko zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| 2014 | 11.351 | 13.463.117 | 1.186,07 |
| 2015 | 12.510 | 14.575.218 | 1.165,09 |
| ∆ % 15/14 | 10,2 | 8,3 | -1,8 |

*(*): Diru-laguntza jaso duten eraikin eta etxebizitza birgaituen kopurua.*
*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.*

EAEko birgaitze-jardueraren bilakaerari dagokionez, erreferentziazko bi adierazlek gora egin dute: birgaitutako etxebizitzen kopuruak (12.510 unitate, 2014an baino 1.159 gehiago), eta emandako diru-laguntzen guztizko zenbatekoak (% 8,3 egin du gora, eta guztira 14.575.218 euro eman dira). Birgaitutako etxebizitza bakoitzean inbertitutako batez besteko zenbatekoak, aldiz, % 2 inguru egin du behera, eta 1.165 eurotara iritsi da.

**118. koadroa Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak**

*(m pertsona)*

| Eremua | 2013 | 2014 | 2015 | ∆ % 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 6,7 | 7,1 | 3,9 | -44,7 |
| Bizkaia | 31,0 | 28,1 | 28,7 | 2,1 |
| Gipuzkoa | 19,1 | 14,9 | 15,3 | 2,5 |
| EAE | 56,8 | 50,1 | 47,9 | -4,4 |
| Nafarroa | 14,4 | 14,0 | 16,9 | 20,5 |
| Euskal Herria | 71,2 | 64,1 | 64,8 | 1,1 |
| Espainia | 1.029,48 | 993,5 | 1.073,65 | 8,1 |

*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).*

Sektorekako analisiarekin amaitzeko, eta EINek Biztanleria Aktiboaren Inkestan (BAI) jasotako informazioa oinarri hartuta, badirudi eraikuntzan lan egiten duten herritarren adierazleak hobetzeko joera hartu dutela, Araban izan ezik (bertan, % 44,7ko beherakada erregistratu da). Bizkaiak eta Gipuzkoak antzeko bilakaera izan dute % 2 inguruko gorakada txikiekin. Nafarroak izan du portaerarik onena denen artean, eraikuntzan lan egiten duten herritar aktiboen kopurua nabarmen areagotu baita bertan (% 20,5). Joera hori bera ikus daiteke Estatuan, lasaiago bada ere: % 8,1eko igoera izan du, eta sektorean lanean ari direnen kopurua 1.073,6 mila pertsonara iritsi da.

Sektorearen berehalako etorkizunari dagokionez, ez dirudi itxaropen handirik dagoenik. 2016ko lehen seihilekoko datuen arabera, krisiak sektorean eragina izaten jarraitzen du, lizitazio-bolumenak nabarmen egin baitu behera. Oficemenen arabera, obra zibilerako zementu-eskariaren gutxieneko historikoa erregistratu da aldi horretan; izan ere, Gobernua eratzeko atzerapenarengatik "geldituta" dago Espainiako obra publikoa, eta horrek aipatutako eskaria kaltetzen du. Beraz, 2016. urtea sektorearentzako zaila izango dela aurreikus daiteke.

17. grafikoa Eraikuntzan lanean ari diren herritarrak




*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).*

# 12. SEKTOREEN EKONOMIA- eta FINANTZA-ANALISIA

## 12.1 SARRERA

Kapitulu honetan, finantza-analisirako bi tresna klasiko aplikatzen zaizkie EAEko hainbat industria-sektoreri: ratio bidezko analisia eta funtsen iturri eta erabileren egoera. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa behar da: balantzeak eta emaitzen kontuak.

Sarrera hau alde batera utzita, hiru atal handitan egituratuta dago kapitulua. Lehena metodologikoa da, eta erabilitako oinarrizko informazioa dago zehaztuta bertan. Bigarren atalean, berriz, ratioen piramidearen aplikazioan jarraitutako irizpideak eskaintzen dira. Azkenik, hirugarren atalak funtsen iturrien eta erabileren egoera eskaintzen du. Horrela, beraz, EAEko industria-sektoreen ekonomia- eta finantza-analisi bat egin da (Estatu osoarekiko sektore arteko alderaketan eta alderaketa sektorialean sakonduta), eta piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartu dira erreferentzia gisa. Halaber, sektoreetako ratioen piramideak eta funtsen iturri eta erabileren egoerak erantsi dira (EAEkoak zein Estatu osokoak).

## 12.2 METODOLOGIA

### Datu-bankuak

Aipatu bezala, piramidea egiteko, oinarrizko kontabilitate-egoerak behar dira: aztertu beharreko sektore guztien balantzeak eta emaitza-kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak -enpresa laguntzaileek betetako galde-sortetan oinarrituta- bildutako informazioa erabili da datu-base gisa, EAEri (eskaera espezifikoa egin da egoitza EAEn edo Nafarroan duten enpresen kasuan) zein Estatu osoari dagokionez (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak berak landutako urteko txostenetako informazioa erabili da). Horri esker, geroagoko tratamendu baterako informazio homogeneoa lortu da.

Alde horretatik, aipatu beharrekoa da Balantzeen Zentraleko azken informazio-basea t-2 urteari dagokiola (halaber, datu-base bakoitzak dagokion urteari eta aurreko urteari buruzko informazioa ematen du); hori dela eta, abiapuntuko informazioak urtebeteko atzerapena du txosten honi dagokion ekitaldiari dagokionez. Zehazki, txosten hau

egiteko azken base eskuragarria 2014koa da, eta 2013. eta 2014. urteei buruzko informazioa ematen du.

Industria-jardueraren sektorizazioari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berriari jarraitu zaio industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu da. Zehazki, honako desagregazio sektorial hau da (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

2014ko datu-basean, adierazitako 19 sektore horietako 14ri buruzko informazioa dago eskuragarri EAEn (honako sektore hauei buruzko informazioa falta da, estatistika-sekretua dela-eta -sektore bateko 5 enpresa laguntzaile baino gutxiago daudenean-: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik; arte grafikoak eta euskarri grabatuen aldakiak; koke-fabrikak eta petrolio-finketa; farmazia-produktuen fabrikazioa). 2013. urtean, berriz,



LABORAL kutxa

11 sektoreri buruzko informazioa zegoen eskuragarri (2014arekin alderatuta, ez zegoen honako hauei buruzko informaziorik: produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa; bestelako garraio-materialen fabrikazioa; eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa). Horrela, beraz, dagokion urtean EAEn zein Estatu osoan eskuragarri dauden sektoreen batura da industria osorako agregatua.

Azkenik, adierazi beharra dago sektore bakoitzerako agregatutako egoeren datuak lortzeko oinarri izan den informazioa eskaini duten enpresek beren borondatez eman dutela informazio hori. Beraz, ezerk ez du bermatzen baseak iraungo duenik eta egindako analisiak balio estatistikoa izango duenik sektore osorako inferentziaren bat egiteko.

**Ratioen piramidea**[1]

*Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitzen kontua*

Kontabilitateko oinarrizko egoera-orriek osatzen dute piramidea egiteko abiapuntuko informazioa: emaitzen kontuak eta balantzeak. Informazio hori oso era sinplifikatuan eman behar da egingo den aplikazioa kontuan hartuta. Izan ere, aztertutako sektore guztien ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Analisi sakonago bat egiteko eta ondorio sakonagoak lortzeko, informazio bereiziagoa eta eduki-aberastasun handiagokoa behar da.

Emaitzen kontuari dagokionez, honako koadro honetan agertzen den eskema erabiliko da:

| | | |
|---|---|---|
| + | Ustiapenaren ohiko diru-sarrerak | V |
| - | Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin | CV |
| - | Kostu finko operatiboak, ordainketarekin | CF |
| - | Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak) | AM |
| - | Interesak | I |
| ± | Ezohiko emaitzak | RE |
| - | Sozietateen gaineko zerga | IS |
| = | Mozkin garbia | BN |

Balantzeari dagokionez, pasiboaren barruan kostu esplizitua eta ondare garbia duten kanpoko funtsak bereiziko ditugu (PGC 2007 plan berriaren arabera). Aktiboaren barruan, honako hauek aztertuko ditugu: aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167. zenbakia, abuztua, 1999, 329-359 or.

zirkulatzaile garbia (aktibo korronte garbia), hau da, berezko pasiboak (negozioaren operatibak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) kendu zaizkion aktibo zirkulatzailea eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua ordainketa bizkorragatiko deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia.

| | |
|---|---|
| AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA | EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN. |
| | EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK |
| AKTIBO FINKOA | ONDARE GARBIA |

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

*Leverage operatiboa*

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euroko marjina gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarria behar da:

MB= Marjina gordina. Ohiko diru-sarreren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euroko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Salmentako euro bakoitzak kostu aldakorrak soilik estaliz uzten duen marjina adierazten du:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAII = Interesen eta zergen aurreko mozkina. Ohiko diru-sarreren eta kostu operatiboen (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia alderatzearen emaitza da:

$$BAII = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAII = 0 baten salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla suposatzen badugu (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAII = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko gara:

$$BAII = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAII = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euroko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finko konstante batzuekin), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

*Leverage finantzarioa*

Funts propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa jasotzen du. Formulazio matematikoa egiteko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

t = Zerga-tasa

BAIdI = Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAIdI = BAII \cdot (1 - t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1 - t)$$

Beste alde batetik, aintzat hartuta ez dagoela ezohiko emaitzarik ekitaldian[1], mozkin garbia ez da BAIdI-i zergen interes garbiak kentzeearen emaitza:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1 - t)$$

Ondoren, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

r = Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboa bat datorrela aktibo zirkulatzaile garbiaren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

i = Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, bidezko interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezpena kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA}$$ [2]

e = Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:

$$e = r + (r - i)\frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i)\frac{FA}{PN}$$

e = Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo laukian, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarrizko piramidea ikus daiteke.

---

[1] Ondoren jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.
[2] FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPren batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogorarazi behar da FACPk kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.




Goi-erpinean, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna agertzen da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereiztean datza piramidearen azpian dagoen filosofia. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua, hau da, finantza-egitura kontuan hartu gabe; eta eskuineko adarrak, berriz, finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari leverage finantzarioaren bidez egiten dion ekarpena kalkulatzen du.

Gai gehigarri bat aipatu beharra dago: piramidearen analisian ezohiko emaitzei emango zaien tratamendua. Normalean, emaitza horien errekurrentzia zalantzan jartzen da enpresetan aplikatutako analisian. Emaitzak errekurrenteak eta, beraz, neurri batean aurreikusgarriak badira, "r" mailan txerta daitezke piramidean, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatuta, ala bi kalkulatuta: ohiko errendimendua eta ezohikoa.

Dena dela, analisi sektorialari begira eta emaitzen izaera errekurrentea finkatzeko ezintasuna dela-eta, atal honen amaieran erantsitako laukian irudikatutako soluzioari jarraituko diogu sektore bakoitzean. Lauki horretan, "e" mailan txertatzen dira, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereizten dira: ohikoa -e1-, berezko ezohikoa -e2- eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa -e3-. Garbi dago azken adar hori kontuan hartzearen arrazoia: maila agregatutan, zerga sektorialen (T) zifrek e1 ratioa distortsiona dezakete (hau da, sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen duena). Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komun bat suposatu dugu sektore guztietarako, eta zerga horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietarako ratioen piramideak erantsi ditugu, EAEko zein Estatu osorako, eta 2013. eta 2014. urteetarako. Dena dela, eraginkortasun-arazoak direla-eta, piramideko ratiorik garrantzitsuenak hautatu ditugu berezko ekonomia- eta finantza-analisi sektorialari buruzko hurrengo atalean.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu dira EAEko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien analisi xehatua egin da, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta osagaiak: BAIdI/V eta V/(AF+ACN)) eta leverage finantzarioarena ((r-i) x (FA/PN) eta horren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, EAEko eta Estatuko industria-sektoreen arteko alderaketa egiteko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta osagaiak hautatu dira: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).



LABORAL kutxa


e
e3
e1
e2
T(t=0,285)-T(t efektiboa)
÷
PN
REdI
÷
PN
RE
x
(1-t)
r
+
$(r-i)\frac{FA}{PN}$
$\frac{BAIdI}{V}$
x
$\frac{V}{AF+ACN}$
(r-i)
x
$\frac{FA}{PN}$
BAIdI
÷
V
÷
AF+ACN
r
-
i
FA
÷
PN
(I-t)
x
BAII
I(I-t)
÷
FA
V-VPM
x
MBP
I
x
(1-t)
V
-
VPM
CF+AM
÷
MBP
MB
÷
V
V
-
CV

### Funtsen iturri eta erabileren egoera[1]

Ratioen piramidearen kasuan mozkinean oinarrituta egiten den analisi ekonomikoaren ordez, analisirako bigarren tresnak finantza-alderdia du ardatz, hau da, funtsen kutxaren edo fluxuen ikuspegia. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra egiten da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

– TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak –haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe– liberatzen dituen euroekin bat datorrena. "Free cash–flow" izen anglosaxoia ezagunagoa da. Erraz kalkulatzen da; ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkio, eta, ondoren, aktibo zirkulatzaile garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.

– TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.

– TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen dituenean (TINV>0) kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako liberatzen dira. Aktiboak berez bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokion dirua jarri beharko dute. Azken batean, zero balioa finantza-orekaren sinonimoa da, eta inoiz ez da interpretatu behar sektorearen osasun-adierazgarri gisa.

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**154. koadroa Makineria eta ekipoaren konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta enpleguen egoera**

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | EAE | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2013 | 2014 | 2013 | 2014 |
| | | + $V_t$ | - | 18,37 | - | 14,79 |
| | | - $C_t$ | - | 17,21 | - | 13,06 |
| | | - $AM_t$ | - | 0,10 | - | 0,54 |
| | | = $BAII_t$ | - | 1,07 | - | 1,19 |
| | | * (1-t) | - | 0,715 | - | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | - | 0,76 | - | 0,85 |
| | | + $AM_t$ | - | 0,10 | - | 0,54 |
| | | - $IF_t$ | - | 0,00 | - | 0,10 |
| | + GFOt | | - | 0,86 | - | 1,30 |
| | | + REt | - | 0,00 | - | -0,39 |
| | | * (1-t) | - | 0,715 | - | 0,715 |
| | | = REdIt | - | 0,00 | - | -0,28 |
| | | +EFt | - | -0,04 | - | -0,09 |
| | + GFEt | | - | -0,04 | - | -0,36 |
| | | + ACNt-1 | - | 2,19 | - | 3,48 |
| | | - ACNt | - | 3,01 | - | 3,64 |
| | - ΔACNt | | - | 0,82 | - | 0,17 |
| | - INVt | | - | 0,09 | - | 0,99 |
| + TINVt | | | - | -0,09 | - | -0,22 |
| | + EFAt - AFAt | | - | -0,10 | - | 0,81 |
| | | + It | - | 0,03 | - | 0,17 |
| | | * (1-t) | - | 0,715 | - | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | - | 0,02 | - | 0,12 |
| + TFAt | | | - | -0,12 | - | 0,69 |
| + TPNt | | | - | 0,21 | - | -0,47 |
| = 0 | | | - | 0,00 | - | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

### 155. koadroa Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera

*(M euro - Batez besteko balioak)*

| Kontzeptua | | | EAE | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2013 | 2014 | 2013 | 2014 |
| | | + $V_t$ | 100,31 | 91,76 | 95,99 | 93,63 |
| | | - $C_t$ | 94,42 | 84,66 | 88,68 | 85,70 |
| | | - $AM_t$ | 3,05 | 2,82 | 3,01 | 2,84 |
| | | = $BAII_t$ | 2,84 | 4,28 | 4,29 | 5,09 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = $BAIdI_t$ | 2,03 | 3,06 | 3,07 | 3,64 |
| | | + $AM_t$ | 3,05 | 2,82 | 3,01 | 2,84 |
| | | - $IF_t$ | 0,30 | 0,57 | 0,44 | 0,50 |
| | + GFOt | | 4,79 | 5,32 | 5,64 | 5,98 |
| | | + REt | -3,86 | -0,14 | -1,48 | 2,49 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | | = REdIt | -2,76 | -0,10 | -1,06 | 1,78 |
| | | +EFt | -0,97 | 0,29 | -0,02 | 0,88 |
| | + GFEt | | -3,73 | 0,19 | -1,08 | 2,66 |
| | | + ACNt-1 | 19,92 | 24,35 | 18,47 | 20,69 |
| | | - ACNt | 18,15 | 24,08 | 18,13 | 19,60 |
| | - ΔACNt | | -1,76 | -0,27 | -0,33 | -1,09 |
| | - INVt | | -0,24 | 2,00 | 2,52 | 1,83 |
| + TINVt | | | 3,06 | 3,77 | 2,37 | 7,90 |
| | + EFAt - AFAt | | -1,38 | -0,78 | -1,57 | -1,69 |
| | | + It | 0,87 | 1,20 | 1,00 | 1,02 |
| | | * (1-t) | 0,715 | 0,715 | 0,715 | 0,715 |
| | - (1-t) * It | | 0,62 | 0,86 | 0,71 | 0,73 |
| + TFAt | | | -2,00 | -1,64 | -2,28 | -2,42 |
| + TPNt | | | -1,06 | -2,13 | -0,09 | -5,48 |
| = 0 | | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

# 13. EAE-KO ENPRESA SAREAREN AZTERKETA

## 13.1 SARRERA

Aurreko txostenetan egindako lanari jarraipena emateko, kapitulu honen helburua da EAEko, Nafarroako eta Estatu osoko enpresa-sarearen bilakaerari eta egiturari buruzko konparazio-azterketa bat egitea denbora-ikuspegi zabal batetik (2009-2015 aldia), ekonomia-sektoreak eta soldatakoen geruzak kontuan hartuta. Ildo horretan, azterketaren homogeneotasuna handiagoa izateko, EINeren Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) erabiliko da informazio-iturri bakar gisa.

## 13.2 BILAKAERA OROKORRA

Ekonomia-krisiaren eraginaren ondorioz, enpresa aktiboen kopurua jaitsi egin da azken urteotan, EAEn zein Nafarroan eta Estatu osoan. Nolanahi ere, goraka egiten hasi ziren pixka bat 2015ean ekonomia-suspertzea dela eta, EAEn izan ezik.

Hortaz, EAEko enpresa aktiboen kopurua 2009an 172.152 izatetik 2015ean 148.575 izatera igaro da; bilakaera horrek erakusten du -% 13,7ko jaitsiera metatua izan dela. Nafarroako eta Estatu osoko kasuetan, enpresa-kopurua 2009an 43.282 izatetik 2015ean 43.131 izatera igaro da, eta 2009an 3.355.830 izatetik 2015ean 3.186.878 izatera, hurrenez hurren; bilakaera horiek erakusten dute -% 0,3ko eta -% 5eko atzerakada metatuak izan direla, hurrenez hurren. Hala, ikus dezakegu EAEn erregistratu dela atzerakada metaturik handiena, termino erlatibotan.

Edonola ere, nabarmendu beharra dago aintzat hartu diren geografia-eremuetan urte arteko gorabeherak desberdinak izan direla aintzat hartutako denboraldian. Horrez gain, desberdintasun handiak daude eremu bakoitzari dagozkion urte arteko aldaketetan ere.

EAEri dagokionez, 2012an gertatu zen urtetik urtera enpresa-kopuruan izandako murrizketarik handiena (-% 3,9), eta txikiena 2015ean (-% 0,4). Nafarroan, berriz, urteetako beherakadarik handiena 2010ean erregistratu zen (-% 2,2), eta, aurreko urteekin alderatuta, gora egin zuen 2014an zein 2015ean bereziki (% 1,8 eta % 3,7, hurrenez hurren). Estatuan, azken urteotako beherakadarik handiena 2010ean izan zen (-% 1,9), eta gora egiten hasi zen pixka bat 2015ean (% 2,2).



LABORAL kutxa

**22. grafikoa Enpresa-kopuruaren bilakaera**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

**23. grafikoa Enpresa-kopuruaren urte arteko aldakuntza**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

**24. grafikoa Garrantziaren bilakaera estatuko guztizkoaren gain (Estatua=100)**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Bilakaera horren arabera, enpresa-kopuruak estatuko guztizkoaren gain duen garrantzia zertxobait jaitsi da EAEn (2015ean guztizkoaren % 4,7 izan da; 2009an, berriz, % 5,1); Nafarroan, ordea, zertxobait igo da (2015ean guztizkoaren % 1,35; 2009an, berriz, % 1,29).

## 13.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoak aintzat hartuz, eta lehenik eta behin lau sektore handiei (industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak) atxikitako analisi bati erreperatuz, 2009-2015 denboraldian ikusi da, oro har, behera egin dutela horiek guztiek EAEn, Nafarroan eta Estatu osoan, Nafarroako eta Estatu osoko gainerako zerbitzuek izan ezik.

Oinarrizko urtearekin (2009) alderatuta, enpresa-kopuruaren jaitsiera metaturik handiena eraikuntzari dagokio hiru geografia-eremuetan: -% 29,4 EAEn, -% 27,2 Estatuan eta % 16,9 Nafarroan. Kontrara, aurreratu den moduan, gainerako zerbitzuei atxikitako enpresa-kopuruak gora egin du Nafarroan zein Estatuan (% 7 eta % 4,3, hurrenez hurren).

EAEri dagokionez, enpresa-kopuruak behera egin du lau sektore handietan: -% 29,4 eraikuntzan, -% 16,8 industrian, -% 13,4 merkataritzan eta -% 8 gainerako zerbitzuetan.

**25. grafikoa Enpresen bilakaera sektore ekonomikoaren arabera (2009ko indize-kopuruak=100)**




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Azterketa soilik 2009ko eta 2015eko ekitaldietan ardazten badugu, eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) aintzat hartzen badugu, ikusiko dugu hiru geografia-eremuetan honako arlo hauetan jarduten duten enpresak direla ugarienak

2009an eta 2015ean: handizkako merkataritzan eta txikizkako merkataritzan jarduten dutenak eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketan jarduten dutenak. Hala, 2015ean EAEn jarduera horietan lan egiten duten 34.274 enpresak EAEko enpresa guztien % 23,1 dira (2009an % 23), Nafarroan jarduera horretako enpresak baino pixka bat gehiago (autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 22,8 2015ean zein 2009an) eta Estatu osokoari dagokiona baino pixka bat gutxiago (Estatu osoko % 24 2015ean, eta 2009an % 24,1).

**156. koadroa Enpresak ekonomia-sekzioaren arabera. 2009-2015 konparazioa.**

| | EAE | | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2009 | 2015 | 2009 | 2015 | 2009 | 2015 |
| **Guztizkoa** | **172.152** | **148.575** | **43.282** | **43.131** | **3.355.830** | **3.186.878** |
| Erauzketa Industriak | 55 | 49 | 31 | 35 | 2.916 | 2.416 |
| Manufaktura Industria | 13.804 | 11.261 | 3.685 | 3.087 | 222.371 | 174.333 |
| Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza | 309 | 409 | 470 | 584 | 13.962 | 14.551 |
| Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa | 242 | 276 | 62 | 144 | 5.945 | 6.704 |
| Eraikuntza | 29.987 | 21.163 | 7.364 | 6.122 | 557.110 | 405.849 |
| Handizkako eta txikizkako merkataritza; Ibilgailu motordunen eta motoen konponketa | 39.593 | 34.274 | 9.873 | 9.830 | 809.290 | 763.930 |
| Garraioa eta biltegiratzea | 13.065 | 10.614 | 3.731 | 3.295 | 234.798 | 194.201 |
| Ostalaritza | 13.814 | 12.998 | 3.378 | 3.563 | 290.676 | 276.412 |
| Informazioa eta Komunikazioak | 2.901 | 2.773 | 455 | 590 | 51.110 | 58.858 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak | 2.641 | 2.899 | 779 | 781 | 68.306 | 71.672 |
| Higiezin-jarduerak | 4.826 | 2.614 | 1.093 | 1.307 | 119.673 | 148.826 |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | 20.016 | 20.009 | 5.264 | 5.234 | 409.641 | 379.415 |
| Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak | 6.608 | 5.300 | 1.905 | 2.324 | 137.654 | 184.967 |
| Hezkuntza | 3.596 | 3.920 | 911 | 1.099 | 72.729 | 92.689 |
| Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak | 7.060 | 8.214 | 1.147 | 1.569 | 126.986 | 148.692 |
| Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak | 3.307 | 3.031 | 889 | 1.078 | 72.836 | 83.635 |
| Bestelako zerbitzuak | 10.328 | 8.771 | 2.245 | 2.489 | 159.827 | 179.728 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Aintzat hartutako hiru geografia-eremuetan, jarraian agertzen dira (hurrenkera honetan) eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. EAEren kasuan, eraikuntzan 21.163 enpresa daude 2015ean autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 14,2 (2009an% 17,4). Nafarroan jarduera honek duen pisu erlatiboa ere bera da (% 14,2; 2009an % 17), eta Estatuan erregistratutakoa pixka bat txikiagoa da (% 12,7; 2009an, % 16,6). Jarduera profesionalei, zientifikoei eta teknikoei dagokienez, 2015ean EAEn horrelako 20.009 enpresa daude; hau da, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,5 (2009an, % 11,6), arlo horretako Nafarroako eta Estatuko parte-hartzea baino handiagoa (% 12,1 2015ean; % 12,2 2009an eta % 11,9 2015ean eta % 12,2 2009an, hurrenez hurren).

## 13.4 SOLDATAKOEN GERUZAK

Soldakoen geruza guztiak aintzat hartuz, lehenik eta behin nabarmendu behar da, aurreko azpiepigrafean bezala, lehenengo 2009-2015 denboraldia aztertzen dela, soldatakoen geruzen agregazio handiagoari erreparatuz, eta ondoren ekitaldi horietan soilik jartzen da arreta, enpleguaren desagregazio handiagoarekin.

2009-2015 denboraldiari erreparatuz gero, soldatakorik gabeko edota horietako bat edo bi dituzten Nafarroako enpresak kontuan hartu gabe, enpresa-kopuruak behera egin du oro har soldatakoen geruza guztietan EAEn, Nafarroan eta Estatu osoan.

Aztertutako hiru geografia-eremuetan, 10-19 soldatako dituzten enpresek dituzte beherakadarik handienak oinarrizko urteari (2009) dagokionez. 10-19 soldatako dituzten enpresen kopurua -% 24,9 jaitsi da EAEn (2015ean 4.213 eta 2009an, 5.608), -% 29,8 Nafarroan (2015ean 1.113 eta 2009an 1.585) eta -% 29,6 Estatuan (2015ean 71.518 eta 2009an 101.601).

EAEn, Nafarroan eta Estatuan 20 soldatako edo gehiago dituzten enpresek izan dute bigarren beherakada handiena.

26. grafikoa Enpresen bilakaera soldatakoen tartearen arabera (2009ko indize-kopuruak=100)




*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Arreta 2009 eta 2015 ekitaldietan soilik jarriz gero, eta soldatako geruzen desagregazio handiagoa aintzat hartuz, soldatakorik gabeko enpresak dira hiru geografia-eremuetan gehienak bi ekitaldietan. EAEn horrelako 74.968 daude; hau da, autonomia-erkidego osoko enpresen % 50,5 (2009an guztizko horren % 51,9), Estatu osoari eta Nafarroari

dagokiona baino gutxiago (Estatu osoan, 2015ean % 55 eta 2009an, % 52,7 eta Nafarroan, 2015ean % 55,6 eta 2009an % 52,7).

**157. koadroa Enpresak soldatakoen geruzen arabera. 2009-2015 alderaketa.**

| | EAE | | Nafarroa | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2009 | 2015 | 2009 | 2015 | 2009 | 2015 |
| **Guztizkoa** | **172.152** | **148.575** | **43.282** | **43.131** | **3.355.830** | **3.186.878** |
| Soldatakorik gabe | 89.359 | 74.968 | 22.806 | 23.967 | 1.767.470 | 1.754.002 |
| 1-2 soldatako | 49.550 | 46.050 | 11.156 | 11.395 | 919.092 | 899.802 |
| 3-5 soldatako | 15.150 | 13.511 | 4.122 | 3.885 | 332.671 | 287.430 |
| 6-9 soldatako | 7.387 | 5.841 | 2.069 | 1.634 | 151.233 | 112.527 |
| 10-19 soldatako | 5.608 | 4.213 | 1.585 | 1.113 | 101.601 | 71.518 |
| 20-49 soldatako | 3.408 | 2.564 | 982 | 708 | 55.641 | 39.101 |
| 50-99 soldatako | 920 | 745 | 298 | 200 | 15.075 | 11.503 |
| 100-199 soldatako | 433 | 382 | 156 | 131 | 7.672 | 5.928 |
| 200-499 soldatako | 237 | 205 | 78 | 71 | 3.578 | 3.340 |
| 500-999 soldatako | 60 | 55 | 20 | 16 | 1.008 | 937 |
| 1.000-4.999 soldatako | 39 | 38 | 10 | 10 | 678 | 683 |
| 5.000 soldatako edo gehiago | 1 | 3 | 0 | 1 | 111 | 107 |

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Soldatakorik gabeko enpresen ondoren, honako hauek azaltzen dira ordena honetan aztertutako hiru geografia-eremuetan: soldatako bat edo bi dituzten enpresak eta hirutik bostera bitarteko soldatako dituztenak. EAEn, soldatako bat edo bi dituzten 46.050 enpresak autonomia-erkidegoko enpresen % 31 dira (2009an, % 28,8), Estatuan (% 28,2; 2009an % 27,4) zein Nafarroan (% 26,4; 2009an, % 25,8) erregistratutako kuota baino handiagoa. Bestalde, 2015ean EAEn hirutik bostera bitarteko soldatako dituzten 13.511 enpresak autonomia-erkidegoko enpresen % 9,1 dira (2009an % 8,8), Nafarroan zein Estatu osoan baino pixkatxo bat gehiago (2015ean % 9 bi kasuetan).



LABORAL kutxa



# 3. LEHEN SEKTOREA

# 1. EGOERA OROKORRA

## 1.1 BILAKAERA ESTATU-MAILAN

Estatuko nekazaritza-sektoreak azken hiru ekitaldiotan gainditu egin ditu krisiaren aurretik (2007) lortutako oinarrizko prezioetako ekoizpen-mailak, eta 2013an beste gehieneko maila bat lortu zuen. 2015ean, berriro ere berreskuratu egin zuen 2014. urteko atzerapen txikiaren zati handi bat. Nekazaritza-ekoizpena –gaur egun 2000. urteko zifrak baino % 20 gehiago– honela osatuta dago: landare-ekoizpenak % 59,6, animalia-ekoizpenak % 36,5, eta zerbitzuek eta lotutako beste ekoizpen batzuek % 3,9. Horien guztien joera izan da pixka bat gora egitea azken urteotan, urte arteko gorabeherekin; horiek ohikoak dira landa-adarrean, ekoizpen-egitura dela eta.

Azken urteotan, urte arteko konpentsazio-gorabeherak ohiko joera izan dira kategoria guztietan eta urte arteko aldakuntzaren adierazleetan, bai fisikoetan bai prezioei eta balio osoari dagozkienetan. Oro har, argiagoa izan da prezioen goranzko joera, eta lauagoa ekoizpen fisikoaren adierazleena.

Hala, nekazaritza-ekoizpen osoak % 2,5 gora egin du 2015ean, eta zati batean konpentsatu egin du aurreko urteko % 3,3ko atzerapena; era berean, prezioen aurrerakuntza orokorrak (% 4,4) konpentsatu egiten du zati batean aurreko beherakada (-% 6,8), eta, ekoizpen fisikoaren adierazlean, 2015eko beherakada (-% 1,8) 2014an erregistratutako aurrerapenetik (% 2,8) urruntzen dena.

Adar nagusiak, landare-ekoizpenenak, azaldutakoarekin bat etorriz, baldintzatzen ditu guztizko horiek, eta adierazleek urte arteko aldakuntza zabalagoak dituzte. Balio osoak % 6,1 egin du aurrera, % 13,3 prezioek eta termino fisikoetan % 6,3ko atzerapena egon da. Animalien adarrak kontrako bilakaera izan du; atzerapenak izan ditu balio osoan (-% 2,4), nahiz eta % 4,8 gehiago ekoitzi den kopuruari dagokionez; izan ere, prezioak gehiago jaitsi dira (-% 6,8).

Nekazaritza-sektoreak, arrantza edo erauzketa-jarduerak baztertzen dituen lehen mailako azpimultzo gisa, behera egiten jarraitzen du enpleguari dagokionez, batez ere, nekazaritza-lanak teknifikatu direlako. Hori Nekazaritzako Lan Unitateen (NLU) kontaketan islatzen da; oso erritmo konstantean murriztu dira azken hamarkadotan. Krisiaren 8 urteotan, esate baterako, adierazle horren murrizketa ia % 20koa izan da, baina hori epe luzeagoko beherakada baten jarraipen zuzena baino ez da.



LABORAL kutxa

Nekazaritza-errentak edo sektoreak soldatak ordaintzeko eta onurak eskuratzeko duen marjinak 2003an maximoa lortu zuen eta ia berdindu egin zuen 2007an. Urte horretatik aurrera, ordea, beheranzko joera izan du, gorabeherekin. NLUen araberako errentaren gorakada konstantea izan da, eta NLUen guztizkoaren beherakada baino nabarmenagoa, nahiz eta prezio konstanteetan NLUen araberako errentaren balantzea mende hasierako zifren antzekoetan mantentzen den. Nekazaritza-errenta osoak % 15,6 egin du behera 2007tik, baina 2015ean % 1,2ko aurrerapena izan du.

2015eko nekazaritza-ekoizpen osoaren eta nekazaritza-errentaren hobekuntza txikia Espainiako fruta eta barazkien balioaren gorakadarekin lotu daiteke, hau da, guztizko balioaren % 63,7; eta azken 13 urteotako ekoizpenik onena izan dute, nahiz eta prezioek oro har goranzko joera izan duten. Bestalde, animalia-adarrean egon den beherakada txikia esne-ekoizpenari lotzen zaio; izan ere, animalia-osagai nagusiak (ganadua eta haragia) gora egin du balioari dagokionez, baina oso gutxi. Azken bosturtekoko nekazaritza-bilakaeran argia da txerri-haragiaren eragina; produktu batzuk atzerrian bereziki baloratzen dira, eta horrek azpisektorea haztea eragin du.

**158. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak***

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 2015/2014 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ekoizlearen prezioak | Ekoizlearen prezioak | Monetarioa | Erreala | Prezioak |
| A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena | 42.600,00 | 43.664,70 | 2,5 | -1,8 | 4,4 |
| • Landare-ekoizpena | 24.521,10 | 26.023,90 | 6,1 | -6,3 | 13,3 |
| • Animalia-ekoizpena | 16.325,60 | 15.938,30 | -2,4 | 4,8 | -6,8 |
| • Zerbitzu-ekoizpena | 496,60 | 482,70 | -2,8 | -1,7 | -1,1 |
| • Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak | 1256,7 | 1.219,80 | -2,9 | 0,2 | -3,1 |
| B.- Bitarteko kontsumoak | 21.172,30 | 21.754,90 | 2,8 | 2,9 | -0,01 |
| C.- (A-B) Balio erantsi gordina | 21.427,70 | 21.909,80 | 2,2 | -6,5 | 9,3 |
| D.- Amortizazioak | 5.178,0 | 5.194,9 | 0,3 | -0,6 | 0,9 |
| E.- Beste diru-laguntza batzuk | 5.886,9 | 5.700,50 | -3,2 | -- | -- |
| F.- Beste zerga batzuk | 327,8 | 351,80 | 7,3 | -- | -- |
| G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta | 21.808,8 | 22.063,60 | 1,2 | -- | -- |

(*): 2015eko urtarrileko 2. estimazioa.

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Landare-kategorien barruan, barazki eta fruten balioen gorakadak nabarmenak dira (% 16,3 eta % 11,7), eta olioak, ordea, berriro ere izan ditu gorabeherak, oraingoan negatiboak (-% 52,4 kopuruari dagokionez; % 49,8ko garestitu da eta % 28,7ko balioa galdu du). Kategoria guztiak garestitu dira, eta aurreko urteko kopuru oso antzekoetan mantendu dira kopuru fisikoak, aipatutako olioaren, ardoaren (-% 8,9) edo patataren (-% 11,8) beherakadak izan ezik.

Abeltzaintzan, ohikoa den moduan, gorabeherak txikiagoak dira; kopuruari dagokionez gorakadak nagusitu dira, besteak beste, behi-aziendan (% 10) edo txerri-aziendan (% 7), eta prezioen beherakadak izan dira, besteak beste, esnearena (-% 15) edo txerriarena (-% 10).

## 1.2 BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

### Sektoreko makromagnitudeak[1]

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektoreko zifra handien alderdirik nabarmena da 2015ean berreskuratu egin dela krisi aurreko ekoizpenaren balio osoa; hori mende berrian lortutako gehienekoa izan zen. % 6,4ko igoera nekazaritza-ekoizpenaren ondoriozkoa da (% 15); izan ere, abeltzaintzak (-% 1,8) eta basozaintzak (-% 4,5) atzera egin dute. 2000. urtetik, nekazaritzaren joera goranzkoa izan da, eta aldi horretako ibilbidea ikusita, 2015a jauzi garrantzitsua da. Abeltzaintzak gorantz egin du, are geldoago, eta, bere ezaugarriak kontuan hartuta, urte arteko gorabehera gutxien izan duena izan da. Baso-ekoizpenak beherantz egin du pixka bat aldi horretan. Nekazaritza-sektoreak hazten jarraitu du krisian, pixka bat indar gehiagorekin Espainiaren aldean, eta abeltzaintza, Estatu osoan, EAE baino dinamikoagoa izan da azken urteotan, batez ere haragi-produktu batzuen gorakadagatik.

Abeltzaintza-ekoizpenaren proportzioa (haren pisua nekazaritzaren eta abeltzaintzaren baturaren gainean neurtzen bada) ia berdina da EAEn eta Estatuan (% 38,2 eta % 37,9).

Euskal nekazaritza-ekoizpenaren heren bat baino gehiago behi-haragiarena da (% 34,2); horren balio osoak ia bikoiztu egin du krisiaren hasieran izandakoa (prezioen gorakada dela eta), eta garrantziari dagokionez hurrengo produktuak honako hauek dira: mahastia (% 22,9), barazkiak (% 13,9), behi-esnea (% 11,8), egurra (% 7) eta zerealak (% 5,7).

Diru-laguntzei dagokienez, heren bat baino gehiago hazi dira aurreko urtearen aldean, eta erabat berreskuratu da 2014. urteko ohiz kanpo murriztutako zifrari dagokionez. Kontsumoek % 0,8 egin dute behera, amortizazioek % 0,8 egin dute gora, BEGd-a % 10,6 hobetu da merkatu-prezioetan eta % 13,4 faktoreen kostuan, eta ondoriozko nekazaritza-errenta % 16,1 hazi da.

[1] EAEko nekazaritza-makromagnitudeen aurrerapena. Ez dugu honelako informaziorik Nafarroarako (SEC-95 metodologiarekin; hori erabiltzen zuten erkidego guztiek sistematikoki 2000. urtera arte).



LABORAL kutxa

**159. koadroa EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak***

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Amaierako nekazaritza-ekoizpena | 471,3 | 491,5 | 522,9 |
| Nekazaritza | 252,5 | 251,2 | 288,9 |
| Abeltzaintza | 173,5 | 182,0 | 178,8 |
| Basozaintza-sektorea | 35,5 | 49,1 | 46,9 |
| Norbere konturako beste ekoiz. eta hobekuntzak | 9,8 | 9,2 | 8,4 |
| - Sektoretik kanpoko gastuak | 191,2 | 180,1 | 178,7 |
| = Balio erantsi gordina (m.p.) | 280,1 | 311,3 | 344,2 |
| + Diru-lag - zerg. saldoa | 63,2 | 48,9 | 64,4 |
| = Balio erantsi gordina (f.k.) | 343,2 | 360,2 | 408,6 |
| - Amortizazioak | 59,4 | 61,4 | 61,9 |
| = Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekazaritza Errenta | 283,8 | 298,8 | 346,7 |

*(*): Aurrerapen-datuak, gerora egokitu daitezkeenak.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika eta Analisi Sektorialen Zerbitzua.*

Gorakada nabarmenena, zalantzarik gabe, balioaren termino garbietan, mahastiarena da, berez nekazaritza-sektore osoak izandako gorakadaren berdina baita ia. Ehunekoetan, % 31,4 egin du gora, eta “beste industria-laborantza batzuk” kategoriak bakarrik gainditzen du. Ez da kategoria horretan sartzen azukre-erremolatxa (% 64). Ageriko beste gorakada garbi batzuk, baina ez hain nabarmenak, barazkienak eta frutenak dira (% 9,6 eta % 21,2). Abeltzaintzako produktuen artean, balioan behera egin duten bakarrak behiarenak dira. Bi digitutik gorako balio-beherakada bakarrak zerealenak (-% 13,4) eta erremolatxarenak (-% 15) dira.

Guzti hori kontuan hartuta, bigarren urteak oso zifra positiboak izan ditu EAEn sektorerako. Nekazaritza-produktu nagusien gorabeherek, sarritan, zifra osoak baldintzatzen dituzte. Esaterako, mahastiaren ekoizpenaren balioa 2015ean 2010ekoaren ia bikoitza da, eta zerealena 2012ko balioaren erdia baino pixka bat gehiago. Kontrakoa gertatzen da barazki edo frutekin, pixkanaka gora egin baitute azken hamarkadan. Abeltzaintzako produktuen artean, aldaketa handia izan da azken hamarkadan; izan ere, krisiaren aurretik, euskal behi-haragiak esnearen erdia ere ez zuen balio eta 2013tik lehenengoak bigarrena gainditu du.

Tonen aldaketen ehunekoak direla eta, nabarmendu behar da bikoiztu egin dela kopurua lekaleen kategorian (% 104,1) eta heren bat baino gehiago hazi dela egurraren mozketa (% 35,7); erremolatxaren tonak ere gora egin du (% 25,1), bai eta frutenak ere (% 16,7).

Kategorien araberako prezioak direla eta, bi digituak gainditzen dituzte zerealek (-% 15,5), patatak (-% 11,4) eta mahastiaren % 14,7ko gorakadak; nabarmena da, halaber, barazkien merkatzea (-% 8,8).

Nekazaritza-sektorearen balio erantsi gordina EAEn % 78,1ekoa da ekoizpen osoari dagokionez (prezio arruntetan), eta, Nafarroarekin alderatuta, pixka bat txikitu da distantzia 2015ean.

**27. grafikoa Balio erantsi gordinaren bilakaera nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura**

*(M euro)*




*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika eta Analisi Sektorialen Zerbitzua. Nafarroako Estatistika Institutua.*

Nafarroako lehen sektoreak ekitaldi honetan % 3ko kuotari eutsi dio Erkidegoko ekonomiaren balio erantsi gordinaren gainean, zeinek 2005etik handiena izaten jarraitzen duen. Sektorea ez zen bigarren edo hirugarren mailakoa bezain azkar hazi oparoaldiko urteetan, eta krisiarekin izandako beherakada ere ez zen hain bat-batekoa izan –geldialdia izan zen, batez ere–. 2011n igoera nabarmena eduki ondoren (% 4,7), moteltzen joan da, 2015ean nekazaritzako balio erantsi gordinaren urte arteko % 1,4ra iritsi arte.

Sektoreko balio erantsi gordinak gainditu egiten ditu 558 milioi euro; eta horrek, aurreko 4 urteetan bezala, ordura arteko zifrarik altuena lortzea dakar. Baina zehaztu behar da zifra horretan eragina izan duela urteetan zehar izan den prezioaren goranzko joera orokorrak. Ordea, ekonomiak, oro har, ez du oraindik 2008ko BPGd-aren zifra lortu. Hala ere, lehen aldiz 2010etik, urte arteko aldakuntza BPGd osoa (% 2,9) baino txikiagoa izan da. Espainian, 2015ean, nekazaritzako balio erantsi gordinak eta guztizkoak gora egin dute (% 3,2 eta % 3,5, hurrenez hurren).

Prezio arrunten araberako ekoizpenak (952 milioi) aurrera egiten jarraitzen du, epe luzera nahiko joera argia duela, baina inflazioaren eragina du; eta 2015eko gorakada (% 2,8)

azken azken hamarkadako urteko hazkundearen batezbestekoaren pare geratu da (% 2,7).

Hala ere, 2015eko aurrerapena ez da izan nekazaritzako prezioen gorakadaren ondoriozkoa. Horiek atzera egin dute (-% 16,7) 2009-2010eko antzeko mailetan, urte batzuez etengabeko hazkundea izan ondoren; alabaina, atzerapena 2014an hasi zen pixkanaka. Horrek eragina du bai animalia-produktuetan (-% 8,5) bai landare-produktuetan (-% 24,8); ez, ordea, guztiz kontrakoa izan den baso-produktuen bilakaeran, prezioek % 53,5 egin baitute gora.

Landare-kategorien arabera, antzematen da ardogintza dela atzerapen horren arduradun (-% 23,3); izan ere, gainerako tipologia nagusiak oso gutxi garestitu dira (zerealak % 2,6; barazkiak % 1,9), eta beherakadak oso urriak izan dira (-% 6,6 lekadunetan eta -% 3,8 bazketan). Beste produktu batzuk, aldiz, nabarmen garestitu dira (industrialak % 42,8, frutak % 37,6, fruitu lehorrak % 30,2 eta patatak % 14,5).

Abeltzainen artean, beherakadaren arrazoia da, jaitsiera handiena duen kategoria nagusietako bat txerri-haragia dela (-% 12,3), untxiarena ondoren (-% 11,2), ganadu biziaren salmenta (-% 6,3) eta behiarena (-% 3); baina kategoria ekoitziena (hegaztiak) eta haragizkoa ez den produktu nagusia (esnea) pixka bat garestitu dira (% 2,5 eta % 3,6).

Kopuruari dagokionez, aurrerapen handiak izan dira olibondoan (% 57,2) eta bazketan (% 32,8), baina azken kasu horretan, eragina izan du aurretik kategoria horretan sartzen ez zen belar ondu mota bat ere kontuan hartzen hasteak. Horrela, bazkek tonetan zerealak gainditu dituzte, kontuan hartuta % 10,5 egin dutela behera; frutek ere behera egin dute (-% 20,1), bai eta industrialek ere, besteak beste, erremolatxak (-% 11,3) eta tuberkuluek (-% 9,3). Lekadunek aurrera egin dute (% 10,9), bai eta barazkiek (% 11), mahastiek (% 8,4) eta tona kopuru osoak ere (% 8,2).

## Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

**160. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria.**

*(M euro)*

| Muga-zerga atala | Eremua | Esportazioak 2014 | Esportazioak 2015 | Inportazioak 2014 | Inportazioak 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak | EAE | 293,2 | 248,2 | 358,4 | 353,7 |
| | Nafarroa | 137,6 | 124,2 | 148,6 | 134,9 |
| | Euskal Herria | 430,8 | 372,4 | 507,0 | 488,6 |
| Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak | EAE | 158,7 | 80,8 | 271,6 | 312,4 |
| | Nafarroa | 318,1 | 323,9 | 181,7 | 169,1 |
| | Euskal Herria | 476,7 | 404,7 | 453,3 | 481,5 |
| Elikagaigintzako produktuak | EAE | 561,9 | 600,7 | 302,5 | 339,1 |
| | Nafarroa | 512,9 | 532,1 | 203,5 | 214,0 |
| | Euskal Herria | 1.074,8 | 1.132,8 | 506,0 | 553,1 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorea | EAE | 1.013.7 | 929,8 | 932,5 | 1.005,2 |
| | Nafarroa | 968,6 | 980,2 | 533,8 | 518,0 |
| | Euskal Herria | 1.982,3 | 1.910,0 | 1.466,3 | 1.523,2 |
| Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio/inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren % | EAE | 4,6 | 4,2 | 5,4 | 6,0 |
| | Nafarroa | 11,9 | 11,6 | 12,8 | 11,4 |
| | Euskal Herria | 6,5 | 6,3 | 6,8 | 7,1 |

*Iturria: Boletín de Coyuntura y Estadística del País Vasco. Euskal Ganberak. Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta.*

Kanpo-merkataritzaren atalean –bi autonomia-erkidegoak eta lehen sektoreari lotutako muga-zergen kapitulu nagusiak hartzen ditu–, batez ere nabarmentzen da EAEko landareen eta animalien esportazioen atzerapenean dagoen jarraitutasuna, duela 4 urteko mailetara bueltatzen baita. Ez da gauza bera gertatzen EAEko elikagaigintzan, ez eta Nafarroan azpisektoreetako batean ere.

EAEko nekazaritzako kanpo-merkataritzaren balantza horrela sartu da aurten egoera negatiboan; ez da halakorik gertatu 2011tik, eta Nafarroakoak pixkanaka hobetzen jarraitzen du, aldagaietan aldaketa txikiak izanik. Euskal Herriko balantzeak, osorik, superabitarekin jarraitzen du; izan ere, Nafarroakoa EAEko defizita baino 4 aldiz handiagoa da. Oro har, esan daiteke elikagaigintza atzean ari dela uzten, kanpo-jardueraren bolumenean, landare- eta animalia-adarrak, behintzat azken ekitaldietan (logikoa denez industrialki prozesatuta ez dauden produktuei dagozkie). Elikagaigintzaren balantza komertzialean, superabita zabaltzeko joera argia ikusten da azken urteotan, beste bi adarretan baino argiago. Gogorarazi behar da, zentzu horretan, elikagaien prozesatuaren formula anitzak kontuan hartuta, gerta daitekeela landare- edo animalia-adarren zatitzat hartzen ziren produktuak produktu industrializatutzat hartzen hastea, baldin eta haien prozesatuaren fase batzuk EAEn edo Nafarroan egiten badira edo "industrializatutzat" hartzen diren prozesuen definizioak aldatzen badira.

Era berean, nabarmendu behar da nekazaritza-adarrei buruzko garrantziak ia pisu bikoitza duela Nafarroan, EAErekin alderatuta, kanpo-merkataritza osoari dagokionez.

Jarduera horien proportzioaren kasuan, lurralde biak erkatzen badira, Nafarroak gehiengoa lortzen du landare-esportazioan, alegia, EAEkoa baino 4 aldiz handiagoa. Bi lurraldeen proportzioak antzekoak dira 3 sektoreen esportazioetan eta elikagaigintzarenean. Nafarroaren pisua animalien esportazio osoen herena da, bai eta kategoria desberdinen inportazioen herena ere, gutxi gorabehera.

Nafarroan, nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektorearen aldagai ekonomikoa hobetu egin da, krisia gorabehera. Hein batean, Estatuko merkatuaren ahultasuna dela eta, ekoizleak biziago zabaldu dira atzerriko merkatuetara, beren ekoizpenak horietan kokatzeko.

## Biztanleria okupatua

Hiru hilean behingo nekazaritza-okupazioko datuek lurraldeen arabera berriro ere erakusten dituzte beheranzko aldakuntza esanguratsuak, kasu honetan Bizkaiaren salbuespenarekin; bertan, enplegua mantendu egin da 2014ko aldi berari dagokionez. Beheranzko joera bereziki nabarmena da azken hiruhilekoetan Araban eta Nafarroan, eta ez horrenbeste EAEko gainerako lekuetan. Horrelako lurralde-asimetria ikusita, gogorarazi behar da hegoaldeko bi lurraldeetan gainerakoez bestelakoak diren nekazaritza-ereduak daudela, iparraldean oso pisu gutxi duten jarduera garrantzitsuekin, besteak beste, mahastia edo zerealak (hedagarriagoak eta aldakorragoak).

**161. koadroa Enplegua lehen sektorean***

*(m pertsona)*

| Urtea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Nafarroa | Euskal Herria | Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2006 | 3,2 | 5,8 | 5,9 | 15,0 | 13,5 | 28,5 | 944,3 |
| 2007 | 3,1 | 6,9 | 4,9 | 14,9 | 12,9 | 27,8 | 925,5 |
| 2008 | 1,9 | 7,5 | 5,4 | 14,8 | 14,0 | 28,8 | 830,6 |
| 2009 | 3,1 | 5,8 | 3,2 | 12,1 | 13,3 | 25,4 | 790,8 |
| 2010 | 3,1 | 4,7 | 4,7 | 12,5 | 11,3 | 23,8 | 772,8 |
| 2011 | 2,4 | 3,9 | 3,4 | 9,7 | 7,1 | 16,8 | 735,9 |
| 2012 | 2,2 | 7,7 | 2,2 | 12,1 | 8,6 | 20,7 | 722,3 |
| 2013 | 4,6 | 7,6 | 3,2 | 15,4 | 15,5 | 30,9 | 753,1 |
| 2014 | 3,0 | 6,2 | 4,4 | 13,6 | 13,4 | 27,0 | 739,3 |
| 2015 | 1,8 | 6,2 | 2,5 | 10,5 | 9,4 | 19,9 | 740,4 |

*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, uste baita adierazgarriagoak direla sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan.*

*Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. BAI.*

**28. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean***

*(m pertsona)*




*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, uste baita adierazgarriagoak direla sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan.*

*Iturria: BAI. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.*

Nekazaritza-sektoreko enpleguak gorabehera handiak izan ditu, eta, EAEren eta Nafarroaren kasuan, urte bakoitzeko bigarren seihilekoko datuak kontuan hartuta, beherakada handia ikusten da krisiaren lehen urteetan, gorakada handia 2013an, eta igoera hori amaitu egiten da 2015ean. Tokiko datu horiek ez daukate zerikusi handirik Espainiako joera globalarekin; bertan, sektorearen tamaina askoz ere handiagoa denez, bilakaera ez da horren gorabeheratsua izan, eta krisian pixkanaka atzera egin du. 2013an gora egin zuen, baina askoz ere gutxiago, 2014an konpentsatu egin zen eta 2015ean geldi geratu zen (igoera txikia).

Bilakaera mota horretan eragina du sektorearen egituran nekazaritza-ustiategi ugari egoteak eta horien titularrak, enplegatu gisa erregistratuta egon beharrean, jabe gisa erregistratuta egoteak; izan ere, beste jarduera batzuk ere izaten dituzte eta, nolanahi ere, nekazaritza-lanak sasoi batzuetan baino ez dituzte egiten. Kasu askotan, gainera, aldi baterako langileak kontratatzen dituzte, bereziki nekazaritza-kanpainetarako, eta horiek aurreratu edo atzeratu egin daitezke, hainbat faktore tarteko. Beraz, urtearen arabera, urte bakoitzeko ekaineko Biztanleria Aktiboaren Inkestak eskaintzen duen adierazle horretan islatuta geratuko lirateke batzuetan, eta beste batzuetan ez.

# 2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA

## 2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

2015. urtean, goranzko balantze positiboa izan da nekazaritza-ekoizpenean, Euskal Herriko produktu garrantzitsuenetan, zereal eta fruta-arboletan izan ezik. Horrez gain, prezioek ere gora egin dute (2014an ez bezala, beherakadak izan baitziren nagusi), eta ekoizpenean ere aurrerapenak izan dira. 2012ko egoera 2014koaren aurkakoa izan zen, eta 2013a, berriz, kontraste eta aldaketa handiko urtea izan zen.

Zerealen kasuan (EAEn landutako tonajearen erdia baino gehiago da, eta Nafarroan landatutakoaren herena baino gehiago), 2014an ez zen kategoriari dagokion tonaje eta prezioen gorabehera handirik izan, eta 2015ean ekoizpenaren beherakada nahiko handia izan da; prezioen gorakadak, ordea, txikiak.

Barazkien kasuan, gorabeheren hedadura baino bereizgarriagoa izan da gorabeherek urtetik urtera izan duten joera-aldaketa etengabea. 2013an gutxiago ekoiztu zen prezio altuagoan, eta 2014an alderantziz izan zen. 2015ean, bi adierazleetan izan dira gorakadak.

Aurten joera-aldaketa hori gertatu da fruta-arboletan; hau da, prezio baxuan gehiago ekoiztetik aurkako egoerara igaro da.

Ardoaren kasuan, joerak ez dira aldatu, baina bai intentsitatea: hazkundea azkartu egin da bolumenari dagokionez eta moteldu egin da merkatzea.

Garia, tomatea, udareondoa edo ardoa izan dira kategoria bakoitzean gehien landu diren produktuak eta aipatutako joera orokorrei jarraitu diete, 2014an bezala.

**162. koadroa Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak***

*(m Tm)*

| Produktua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | % Euskal Herria/ Espainia 2015 |
|---|---|---|---|---|
| **Zerealak** | | | | |
| – Garia | 486,1 | 439,5 | -9,6 | 6,9 |
| – Garagarra | 412,1 | 388,6 | -5,7 | 6,1 |
| – Oloa | 70,8 | 53,3 | -24,7 | 6,8 |
| – Artoa | 240,1 | 196,9 | -18,0 | 3,9 |
| **Bazka-laboreak** | | | | |
| – Artoa | 236,8 | 247,1 | 4,4 | 5,2 |
| – Alpapa | 346,1 | 345,8 | -0,1 | 3,5 |
| **Barazkiak** | | | | |
| – Zainzuria | 4,1 | 4,5 | 12,2 | 8,6 |
| – Letxuga | 27,4 | 27,2 | -0,7 | 2,9 |
| – Espinaka | 16,6 | 16,1 | -2,6 | 22,8 |
| – Tomatea | 128,3 | 143,9 | 12,1 | 2,9 |
| – Piperra | 28,5 | 30,1 | 5,7 | 2,8 |
| – Orburua | 14,2 | 14,6 | 3,0 | 6,6 |
| – Azalorea | 17,6 | 22,5 | 27,6 | 14,8 |
| – Brokolia | 53,6 | 63,5 | 18,5 | 14,2 |
| – Tipula | 20,1 | 19,1 | -5,1 | 1,5 |
| – Leka | 12,2 | 12,2 | -0,2 | 6,8 |
| – Ilar berdea | 14,1 | 14,5 | 3,2 | 18,6 |
| **Fruta-arbolak** | | | | |
| – Sagardo-sagarra | 7,5 | 10,4 | 38,0 | 11,1 |
| – Mahai-sagarra | 22,5 | 20,7 | -8,0 | 3,9 |
| – Udarea | 26,2 | 20,0 | -23,8 | 5,2 |
| – Mertxika | 17,5 | 14,4 | -17,6 | 1,6 |
| – Arbendola | 3,5 | 3,5 | -0,2 | 1,6 |
| **Ardoa eta muztioa (m Hl)** | 1.275,41 | 1.554,7 | 21,9 | 3,5 |
| **Patata** | 66,4 | 62,0 | -6,7 | 2,8 |
| **Azukre-erremolatxa** | 176,3 | 234,4 | 33,0 | 6,4 |

*(*): Balioespenak.*

*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina. Coyuntura Agraria de Navarra aldizkaria.*

Zerealen kategoriaren barruan, garia eta garagarra txandaka izan dira tonaje handieneko produktu, azken urteotan. Biek atzera egin dute neurrian 2015ean, baina bi kasuetan, aldaketak ez ditu gehiegi aldatu batezbestekoak. Gorabeheraren bat egon bada ere batezbesteko horiek mantendu egin dira, gutxienez, 2010. urtetik; urte hartan, jauzi handia izan zen gari-ekoizpenean.

Tonajea kontuan hartuta, hirugarren laborea alpapa da, eta urtetik urterako aldaketa askoz ere txikiagoa izan du. Artoaren ekoizpenak gariaren edo garagarraren antzeko magnitude-ordena du, baina bi helburu desberdin ditu: giza kontsumoa eta animalia kontsumoa. Bi kasuetan, joera goranzkoa izan da azken urteotan, baina 2015ean, azken bost urteetan lehen aldiz, kopuru handiena bazkarako erabili da, eta 2014an baino % 18 gutxiago giza kontsumorako. Olo-ekoizpenak (garai batean giza kontsumorako

artoarekin konparatu zitekeena) beheranzko joera hartu du, eta nabarmenago egin du behera 2015ean.

Nabarmentzekoa da ardoaren eta azukre-erremolatxaren ekoizpenean gertatutako gorakada (% 21,9 eta % 33, hurrenez hurren), Izan ere, produktu horietan azken urteotan izandako azpimarragarrienak dira, eta aintzat hartutako erreferentzia-aldiko (bat egiten du, oro har, krisi ekonomikoarekin) bolumen altuenean kokatzen dira. Patatak beheranzko joeran jarraitzen du.

Barazki nagusia tomatea da, baina horren gorakadak (% 12,1) zati batean baino ez du konpentsatzen beheranzko joera orokorra. Brokolia da gehien nabarmentzen diren barazkietan bigarrena, eta posizio horretan finkatu da, 2012an Nafarroan ordura arte gutxi garatutako produktu horren inguruko negozio garrantzitsu bat sortu baitzen. Barazkien artean, azaloreak izan du soilik gorakada handiagoa (% 27,6). Bietan ikus daiteke Euskadiko eta Nafarroako nekazaritzaren kuotak handiagoak direla Espainiakoak baino, espinaka eta ilarren kasuan izan ezik. Eta horiek aurkako joerak izan dituzte, argi eta garbi: lehenengoak beherantz eta bigarrenak gorantz. Piperra hirugarren produktu gisa mantendu da barazkien artean, izan duen garrantzia kontuan hartuta. Aztertutako produktu gehienek goranzko joera izan dute, oro har, azken urteotan.

Fruta-arboletan beherakadak izan dira, eta sagarraren eta, bereziki, udareen kasuan, horrek esan nahi du buelta eman zaiola aurreko bi urteetan izandako goranzko joera handiari. Mertxikak gehiago egin du behera denboraldi honetan, eta arbendolak, magnitude-ordena askoz ere txikiagoan, gorakada nabarmena izan du (2015ean moteldu egin da). Deigarria da, halaber, beherakada gorabehera Euskadiko eta Nafarroako sagardo-sagarrak bikoiztu egin duela Estatuko kuota. Horren arrazoia da Espainiako ekoizpenak gailur garrantzitsu bat izan zuela 2014an eta 2015ean moteldu egin dela.

Oro har, jada aipatu diren batzuez gain, ez dago Euskal Herriko kuota Espainiakoarekin alderatuz joera argi bat izateagatik nabarmendu den produkturik.

Euskal Herrian, Nafarroako baratzea da produktu askoren ekoizpen-zentro nagusia, eta aztertutako produktuen erdietan % 90eko pisua gainditzen du. Rolak alderantzizkoak dira erremolatxaren, patataren eta sagardo-sagarraren kasuan; izan ere, EAEn landatzen dira, eta ardoaren eta letxugaren kasuan banaketa antzekoa da gutxi gorabehera.

### 163. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*

*(ha)*

| Produktua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | % Euskal Herria/ Espainia 2015 |
|---|---|---|---|---|
| **Zerealak** | | | | |
| – Garia | 96.150 | 96.822 | 0,7 | 0,4 |
| – Garagarra | 109.380 | 102.597 | -6,2 | 3,9 |
| – Oloa | 15.889 | 14.948 | -5,9 | 3,7 |
| – Artoa | 21.375 | 18.363 | -14,1 | 5,1 |
| **Bazka-laboreak** | | | | |
| – Bazka-artoa | 5.269 | 5.081 | -3,6 | 4,8 |
| – Alpapa | 7.277 | 6.997 | -3,8 | 2,9 |
| **Barazkiak** | | | | |
| – Zainzuria | 1.107 | 1.173 | 6,0 | 10,9 |
| – Letxuga | 1.003 | 1.003 | 0,0 | 3,0 |
| – Espinaka | 788 | 768 | -2,5 | 23,6 |
| – Tomatea | 2.100 | 2.349 | 11,9 | 4,6 |
| – Piperra | 1.140 | 1.114 | -2,3 | 6,2 |
| – Orburua | 958 | 983 | 2,6 | 6,2 |
| – Azalorea | 1.076 | 1.220 | 13,4 | 17,3 |
| – Brokolia | 4.451 | 5.077 | 14,1 | 18,5 |
| – Tipula | 392 | 365 | -6,9 | 1,6 |
| – Leka | 1.024 | 1.011 | -1,3 | 10,2 |
| – Ilar berdea | 2.174 | 2.225 | 2,3 | 16,0 |
| **Patata** | 2.187 | 2.050 | -6,3 | 2,9 |
| **Azukre-erremolatxa** | 2.334 | 2.348 | 0,6 | 6,6 |

*(*): Balioespenak.*
*Oharra: Ez dira sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtekoa).*
*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.*

Laborantza estentsiboak dira, jakina, azalera aldetik gailentzen direnak, eta, hala, Euskadin eta Nafarroan landatutako zerealek 2.300 kilometro koadro hartzen dituzte, Bizkaiko lurraldean baino gehiago. Mahastiak ere garrantzi handia du azalerari dagokionez, nahiz eta taula horretan ez den agertzen, argitalpenaren maiztasun urriagatik. Gauza bera gertatzen da fruta-arbolekin.

Kontrara, aztertutako laborantza intentsiboek, esaterako, barazkiek eta beste batzuek, zerealek baino ehunen bat gutxiagoko lurraldea hartzen dute Euskal Herrian. Laborantza intentsiboen barruan honako hauek nabarmentzen dira landatutako azalera kontuan hartuta: brokolia, tomatea (nahiz eta landare bakoitzak bolumen handia ekoizten duen lur kopuru txikian), azukre-erremolatxa, ilar berdea eta patata. Lehenengo biek azalera irabazi dute bigarren urtez jarraian, eta horiek izan dute gorakadarik handiena, azalorearekin batera.

Euskadiko eta Nafarroako espinaken hedadura da Estatuan nabarmenena, % 23,6rekin (aurreko urtean baino lau puntu gutxiago), brokoliaren eta azalorearen atzetik. Produktu bat ere ez da gailentzen adierazle honetan goranzko joera nabarmena duelako.

Ekoizpenaren kasuan bezala, taulako labore gehienentzat Foru Erkidegoan zentratzen da Euskadiko eta Nafarroako azalera landatua, eta EAEk honako hauetan ditu soilik kuota handiagoak: erremolatxa (% 85,9) eta patata (% 78,4). Horrez gain, letxugan (% 41,5) eta oloan (% 38) hurbiltzen da Nafarroaren bolumenera.

**164. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak***

*(Tm/ha)*

| Produktua | Euskal Herria | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| **Zerealak** | | | | |
| – Garia | 5,1 | 4,5 | 3,0 | 2,9 |
| – Garagarra | 3,8 | 3,8 | 2,5 | 2,5 |
| – Oloa | 4,5 | 3,6 | 1,5 | 1,6 |
| – Artoa | 11,2 | 10,7 | 11,4 | 13,0 |
| **Bazka-laboreak** | | | | |
| – Bazka-artoa | 44,9 | 48,6 | 45,4 | 43,9 |
| – Alpapa | 47,6 | 49,4 | 40,9 | 38,4 |
| **Barazkiak** | | | | |
| – Zainzuria | 3,7 | 3,9 | 4,8 | 5,0 |
| – Letxuga | 27,3 | 27,1 | 26,7 | 26,9 |
| – Espinaka | 21,0 | 21,0 | 19,0 | 19,1 |
| – Tomatea | 61,1 | 61,3 | 81,9 | 89,8 |
| – Piperra | 25,0 | 27,1 | 61,1 | 58,8 |
| – Orburua | 14,8 | 14,9 | 12,9 | 13,2 |
| – Azalorea | 16,4 | 18,5 | 22,9 | 22,9 |
| – Brokolia | 12,0 | 12,5 | 16,7 | 16,8 |
| – Tipula | 51,2 | 52,2 | 54,5 | 53,0 |
| – Leka | 12,0 | 12,1 | 18,6 | 19,3 |
| – Ilar berdea | 6,5 | 6,5 | 7,3 | 6,5 |
| **Patata** | 30,3 | 30,2 | 33,4 | 31,1 |
| **Azukre-erremolatxa** | 75,5 | 99,9 | 81,9 | 94,8 |

*(*): Balioespenak.*
*Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.*

Tona kopurutan hektarea bakoitzeko lortutako errendimenduari dagokionez, nabarmentzekoa da handiagoak direla Euskal Herrian bazkak eta zerealak (artoa izan ezik), aurreko urtean bezala, baina Estatukoak baino okerragoak direla sailen gainerako gehiengoetan, espinakan eta orburuan izan ezik. Aurten erremolatxa, letxuga eta ilarrak gehitu dira salbuespen gisa. Tomatea eta piperretan desberdintasun oso nabarmenak ikusi dira bi eremuetan, ziur aski laborantza-modalitate nagusien desberdintasunen ondorioz. 2015eko Euskadiko eta Nafarroako datuetan, honako hauen errendimendu-hobekuntza nabarmendu daiteke: erremolatxa eta bazka-artoa. Gariak, berriz, galdu egin du aurreko urteko aurrerapena. Estatuaren kasuan, jauzi bat dago erremolatxaren errendimenduan, eta bigarren lekuan dago tomateak izandako hobekuntza.

## 2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Nekazaritzan aztertutako prezio nagusien bilakaeran ikus daiteke 2015ean gorakada nabarmendu dela, 2010ean eta 2013an bezala.

2014an, garestitu ziren produktu bakarrak espinaka, orburua, baba eta erremolatxa izan ziren; 2015ean, berriz, salbuespenak merkatu ziren horiek izan ziren. Horien artean nabarmentzen dira letxuga, ardoa eta brokolia, baita sagarra ere, eta azaloreak ere beherakada txiki bat izan zuen. Aurkako muturrean daude honako hauen aurrerapenak: patata, tipula, orburua, piperra, arbendola eta tomatea.

Azken zazpi ekitaldien azterketa bat eginez gero, argi eta garbi gailentzen da prezioen garestitzea, honako salbuespen hauek kenduta: letxuga (-% 33,4ko beherakada denboraldi horretan), ilarra (-% 14,2) eta azalorea (-% 6). Azterketa horretan arbendola da gorakadarik handiena izan duena: haren prezioa hirukoiztu egin da (% 201). Haren ondoren daude, besteak beste, honako hauek: tipula (% 83,4), patata (% 52,1), sagarra (% 44,8), oloa (% 43,5), garagarra (% 39,5), zainzuria (% 35), mertxika (% 32,6), piperra (% 30,7), orburua (% 27,6) eta garia (% 26,3).

Zerealek 2009an izan zuten prezio baxuena eta 2012an altuena, eta orain horien tartean dago. Ardoaren kasuan, estatistika datu sinplifikatu bat ematen hasi da eurotan hektolitroko, hektograduko eman beharrean (hau da, hektolitroaren datua kontabilizatutako ardo bakoitzaren gradutan zatituta). Ardo mota bakoitzaren (beltza edo zuria) batez besteko graduazioei erreparatuz gero, ikus daiteke ez dagoela aldaketa handirik aurreko sistemaren arabera neurtutako azken datuei dagokienez. 2014 eta 2015 artean, zuriaren prezioa % 1 baino gutxiago jaitsi da, eta beltzarena % 8,7.

Barazkien kasuan, urte arteko gorabeherak ohikoak dira, eta urtetik urtera joera bera izaten da ia kategoria osoan. 2011, 2012 eta 2014. urtean prezioen beherakada gailendu zen, eta 2013 eta 2015ean gorakada. Pisuan izandako garrantzia dela eta, nabarmendu behar da tomatea garestitu egin dela (% 21,5) eta brokolia merkatu (-% 11,3); garrantzia duen hirugarren barazkia, gehien garestitu denetako bat, piperra da (% 38,5).

Fruten kasuan, kontrastea dago sagarra merkatu izanaren eta lagina osatzen duten gainerako frutek izandako gorakaden artean. Beherakadek aztertutako lau produktuei eragiten diete. Horiek guztiek 2013an izan zuten preziorik altuena; albendolak, ordea, gorakada jarraitua izan du.

### 165. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(1)

| Produktua | Nekazariek Jasotako Prezioak (euro/100 kg) | | |
|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| **Zerealak** | | | |
| – Garia | 20,01 | 20,24 | 1,1 |
| – Garagarra | 16,74 | 17,40 | 3,9 |
| – Oloa | 16,09 | 18,21 | 13,2 |
| – Artoa | 16,87 | 17,29 | 2,5 |
| **Bazka-laboreak** | | | |
| – Alpapa | 16,20 | 17,16 | 5,9 |
| **Barazkiak** | | | |
| – (Buru-)aza | 39,73 | 44,29 | 11,5 |
| – Zainzuria | 182,64 | 213,31 | -15,3 |
| – Letxuga | 30,23 | 25,12 | -16,9 |
| – Espinaka | 54,87 | 60,46 | 10,2 |
2015ean, Getariako portuak baxurako arrantzaren diru-sarrera guztien % 29,6 bildu zituen; gertutik jarraitzen dio Ondarroako portuak (2014an portu honek bildu zuen deskargen baliorik handiena: guztizkoaren % 31,2), balio osoaren % 27,9ko kuotarekin, eta, ondoren daude, distantzia handiagoarekin, Hondarribiko, Pasaiako eta Bermeoko portuak (balio osoaren % 18,7, % 15 eta % 6rekin, hurrenez hurren). Gainerako portuek oso partaidetza baxuak izan dituzte.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Gipuzkoako portuetan lehorreratutako arrantzaren balioak % 10,6 egin du gora; Bizkaiko portuetakoak, berriz, -% 7 egin du behera. Gipuzkoan, Getariako eta Pasaiako portuetan erregistratutako gorakadak dira

nabarmenenak (% 17,9 eta % 11,6, hurrenez hurren); Bizkaian, berriz, Bermeon eta Ondarroan erregistratutako beherakadak (-% 7,5 eta -% 7,4, hurrenez hurren).

Espezieei dagokienez, 2015ean antxoak hartzen du oraindik lehorreratutako balioaren zatirik handiena (guztizkoaren % 29,5), eta horren ondoren daude hegaluzea (guztizkoaren % 25,7), sardina (guztizkoaren % 15,5) eta berdela (guztizkoaren % 9,6). Gainerako espezieen partaidetza % 3tik beherakoa izan da.

## 5.3 ALTURAKO ARRANTZA

2015ean, alturako arrantzak 768 pertsonari eman die lana EAEn. Horrek esan nahi du -% 6 egin duela behera urtetik urtera kopuruak. Enpleguaren gehiengoa atunontzi izoztaileetan biltzen da (guztizkoaren % 69,7).

Halaber, atunontzi izoztaileek itsasontzien gehiengoa hartzen dute (alturako arrantzan lan egiten duten 42tik 21), baita potentzia eta azpisektoreen tonajea ere (guztizkoaren % 87,3 eta % 85,6, hurrenez hurren).

**184. koadroa EAEko alturako ontzidia, 2015**

| Kontzeptua | Unitate kopurua | CV potentzia | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| Freskoko altura | 19 | 9.942 | 4.020 | 233 |
| Bakailao-ontziak | 2 | 3.805 | 1.650 | (*) |
| Atunontzi izoztaileak | 21 | 94.313 | 33.704 | 535 |
| **Altura, guztira** | **42** | **108.060** | **39.374** | **768** |

*(*) Estatistika-sekretua gordetzeko, bi bakailao-ontzien enplegua atunontzi izoztaileen multzoan sartu da.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.*

Bestalde, nabarmendu beharra dago alturako arrantzarako ontzi kopurua ez dela aldatu aurreko ekitaldiarekin alderatuta (42 ontzi 2014an zein 2015ean), eta hala potentziak nola tonajeak behera egin dutela pixka bat (-% 4,8 eta -% 5,1, hurrenez hurren).

### Freskoko altura

Aurreko ekitaldian, aztertutako azpisektoreetako adierazle guztiek atzera egin zuten. 2015ean, ordea, ontzi kopuruak, potentziak, tonajeak eta freskoko alturako arrantzari lotutako enpleguek goranzko bilakaera izan dute. Esaterako, 2014an ontzi bakarra zegoen, eta 2015ean bi. Horrez gain, potentziak % 6 egin du gora, tonajeak % 3,8 eta enpleguak % 9,4.

**185. koadroa EAEko alturako freskoko ontzidiaren egitura, 2015***

| | Unitate kopurua | CV potentzia | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| **Freskoko altura, guztira** | 19 | 9.942 | 4.020 | 233 |

*(*): Estatistika-sekretua babesteko, ez da datuen berri eman ez elkarteen arabera, ez modalitateen arabera.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.*

### Bakailao-ontziak

Hainbat alditan aipatu den moduan, euskal elkarteetako bakailao-ontziek Pasaiako portuan dute basea. 2015ean ez da aldaketarik egon jarduera honetako ontzi kopuruan, potentzian eta tonajean, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**186. koadroa EAEko bakailao-ontzidia, 2015***

| | Unitate kopurua | CV potentzia | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| **Bakailao-ontzidia, guztira** | 2 | 3.805 | 1.650 | (*) |

*(*) Estatistika-sekretua gordetzeko, bi bakailao-ontzien enplegua atunontzi izoztaileen multzoan sartu da.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.*

### Atunontzi izoztaileak

2015ean, Anabac konpainiak (Bermeoko portuan du basea) ez du bere atunontzi izoztaileen kopurua aldatu aurreko ekitaldiarekin alderatuta (18 ontzi 2014an zein 2015ean); hala ere, ontzi horiei lotutako potentziak eta tonajeak behera egin du (-% 4,4 eta -% 4,8, hurrenez hurren).

Bestalde, Opagac konpainiak (Bermeoko eta Bilboko portuetan du basea) aurreko ekitaldian baino atunontzi izoztaile bat gutxiago du (hiru 2015ean eta lau 2014an); horrez gain, behera egin dute potentziak, tonajeak eta enpleguak (-% 17,5, -% 14,3 eta -% 25, hurrenez hurren).

**187. koadroa EAEko atunontzi izoztaileak, 2015**

| Elkartea<br>Portu basea | Unitate kopurua | CV potentzia | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| Anabac | | | | |
| • Bermeo | 18 | 83.957 | 28.781 | 460(*) |
| Opagac | | | | |
| • Bermeo/ Bilbo | 3 | 10.356 | 4.923 | 75 |
| **Guztira** | 21 | 94.313 | 33.704 | 535 |

*(*) Estatistika-sekretua gordetzeko, Anabac-i lotutako atunontzien enpleguan sartu da bakailao-ontziei dagokien enplegua.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailaren Estatistika Organoa.*



# 4. ZERBITZUAK

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

Aurretik aipatu den moduan, 2015ean munduko ekonomiaren hedapen-erritmoa geldotu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; izan ere, suspertze eta garapen bidean dauden merkatuen ekonomiak dezeleratzen ari dira eta ekonomia aurreratuak ez dira asko aurreratzen ari. Horrez gain, petrolioa merkatu egin da.

Testuinguru horretan, Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa % 3,2ra arte areagotu da 2015ean (2014an % 1,4). Kanpo-sektoreak ehuneko bost hamarren kendu dizkio barne-eskariak hazkunde globalari eginiko ehuneko 3,7 puntuko ekarpen positiboari.

**188. koadroa Zerbitzuen sektorearen bilakaera**

*(aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2013 | | 2014 | | 2015 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Espainia | EAE | Espainia | EAE | Espainia |
| Tren bidezko garraioa (merkantziak)* | 3,4 | -- | 0,4 | -- | -0,3 | -- |
| Tren bidezko garraioa (bidaiariak)* | -6,3 | -- | -2,1 | -- | 0,1 | -- |
| Errepide bidezko garraioa (merkantziak) | -3,9 | -7,5 | 3,7 | 3,0 | 5,8 | 8,2 |
| Itsas garraioa (merkantziak)* | 1,3 | -1,9 | 4,5 | 5,2 | 6,3 | 4,1 |
| Aireko garraioa (merkantziak)* | 8,3 | -1,9 | 12,5 | 6,9 | 9,3 | 4,6 |
| Aireko garraioa (bidaiariak) | -9,5 | -3,5 | 4,1 | 4,6 | 6,9 | 6,0 |

*(*): EAEko datuak.*
*Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.*

Halaber, EAEn zein Nafarroan areagotu egin da aurrerapen-erritmoa aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Dinamismoa oso antzekoa izan da bi erkidegoetan (EAEn, 2015ean % 2,8 eta 2014an % 1,4; eta Nafarroan, 2015ean % 2,9 eta 2014an % 1,5).

Hirugarren sektoreari dagokionez, oro har, % 3 egin du gora EAEn, % 3,2 Nafarroan eta % 3,1 Estatuan. Hala, kasu guztietan hobetu dira aurreko ekitaldian lortutako erregistroak (lehen bi kasuetan % 1,5 eta 2014an % 1,9, hurrenez hurren).

Puntu horretara iritsita, adierazi beharra dago sektorearen heterogeneotasuna dela-eta zaila dela sektorearen azterketa agregatua egitea; hala ere, enplegua da adierazlerik egonkorrenetako bat. Alde horretatik, nabarmendu behar da hirugarren sektorean landunen kopuruak % 0,9 egin duela gora EAEn, % 2,7 Nafarroan (% 1,3 Euskal Herri osoan) eta % 2,6 Estatuan.

# 2. HEZKUNTZA

## 2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA

2015/2016 ikasturteari buruz dauden azken datuen arabera, unibertsitatetik kanpoko matrikulazio guztiek gorakada bat izan dute berriro Euskal Herrian; oraingoan, ordea, moderatua (% 1,7). Ikasturtea positibo amaitu dute ia hezkuntza maila guztiek, Haur Hezkuntzak izan ezik, % 1 murriztu baitu ikasleen zentsua. Lanbide Heziketako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta LOGSE batxilergoko matrikulazioek bilakaera ona dute, baina ez homogeneoa (% 10,2, % 2,8, % 1,0 eta % 0,5, hurrenez hurren). Hori guztia kontuan hartuta, 2015/2016 ikasturtean Euskal Herrian, guztira, unibertsitatetik kanpoko 476.997 ikasle egon dira; alegia, balio absolutuetan, aurreko ikasturtean baino 7.807 ikasle gehiago.

### Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzari buruzko datuekin hasteko eta analisia Euskal Herrira mugatuta, ikasle kopurua 117.229 da; hau da, aurreko ikasturtean baino 1.210 ikasle gutxiago. Sare publikoak, % 55,3ko pisu berezia duenak, 890 ikasle galdu ditu, % 1,4ko murrizketa izan baitu; sare pribatuak ordea, % 44,7ko sarrera duenak, % 0,6ko beherakada txikia izan du, alegia, aurreko ikasturtean baino 320 ikasle gutxiago.

**189. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza**

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | 2015/2016 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 9.337 | 5.790 | 15.127 | 9.288 | 5.814 | 15.102 |
| Bizkaia | 22.921 | 23.477 | 46.398 | 22.602 | 23.351 | 45.953 |
| Gipuzkoa | 16.879 | 15.401 | 32.280 | 16.508 | 15.038 | 31.546 |
| EAE | 49.137 | 44.668 | 93.805 | 48.398 | 44.203 | 92.601 |
| Nafarroa | 16.575 | 8.059 | 24.634 | 16.424 | 8.204 | 24.628 |
| Euskal Herria | 65.712 | 52.727 | 118.439 | 64.822 | 52.407 | 117.229 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Lurraldeari buruzko datuak direla eta, eta aurreko ekitaldian gertatu bezala, joera nagusia izan da txikitzea pixka bat ikasle-kopurua; Gipuzkoa izan da atal honetan bilakaera okerrena duen lurraldea. Zehatzago esateko, lurralde horretan urte arteko aldakuntza negatiboa ezartzen da (-% 2,3); horretarako, bi sare-motek laguntzen dute (-% 2,2 publikorako eta -% 2,4 pribaturako), sare publikoak sare pribatuaren balioak hobetzen dituen testuinguruan (ikasleen % 52,3). Bizkaian, era berean, beheranzko aldakuntza bat egon da ikasle-kopuruari dagokionez; kasu honetan, % 1ekoa, batez ere



LABORAL kutxa

sare publikoaren jardueraren eraginez (-% 1,4), eremu pribatuaren desbideratzea moderatuagoa izanik (-% 0,5), eta, gainera, sarrera handiena izanik (% 50,8). Aztertutako gainerako bi lurraldeetan, matrikulazioak berreskuratu dira sare pribatuan, % 0,4an Araban eta % 1,8an Nafarroan. Arabaren kasuan, gorakada hori ez da nahikoa sare publikoan egondako ikasleen galera konpentsatzeko (-% 0,5); 10 ikasletik 6 agertzen dira sare horren alde. Nafarroaren kasuan, ikasgela publikoetan ikasleen kontzentrazio oso altua izanik (% 66,7), 2015/16 ikasturtean ia aurreko ikasturtean bezainbeste ikasle egon da (6 eskola-ume gutxiago), eremu pribatuak (% 1,8) publikoan egondako beherakada moteltzean (-% 0,9). Guzti hori kontuan hartuta, EAEn Haur Hezkuntzan guztira 92.601 ume matrikulatu dira (-% 1,3) eta Nafarroan 24.628 guztira (% 0,0); bi eremu geografiko horietan irakaskuntza publikoko sistema da pisu gehien duena (% 52,3 eta % 66,7).

**190. koadroa Euskalduntze maila. Haur Hezkuntza**

*(% )*

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | | | 2015/2016 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 3.4 | 37,1 | 59,5 | 0,0 | 100 | 3,2 | 34,6 | 62,2 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 4,0 | 23,8 | 71,2 | 1,0 | 100 | 3,7 | 23,4 | 71,9 | 1,1 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,2 | 4,1 | 93,7 | 0,0 | 100 | 2,2 | 3,6 | 94,2 | 0,0 | 100 |
| EAE | 3,3 | 19,1 | 77,1 | 0,5 | 100 | 3,1 | 18,5 | 77,9 | 0,5 | 100 |
| Nafarroa* | 31,6 | 1,5 | 26,4 | 40,5 | 100 | 30,9 | 1,9 | 26,5 | 40,7 | 100 |
| Euskal Herria | 9,2 | 15,5 | 66,5 | 8,8 | 100 | 8,9 | 15,0 | 67,1 | 9,0 | 100 |
| Pribatua | 7,7 | 28,9 | 53,0 | 10,4 | 100 | 7,6 | 28,6 | 53,3 | 10,5 | 100 |
| Publikoa | 10,3 | 4,7 | 77,4 | 7,6 | 100 | 10,0 | 3,9 | 78,3 | 7,8 | 100 |

*Oharra: Ikasleen banaketa hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren arabera Euskal Herri osoari dagokio.*
*A: Hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago dela.*
*B: Irakaskuntza elebiduna.*
*D: Hezkuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago izanik.*
*X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.*
*(*): Nafarroan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G eredua esaten zaio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Haur Hezkuntzan euskalduntze maila dela eta, aurreko aldietako joera errepikatzen da; ikasleak D eredura aldatzen dira (hezkuntza euskaraz, gaztelania irakasgai izanik). Hizkuntza-eredu honek sarrera-indize altuenak ditu, eta, gainera, goranzko aldakuntzak erakusten ditu lurralde guztietan, Nafarroan izan ezik. Aurreko ikasturtean gertatzen zen bezala, Araban da nagusi joera hori; D ereduak 2,7 puntu gehiago du, baina egia da, halaber, Araba EAEn D ereduak sarrera gutxien duen probintzia dela (% 62,2) eta B ereduak nahiko presentzia nabarmena duela (% 34,6), irakaskuntza elebidunarena. Gipuzkoan, D eredua gehieneko balioetatik hurbil dago (% 94,2), eta gainerako ereduei maniobrak egiteko marjina gutxi uzten die, partaidetza txikia izanik. Bizkaian, D ereduak % 71,9ko pisu berezia du; ikasleen kasuan gora egin du pixka bat (ehuneko 0,7 puntu) A ereduaren kalterako (hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago izanik) eta B ereduaren kalterako, biek behera egin baitute, baina partaidetza desberdinekin

(% 3,7 eta % 23,4, hurrenez hurren). Nafarroak, gainerakoek ez bezala, hizkuntza-mapa orekatuagoa du, eta gainera egonkortasuna du bereizgarri, kontuan hartuta ikasle haurren % 40,7k azken ikasturte honetan X eredua aukeratu duela, % 30,9k A eredua, % 26,5 D eredua eta, azkenik, % 1,9k bakarrik B eredua. Bilakaerari dagokionez, A eredua da pisua galdu duen bakarra, baina oso astiro. Guzti hori kontuan hartuta, euskalduntze maila 2014/2015 ikasturtearen mailen gainetik dago, eta % 96,4koa da EAEn (ehuneko 0,2 puntu gehiago aurreko aldiaren aldean) eta % 82,1ekoa Euskal Herrian (ehuneko 0,1 puntu gehiago aurreko aldiaren aldean).

## Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzari buruzko datuak aztertzerakoan, gorakada txikia ikusten da ikasle-kopuruari dagokionez (% 1,1); horrek, balio absolutuetara ekarrita, 1.660 ikasle gehiago esan nahi du, 169.001 ikasle-kopurutik. Ikasle-zentsuak gora egin badu ere, Lehen Hezkuntza hasi da hazkunde-erritmoa moteltzen; joera hori aztertutako lurralde guztietan ikusten da. Analisia Arabatik hasita, aurreko aldietan gertatu den bezala, Euskal Herrian pisu erlatibo gutxien duen probintzia izanik ere (% 11,6 guztizkoaren gainean), jarduera onena duena da (% 2,2). Hazkunde-erritmo txikiagoa dago Gipuzkoan eta Nafarroan, biak urte arteko % 1,1eko aldakuntzarekin, eta antzeko pisu bereziekin (% 26 eta % 24,2, hurrenez hurren). Azkenik, Bizkaiak uzkurtu egin du hazkundea (% 0,5), baina ingurunean guztizkoaren gainean % 38 mantentzen du.

**191. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. Lehen Hezkuntza**

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | 2015/2016 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 11.397 | 7.747 | 19.144 | 11.776 | 7.794 | 19.570 |
| Bizkaia | 31.598 | 32.625 | 64.223 | 31.760 | 32.787 | 64.547 |
| Gipuzkoa | 21.988 | 21.518 | 43.506 | 22.361 | 21.615 | 43.976 |
| EAE | 64.983 | 61.890 | 126.873 | 65.897 | 62.196 | 128.093 |
| Nafarroa | 25.505 | 14.963 | 40.468 | 25.827 | 15.081 | 40.908 |
| Euskal Herria | 90.488 | 76.853 | 167.341 | 91.724 | 77.277 | 169.001 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Ikasleen zentro-motaren araberako banaketari dagokionez, EAEn sare publikoak pixka bat gainditzen du pribatua ikasleen bolumenean; Nafarroan, ordea, ikasle gehienek nahiago dute ikasgela publikoetan ikasi (% 63). Hiru lurralde historikoetatik, Bizkaia da Lehen Hezkuntzan ikastetxe pribatuetan publikoetan baino ikasle gehiago matrikulatzen den lurraldea (% 51 eta % 49, hurrenez hurren); biek egin dute aurrera, baina berdin (% 0,5). Ikasle gipuzkoarrek, bizkaitarrek ez bezala, pixka bat nahiago dituzte ikasgela pribatuak (% 51), baina publikoetan hazi da gehien ikasle-kopurua (% 1,7 eta % 0,5).



LABORAL kutxa

Araban, ordea, desberdintasunak antzematen dira bi sare-moten artean, eta ikastetxe publikoak dira sarrera gehien dituztenak (% 60) eta hoberen egiten dutenak aurrera (% 3,3 eta % 0,6). Nafarroan, ikasleen % 63k zentro publikoak hautatzen dituzte, eta horiek, gainera, pribatuek baino gorakada handiagoa izan dute (% 1,3 eta % 0,8, hurrenez hurren). Horrela, bada, Euskal Herrian Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak 169.001 dira, eta, horietatik, 128.093 EAEkoak dira eta 40.908 Nafarroako Foru Erkidegokoak; % 54k irakaskuntza publikoaren alde egiten dutenak, eta % 46k, pribatuaren alde.

**192. koadroa Euskalduntze maila. Lehen Hezkuntza**

*(% )*

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | | | 2015/2016 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Total | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 7,6 | 41,1 | 51,3 | 0,0 | 100 | 6,7 | 40,4 | 52,9 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 6,1 | 26,1 | 66,4 | 1,4 | 100 | 5,7 | 25,6 | 67,4 | 1,3 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,5 | 12,2 | 85,3 | 0,0 | 100 | 2,6 | 10,7 | 86,8 | 0,0 | 100 |
| EAE | 5,1 | 23,6 | 70,6 | 0,7 | 100 | 4,8 | 22,7 | 71,8 | 0,7 | 100 |
| Nafarroa | 20,5 | 0,4 | 27,1 | 52,0 | 100 | 20,0 | 0,5 | 26,9 | 52,5 | 100 |
| Euskal Herria | 8,8 | 18,0 | 60,1 | 13,1 | 100 | 8,5 | 17,4 | 61,0 | 13,2 | 100 |
| Pribatua | 9,5 | 31,7 | 45,0 | 13,8 | 100 | 9,0 | 31,1 | 45,9 | 13,9 | 100 |
| Publikoa | 8,2 | 6,4 | 72,9 | 12,5 | 100 | 8,0 | 5,7 | 73,7 | 12,6 | 100 |

*Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberakoa, Euskal Herri osoari dagokio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Hizkuntza-ereduaren arabera egindako ikasleen banaketarekin bat etorriz, D ereduak aurreko ikasturteko joera berari eusten dio, sarrera-indize onenak izanik, gainera eredu bakarra da hazkundeekin. Baina, betiere analisia EAEra mugatzean, Nafarroako hizkuntza-mapa oso desberdina da. Foru Erkidegoarekin hasita, X ereduak du jokabiderik onena; gainera, pisu handiena du (% 52,5), eta horren ondoren daude, nahiko urrun, D eredua (% 26,9), A eredua (% 20) eta, azkenik, B eredua, % 0,5eko partaidetza txikiarekin. EAErako datuak aztertzean ikusten da D eredua nagusi dela, nabarmen, hiru lurraldeetan, eta balioak honako hauek dira: % 86,8 Gipuzkoan eta % 67,4 Bizkaian eta % 52,9 Araban. Gipuzkoan hizkuntza-eskaintza B ereduak osatzen du, % 10,7ko sarrerarekin (% 12,2 aurreko ikasturtean), bai eta A ereduak ere (% 2,6, % 2,5 aurreko ikasturtean); A ereduan beheranzko joera nabarmena dago, D ereduaren alde (ehuneko 1,5 puntu gora). Bizkaiarekin jarraituz, D ereduaz aparte (ehuneko puntu bat gehiago gehitzen dio bere erregistroari aurreko ikasturteari dagokionez), pisu gehien duen bigarren eredua B eredua da (% 25,6), eta oso urria da eta atzerapen argia izaten ari da gainerako ereduen presentziarekin. Arabako lurraldearekin amaitzeko, distantzia txikiagoa ikusten da eskaera gehien duten ereduetan matrikulatutako ikasle-kopuruan; alegia, % 52,9ko sarrera D eredurako eta % 40,4koa B eredurako. Beraz, EAErako analisi osoak lurralde historikoetarako aipatutako ezaugarri berak ditu. Alegia, beherantz doan A eredua (matrikulazioen % 4,8), X eredu eskasa (% 0,7) -bakarrik Bizkaian-, pixkanaka moteltzen

doan B eredua (% 22,7), guzti horiek D ereduak maneiatzen dituen balioetatik urrun (matrikulazioen % 71,8), gorantz jarraitzen baitu. Hori guztia kontuan hartuta, euskalduntze-tasa EAEn % 94,6koa da eta % 78,3koa Euskal Herrian.

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokionez, 105.594 ikasle daude guztira ikasgeletan; aurreko ikasturteko jokabide-eredua errepikatu egiten da, eta % 2,8ko gorakada erregistratu da. Gorakada horretan eragiten dute, neurri handiagoan ala txikiagoan, kontuan hartutako lurralde guztiek, eta zerrendako buru Araba dugu (% 3,3ko gorakada), ondoren Bizkaia eta Gipuzkoa (% 2,9ko gorakada biek) eta, azkenik, Nafarroa, taldeko gorakadarik moderatuena duena (% 2,2).

**193. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. DBH**

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | 2015/2016 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 5.483 | 6.115 | 11.598 | 5.768 | 6.213 | 11.981 |
| Bizkaia | 17.606 | 21.240 | 38.846 | 17.958 | 22.033 | 39.991 |
| Gipuzkoa | 12.771 | 13.978 | 26.749 | 13.170 | 14.344 | 27.514 |
| EAE | 35.860 | 41.333 | 77.193 | 36.896 | 42.590 | 79.486 |
| Nafarroa | 15.378 | 10.158 | 25.536 | 15.663 | 10.445 | 26.108 |
| Euskal Herria | 51.238 | 51.491 | 102.729 | 52.559 | 53.035 | 105.594 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Zentroaren titulartasunaren araberako ikasleen banaketa dela eta, Euskal Herriko eremu geografikoan, ikasleak nahiko modu bidezkoan banatzen dira sareen artean, baina ez da informazioa lurraldeen arabera banatzen, bertan desberdintasun esanguratsuak antzematen baitira. Nafarroa da distantzia nabarmenena duen lurraldea, kontuan hartuta 10 ikasletik 6k sare publikoa aukeratzen dutela eta 10etik 4k sare pribatua; gainera, lurralde bakarra da ikasle gehiago dituena sare publikoan pribatuan baino. Araban eta Gipuzkoan, sare publikoaren pisua % 48 inguru da, eta, hala ere, azken ikasturte honetan bilakaera onena izan duena da (% 5,2 % 1,6ren aldean Araban eta % 3,1 % 2,6ren aldean Gipuzkoan). Azkenik, Bizkaiak, ikasleen % 55 zentro pribatuetan inskribatuta duenak, gainerako lurralde historikoen kontrako jokabidea du, eta publikoen % 2) gainetik bilakatzen dira eremu pribatuko (% 3,7) matrikulak. Beraz, Euskal Herriko DBHko 105.594 ikasleetatik -horietatik 26.108 Nafarroari dagozkio-, 52.559k ikasketak titulartasun publikoko zentroren batean egiten dituzte eta 53.035ek titulartasun pribatuko zentroren batean.



LABORAL kutxa

**194. koadroa Euskalduntze maila. DBH**

(%)

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | | | 2015/2016 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Total | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 21,3 | 33,1 | 45,6 | 0,0 | 100 | 18,8 | 33,8 | 47,4 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 12,1 | 28,6 | 58,1 | 1,2 | 100 | 11,1 | 28,3 | 59,4 | 1,2 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,9 | 19,4 | 77,7 | 0,0 | 100 | 2,8 | 18,4 | 78,7 | 0,0 | 100 |
| EAE | 10,3 | 26,1 | 63,0 | 0,6 | 100 | 9,4 | 25,7 | 64,3 | 0,6 | 100 |
| Nafarroa | 9,8 | 0,2 | 25,0 | 65,0 | 100 | 9,3 | 0,1 | 25,1 | 65,5 | 100 |
| Euskal Herria | 10,2 | 19,6 | 53,6 | 16,6 | 100 | 9,4 | 19,4 | 54,6 | 16,7 | 100 |
| Pribatua | 12,1 | 33,3 | 39,0 | 15,6 | 100 | 11,5 | 33,1 | 39,8 | 15,6 | 100 |
| Publikoa | 8,3 | 5,9 | 68,2 | 17,6 | 100 | 7,2 | 5,5 | 69,5 | 17,7 | 100 |

*Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren araberakoa, Euskal Herri osoari dagokio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

EAEk hizkuntza-ereduak direla eta, bilakaera-jokabide bera dago, D ereduaren onerako dena, gainerako ereduen aurrean; hala ere, ereduen banaketa proportzionatuagoa da beheragoko hezkuntza mailetan. D ereduak kontzentratzen du oraindik ikasle-kopuru handiena hiru lurraldeetan: Araban % 47,4, Bizkaian % 59,4 eta Gipuzkoan % 78,7. Araban, D ereduak gorantz jarraitzen duen testuinguruan, matrikulazioen erditik gero eta hurbilago, B ereduak ere gorantz egiten du, eta % 33,8ra iritsi da. Horren ondorioz, A ereduak behera egin du, ikasleen % 18,8rekin. Bizkaian, D ereduaz aparte, hizkuntza-mapa A ereduak eta B ereduak osatzen dute, eta horien parte-hartzea txikiagoa da, % 11,1ekoa eta % 28,3koa, hurrenez hurren; gainera, X ereduak ere osatzen du, zeinek ez duen aldaketarik izan (% 1,2). Gipuzkoan, gutxi dira DBHko ikasketak D eredua ez den beste eredu batean egiten duten ikasleak: % 18,4k B ereduan eta % 2,8k A ereduan. Nafarroan, ohikoa den bezala, X eredua da garrantzitsuena (% 65,5), gero D eredua (% 25,1), gero A eredua (% 9,3) eta, azkenik, B eredua (% 0,1). Hori guztia kontuan hartuta, euskalduntze-tasa EAEn % 90ekoa da eta % 74koa Euskal Herrian.

**31. grafikoa Ikasleen matrikulazioaren bilakaera Euskal Herrian**

**Haur + Lehen Hezkuntza + DBH**




**BBB-UBI + Batxilergoa LOGSE + IEE + LH + Lanbide-moduluak + LH LOGSE**




*Oharra: Ezin izan dira eduki Nafarroako 2006/2007 ikasturteko datuak.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

## Irakaskuntza Ertainak

*Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoak eta Goi Mailakoak.*

Irakaskuntza Ertainak eta, zehatzago, Lanbide Heziketako irakaskuntza direla eta, 2015/2016 ikasturtean egoera berria da. 2015eko ekainaren 9an, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzeko eta ezartzeko dekretuaren bidez, irakaskuntza-modalitate berri hau sortu zen, eskola-uztearen kopurua murrizteko. Horrela, DBHko amaierako azterketa gainditzen ez dutenei irakaskuntza maila honetan sartzeko aukera emateko. Horrek azal dezake, zati batean, Euskal Herrian egon den gorakada (% 10,2) irakaskuntza ertainetan; horrela, bada, 4.315 ikasle gehiago sartu dira, eta matrikulatuak, guztira, 46.437 izan dira. Zentroen titulartasunaren ikuspuntutik, bi sareek izan dituzte gorakadak, baina nabarmenagoa da gorakada sare pribatuan (% 16) publikoan baino (% 6,7); joera hori aztertutako lau lurraldeetara zabaltzen da. Bizkaiak portaera dinamikoena izan du (% 13); sare pribatuaren gorakada (% 20,2) dago buruan publikoaren aldean (% 7,1), nahiz eta azken horrek duen ikasle-kopuru handiena (% 52). Araban, sare pribatuak ere gora egin du publikoa baino neurri handiagoan (% 13,5 eta % 7,6, hurrenez hurren); gorakada guztira % 9,8koa izan da, eta ikastetxe publikoek ikasleen % 62 hartzen dute. Ikasle gipuzkoarrek ikasle-zentsuan % 6,5eko gorakada izan dute, sare pribatuan (% 9,9) eta sare publikoan (% 4,5) erregistratutako gorakadaren ondorioz; horiek hezkuntza publikoaren aldeko nahia erakusten dute (% 61). Lehentasun hori areagotu egiten da Nafarroan, non ikastetxe publikoetan ikasleen % 75 dagoen eta pribatuetan gora egin duten azken ikasturtean (% 17 % 8,6ren aurrean).

**195. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera.**
**Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa**

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | 2015/2016 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 4.107 | 2.399 | 6.506 | 4.420 | 2.723 | 7.143 |
| Bizkaia | 9.198 | 7.501 | 16.699 | 9.850 | 9.013 | 18.863 |
| Gipuzkoa | 7.494 | 4.469 | 11.963 | 7.833 | 4.910 | 12.743 |
| EAE | 20.799 | 14.369 | 35.168 | 22.103 | 16.646 | 38.749 |
| Nafarroa | 5.334 | 1.620 | 6.954 | 5.792 | 1.896 | 7.688 |
| Euskal Herria | 26.133 | 15.989 | 42.122 | 27.895 | 18.542 | 46.437 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

**196. koadroa Euskalduntze maila.**
**Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa**

*(% )*

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | | | 2015/2016 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B(*) | D | X | Guztira | A | B(*) | D | X | Guztira |
| Araba | 88,0 | 0,0 | 12,0 | 0,0 | 100 | 88,1 | 1,3 | 10,7 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 84,7 | 0,0 | 15,3 | 0,0 | 100 | 86,1 | 0,6 | 13,3 | 0,0 | 100 |
| Gipuzkoa | 50,3 | 3,5 | 46,2 | 0,0 | 100 | 51,3 | 5,7 | 43,0 | 0,0 | 100 |
| EAE | 73,6 | 1,2 | 25,2 | 0,0 | 100 | 75,0 | 2,4 | 22,6 | 0,0 | 100 |
| Nafarroa | 0,0 | 0,0 | 2,4 | 97,6 | 100 | 0,0 | 0,0 | 2,7 | 97,3 | 100 |
| Euskal Herria | 61,5 | 1,0 | 21,4 | 16,1 | 100 | 62,6 | 2,0 | 19,3 | 16,1 | 100 |
| Pribatua | 74,4 | 2,6 | 12,9 | 10,1 | 100 | 74,7 | 3,8 | 11,2 | 10,2 | 100 |
| Publikoa | 53,6 | 0,0 | 26,6 | 19,8 | 100 | 54,5 | 0,8 | 24,7 | 20,0 | 100 |

*Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren araberakoa, Euskal Herri osoari dagokio.*
*(*): Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako bakarrik daude legez A eta D ereduak, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Euskalduntze maila dela eta, Euskal Herrian rol-aldaketa antzeman da: A eredua da gehien eskatzen dena (% 62,6ko sarrera), D eredua ondoren (% 19,3), X eredua (% 16,1) eta B eredua (% 2). Nafarroan, X eredua gehieneko balioetara iritsi da ia (% 97,3), eta gainerakoak ia ordezkapenik gabe geratu dira. Arabak eta Bizkaiak antzekotasun handiak dituzte banaketan: A eredua da nagusi (% 88,1 eta % 86,1, hurrenez hurren), D eredua ez dago hain presente (% 10,7 eta % 13,3, hurrenez hurren) eta B ereduak ez du garrantzi askorik (% 1,3 eta % 0,6, hurrenez hurren). Gipuzkoan, ikasle-kopurua A eta D ereduen artean banatzen da (% 51,3 eta % 43, hurrenez hurren), eta B eredua da hizkuntza-eskaintza osatzen duena (% 5,7). Horrela, bada, euskalduntze maila Euskal Herrian % 21,3koa da eta % 25ekoa EAEn.

### *LOGSE Batxilergoa*

LOGSE Batxilergoko ikasleak direla eta, 2015/2016 ikasturtean guztira 38.736 ikasle erregistratu dira Euskal Herrian; alegia, aurreko ikasturtean baino 177 ikasle gehiago, % 0,5eko gorakada egon da. EAEn ikasle-kopurua pixka bat gutxitu da (-% 0,2), eta Nafarroak moteltzen du beherakada, % 3ko gorakadarekin, taldeko bilakaerarik onena erakusten duelarik. Horrenbestez, informazioa lurraldeka banatuta, ikusten da Gipuzkoak ere bilakaera ona izan duela (% 1,6), eta horretan eragin du, batez ere, sare publikoaren sustapenak (% 2,8 hazi da), eremu pribatuan nagusi den egonkortasunaren aldean (% 0,3). Bizkaiak eta Arabak antzeko uzkurdurak izan dituzte (% 1,2 eta % 1,1, hurrenez hurren), baina Bizkaiko lurraldean bi zentro-motetan ikasle-kopuruak behera egin du; ez,

ordea Araban, bertan publikoak du murrizketa, ikasle-zentsuan (-% 2,3), eta pribatuko erregistroak gora doaz, pixkanaka (% 0,1).

**197. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro-motaren arabera. LOGSE Batxilergoa**

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | 2015/2016 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 2.221 | 2.184 | 4.405 | 2.169 | 2.186 | 4.355 |
| Bizkaia | 7.811 | 7.663 | 15.474 | 7.655 | 7.633 | 15.288 |
| Gipuzkoa | 5.339 | 5.025 | 10.364 | 5.486 | 5.039 | 10.525 |
| EAE | 15.371 | 14.872 | 30.243 | 15.310 | 14.858 | 30.168 |
| Nafarroa | 5.297 | 3.019 | 8.316 | 5.408 | 3.160 | 8.568 |
| Euskal Herria | 20.668 | 17.891 | 38.559 | 20.718 | 18.018 | 38.736 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Zentro-motaren arabera matrikulazioetan egon den bilakaera dela eta, ikasleen banaketaren joera EAEn homogeneizatzekoa da (% 50,7 sare publikoan eta % 49,3 sare pribatuan), baina bi sare horiek uzkurdurak izan dituzte (-% 0,2 eta -% 0,4, hurrenez hurren). Nafarroako Foru Erkidegoan, datuek agerian uzten dute sare publikoaren nagusitasuna (% 63,1), sare pribatuaren aurrean (% 36,9); bi sareek gorakada izan dute ikasle-kopuruan (% 2,1 eta % 4,7, hurrenez hurren). Joera hori bera du, baina ez hain indartsua, Gipuzkoak; izan ere, matrikulazio-kopurua handitu egin du % 2,8 eremu publikoan (% 52ko pisu zehatza) eta % 0,3 baino ez pribatuan. Araban, sare publikoari atxikitako ikasleen uzkurdura ikusten da (-% 2,3), sare pribatuan ez bezala; pribatuan egonkor mantentzen baita (% 0,1). Bizkaian behera egin dute (-% 2 publikoan eta -% 0,4 pribatuan). Bi lurraldeetan, ikasle-kopuruaren banaketa oso antzekoa da.

**198. koadroa Euskalduntze maila. LOGSE Batxilergoa**

*(% )*

| Arloa | 2014/2015 ikasturtea | | | | | 2015/2016 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 51,9 | 0,0 | 48,1 | 0,0 | 100 | 48,5 | 0,8 | 50,7 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 44,4 | 0,6 | 53,6 | 1,4 | 100 | 41,1 | 1,9 | 55,6 | 1,4 | 100 |
| Gipuzkoa | 22,3 | 3,1 | 74,6 | 0,0 | 100 | 22,0 | 4,1 | 73,9 | 0,0 | 100 |
| EAE | 37,9 | 1,4 | 60,0 | 0,7 | 100 | 35,5 | 2,5 | 61,3 | 0,7 | 100 |
| Nafarroa | 4,3 | 0,0 | 25,0 | 70,7 | 100 | 4,7 | 0,0 | 24,3 | 71,0 | 100 |
| Euskal Herria | 30,7 | 1,1 | 52,4 | 15,8 | 100 | 28,7 | 2,0 | 53,1 | 16,2 | 100 |
| Pribatua | 40,7 | 2,3 | 40,9 | 16,1 | 100 | 39,4 | 3,6 | 40,6 | 16,4 | 100 |
| Publikoa | 21,9 | 0,0 | 62,5 | 15,6 | 100 | 19,4 | 0,6 | 64,0 | 16,1 | 100 |

*Oharra: Ikasleen banaketa, hezkuntza-ereduen eta zentro-motaren araberakoa, Euskal Herri osoari dagokio.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

LOGSE Batxilergoko euskalduntze maila dela eta, aldakuntza gutxi daude aurreko ikasturtearen aldean. Gipuzkoan % 73,9k egiten du D eredua, A eta B ereduetatik urrun (% 22 eta % 4,1, hurrenez hurren). Bizkaian eta Araban, D ereduan, gutxi gorabehera ikasleen erdia dago (% 55,6 eta % 50,7, hurrenez hurren); ondoren, A eredua da nabarmena (% 41,1 eta % 48,5, hurrenez hurren); azkenik, urrun dago B eredua, zeinek desagertzeko joera erakusten baituen (% 1,9 eta % 0,8, hurrenez hurren). Nafarroan X eredua da oraindik ugariena (% 71), D eredutik (% 24,3) eta A eredutik (% 4,7) urrun. Nabarmendu behar da, A eta D ereduetan eremu publikoaren eta pribatuaren artean Euskal Herriko banaketan dauden desberdintasunak. Zehazki, eremu pribatuan, ikasle-kopuruaren banaketa askoz ere uniformeagoa da: ikasleen % 40,6 D ereduan dago izena emanda eta % 39,4, A ereduan; publikoetan, distantzia handia dago bi ereduen artean (% 19,4 A ereduan eta % 64 D ereduan). Guzti hori kontuan hartuta, B ereduak parte-hartze baxua duen inguruan, euskalduntze maila, irakaskuntzaren oinarrizko mailetan lortutako ehuneko altuekin erkatuta, % 63,8 jaitsi da EAEn eta % 55,1 Euskal Herrian.

## 2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Euskal Herriko unibertsitateko ikasleak direla eta, oso beherakada txikia egon da ikasle-bolumenean (-% 0,2); horrela, baretu egin da aurreko ikasturteetako beheranzko joera. 2015/16 ikasturtea unibertsitateko 63.637 ikaslerekin itxi da, Euskal Herriko hezkuntza-eskaintza eratzen duten 5 unibertsitateetan banatuta (3 pribatuak eta 2 publikoak).



LABORAL kutxa

**199. koadroa Ikasle eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko Unibertsitateetan**

| Unibertsitateak eta lurraldeak | Ikasleak | | Irakasleak | |
|---|---|---|---|---|
| | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea(*) | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea(*) |
| **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **38.445** | **37.999** | **5.685** | **5.611** |
| Araba | 7.099 | 7.096 | 985 | 983 |
| Bizkaia | 21.565 | 21.245 | 3.264 | 3.230 |
| Gipuzkoa | 9.781 | 9.658 | 1.436 | 1.398 |
| **Nafarroako Unibertsitatea** | **7.694** | **7.776** | **776** | **787** |
| Nafarroa | 6.622 | 6.736 | 680 | 687 |
| Gipuzkoa | 1.072 | 1.040 | 96 | 100 |
| **Nafarroako Unibertsitate Publikoa** | **7.065** | **6.948** | **856** | **863** |
| Nafarroa | 7.065 | 6.948 | 856 | 863 |
| **Deustuko Unibertsitatea** | **7.018** | **7.317** | **1.713** | **1.688** |
| Bizkaia | 5.556 | 5.803 | 1.598 | 1.561 |
| Gipuzkoa | 1.462 | 1.514 | 115 | 127 |
| **Mondragon Unibertsitatea** | **3.513** | **3.597** | **320** | **334** |
| Gipuzkoa | 3.513 | 3.597 | 320 | 334 |
| **Guztira** | **63.735** | **63.637** | **9.350** | **9.283** |
| Araba | 7.099 | 7.096 | 985 | 983 |
| Bizkaia | 27.121 | 27.048 | 4.862 | 4.791 |
| Gipuzkoa | 15.828 | 15.809 | 1.967 | 1.959 |
| EAE | 50.048 | 49.953 | 7.814 | 7.733 |
| Nafarroa | 13.687 | 13.684 | 1.536 | 1.550 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.*

Datuak unibertsitateen arabera bereizita eta Euskal Herriko Unibertsitatetik (UPV-EHU) hasita (unibertsitateko ikasleen % 60 dagokio), ikasturte honetan beheranzko aldakuntza txikia ikusi da (-% 1,2); joan den ikasturteko balioei, 446 ikasle gutxitu zaizkio. Antzeko portaera izan du Nafarroako Unibertsitate Publikoak, sarrera askoz ere txikiagoa izan baitu (% 11); ikasle-kopurua % 1,7 murriztuta. Gainerako unibertsitateetan, ikasle-zentsuak handitu egin dira, baina pixkanaka. Deustuko Unibertsitateko taldearen bilakaerarik onenarekin hasita (pisu zehatza % 11,5), % 4,3 areagotzea lortu du ikasle-kopurua ikasgeletan. Atzetik du, hazkunde-erritmo txikiagoarekin (% 2,4) Mondragon Unibertsitatea; 84 ikasle irabazi ditu, eta parte-hartze kuotari eutsi dio ia aldatu gabe, aurreko ekitaldiari dagokionez (% 5,7 % 5,5en aurrean). Azkenik, urte arteko aldakuntza neurritsuagoarekin (% 1,1), Nafarroako Unibertsitatea dago (% 12,2ko ordezkapena). Guzti hori kontuan hartuta, bereizketa txikiak daude ikasleen banaketan zentroen arabera, eta nahiko joera egonkorrari eusten zaio horren inguruan.

Irakasleen kasuan, datuen lehen hurbilketak erakusten du aldakuntza txikiak daudela aurreko ikasturteari dagokionez. Irakasleak plantillan, guztira, 9.283 dira; alegia, 67 irakasle gutxiago ikasturte honetarako. Beherakada hori Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean egon den irakasle-kopuruaren murrizketaren ondorio da; horietako plantilletan 74 eta 25 irakasleren uzkurdura egon da, hurrenez hurren.

Nafarroako Unibertsitateak, bestalde, 11 irakasle berri izan ditu (% 1,4ko gorakada), Mondragon Unibertsitatearen antzera (14 irakasle gehiago ikasturte honetarako). Nafarroako Unibertsitate Publikoak % 0,8ko gorakada txikia izan du, 7 pertsona gehiago gehitu dizkio bere plantillari; ikasturte honetan 863 irakasle izanik.

Jarraian, 2015/2016 ikasturtean ikasleen bilakaeraren datu esanguratsuenak eta unibertsitate bakoitzari buruzko informazioa erakusten dira.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin hasita, ikasle-kopuru gehiena izaten jarraitzen du; 37.999 matrikulazio izan ditu guztira 2015/16 ikasturtean. Horrek esan nahi du % 1,2ko beherakada egon dela aurreko ikasturtearen aldean; alegia, 446 ikasleek utzi dituztela ikasketak UPV/EHUren hezkuntza-eskaintza osatzen duten hiru campusetan egiteari. Zehatzago esanda, Bizkaiko campusak (21.245 matrikulazio, ordezkapen osoaren % 55,9) beheranzko desbideratzea izan du ikasleetan (% 1,5, 320 ikasle gutxiago). Gipuzkoak (% 25,4ko ordezkapena du, 9.658 ikasle) parean egiten du aurrera, ikasle-kopurua murriztuz % 1,3, alegia, 123 ikasle gutxiago. Araban, UPV/EHUk dimentsio txikieneko campusa duen lurraldean (7.096 ikasle, % 18,7), ia ez dago aldaketarik ikasle-zentsuari dagokionez.

Bizkaiko campusaren eskaintzari eta eskariari dagokionez, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak jarraitzen du izaten ikasle-kopuru gehien (% 12,7ko sarrera), nahiz eta % 2,4ko murrizketa izan duen. Hurbiletik ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta Medikuntza eta Odontologiakoa, ikasle-kopuru handiarekin (% 12,2, % 11,5 eta % 11,3); gainera, % 4,5eko, % 4,3ko eta % 1,6ko gorakadak izan dituzte, hurrenez hurren. Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako Fakultatea da hurrengoa pisuari dagokionez (% 10,8), eta taldearen uzkurdurarik okerrenetako bat duena, % 10,6ko beherakada. Gainerako fakultateetan (kasu batean ere ez dute gainditzen % 10eko parte-hartzea), Enpresa Zientzien uzkurdura (-% 9,7), Meatzaritzako Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolarena (-% 10,7) eta Nautikarena (-% 18,5), bai eta Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolarena (-% 4,6).

Gipuzkoako campusa dela eta, ikasle-kopuruak % 1,3ko uzkurdura izan du, Donostiako Unibertsitate Politeknikoaren kontrako bilakaera-portaeragatik (-% 11,3 eta % 15,1eko pisu zehatza) eta Irakaskuntzako Unibertsitate Eskolarenagatik (-% 5,9 eta % 11). Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak eta Erizaintzako Unibertsitate Eskolak ere galerak izan dituzte ikasleetan, baina ez dira hain esanguratsuak; izan ere, oso gutxi murriztu dira erregistroak (7 eta 6 ikasle, hurrenez hurren), eta parte-hartze txikiagoak daude (% 3,4 eta % 5,5). Ikasturte honetan, gainera, aurrekoan ez bezala, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak ez du ikaslerik

ematen; 31 ikasle erregistratu dira 2014/15 ikasturtean. Testuinguru hobeetan daude Psikologia Fakultatea (ikasleen % 5,5eko gorakada), Informatika Fakultatea (antzeko gorakada, % 5,3koa) eta Zuzenbide Fakultatea (% 3,9ko gorakada); hiruren artean ikasleen % 26,4 kontzentratzen da.

Arabako campusarekin amaitzeko, aurretik esan den bezala, 2014/2015 ikasturteko ikasle-kopuru berari eutsi zaio ia. Egonkortasun hori zifretan batez ere Filologia, Geografia eta Historiako Fakultateetan, Irakasleen Unibertsitate Eskolan, Farmaziako Fakultatean eta Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolan egon diren aldeko aldakuntzen ondoriozkoa izan da (% 3,1eko, % 1,3ko, % 1,5eko, % 8,1eko gorakadak eta % 31,3ko, % 13,9ko, % 19,8ko eta % 7,7ko parte-hartzea; horiek gainerako beherakadak konpentsatu dituzte). Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak eta Enpresa Zientzietako Unibertsitate Eskolak (ikasleen % 13 eta % 7,1 dute) % 8,3ko eta % 9,1eko murrizketak izan dituzte, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko ikasleak bezala (-% 0,8); gainera, ez da ikaslerik erregistratu Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean.

**200. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHU (1)**

| Lurralde historikoa | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea(2) | % | ∆% aurreko urtea |
|---|---|---|---|---|
| **Araba** | **7.099** | **7.096** | **100,0** | **0,0** |
| Farmazia F. | 1.381 | 1.402 | 19,8 | 1,5 |
| Filologia, Geografia eta Historia F. | 2.152 | 2.219 | 31,3 | 3,1 |
| Irakasleen UE | 975 | 988 | 13,9 | 1,3 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 1.009 | 925 | 13,0 | -8,3 |
| Gizarte Laneko UE | 504 | 545 | 7,7 | 8,1 |
| Enpresa Zientzien UE | 552 | 502 | 7,1 | -9,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. | 7 | -- | -- | -- |
| Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F. | 519 | 515 | 7,3 | -0,8 |
| **Bizkaia** | **21.565** | **21.245** | **100,0** | **-1,5** |
| Zientziak eta Teknologia F. | 2.464 | 2.576 | 12,1 | 4,5 |
| Arte Ederren F. | 1.263 | 1.287 | 6,1 | 1,9 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. | 2.759 | 2.694 | 12,7 | -2,4 |
| Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. | 2.349 | 2.450 | 11,5 | 4,3 |
| Medikuntza eta Odontologia F. | 2.356 | 2.393 | 11,3 | 1,6 |
| Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET | 2.561 | 2.289 | 10,8 | -10,6 |
| Enpresa Ikasketen UE | 1.258 | 1.136 | 5,3 | -9,7 |
| Erizaintzako UE | 665 | 696 | 3,3 | 4,7 |
| Irakasleen UE | 1.863 | 1.933 | 9,1 | 3,8 |
| Lan Harremanen E. | 555 | 557 | 2,6 | 0,4 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 1.901 | 1.813 | 8,5 | -4,6 |
| Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE | 652 | 582 | 2,7 | -10,7 |
| Nautikako GET | 286 | 233 | 1,1 | -18,5 |
| Zuzenbide Fakultatea Bizkaiko atala | 633 | 606 | 2,9 | -4,3 |
| **Gipuzkoa** | **9.781** | **9.658** | **100,0** | **-1,3** |
| Zientzia Kimikoen F. | 336 | 346 | 3,6 | 3,0 |
| Zuzenbide F. | 887 | 922 | 9,5 | 3,9 |
| Informatika F. | 507 | 534 | 5,5 | 5,3 |
| Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako F. | 938 | 950 | 9,6 | 1,3 |
| Psikologia F. | 1.045 | 1.102 | 11,4 | 5,5 |
| Arkitekturako GET | 1.182 | 1.192 | 12,3 | 0,8 |
| Enpresa Ikasketen UE | 1.195 | 1.219 | 12,6 | 2,0 |
| Irakasleen UE | 1.134 | 1.067 | 11,0 | -5,9 |
| Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoaren UE | 337 | 330 | 3,4 | -2,1 |
| Donostiako U. Politeknikoa | 1.648 | 1.461 | 15,1 | -11,3 |
| Erizaintzako UE | 541 | 535 | 5,5 | -1,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. | 31 | -- | -- | -- |
| **Guztira** | **38.445** | **37.999** | **100,0** | **-1,2** |

*(1): Ez dira kontuan hartzen UPV/EHUri eta campus birtualari atxikitako zentroak.*
*(2): Behin-behineko datuak.*
Iturria: UPV/EHU.

Nafarroako Unibertsitatearen datuak aztertuta, ikasturte honetan aurreko ikasturteetako kontrako joerarekin amaitzen da; ikasleen zentsuak % 1,1eko gorakada izan du. Horrek esan nahi du 7.776 ikasle 2015/2016 ikasturterako (joan den ikasturtean baino 82 ikasle gehiago), Nafarroako (6.736) eta Gipuzkoako (1.040) campusen artean banatuta.

**201. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea(1) | % | Δ% aurreko urtea |
|---|---|---|---|---|
| **Nafarroa** | **6.622** | **6.736** | **100,0** | **1,7** |
| Zuzenbidea | 416 | 468 | 6,9 | 12,5 |
| Medikuntza | 1.243 | 1.271 | 18,9 | 2,3 |
| Filosofia eta Letrak | 335 | 341 | 5,1 | 1,8 |
| Informazio Zientziak | 770 | 723 | 10,7 | -6,1 |
| Hezkuntza eta Psikologia(2) | 433 | 472 | 7,0 | 9,0 |
| Zientziak | 541 | 576 | 8,6 | 6,5 |
| Farmazia | 664 | 659 | 9,8 | -0,8 |
| Arkitektura | 568 | 487 | 7,2 | -14,3 |
| Teknologia | 138 | 147 | 2,2 | 6,5 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientziak | 942 | 982 | 14,6 | 4,2 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 95 | 123 | 1,8 | 29,5 |
| Erizaintza | 477 | 487 | 7,2 | 2,1 |
| **Gipuzkoa** | **1.072** | **1.040** | **100,0** | **-3,0** |
| Industria Ingeniaritza | 989 | 1.001 | 96,3 | 1,2 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 83 | 39 | 3,8 | -53,0 |
| **Guztira** | **7.694** | **7.776** | **100,0** | **1,1** |

*(1): Gainera, doktoregoko 886 ikasle daude eta masterreko 641 ikasle Nafarroan eta Gipuzkoan.*
*(2): 14/15 ikasturtetik eskaintzen den titulazioa.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.*

Datuak campusen arabera bereizita, argi nabarmentzen da aldakuntza positiboa Nafarroako campusarekin datorrela bat (% 1,7), eta ez Gipuzkoakoarekin, % 3ko beherakada izan duena. Gorakada horretan neurri handiagoan edo txikiagoan eragina izan dute Nafarroako eskaintza eratzen duten fakultate guztiek, Informazioaren Zientzien Fakultateak, Farmaziakoak eta Arkitekturakoak salbu (-% 6,1eko, -% 0,8ko eta -% 14,3ko beherakada izan dute, hurrenez hurren), baina azpimarratu behar da hiruren artean ez dutela parte-hartzearen % 30 gainditzen. Gorakadak direla eta, Medikuntza Fakultateak, ordezkapen handiena duenak (% 18,9) oso geldo egiten du aurrera (% 2,3); Idazkaritzan eta Administrazioan gorakadak nabarmenagoak dira (% 29,5), bai eta Zuzenbide Fakultatean ere (% 12,5), nahiz eta matrikulazioen indizeak baxuenak diren (% 1,8 eta % 6,9). Hazkunde-erritmo motelagoekin, bi digituetatik behera daude gainerako fakultateak, pixka bat gora egin dutela ikasle-kopuruan.

Gipuzkoan ikasturte honetan iazkoan baino 32 ikasle gutxiago matrikulatu dira, eta horrek ekarri du Idazkaritzan eta Administrazioan egon den murrizketa (-% 53); gutxieneko parte-hartzea izanik (% 3,8), balantza alde negatibora eramatea lortzen du. Industria Ingeniaritzako Fakultateak % 1,2ko gorakada izan du, baina, hala ere, hori ez da nahikoa ikasturtea saldo positiboarekin ixteko.

**202. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan [1]**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea (3) | % | Δ% aurreko urtea |
|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza Ingeniaritzen GET | 478 | 499 | 7,2 | 4,4 |
| Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET | 2.182 | 2047 | 29,5 | -6,2 |
| Osasun Ikasketen UE | 612 | 633 | 9,1 | 3,4 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. | 1.318 | 1.245 | 17,9 | -5,5 |
| Giza eta Gizarte Zientzien F. | 1.744 | 1.733 | 24,9 | -0,6 |
| Zientzia Juridikoen F. | 560 | 582 | 8,4 | 3,9 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. / Zientzia Juridikoak(2) | 171 | 209 | 3,0 | 22,2 |
| **Guztira** | **7.065** | **6.948** | **100,0** | **-1,7** |

*(1): 15/16 ikasturtea- Behin-behineko datuak.*
*(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.*
*(3): Gainera, doktoregoko 448 ikasle eta masterreko 768 ikasle daude.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.*

2015/2016 ikasturtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (guztira 6.948 ikasle) ikasleen beherakada izan du, % 1,7koa. Murrizketa horretan eragin duten fakultateak honako hauek dira: Industria Ingeniarien eta Telekomunikazioen GET (-% 6,2), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 5,5) eta Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (-% 0,6), hiruren artean ikasle guztien % 72,3 dutenak. Gainerako fakultateek, besteak beste, Nekazaritza Ingeniarien GETak, Zientzia Juridikoen Fakultateak eta Osasun Ikasketen UEk antzeko gorakadak izan dituzte (% 4,4, % 3,9 eta % 3,4), eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak - Zientzia Juridikoenak gorakada nabarmena izan du, % 22,2koa, baina, parte-hartze eskasa dela eta (% 3), ez du gehiegirik aldatu ikasleen behin betiko balantzea.

**203. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea(1) | % | ∆% aurreko urtea |
|---|---|---|---|---|
| **Bizkaia** | **5.556** | **5.803** | **100,0** | **4,4** |
| Zuzenbide Fakultatea | 840 | 842 | 14,5 | 0,2 |
| Teologia Fakultatea | 120 | 97 | 1,7 | -19,2 |
| Ingeniaritza Fakultatea | 557 | 577 | 9,9 | 3,6 |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 1.086 | 1.166 | 20,1 | 7,4 |
| Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea | 1.251 | 1.426 | 24,6 | 14,0 |
| Erlijio Zientzien Goi Institutua | 6 | 0 | 0,0 | -100,0 |
| EUMBAM (DUri atxikitako zentroa) | 765 | 721 | 12,4 | -5,8 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 931 | 974 | 16,8 | 4,6 |
| **Gipuzkoa** | **1.462** | **1.514** | **100,0** | **3,6** |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 568 | 562 | 37,1 | -1,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 736 | 704 | 46,5 | -4,3 |
| Zuzenbide Fakultatea(2) | 29 | 45 | 3,0 | 55,2 |
| Ingeniaritza Fakultatea | 5 | 1 | 0,1 | -80,0 |
| Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea | 124 | 202 | 13,3 | 62,9 |
| **Guztira** | **7.018** | **7.317** | **100,0** | **4,3** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2) 14/15 ikasturtean sartu da Zuzenbide Fakultatea Gipuzkoako campusean.*
*(3): Gainera, doktoregoko 345 ikasle eta masterreko 1.508 ikasle daude.*
*Iturria: Deustuko Unibertsitatea.*

Deustuko Unibertsitateari dagokionez, matrikulazioek gorakada esanguratsua izan dute, % 4,3koa. Hazkuntzarik handiena Bizkaiko campusari dagokio: ikasle-kopuruak % 4,4 egin du gora, Gipuzkoan % 3,6, eta biak dira, beraz, konputu osoan ikusten diren emaitza onen arduradun.

Eskaintzarik gehien duen campusarekin hasteko; hau da, Bizkaikoarekin, 247 ikasle gehiago zenbatu dira ikasturte honetan, ikasle-bolumen handia duten fakultateetan gorakada handiak egon direlako. Zehatzago esateko, unibertsitario-kopuruaren gorakadan eragin duten fakultateak honako hauek dira: Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea, gehien hazi dena (% 14); ondoren Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (% 7,4); Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (% 4,6); eta Ingeniaritza Fakultatea (% 3,6). Pisu erlatiboak % 24,6, % 21,1, % 16,8 eta % 9,9koak dira, hurrenez hurren. Zuzenbide Fakultateak % 14,5eko sarrera izan du, eta ia ez du aldaketarik izan (2 ikasle gehiago baino ez). Testuinguru positibo horretan, bi fakultatek izan dituzte beherakadak, gehienbat, alde batetik, Teologia Fakultateak (-% 19,2) eta, bestetik, EUMBAMek (-% 5,8), Erlijio Zientzien Goi Institutuak desagertzeko joera izanik.

Gipuzkoari dagokionez, Deustuko Unibertsitateak % 3,6ko gorakada izan du, 52 ikasle gehiago. Nahiz eta pisu gehien duten fakultateak Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (pisu erlatiboaren % 46,5) eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (partaidetzaren % 37,1) diren, beherakada txikiak izan dituzte, (-% 4,3 eta -% 1,1), eta

Psikologia Fakultateak (% 62,9ko gorakada) eta Zuzenbide Fakultateak (% 55,2ko gorakada) moteltzen dute beherakada, nahiz eta sarrera txikiagoa izan (% 13,3 eta % 3).

**204. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 14/15 ikasturtea | 15/16 ikasturtea (*) | % | ∆% aurreko urtea |
|---|---|---|---|---|
| **Goi Eskola Politeknikoa** | **1.300** | **1.239** | **100,0** | **-4,7** |
| Industria Antolaketako Ing. Gradua | 146 | 135 | 10,9 | -7,5 |
| Industria Elektronikako Ing. Gradua | 153 | 124 | 10,0 | -19,0 |
| Informatikako Ing. Gradua | 82 | 83 | 6,7 | 1,2 |
| Telekomunikazio Sistemen Ing. Gradua | 43 | 45 | 3,6 | 4,7 |
| Ing. Mekanikoko Gradua | 396 | 330 | 26,6 | -16,7 |
| Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Gradua | 260 | 239 | 19,3 | -8,1 |
| Energiaren Ing.(**) | 102 | 123 | 9,9 | 20,6 |
| Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ing. | 40 | 45 | 3,6 | 12,5 |
| Ing. Biomedikoa (**) | 78 | 115 | 9,3 | 47,4 |
| **Giza eta Hezkuntza Zientzietako F.** | **1.094** | **1.048** | **100,0** | **-4,2** |
| Haur Hezkuntzako Gradua | 334 | 326 | 31,1 | -2,4 |
| Lehen Hezkuntzako Gradua | 576 | 539 | 51,4 | -6,4 |
| Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua | 174 | 183 | 17,5 | 5,2 |
| Psikopedagogiako Lizentziatura (2. zikloa)(***) | 10 | -- | -- | -- |
| **Enpresa Zientzien F.** | **766** | **913** | **100,0** | **19,2** |
| Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua | 399 | 415 | 45,5 | 4,0 |
| Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua | 367 | 498 | 54,5 | 35,7 |
| **Gastronomia Zientzien F.** | **353** | **397** | **100,0** | **12,5** |
| Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak | 353 | 397 | 100,0 | 12,5 |
| **Guztira** | **3.513** | **3.597** | **100,0** | **2,4** |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*(**): 13/14 ikasturtetik aurrera eskainitako titulazioak.*
*(***): 15/16 ikasturtean iraungita egon diren titulazioak.*
*Iturria: Mondragon Unibertsitatea.*

Unibertsitate-eskaintzarekin amaitzeko, Mondragon Unibertsitateari dagokionez, % 2,4ko gorakada izan du, eta ikasgeletan, guztira, 3.597 ikasle izan ditu.

Goi Eskola Politeknikoarekin hasteko, Mondragon Unibertsitateko ikasleen % 34,4 du; ikasturte honetan beherakada egon da ikasle-kopuruan, % 4,7koan, nahiz eta Goi Eskola Politeknikoak eskainitako titulazio berriek, 13/14 ikasturtetik aurrera indarrean daudenek, gorakada dinamikoak izan, Ingeniaritza Biomedikoan (% 47,4), Energiaren Ingeniaritzan (% 20,6) eta Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritzan (% 12,5) kasuan, besteak beste, horiek ez dira nahikoak izan pisu gehien duten fakultateetan egon diren beherakadei aurre egiteko. Hau da, Industria Antolaketako Ingeniaritzako Graduak, Industria Elektronikako Graduak, Ingeniaritza Mekanikokoak eta Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzak (batera % 66,8ko pisu zehatza dute) murrizketak izan dituzte, % 19 eta % 7,5 bitartekoak.

Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea dela eta (% 29,1eko ordezkaritza du), bilakaera desegokia izan du (-% 4,2). Ikus-entzunezko Komunikazioko Graduak baino ez du bilakaera positiboa izan (% 5,2), eta ikasleen erdiak baino gehiagok ikasten duten Lehen Hezkuntzako ikasleetan eta Haur Hezkuntzakoetan beherakadak egon dira (-% 6,4 eta -% 2,4). Gainera, Psikopedagogiako Lizentziatura (2. zikloa) ikasturte honetan emateari uzten zaio.

Enpresa Zientzien Fakultateak, % 25,4ko pisu zehatza du, eta gorakada izan du (% 19,2), Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan egon diren gorakaden ondorioz, eta bilakaera oso positiboa izan da (% 35,7), Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza titulazioan bezala, nahiz eta azken horretan txikiagoa izan den (% 4).

Azkenik, Gastronomia Zientzien Fakultateak, aurreko ikasturteko hazkuntza-erritmoa moteldu badu ere, oso emaitza positiboei eutsi die, eta % 12,5 egin du gora ikasle-kopuruak, partaidetza guztira % 11koa izanik.

# 3. GARRAIOA

## 3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Garraioaren kapituluko analisiari ekiteko, Euskal Herriko trenbide bidezko garraioa aztertzen hasiko gara. Esparru horretan, 2015ean azken urteetako beheranzko joera eten egin zen, eta goranzko aldakuntza txiki bat egon zen bidaiarien kopuruan (% 0,1). Balio absolutuei dagokienez, Euskal Herrian lan egiten duten bi enpresen artean (Renfe eta EuskoTren), bidaiarien guztizko kopurua 27.032 mila pertsonakoa izan zen. Gogorarazi behar da 2012ko abenduaren 31tik FEVE desagertu egin zela enpresa gisa, eta Renfen eta Adifen sartu zela.

**205. koadroa Bidaiarien mugimendua***

| Urtea | Bidaiariak (m) | % ∆ |
|---|---|---|
| 2011 | 30.553 | -5,3 |
| 2012 | 29.445 | -3,6 |
| 2013 | 27.601 | -6,3 |
| 2014 | 27.010 | -2,1 |
| 2015 | 27.032 | 0,1 |

*(*): RENFEren datuak Bilboko aldiriko trenetako bidaiariei bakarrik dagozkie.*
*Iturria: RENFE eta EuskoTren.*

Informazioa konpainien arabera bereizten badugu, EuskoTrenek jarraitzen du Euskal Herriko bidaiari gehien mugitzen dituen konpainia izaten; zehazki, % 58,3ko partaidetza du guztizkoaren gainean (2014an % 58,4koa). 2014an gertatu bezala, bidaiarien kopuruak gora egin du pixka bat EuskoTrenen, nahiz eta gorakada hori ia nabaritu ere ez den egiten (7 erabiltzaile gehiago). Hala, 15,8 milioi erabiltzaile izan ditu guztira. RENFEri dagokionez, % 37,7ko partaidetza izan du, eta gorakada txiki bat erregistratu da bere jardueran 2015ean (% 0,6koa). Hala, 10.183 mila bidaiari izan ditu. Egoera hori ikusita, esan dezakegu eten egin dela azken urteotako beheranzko joera. Azkenik, RENFEk urtetik urterako beheranzko aldakuntza (-% 3,7) izan du azken ekitaldian bere Bilbo-Balmaseda linean (lehengo FEVE). Zehazki, 1.066 mila bidaiari izan ditu; alegia, guztizko bidaiari-mugimenduaren % 3,9. Hori horrela, 2015ean 27.032 mila pertsonak erabili dute trenbide bidezko garraio-zerbitzua. Zifra hori 2014an erregistratutakoaren oso antzekoa da.



LABORAL kutxa

**206. koadroa Bidaiarien mugimendua, konpainien arabera**

(m)

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % Δ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| RENFE[1] | 10.719 | 10.127 | 10.183 | 0,6 |
| • Bilbo-Balmaseda[2] | 1.150 | 1.107 | 1.066 | -3,7 |
| EuskoTren | 15.732 | 15.776 | 15.783 | 0,0 |
| **Guztizkoa** | **27.601** | **27.010** | **27.032** | **0,1** |

*(1): RENFEren datuak Bilboko aldiriko trenetako bidaiariei bakarrik dagozkie.*
*(2): Lehengo FEVE.*
*Iturria: Sustapen Ministerioa, EuskoTren, FEVE eta Eusko Jaurlaritza.*

Diru-bilketari dagokionez, eskuragarri ditugun datuek adierazten dute ez dela aldaketa handirik egon 2014. urtearekin alderatuta. 2014 ekitaldia onuragarria izan zen Euskal Herrian lan egiten duten bi konpainientzat, eta 2015ak ere egonkortasuna du ezaugarri, beherakada hauek besterik ez baitira erregistratu: % 0,4 RENFEk eta % 0,1 EuskoTrenek. Beraz, RENFEk 9,2 milioi euro bildu ditu aztergai dugun urtean, eta EuskoTrenek 25,9 milioi euro.

**207. koadroa Bidaiarien garraioaren ondoriozko diru-bilketa**

(m eurotan)

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % Δ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| RENFE* | 8.743,4 | 9.208,2 | 9.170,70 | -0,4 |
| EuskoTren** | 24.762,7 | 25.958,3 | 25.943,10 | -0,1 |
| **Guztizkoa** | **33.506,1** | **35.166,5** | **35.113,80** | **-0,1** |

*(*): RENFEren datuak Bilboko aldiriko trenetako bidaiariei bakarrik dagozkie.*
*(**): Trenaren, tranbien eta autobusen diru-bilketa barne hartzen du.*
*(--): Ez geneukan daturik txosten hau egiterakoan.*
*Iturria: Sustapen Ministerioa, EuskoTren eta Eusko Jaurlaritza.*

Orain, jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten salgaien kopurua aztertuko dugu. Datuak gainetik begiratuta, argi ikus daiteke enpresek ez dutela bilakaera bera izan. RENFEk % 76,5eko partaidetza izan du guztizkoan, eta bere jarduerak behera egin du pixka bat (-% 2,7). FEVEk, berriz, salgaien garraioaren % 23,2 hartzen du bere gain, eta % 7,1 hobetu ditu 2014an erregistratutako datuak. Horrenbestez, 2015ean 2.459,9 mila tona garraiatu ditu lehenengoak eta 745,4 mila tona bigarrenak. Azkenik, EuskoTrenek gainerakoek baino balio askoz ere baxuagoak izan baditu ere, hazkunde esponentziala izan du salgaien garraioan (% 2.667). Nabarmendu behar da EuskoTrenen kasuan abiapuntuko balioak oso baxuak direla; izan ere, 2014an 300 tona erregistratu ziren, eta 2015ean 8.300. Hori horrela, hiru euskal operadore logistikoen baterako jarduerak beherakada txiki bat izan du, 3.213,6 mila tonara arte jaitsiz (-% 0,3). Beherakada horren arrazoi nagusia RENEk izandako beherakada izan da; hain zuzen ere, konpainia horrek guztizkoari egiten dion ekarpena oso handia da, beraz, argi eta garbi baldintzatzen du guztizko zenbatekoa.

**208. koadroa  Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten salgaien bolumena***

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| RENFE | 2.375,5 | 2.528,4 | 2.459,9 | -2,7 |
| FEVE | 835,8 | 695,9 | 745,4 | 7,1 |
| EuskoTren | 0,5 | 0,3 | 8,3 | 2.666,7 |
| **Guztizkoa** | **3.211,8** | **3.224,6** | **3.213,6** | **-0,3** |

*(*): Edukiontziak ez dira sartzen.*
*Iturria: RENFE, EuskoTren eta FEVE.*

Sektorean lanean ari diren langileen datuak aztertzen baditugu, gogorarazi behar da 2013tik FEVEko langileak RENFEn sartuta daudela. Hori horrela, RENFEren langileen azken bilakaerak behera egin du pixka bat (-% 1,5); hala, konpainiak 666 langile ditu egun. EuskoTrenek langile gehiago dituela kalkulatzen da, 920 inguru, eta mugimendu gutxi izan du aurreko biurtekoarekin alderatuta. Beraz, esan daiteke enpresa egonkor mantendu dela adierazle horri dagokionez.

**209. koadroa  Trenbide bidezko garraioaren sektoreko langileak**

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| RENFE(*) | 699 | 676 | 666 | -1,5 |
| EuskoTren | 919 | 921 | 920 | -0,1 |
| **Guztizkoa** | **1.618** | **1.597** | **1.586** | **-0,7** |

*(*): 2013tik, RENFEren eta FEVEren enpleguak elkarrekin zenbatzen dira.*
*Iturria: RENFE, EuskoTren, FEVE eta Eusko Jaurlaritza.*

Atal hau amaitzeko, jarraian trenaren sektorean izandako gertakaririk azpimarragarrienak ikus daitezke. Euskal Y-a 2019an amaitzea aurreikusten da; alabaina, 2015 ekitaldiaren amaieran hainbat alderdi irekita geratu dira, eta, ondorioz, baliteke aurreikusitako egutegia ezin bete izatea. Lehen alderdietako batek lotura du Eusko Jaurlaritzarekin; izan ere, 2016ko lehen hiruhilekoan, aldi baterako eten egin ditu Gipuzkoako ibilbideko hainbat zatitako lanak, proiektuetan aldaketak egiteko. Neurri horren eraginak jasan dituzte honako tarte hauek: Antzuola-Ezkio mendebaldea, Antzuola-Ezkio ekialdea, Hernialde-Zizurkil eta Zizurkil-Andoain. Lanak berriro martxan jarriko dira Adifek eta Eusko Jaurlaritzak aldatutako proiektu bakoitza onesteko beharrezkoak diren administrazio-izapide guztiak burutzen dituztenean. Lanetan sortzen ari diren arazo horiei guztiei gehitu behar zaie, halaber, Hernani-Astigarraga zatia geldituta dagoela. Dirudienez laster ekingo zaio berriz ere azken zati horri. Dena den, Euskal Trenbide Sareak (ETS), Gipuzkoako AHTaren adarra gauzatzen ari den sozietateak, aurreikusten du 2016rako Gipuzkoako adarraren 17 zatietatik 3 bakarrik egongo direla egiteke. Oraingoz, 1.854 milioi euro inbertitu dira Gipuzkoako adarra egiteko.

Horrez gain, Y-a egitean sortu diren arazo nagusietako beste batek lotura du Bergarako korapiloarekin. Bertan, lanei ez zaie ekin bi zatitan, lizitazioaren balioaren % 50 inguruko "beherakada ausartegiekin" esleitu zirelako. Adifek, obraren arduradun den heinean, AHTaren Bergarako bost lizitazioak bertan behera uztea proposatu du, eta 500 milioi euroko proiektu bakar bat lehiaketara ateratzea pentsatzen ari dira. Lizitazio hori Euskal Herrian egin den obra publikoen inoizko lizitaziorik handiena izango litzateke. Lizitatutako kopuru hori Y-aren guztizko kostuaren % 10 izango litzateke, eta eremu horretarako aurreikusitako zifra bikoiztu egingo luke. Egoera erabaki politiko baten mende dago eta, hori konponduko balitz ere, ia ezinezkoa izango litzateke aurreikusitako epeak betetzea. Zentzuzkoagoa da pentsatzea euskal Y-aren azpiegiturak 2020. eta 2021. urteen artean amaituko direla.

**Bilboko Metroa**

Bilboko Metroak datu positiboekin amaitu du 2015 ekitaldia (87.536 mila bidaiari guztira); hala, berretsi egin du 2014an erregistratuko hoberanzko joera. Ekitaldi honetan, metroak 138.421 erabiltzaile gehiago izan ditu, eta kontuan izan behar da, gainera, 2015ean 2014an baino lanegun bat gutxiago egon dela. Azken bi urteotako balantze positibo horrek berretsi egiten du garraiobide horrek erabiltzaileen artean duen harrera ona. Hain zuzen ere, 2012-2013 biurtekoan bakarrik egin zuen behera bidaiarien kopuruak metroak martxan daramatzan 20 urteetan.

**210. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan**

| Urtea | Bidaiariak (m) | % Δ |
|---|---|---|
| 2006 | 79.780 | 2,5 |
| 2007 | 85.864 | 7,6 |
| 2008 | 86.333 | 0,6 |
| 2009 | 87.043 | 0,8 |
| 2010 | 88.556 | 1,7 |
| 2011 | 89.616 | 1,2 |
| 2012 | 87.615 | -2,2 |
| 2013 | 87.133 | -0,6 |
| 2014 | 87.397 | 0,3 |
| 2015 | 87.536 | 0,2 |

*Iturria: Bilboko Metroa.*

Datuak sakonago aztertzen baditugu eta bidaiarien mugimenduari erreparatzen badiogu, abenduan erregistratu dira baliogabetze gehien: guztira 7.931.163 bidaia egon dira; beraz, hobetu egin da lehen postua zuen 2014ko urriko marka (7.910.584). Horrez gain, ohikoa den moduan, Bilboko Metroak Santo Tomas egunean erregistratu zituen bidaia gehien (380.463), nahiz eta 2014ko zifren azpitik geratu zen (386.225 baliogabetze).

Azterketarekin aurrera jarraituz, eta geltokien araberako bidaiarien banaketari dagokionez, 2015ean Moyua izan da jarduera handieneko geltokia: 6.220.196 bidaiari eta % 7,1eko garrantzi espezifikoa izan ditu. Gertutik jarraitzen dio Indautxuk, antzeko bidaiari kopuruarekin: 6.184.740, eta guztizkoaren gaineko partaidetza ia berdina (% 7,07). Jarraian daude, garrantzi espezifiko oso antzekoarekin, Abando, San Mamés eta Alde Zaharra (bidaiarien guztizkoaren % 7, % 6,9 eta % 6,5, hurrenez hurren). Bost geltoki nagusi horiek bidaiarien mugimenduaren % 34,6 hartzen dute; alegia, guztira 30 milioi baliogabetze urtean. Erabiltzaile gutxieneko geltokiak, aldiz, hauek dira: Urduliz, Urbinaga eta Plentzia (% 0,1 inguruko partaidetza txikiekin).

**211. koadroa Bilboko Metroko bidaiarien banaketa, geltokien arabera (2015)**

| Geltokia | % | Geltokia | % |
|---|---|---|---|
| Moyua | 7,1 | Bidezabal | 1,6 |
| Indautxu | 7,1 | Peñota | 1,5 |
| Abando | 7,0 | Basauri | 1,5 |
| San Mamés | 6,9 | Astrabudua | 1,5 |
| Alde Zaharra | 6,5 | Bolueta | 1,4 |
| Santutxu | 5,3 | Ansio | 1,4 |
| Deusto | 4,7 | Leioa | 1,2 |
| Barakaldo | 4,1 | Sopelana | 1,1 |
| Gurutzeta/Cruces | 4,0 | Kabiezes | 1,0 |
| Areeta | 3,8 | Gobela | 0,9 |
| Sarriko | 2,7 | Abatxolo | 0,9 |
| Algorta | 2,7 | Neguri | 0,8 |
| Santurtzi | 2,7 | Larrabasterra | 0,5 |
| Sestao | 2,7 | Aiboa | 0,5 |
| San Inazio | 2,6 | Berango | 0,4 |
| Basarrate | 2,5 | Lutxana | 0,4 |
| Portugalete | 2,4 | Lamiako | 0,3 |
| Bagatza | 2,2 | Plentzia | 0,1 |
| Ariz | 2,2 | Urbinaga | 0,1 |
| Erandio | 1,9 | Urduliz | 0,1 |
| Etxebarri | 1,6 | | |

*Iturria: Bilboko Metroa.*

Orain, geltoki bakoitzaren bilakaera aztertuko dugu. Mugimendu gehien dutenak ez badira ere, Lutxana eta Kabiezes geltokiak nabarmendu behar dira, multzoko urtetik urterako aldakuntza handiena izan baitute (% 114,2 eta % 100,4, hurrenez hurren). Kabiezes geltokia 2. lineako geltoki berrienetakoa da (2014ko ekainak 28). Gorakada nabarmena izan du, halaber, Sopelako geltokiak, % 61ekoa hain zuzen ere (2014an baino 358.152 erabiltzaile gehiago). Urbinaga eta Boluetak ere bilakaera positiboa izan dute, motelagoa izan bada ere (% 9 eta % 8,2, hurrenez hurren). Gainerako geltokietako erabiltzaileen kopuruek oso gorakada edo beherakada txikiak izan dituzte, hauek izan ezik: Plentzia (-% 82,2), Urduliz (-% 75,6) eta Santurtzi (-% 11,1). Horiek nabarmentzeko moduko beherakadak izan dituzte.



LABORAL kutxa

Guneen araberako bidaiarien banaketari dagokionez, 2. lineak Kabiezes geltoki berriaren onura jaso du (% 0,6 egin dute gora bertako bidaiek). Zehazki, 35.932.724 bidaiari ibili dira guztira linea horretan, Metroko erabiltzaile guztien % 41,1. Enbor komuna da erabiltzaile gehien dituen bigarren linea, eta bertako erabiltzaileak % 1,6 areagotu dira 2015ean. Hain zuzen ere, 26.233.567 izan dira guztira; alegia, trafikoaren % 30. Azkenik, 1. lineak % 24,9ko garrantzi espezifikoa izan du (21.838.260 bidaiari), eta % 2 bidaiari inguru galdu ditu. Erabiltzaile gehieneko tarteei dagokienez, lehenengoa Abando-Santutxu da (734.525 aldiz egin da), bigarrena Alde Zaharra-Santutxu (634.525 baliogabetze) eta ondoren Moyua-Santutxu (592.130 baliogabetze).

Bilboko Metroko bidaiarien txartelen erabilerari dagokionez, 2015ean ez da igoerarik egon horien prezioan. Beste behin ere Creditrans txartela izan da garraio-titulu erabiliena; izan ere, hori erabili dute erabiltzaile guztien % 52,9k. Gehien erabili den hurrengo garraio-titulua hileko bonua izan da (% 13,9), eta, ondoren, Gizatrans txartela (% 12,9ko garrantzi espezifikoa). Garraio-titulu horren ezaugarri nagusia da tarifa murriztua eskaintzen diela 65 urtetik gorakoei eta baliaezintasun edo desgaitasunen bat dutenei. Super 50 txartela erabiltzen dute erabiltzaileen % 7,9k, urteko txartela % 5,5ek eta joanaldikoa % 2,7k. % 3 baino gutxiagoko erabilera dute, halaber, beste garraio-titulu batzuek (% 2,4), hileko Gazte txartelak (% 1,2) eta EuskoTrenekin baterakoak (% 0,6).

Bilboko Metroarekin amaitzeko, bere 20. urteurrenean zabaltzen jarraitzeko lanek aurrera jarraitu dute; zehatzago esanda, obrak egin dira 3. linean, Bilbo eskualde gehiagotara gerturatzeko. Era berean, obrei dagokienez, Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko eta kentzeko lanei ekin zaie; horri esker, udalerriko berdeguneak zabaldu ahal izango dira. Horrez gain, Ibarbengoa geltokiaren inguruan aparkaleku bat eraikitzeko egokitze-lanak planifikatzen ari dira. Halaber, 2015 geltokietan urte osoan zehar WIFI zerbitzua eskaini duen lehen urtea izan da metroaren historian; 3.100.000 konexio baino gehiago erregistratu dira.

## 3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Kapituluarekin aurrera eginez eta errepide bidezko garraioari dagokionez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) emandako datuen arabera, jarduerak gora egin du pixka bat. Adierazle nagusiak, ibilgailuen parkeari dagokionak, gora egin du zertxobait (2014an baino 413.636 unitate gehiago). Hala, guztira 31.389.683 ibilgailu izan dira. Euskal Herrian ere gora egin du ibilgailuen parkeak, estatu-mailan baino gorakada motelagoa izan bada ere (% 0,9). Guztira, 15.620 unitate gehiago egon dira (guztira 1.745.543 ibilgailu). Lurraldeen araberako azterketaren arabera, bilakaerak ez dira oso nabarmenak izan,

baina nahiko homogeneoak izan dira elkarren artean. Gipuzkoan % 1,1eko gorakada erregistratu da, Nafarroan % 0,9koa eta Araban eta Bizkaian % 0,8koa.

Probintzia bakoitzeko garrantzi espezifikoari dagokionez, 2014an ikusitako egitura ia berari eutsi zaio. Bizkaiak izan du partaidetzarik handiena (% 37,7), eta atzetik egon dira Gipuzkoa eta Nafarroa, garrantzi erlatibo oso antzekoekin (% 25,6 eta % 25,0, hurrenez hurren); azkenik, Araba dugu, % 11,7rekin. Guztira, Euskal Herriak % 5,6ko ekarpena egiten dio Estatuko ibilgailuen parkeari.

Azterketarekin jarraituz, eta ibilgailu motaren araberako bilakaerari dagokionez, aldaketa gutxi egon dira estatu-mailan. Autoetatik hasiko gara: guztizkoaren % 71,2 dagokie eta % 1,5eko gorakada izan dute aurreko ekitaldiko balioekin alderatuta. Kamioiek % 15,5eko partaidetza izan dute eta ez dute ia aldaketarik izan 2014arekin alderatuta (% 0,2ko gorakada txiki bat besterik ez). Motoek % 10 inguruko partaidetza izan dute, eta balantze positiboarekin itxi dute urtea, haien balioak % 3,6 egin baitu gora. Industria-traktoreek eta autobusek partaidetza txikia dute ibilgailuen parkean (% 0,6 eta % 0,2, hurrenez hurren), eta joera orokorrari jarraitu diote, intentsitate desberdinetako gorakadak erregistratuz (% 5,2 eta % 0,8, hurrenez hurren).

Informazioa ibilgailu motaren eta lurraldearen arabera banatzen badugu, urtero bezala, Bizkaian daude kamioi gehien (% 33,7), autobus gehien (% 44,4) eta auto gehien (% 39,5). Gipuzkoak berriz, adierazlerik altuena du motoei dagokienez (% 36,1), eta Nafarroako Foru Erkidegoak industria-traktoreei dagokienez (% 35,5).

**212. koadroa  Ibilgailuen parkea**

*(unitateak)*

| Eremua | Kamioiak | | Autobusak | | Autoak | | Motoak | | Ind.-traktoreak | | Beste batzuk | | Guztizkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Araba | 30.265 | 29.867 | 523 | 503 | 148.436 | 150.062 | 14.074 | 14.702 | 1.116 | 1.156 | 7.765 | 7.591 | 202.179 | 203.881 |
| Bizkaia | 87.426 | 87.049 | 1.751 | 1.764 | 493.456 | 497.528 | 48.239 | 49.957 | 3.450 | 3.475 | 18.734 | 18.508 | 653.056 | 658.281 |
| Gipuzkoa | 65.270 | 63.966 | 904 | 895 | 304.802 | 308.580 | 52.588 | 54.669 | 3.065 | 3.127 | 15.879 | 15.951 | 442.508 | 447.188 |
| EAE | 182.961 | 180.882 | 3.178 | 3.162 | 946.694 | 956.170 | 114.901 | 119.328 | 7.631 | 7.758 | 42.378 | 42.050 | 1.297.743 | 1.309.350 |
| Nafarroa | 77.899 | 77.178 | 817 | 812 | 299.536 | 303.975 | 31.224 | 32.166 | 4.043 | 4.267 | 18.661 | 17.795 | 432.180 | 436.193 |
| Euskal Herria | 260.860 | 258.060 | 3.995 | 3.974 | 1.246.230 | 1.260.145 | 146.125 | 151.494 | 11.674 | 12.025 | 61.039 | 59.845 | 1.729.923 | 1.745.543 |
| Espainia | 4.839.484 | 4.851.518 | 59.799 | 60.252 | 22.029.512 | 22.355.549 | 2.972.165 | 3.079.463 | 186.060 | 195.657 | 889.027 | 847.244 | 30.976.047 | 31.389.683 |
| EH/Espainia % | 5,4 | 5,3 | 6,7 | 6,6 | 5,7 | 5,6 | 4,9 | 4,9 | 6,3 | 6,1 | 6,9 | 7,1 | 5,6 | 5,6 |

*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.*

Kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazioari dagokionez, aurreko ekitaldiko portaera bera errepikatzen da, bilakaera motelagoa bada ere. Hala, adierazleek berriz ere behera egin dute, bai Estatuan bai Euskal Herrian. Zehatzago



LABORAL kutxa

esanda, Euskal Herrian beherakada hori 2.470 matrikulaziokoa izan da, eta zifra 22.084 unitatera iritsi da Estatuan (2014an, -5.244 eta -44.723, hurrenez hurren). Azterketa hori bera egiten badugu lurraldeen arabera, agerian geratzen da matrikulazio garbiak beheranzko joera duela, eta joera hori aztergai ditugun lau lurraldeetara zabal dezakegu, nahiz eta beherakada aurreko ekitaldian baino txikiagoa izan den. Gipuzkoak jasan du beherakadarik handiena (-1.251 unitate), eta ondoren Nafarroak (-502) eta Arabak (-378). Bizkaia izan da beherakadarik txikiena izan duen lurraldea (-339 unitate).

**213. koadroa Kamioei, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbia***

*(unitateak)*

| Eremua | Kamioiak eta industria-traktoreak | | Autobusak | | Guztizkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Araba | -681 | -358 | -14 | -20 | -695 | -378 |
| Bizkaia | -1.368 | -352 | 38 | 13 | -1.330 | -339 |
| Gipuzkoa | -1.723 | -1.242 | 34 | -9 | -1.689 | -1.251 |
| EAE | -3.772 | -1.952 | 58 | -16 | -3.714 | -1.968 |
| Nafarroa | -1.505 | -497 | -25 | -5 | -1.530 | -502 |
| Euskal Herria | -5.277 | -2.449 | 33 | -21 | -5.244 | -2.470 |
| Espainia | -44.630 | 21.631 | -93 | 453 | -44.723 | 22.084 |

*(*): Parkearen urtetik urterako aldakuntza.*
*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.*

Orain motorizazio-indizeak (ibilgailu kopurua mila biztanleko) aztertuko ditugu. 2014an gertatu bezala, goranzko mugimendu txikiak egon dira adierazle horretan. Euskal Herri osoan, adierazlea 623 ibilgailukoa da 1.000 biztanleko (2014an 617). Kopuru horrek gora egin badu ere, Estatuko batezbestekoaren (2015ean 676 eta 2014an 666) azpitik egoten jarraitzen du. Aztergai ditugun lau lurraldeen artean, Nafarroak du tasarik altuena, 1.000 biztanleko 685 ibilgailurekin (2014an 679). Atzetik jarraitzen diote Arabak, 636 ibilgailurekin (2014an 632), Gipuzkoak, 632 ibilgailurekin (2014an 626), eta, azkenik, Bizkaiak, 579 ibilgailurekin (2014an 573).

Auto bakoitzeko biztanle kopurua neurtzen duen adierazleari dagokionez, oro har, 2014ko balio bera errepikatu da, Araban izan ezik; bertan, hamarren bat jaitsi da iazko zifra. Hori horrela, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren portaera iazkoaren antzekoa da; 2,3 biztanle autoko. Arabako eta Nafarroako zifrak jaitsi egin dira 2,1era arte (Estatu osoko balioaren berdina).

**214. koadroa Motorizazio-indizeak**

| Eremua | Ibilgailuak/1.000 biztanle | | Biztanleak/auto | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Araba | 632 | 636 | 2,2 | 2,1 |
| Bizkaia | 573 | 579 | 2,3 | 2,3 |
| Gipuzkoa | 626 | 632 | 2,3 | 2,3 |
| EAE | 599 | 605 | 2,3 | 2,3 |
| Nafarroa | 679 | 685 | 2,1 | 2,1 |
| Euskal Herria | 617 | 623 | 2,2 | 2,2 |
| Espainia | 666 | 676 | 2,1 | 2,1 |

*Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta gu geu.*

Azterketa sakonagoa eginez eta errepide bidezko salgaien garraioari dagokionez, Errepideko Salgaien Garraioaren Inkesta Iraunkorreko[1] informazioaren arabera, sendotu egin da 2014an erregistratutako joera positiboa, bai estatu-mailako adierazlean bai Euskal Herrian; ez, ordea, EAEn. Salgaiek % 8,2 egin dute gora estatu-mailan, eta 971.617 mila tonara iritsi dira. EAEn, aurreko ekitaldian ez bezala, % 4,4ko beherakada egon da; horren arrazoi nagusietako bat izan da eskualde barneko garraioaren jarduera % 20,9 murriztu izana. Nafarroan, eskualde barneko nahiz eskualde arteko garraioak bilakaera oso ona izan dute (% 33 eta % 35, hurrenez hurren). Beraz, baterako balantzea oso positiboa izan da. Hori horrela, urtearen amaieran urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da Euskal Herrian (% 5,8); izan ere, eskualde arteko garraioan erregistratutako gorakadak (% 20,2) konpentsatu egin du eskualde barneko garraioaren murrizketa (-% 10,9).

**215. koadroa Garraiatutako salgaiak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barneko eta eskualde arteko garraioa jatorrizko eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera**

*(mila Tm)*

| Eremua | EAE | | Nafarroa | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Eskualde barneko garraioa | 41.170 | 32.581 | 9.338 | 12.423 | 50.508 | 45.004 | 632.384 | 676.312 |
| Eskualde arteko garraioa | 39.321 | 44.396 | 19.166 | 25.882 | 58.487 | 70.278 | 265.780 | 295.305 |
| **Guztizkoa** | **80.491** | **76.977** | **28.504** | **38.305** | **108.995** | **115.282** | **898.164** | **971.617** |

*Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Buletina.*

EAEn, 76.977 mila tona garraiatu dira guztira errepidez; hala, ekitaldiaren amaierako zifrek behera egin dute (-% 4,4). Eskualde arteko garraioak gora egin du (% 12,9), % 57,7ko garrantzi erlatiboarekin, baina hori ez da nahikoa izan balantza orekatzeko; izan ere, eskualde barneko garraioak beherakada nahiko nabarmena izan du (-% 20,9).

[1] Ikuspegi metodologikotik, inkesta Trenbideen eta Errepide Bidezko Garraioaren Zuzendaritzak baimendutako ibilgailu astunei dago zuzenduta (errepide bidezko garraioa egiteko direnak eta ezaugarri hauek dituztenak: 3,5 Tm-ko karga-edukiera erabilgarria eta 6 Tm baino gehiagoko gehieneko pisu baimendua).

Nafarroak, lehen aipatu dugun moduan, profil oso dinamikoa izan du esparru horretan, % 34,4ko urtetik urterako aldakuntza izan baitu. Bi partidek modu bertsuan izan dute zerikusia gorakada horretan, eta 38.305 mila tonako trafikoa sortu dute. Estatuan jarduerak % 8,2 egin du gora; alegia, garraiatutako tonak 971.617 milara iritsi dira. Hazkundea izan dute, halaber, eskualde arteko garraioak (% 11,1eko gorakada) eta eskualde barnekoak (% 6,9ko gorakada). Azken hori da, hain zuzen ere, jardueraren % 70en erantzule.

Errepideko garraioarekin amaitzeko, hiriko garraioaren datu esanguratsuenak ikus ditzakegu jarraian. Datu horiek euskal hiriburuetako autobus-konpainiek eman dizkigute; hauek, zehazki: Bilbobus, Donostiako Tranbia Konpainia (CTSS) eta Gasteizko Hiri Garraioak (TUVISA).

**216. koadroa  Hiri-garraioa. Sektoreko oinarrizko datuak**

| Kontzeptua | Bilbo | | Donostia | | Gasteiz | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Sareko lineak (*) | 43 | 42 | 36 | 38 | 15 | 15 |
| Luzera (km) | 581,1 | 567,4 | 248,6 | 260,3 | 209,2 | 203,5 |
| Autobus-parkea | 147 | 147 | 122 | 127 | 81 | 81 |
| Langileak | 622 | 572 | 499 | 456 | 298 | 310 |

*(*): Eguneko eta gaueko lineak barne.*
*Iturria: Transportes Colectivos SA; Cía. Del Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.*

Bilbobusen datuekin hasiko gara. Datuak gainetik begiratuta, ikus daiteke aldaketa esanguratsuak egon direla 2014. urtearekin alderatuta. Horietako lehenengoak zerikusia du sareko lineekin; 43 izatetik 42 izatera igaro dira, baina ibilgailuen parke berari eutsi diote (147 autobus). Bigarren aldaketak sarearen luzerarekin du zerikusia. Hori ere murriztu egin da: 2014an 581,1 kilometro eta 2015ean 567,4. Hirugarren aldaketa langileen kopuruan gertatu da, murriztu egin baita; 2014an 622 langile ziren, eta 2015ean 527 (iaz baino 50 gutxiago).

Donostiako Tranbia Konpainiari dagokionez (CTSS), aurten ere adierazle nagusiek goranzko joera izan dute, langileenak izan ezik. Izan ere, 43 langileko beherakada egon da, eta 2015 ekitaldian 456 langile egon dira. Zerbitzua 38 linearen bitartez ematen da (2014an, 36), eta sarearen luzera ere handitu egin da, 248,6 kilometrotik 260,3 kilometrora. Testuinguru horretan, ibilgailuen parkea 5 unitate areagotu da; hala, autobusen kopurua 127ra igo da 2015ean.

Gasteizko Hiri Garraioen konpainiari dagokionez (TUVISA), 2015eko datuek agerian uzten dute aldaketa gutxi egon direla 2014tik. Alabaina, langileen kopuruari dagokion aldakuntza izan da nabarmenena. Zehatzago esanda, autobus-parkeak eta sareko

lineak ez dira aldatu (81 eta 15, hurrenez hurren), eta sarearen luzerak murrizketa txiki bat izan du (209,2 km-tik 203,5 km-ra). Langileen kopuruak, berriz, gora egin du (12 pertsona gehiago), eta 310 langilera iritsi da azken urtean.

**217. koadroa Hiriko garraioaren bilakaera**

| Kontzeptua | Bilbo | | Donostia | | Gasteiz | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Egindako km. erabilgarriak (m) | 6.306 | 6.419 | 6.213 | 6.280 | 4.337 | 4.436 |
| Garraiatutako bidaiariak (m) | 26.074 | 26.121 | 28.078 | 28.243 | 13.084 | 13.766 |
| Bildutako dirua (m euro) | 11.820 | 11.848 | 18.490 | 18.743 | 5.531 | 6.350 |
| Ustiapenaren emaitza (m euro) | -26.046 | -27.068 | -12.500 | -11.459 | -13.351 | -13.243 |
| Tarifak (euro) | 1,25/0,64 | 1,25/0,64 | 1.65/0,91 | 1.65/0,91 | 1,15/0,56 | 1,15/0,56 |

*Iturria: Transportes Colectivos SA; Cía. del Tranvía de San Sebastián SA; Transportes Urbanos de Vitoria SA.*

Bilbobusen jarduerari buruzko datuekin jarraituz, 2015ean hobetu egin dira aztergai ditugun balioak, ustiapenaren emaitza izan ezik (negatiboa izaten jarraitu du eta 27.068 mila eurora iritsi da). Egindako kilometro erabilgarriek gora egin dute eta 6.419 mila kilometrotara iritsi dira (113 mila kilometro gehiago 2015ean). Garraiatutako bidaiarien kopuruak eta diru-bilketak baterako bilakaera izan dute, % 0,2ko gorakada txiki batekin. Zerbitzuaren prezioari dagokionez, 2014an bezala, tarifek ez dute aldaketarik izan.

Donostiako garraio-konpainiaren urteko balantzea oso ona izan da, adierazle guztiek hobetu egin baitituzte 2014ko erregistroak. Beraz, urtea datu positiboekin amaitu da. Garraiatutako bidaiarien kopuruak aurreko urteko joera berdina izan du; alegia, haren fluxua % 0,6 areagotu da eta jasotako diru kopurua, berriz, % 1,4, guztira 18.743 mila eurotara iritsiz. Egindako kilometro erabilgarriei dagokienez, 67 gehiago izan dira, eta ustiapenaren emaitza negatiboa izan da ekitaldiaren amaieran (-11.459 mila euro); dena den, 2014ko zifren azpitik geratu da (-12.500 mila euro). Bilbobusen kasuan bezala, tarifek aurreko ekitaldiko berdinak izaten jarraitu dute.

Azkenik, TUVISAri dagokionez, datuek agerian uzten dute konpainiaren bilakaerak hobera egin duela eta bere homologoek baino profil dinamikoagoa erakutsi duela. Zehatzago, 2015ean egindako kilometro erabilgarriek % 2,3 egin dute gora eta TUVISAren erabiltzaileek, berriz, % 5. Bildutako diruak ere gainditu egin ditu 2014ko datuak (% 14,8 gehiago), eta tarifak ez dira aldatu aurreko urtetik. Azkenik, ustiapenaren emaitza negatiboa bada ere (-13.243 mila euro), 2014koaren azpitik geratu da.

## 3.3 ITSAS GARRAIOA

Garraioaren kapituluarekin aurrera jarraituz, itsas garraioari dagokionez, 2015 ekitaldian % 2 egin du gora mundu-mailako jarduerak. Gorakada hori aurreko biurtekoan izandakoa baino txikixeagoa izan da (% 3,7 izatetik % 3,2 izatera). ANAVEk, Espainiako Ontzi Jabeen Elkarteak, argitaratutako informazioaren arabera, 2015ean itsaso bidezko munduko merkataritza 10.718 milioi tonara iritsi zen; alegia, aurreko ekitaldian baino 207 milioi tona gehiago.

**218. koadroa Itsaso bidezko munduko merkataritza**

*(M Tm)*

| Salgaiak | 2013 | 2014 | 2015(*) | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Solteko solido nagusiak | 2.761 | 2.982 | 2.947 | -1,2 |
| Gordinak eta petrolio-produktuak | 2.793 | 2.770 | 2.898 | 4,6 |
| Edukiontzietako kargak | 1.543 | 1.638 | 1.686 | 2,9 |
| Beste solteko solido batzuk | 1.721 | 1.711 | 1.741 | 1,8 |
| Ohiko karga orokorra | 796 | 825 | 845 | 2,4 |
| Gas likidotuak | 572 | 585 | 601 | 2,7 |
| **Guztizkoa** | **10.186** | **10.511** | **10.718** | **2,0** |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Anave, Clarkson.*

Informazioa salgai motaren arabera sailkatzen badugu, 2015ean partida guztiek bilakaera positiboa izan dute, solteko solido nagusiek izan ezik. Azken horien trafikoa % 1,2 murriztu da; hortaz, urrundu egin da 2014an erregistratutako % 8ko urtetik urterako aldakuntzatik. Hala ere, munduko sailkapenean pisu handiena duen partida izaten jarraitzen du (% 27,5), nahiz eta rankingeko bigarrenetik (gordina eta petrolio-produktuak) gertuago dagoen orain. Azken horrek izan du multzoko aldakuntzarik onena (% 4,6) eta munduko trafikoaren % 27 hartzen du bere gain. Neurrizko hazkundeak nagusi dira gainerako partidetan: Edukiontzietako kargak eta Beste solteko batzuk atalek antzeko garrantzi erlatiboak dituzte (% 15,7 eta % 16,2, hurrenez hurren), baita Ohiko karga orokorra eta Gas likidotuak atalek ere, goranzko mugimendu txikiekin (% 2,4 eta % 2,7, hurrenez hurren) eta % 7,9 eta % 5,6ko garrantzi espezifikoekin.

**219. koadroa Espainiako itsas merkataritza**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|
| Esportazioak | 95.800 | 95.621 | -0,2 |
| Inportazioak | 188.271 | 199.060 | 5,7 |
| Kabotajea | 40.831 | 43.592 | 6,8 |
| **Guztizkoa** | **324.902** | **338.274** | **4,1** |

*Iturria: Anave, Estatuko Portuak.*

Analisia estatu-mailara mugatuz, jarduerak gora egin duela ikus daiteke. Gainera, hazkunde-erritmoa mundu-mailan erregistratutakoa (% 4,1) baino handiagoa da, eta ekitaldian 338.274 mila tonako salgaien trafikoa egon dela kalkulatzen da. Balantze positibo hori gertatu da bai inportazioetan bai kabotajean egon diren gorakadei esker (% 5,7 eta % 6,8, hurrenez hurren). Beheranzko mugimendu bakarraren jatorria esportazioetan dago; normalean gorakadak izaten dituzte, baina ekitaldi honetan behera egin dute pixka bat (-% 0,2).

Euskal Herriko itsas trafikoari dagokionez, erreferentziako portuen (Bilbokoa eta Pasaiakoa) informazioaren arabera, datuek oro har hobera egin dutela ikus daiteke. Horrenbestez, sektoreak hazten jarraitzen du hirugarren urtez jarraian, jardueraren dezelerazio-urteak atzean utziz.

Analisi sakonagoa eginez eta Bilboko portuaren jarduerari dagokionez, 2015ean % 6ko hazkundea erregistratu da (2014an % 3,1ekoa), eta garraiatutako tonak 32,9 milioi izan dira. Bizkaiko portua Euskal Herriko erreferentziazko portua da argi eta garbi, guztizkoaren gainean duen garrantzi erlatiboa kontuan hartuta; izan ere, euskal trafiko osoaren % 90 hartzen du. Hori esanda, 2015ean errepikatu egiten da jardueraren banaketa; hain zuzen ere, deskargak eta kargak dira nagusi portuko jarduεretan (% 62,2 eta % 36,3, hurrenez hurren), eta biek gora egin dute (% 5 inguru). Jardueraren banaketa osatzeko, tokiko trafikoa dugu (% 1,1 hartzen du), balioetan gorakada itzela jasan duena (% 492), baita hornidura ere, % 8,3 behera egin duena (partaidetza txiki-txikia du, % 0,4koa).

Pasaiako portuaren informazioaren arabera, Gipuzkoako portuak datu positiboekin eman dio amaiera ekitaldiari, nahiz eta 2014an baino hazkunde txikiagoa izan duen (% 8,3, eta aurreko ekitaldian % 18,5). Hazkunde-erritmoaren dezelerazio horren arrazoietako bat pisu gehieneko bigarren partiden (kargak) atzerakada izan da (-% 2,7); deskargek, berriz, % 61,1eko pisu espezifikoarekin, indartu egin dute sektoreko jarduera (% 16,4ko hazkundea). Horri gehitu behar zaio gainerako bi partidek (hornidura eta arrantza), partaidetza askoz ere txikiagoak badituzte ere (% 0,8 eta % 0,6, hurrenez hurren), gora egin dutela (% 11,7 eta % 2,2, hurrenez hurren).

**220. koadroa Euskal portu nagusietako trafikoa**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2013 | 2014 | 2015 |
| Deskargak | 19.247,4 | 19.421,2 | 20.464,3 | 1.671,6 | 1.990,3 | 2.316,1 |
| Kargak | 10.353,4 | 11.399,2 | 11.935,6 | 1.234,4 | 1.461,9 | 1.422,4 |
| Tokiko trafikoa | 348,3 | 60,6 | 359,0 | -- | -- | -- |
| Hornidura | 122,2 | 126,4 | 115,9 | 27,7 | 28,3 | 31,6 |
| Arrantza | 0 | 0 | 0 | 21,9 | 22,7 | 23,2 |
| **Guztizkoa** | **30.071,3** | **31.007,4** | **32.874,8** | **2.955,6** | **3.503,2** | **3.793,3** |

*Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiako Portu Agintaritza.*

Analisiarekin jarraituz eta, zehatzago, Bilboko portuko salgaien trafikoa osatzen duten elementuak aztertuz, petrolio-produktuak dira nagusi sektoreko jardueran. Hain zuzen ere, trafikoaren % 46,6 hartzen dute. Ondoren, solteko solidoak ditugu, % 14 inguruko partaidetzarekin. Kasu horretan, partida nagusiek alderantzizko ordenan izan dute bilakaera (% 9,2 eta -% 1,4, hurrenez hurren). Beste solteko likido batzuen jarduera, % 8,8ko partaidetzarekin, nabarmen areagotu da 2015ean (% 24,3), eta joera hori bera izan dute gainerako salgaiek ere, izugarrizko hazkundearekin (% 154). Alabaina, salgai orokorrek % 2,1 egin dute behera.

Pasaiako portuan analisi hori bera eginez gero, ikus dezakegu Gipuzkoako kaiko salgaien trafikoak ez duela zerikusirik Bilbokoarekin. Bertan, protagonismo handieneko partida salgai orokorrei dagokie, eta atzetik dituzte solteko solidoak; bi multzo horien artean dago banatuta jardueraren zatirik handiena (% 53,9 eta % 44,7, hurrenez hurren). Gainera, 2015ean bi talde horien balioek gora egin dute (% 5,2 eta % 12,3, hurrenez hurren). Gainerako partidek gora egiten jarraitzen badute ere, ez dute ia partaidetzarik portuko trafiko orokorrean.

**221. koadroa Salgaien guztizko trafikoaren osaera**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2013 | 2014 | 2015 |
| Petrolio-produktuak | 12.930,6 | 14.026,6 | 15.319,1 | -- | -- | 0,08 |
| Beste solteko likido batzuk* | 2.830,8 | 2.318,3 | 2.880,7 | -- | -- | -- |
| Solteko solidoak | 4.421,6 | 4.594,0 | 4.528,2 | 1.212,2 | 1.509,0 | 1.694,3 |
| Salgai orokorrak | 9.417,7 | 9.881,5 | 9.671,8 | 1.693,8 | 1.943,2 | 2.044,2 |
| Gainerakoak | 470,6 | 187,0 | 474,9 | 49,6 | 51,0 | 54,8 |
| **Guztizkoa** | **30.071,3** | **31.007,4** | **32.874,7** | **2.955,6** | **3.503,2** | **3.793,4** |

*(*): Datua gas naturalaren eta beste solteko likido batzuen baturari dagokio.*
*Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiako Portu Agintaritza.*

Kanpoko trafikoari eta kabotajeari dagokionez, EAE osoan gora egin dute aztertutako adierazleek, eta aurreko ekitaldiko jokabide-eredu bera errepikatzen da (% 5,4 bai

2014an bai 2015ean). Nabarmendu behar da 2014an adierazle guztiek gora egin zutela, baina 2015ean aldakuntza negatibo batzuk egon direla Pasaian; alabaina, EAE osoari dagokionez, aldakuntza horiek konpentsatuta geratu dira, Bilboko jarduera positiboari esker. Hori esanda, EAEn, inportazioek % 5,8 egin dute gora 2015ean (trafiko osoaren % 61,4 hartzen dute); esportazioek, berriz, % 2,9 egin dute gora, eta % 34ko partaidetza dute trafiko osoan. Azkenik, askoz ere datu baxuagoekin, kabotajea dugu. Atal horren partaidetza % 4,6ra igo da, azken urtean 6 hamarren gehiago lortuz (% 21,7ko gorakada). Dena dela, 2015eko Euskal Herriko kanpoko trafikoak eta kabotajeak gora egin dute, 36,1 milioi tonara iritsi arte. Horietatik 32,4 milioi Bilboko portuari dagozkio.

**222. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | | Pasaia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2013 | 2014 | 2015 |
| Inportazioa | 18.884,7 | 19.038,4 | 19.916,7 | 1.617,2 | 1.928,4 | 2.268,6 |
| Esportazioa | 9.473,5 | 10.478,1 | 10.872,2 | 1.229,2 | 1.461,9 | 1.419,4 |
| Kabotajea | 1.242,6 | 1.303,8 | 1.611,0 | 59,6 | 61,9 | 50,5 |
| **Guztizkoa** | **29.600,8** | **30.820,3** | **32.399,9** | **2.906,0** | **3.452,2** | **3.738,5** |

*Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiako Portu Agintaritza.*

2015ean, Bilboko portuak bertako dinamismoa izan du bereizgarri; izan ere, gora egin du bertako trafikoak, bai esportazioei dagokienez bai inportazioei dagokienez. Gorakadak % 3,8 eta % 4,6koak izan dira, hurrenez hurren. Esportazioak 10.872,2 mila tonakoak izan dira, eta inportazioak askoz ere gehiago. Kabotajea izan da garrantzi gutxieneko atala (% 5), baina bilakaera hobea izan du (% 23,6).

Hori esanda, eta esportazioen atalak ekitaldia modu positiboan amaitu badu ere, hazkunde-erritmoa moteldu egin da, hainbat partidatan erregistratutako murrizketak direla eta. Iaz bezala, produktu kimikoek guztizkoan duten partaidetzak behera egin du (-% 0,4, eta % 8,7ko pisu espezifikoa), baita fuel-olioak ere (-% 9,7, eta % 5,1eko partaidetza). 2015ean, beheranzko joera horrekin bat egin dute, halaber, edukiontzien tarak (-% 1,1, eta % 5,5eko pisu espezifikoa), eta, bereziki, guztizkoari egiten dion ekarpena kontuan hartuta (% 9,7), siderurgia-produktuek. Hain zuzen ere, azken horien jarduera % 7,9 murriztu da. Bilakaera positiboa izan du gasolinak; hori da partaidetza handieneko salgaia (% 13,8) eta kopurua nabarmen areagotu du (% 29,5). Gora egin dute, halaber, makineriak eta ordezko piezek, balio berbera erakutsiz bilakaeran eta pisu espezifikoan (% 4,3). Azkenik, gainerako produktuek, % 50 baino gehiagoko partaidetzarekin, balantza hobetzen lagundu dute, % 3,5eko hazkundea izan baitu atal horrek. Hori horrela, esportazioek portaera positiboa baina neurrizkoa izan dute (% 3,8), eta haien balioa 10.872,2 mila tonara iritsi da.

Inportazioei dagokienez, horiek ere gora egin dute, 2014an baino intentsitate handiagoarekin (2015ean % 4,6 eta 2014an % 0,8). Gorakada horri aktiboki laguntzen diote honako partida hauek: alde batetik, petrolio-gordinak hazkunde nabarmena izan du (% 20,4) eta kanpoko trafikoaren % 43,4 hartzen du; bestetik, siderurgia-produktuak, gas naturala eta gasolioa ditugu, % 16,3, % 24,5 eta % 42,3ko hazkundeekin eta % 9,3, % 6,3 eta % 2,4ko partaidetza-kuotekin, hurrenez hurren. Bestalde, bilakaera negatiboa izan dute fuel-olioak, txatarrak eta beste batzuek (-% 90,5, -% 6,9 eta -% 6, hurrenez hurren), eta hiruren artean ez dira iristen inportatutako guztizkoaren % 30era ere.

### 223. koadroa Bilboko Portuko kanpoko trafikoaren osaera 2015

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Siderurgia-produktuak | 1.055,4 | Petrolio-gordina | 9.958,6 |
| Produktu kimikoak | 942,5 | Fuel-olioa | 128,7 |
| Gasolina | 1.499,9 | Gas naturala | 1.502,1 |
| Fuel-olioa | 551,9 | Siderurgia-produktuak | 2.065,3 |
| Edukiontzien tara | 596,7 | Gasolioa | 645,2 |
| Makineria eta ordezkoak | 471,9 | Txatarrak | 698,9 |
| Beste batzuk | 5.753,8 | Beste batzuk | 4.917,9 |
| **Guztizkoa** | **10.872,2** | **Guztizkoa** | **19.916,7** |

*Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Geuk egina.*

Pasaiako portuko kanpoko trafikoa aztertuz gero, ez dira mugimendu oso homogeneoak ikusten salgaietan. Esportazioen atalarekin hasita (horien pisua % 2,9 murriztu da 2015ean), merkataritza-fluxu handiena duten bost produktuetatik lauk behera egin dute beren bolumenei dagokienez. Alegia, alde batetik, siderurgia-produktuak ditugu (guztizkoaren % 57,5), % 9,5eko beherakada izan dutenak; bestetik, beste mineral batzuk, zerealak eta horien irinak, eta makineria eta ordezko piezak. Multzo horiek guztiek, beherakada handiagoak izan badituzte ere (-% 73,8, -% 97,6 eta -% 3,5, hurrenez hurren), presentzia txikiagoa dute, hiruren artean ez baitira guztizkoaren % 5era iristen. Halaber, honako hauek goranzko mugimenduak izan dituzte: autoak eta horien piezak, eta beste salgai batzuk (% 12,8 eta % 187,6), eta % 24,3 eta % 14ko pisu espezifikoak izan dituzte, hurrenez hurren.

### 224. koadroa Pasaiako portuko kanpoko trafikoaren osaera. 2015

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Siderurgia-produktuak | 816,6 | Siderurgia-produktuak | 592,1 |
| Autoak eta horien piezak | 345,6 | Burdinazko txatarrak | 751,7 |
| Beste mineral batzuk | 41,6 | Papera eta orea | 140,5 |
| Makineria eta ordezkoak | 16,4 | Zerealak eta horien irinak | 136,9 |
| Zerealak eta horien irinak | 0,2 | Beste mineral batzuk | 35,6 |
| Beste salgai batzuk | 199 | Beste salgai batzuk | 611,8 |
| **Guztizkoa** | **1.419,4** | **Guztizkoa** | **2.268,6** |

*Iturria: Pasaiako Portu Agintaritza. Geuk egina.*

Inportazioek nabarmen egin dute gora 2015ean (% 17,6), eta siderurgia-produktuak eta txatarrak izan dira bilakaera horren arrazoi nagusi; izan ere, horien partaidetzak % 27,9 eta % 33,1ekoak dira, 2014an bien erregistroek gora egin ostean (% 27,9 eta % 23,5, hurrenez hurren). Papera eta orea eta beste salgai batzuk taldeek joera bera izan dute, eta antzeko gorakadak izan dituzte (% 19,7 eta % 19,3), baina partaidetza oso desberdinak izan dituzte (% 6,2 lehenengoak eta % 27 bigarrenak). Zerealak eta horien irinak eta beste mineral batzuk atalek bakarrik egin dute behera (% 5,6 eta % 56,2, hurrenez hurren), eta horien ekarpena nahiko txikia izan da (% 6 eta % 1,6).

**225. koadroa Bilboko portua. Trafikoa herrialdeen arabera, 2015**

*(m Tm)*

| Herrialdea | Deskargatuak | Kargatuak | Guztizkoa |
|---|---|---|---|
| Erresuma Batua | 2.682.051 | 1.987.417 | 4.669.468 |
| Estatu Batuak | 871.429 | 1.897.837 | 2.769.266 |
| Mexiko | 2.095.904 | 215.023 | 2.310.927 |
| Errusia | 2.211.085 | 73.106 | 2.284.191 |
| Espainia | 547.599 | 1.055.506 | 1.603.106 |
| Holanda | 784.169 | 595.641 | 1.379.809 |
| Txina | 1.172.029 | 111.410 | 1.283.439 |
| Nigeria | 1.263.244 | 11.564 | 1.274.808 |
| Angola | 1.127.388 | 20.979 | 1.148.367 |
| Kolonbia | 950.627 | 144.839 | 1.095.466 |
| Brasil | 758.291 | 301.578 | 1.059.870 |
| Frantzia | 213.102 | 703.984 | 917.086 |
| Venezuela | 526.666 | 182.874 | 709.540 |
| Beste batzuk | 5.260.665 | 4.633.807 | 9.894.484 |
| **Guztizkoa** | **11.935.572** | **20.464.252** | **32.399.824** |

*Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Geuk egina.*

Herrialdeen araberako trafikoari buruzko informazioa aztertuz gero, Bilboko portuan aldatu egin dira berriz ere rankingeko lehen postuak, Erresuma Batuaren kasuan izan ezik. Herrialde horrek berretsi egin du bere lidergoa, guztizkoaren % 14,4ko partaidetzarekin. Errusiak posizio pribilegiatua izan zuen 2014an, baina bigarren postutik laugarrenera igaro da (% 7,1eko kuota). Hortaz, Estatu Batuek eta Mexikok (% 8,5 eta % 7,1eko garrantzia), postu bat gora egin ahal izan dute 2014tik. Testuinguru horretan, Espainia, % 5 inguruko guztizkoaren gaineko partaidetzarekin, zortzigarren postutik bosgarrenera igaro da, eta Holanda seigarrenera igo da (% 4,3ko partaidetza). Egoera horretan, Txinak, % 4ko garrantzi espezifikoarekin, hiru postu egin ditu gora eta zazpigarren jarri da. Nabarmendu behar da, halaber, 2015ean herrialde berriak ere ikus ditzakegula: Nigeria, Angola, Frantzia eta Venezuela. Horiek guztizko trafikoaren % 3,9, % 3,5, % 2,8 eta % 2,2 hartzen dute, hurrenez hurren.

**32. grafikoa Salgaien eta ontzien trafikoa Bilboko portuan**




*Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.*

33. grafikoa  Salgaien eta ontzien trafikoa Pasaiako portuan




*Iturria: Pasaiako Portu Agintaritza.*

Jarraian Pasaiako portuko trafikoaren osaera aztertuko dugu, herrialdeen arabera. Erresuma Batuak rankingeko lehen postuari eusten dio, % 21,4ko partaidetzarekin, eta ia bikoiztu egin ditu bigarren lekuan dagoen herrialdearen bolumenak (Alemania, % 12,7ko partaidetzarekin). Hirugarren eta laugarren lekuan Europako beste bi herrialde daude: Belgika (% 9,3) eta Herbehereak (% 8,3). Ondorioz, Errusia bosgarren postuan geratu da (% 6,7). Horien atzetik ditugu Suedia (% 4,6), Finlandia (% 4,5) eta Aljeria (% 4,1), eta rankingaren amaieran Irlanda, Frantzia, Lituania, Turkia eta Norvegia, gainerakoengandik oso urrun.

**226. koadroa Pasaiako portua. Trafikoa herrialdeen arabera, 2015**

*(m Tm)*

| Herrialdea | Deskargatuak | Kargatuak | Guztizkoa |
|---|---|---|---|
| Erresuma Batua | 198,4 | 601,5 | 799,9 |
| Alemania | 370,1 | 105,3 | 475,5 |
| Belgika | 168,4 | 181,0 | 349,4 |
| Herbehereak | 260,8 | 50,0 | 310,8 |
| Errusia | 250,6 | 0,2 | 250,8 |
| Suedia | 169,1 | 2,1 | 171,2 |
| Finlandia | 161,8 | 7,5 | 169,3 |
| Aljeria | 34,2 | 119,1 | 153,3 |
| Irlanda | 61,8 | 76,1 | 137,9 |
| Frantzia | 121,0 | 0,0 | 121,0 |
| Lituania | 96,9 | 6,9 | 103,7 |
| Turkia | 0,0 | 83,7 | 83,7 |
| Norvegia | 60,5 | 2,3 | 62,8 |
| Beste batzuk | 362,4 | 186,8 | 549,1 |
| **Guztizkoa** | **2.316,1** | **1.422,4** | **3.738,5** |

*Iturria: Pasaiako Portu Agintaritza. Geuk egina.*

Bilboko portuko magnitude ekonomiko handiei dagokienez, aurreko ekitaldiko joera irauli egin da. Egia da portua hazi egin dela hiru urtez jarraian, baina ekitaldi honetan bereziki areagotu da negozio-zifra (% 4,3). Horrenbestez, diru-sarrerak 65,2 milioi eurora iritsi dira, eta sortutako baliabideak 33 milioi eurora. Ustiapenaren irabazia bikoiztu egin da 2015ean, eta 6.006 mila eurora iritsi da; gainerako partidek urtetik urterako bilakaera askoz ere neurritsuagoak izan dituzte.

**227. koadroa Bilboko portua. Magnitude ekonomikoak**

*(m eurotan)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Zerbitzu eta kanonengatiko diru-sarrerak | 63.061 | 62.506 | 65.207 | 4,3% |
| Gastu arruntak | 33.533 | 33.358 | 33.451 | 0,3% |
| Amortizazioak | 29.407 | 30.085 | 28.489 | -5,3% |
| Ustiapenaren irabazia | 3.768 | 3.110 | 6.006 | 93,1% |
| Ekitaldiko emaitza | 4.446 | 3.056 | 3.467 | 13,4% |
| Cash Flow | 37.621 | 36.251 | 37.962 | 4,7% |
| Ibilgetu materiala | 495.051 | 516.511 | 501.480 | -2,9% |

*Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.*

Itsas garraioaren atalarekin jarraitzeko, jarraian bi portuetako gertakari nabarmenenak ikusiko ditugu. Bilbotik hasiz, aurten ere portuak gurutzaldien denboraldiari oso amaiera ona eman dio. Zehazki, 43 gurutzaldi geratu dira bertan, horietan bederatzi lehen aldiz. Nabarmendu behar da Anthem of the Seas ontziak Bilbon egindako geraldia, bere inaugurazio-bidaian. Munduko gurutzaontzi handiena da; zehazki, 348 metroko eslora du

eta 4.200 bidaiari garraia ditzake. Hainbat modalitate konbinatzearen alde eginiko apustuaren baitan (portuko trenbidearen trafikoa % 5 hazi da 2015ean), martxoan amaitu ziren trenbide-konexioaren obrak eta Pancorboko Trenbide Logistikaren Terminaleko zerbitzu-bideak (Burgos). 13,8 milioi euroko inbertsio horri gehitu behar zaio 2015eko abenduan azpiegitura horren lehen urbanizazio-fasea esleitu zela, 4.527.100 eurorengatik. Era berean, portuaren finantza-egoera onbideratuari esker, 2016an azken urteotako azpiegitura-obra garrantzitsuenari hasiera ematea aurreikusten da. Hain zuzen ere, erdiko kai-muturra eraikiko da, proiektu estrategiko berriak bertan finkatu ahal izateko.

Pasaiako Portuari dagokionez, ekitaldiaren amaiera positiboa izan bada ere, portuaren etorkizuna ez da oso argi ikusten. Orain arte Arcelor enpresaren jarduerak portuko emaitzak hobetzen lagundu du, Gipuzkoako portuaren bezero nagusienetakoa izan baita. Alabaina, enpresak jakinarazi du Arcelor-Zumarraga itxi egingo duela, eta horrek egoera asko zaildu dezake. Baliteke gertakari horren ondorioz Pasaiako trafikoa krisialdiko urteetako balio antzekoetara jaistea, gainerako trafikoek Zumarragako enpresaren itxierak sorraraziko duen txatarra-trafikoaren beherakada konpentsatzea lortu ezean.

## 3.4 AIREKO GARRAIOA

Aireko garraioaren bilakaera aztertuz, garraio mota horren adierazleek hainbat urtez okerrera egin ostean, 2014an hazkundea izan zuten, eta 2015ean joera hori berretsi egin da. Beraz, sektoreko magnitude nagusiak hobetu egin dira, eta areagotu egin da bidaiarien eta aireontzien mugimendua. Horrez gain, salgaien trafikoak ere emaitza ona izan du.

Erreferentziako adierazleetako lehenengoari dagokionez, alegia, aireontzien kopuruari, Euskal Herrian, sendotu egin da hazkunde-erritmoa, 2014arekin alderatuta (2015ean % 5,1 eta 2014an % 1,5). Hala, 2015ean 55.456 operazio erregistratu dira. Sektoreko hobekuntzaren eragina agerian geratzen da bidaiari kopuruaren gorakadan ere. Kopuru hori % 4,1 hazi zen 2014an (2013an -% 9,5), baina ekitaldi honetan are hazkunde handiagoa izan du (% 6,9) eta 4.658,9 mila bidaiarira iritsi da. Azkenik, salgaien trafikoak gainerako adierazleen joera bera izan du, nahiz eta erritmoa pixka bat jaitsi duen (2015ean % 9,3ko hazkundea eta aurreko ekitaldian % 12,5ekoa). Hala, ekitaldi honetan 49.255 tona garraiatu ditu guztira.

**228. koadroa Euskal Herriko aireko trafikoa**

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Salgaiak (Tm) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztizkoa | % Δ | EH/Espainia % | Guztizkoa | % Δ | EH/Espainia % | Guztizkoa | % Δ | EH/Espainia % |
| 2009 | 67.388 | -16,8 | 3,7 | 4.312,0 | -14,4 | 2,3 | 30.155,2 | -21,2 | 5,3 |
| 2010 | 66.270 | -1,7 | 3,6 | 4.479,5 | 3,9 | 2,3 | 30.570,0 | 1,4 | 4,7 |
| 2011 | 66.434 | 0,2 | 3,5 | 4.532,4 | 1,2 | 2,2 | 37.391,7 | 22,3 | 5,6 |
| 2012 | 61.775 | -7,0 | 3,7 | 4.624,6 | 2,0 | 2,4 | 36.958,5 | -1,2 | 5,7 |
| 2013 | 52.014 | -15,8 | 3,3 | 4.186,4 | -9,5 | 2,2 | 40.044,1 | 8,3 | 6,3 |
| 2014 | 52.779 | 1,5 | 3,3 | 4.359,2 | 4,1 | 2,2 | 45.055,3 | 12,5 | 6,6 |
| 2015* | 55.456 | 5,1 | 3,3 | 4.658,9 | 6,9 | 2,3 | 49.255,0 | 9,3 | 6,9 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Aldagai horiek berak estatu-mailan aztertuz gero, sektoreak bilakaera ona izan duela ikus daiteke. 2015ean, adierazle guztiek gora egin dute. Lehengoak, aireontzien mugimenduak, Euskal Herriaren antzera egin du gora eta 2014ko garrantzi erlatibo berari (% 3,3) eutsi dio. Antzeko egoera ikus daiteke bidaiarien kasuan. Alabaina, Euskal Herriko dinamismoa handiagoa izan da, eta, beraz, euskal trafikoaren garrantzi espezifikoak, Estatuko guztizkoarekiko, gora egin du pixka bat (2014an % 2,2 eta 2015ean % 2,3). Salgaien garraioaren esparruan, ordea, dinamismo handiagoa ikusten da Euskal Herrian Estatuan baino. Horrenbestez, guztizkoaren gaineko euskal partaidetza % 6,6tik % 6,9ra igo da 2015ean.

**229. koadroa Aireontzien trafikoa, aireportuaren arabera**

*(unitateak)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | EH/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| **Tokiko trafikoa** | **39.584** | **41.113** | **3.131** | **3.133** | **4.311** | **4.664** | **5.753** | **6.546** | **52.779** | **55.456** | **3,3** | **3,3** |
| Barnekoa | 22.458 | 23.105 | 2.853 | 2.867 | 4.161 | 4.464 | 2.343 | 2.353 | 31.815 | 32.789 | 6,4 | 6,4 |
| Nazioartekoa | 17.126 | 18.008 | 278 | 266 | 150 | 200 | 3.410 | 4.193 | 20.964 | 22.667 | 1,9 | 2,0 |

*Iturria: AENA.*

Informazioa lurraldeen arabera banatzen badugu, eta aireontzien trafikoari dagokionez, aztergai ditugun lau aireportuek goranzko bilakaerak izan dituzte, intentsitate txikiago edo handiagokoak. Noaingo aireportutik hasiko gara: multzo honetako aireontzien trafiko txikiena du (guztizkoaren % 5,6) eta bilakaerarik motelena izan du, baina pixka bat gora egin du bertako trafikoak (% 0,1), 2014an jasandako beherakadatik urrunduz (-% 11,6). Hurrengo aerodromoak, Donostiakoak, % 8,4ko garrantzi espezifikoa izan du eta erritmo handiagoan ari da hazten; hain zuzen ere, % 8,2 hobetu dira bertako erregistroak aurreko urtetik. Forondako aireportuak, berriz, % 11,8ko partaidetza du eta gainerakoek baino profil dinamikoagoa (% 13,8ko hazkundea izan du). Azkenik, Loiuko

aireportua da nagusi aireontzien euskal trafikoari dagokionez (% 74,1). 2014ko hazkundea bikoiztu egin du, % 3,9ko gorakada izan baitu. Hori horrela, Euskal Herriak guztizko nazionalean duen partaidetzak aurreko bi ekitaldietako balio berdinetan jarraitzen du (% 3,3).

**230. koadroa Salgaien trafikoa, aireportuaren arabera**

*(Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | EH/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| **Trafikoa guztira** | **2.856** | **2.871** | **8,3** | **4,3** | **31** | **3** | **42.161** | **46.371** | **45.055** | **49.255** | **6,6** | **6,9** |
| Barnekoa | 1.905 | 1.729 | 0,1 | 1,0 | 31 | 3 | 11.686 | 12.436 | 13.621 | 14.173 | 11,2 | 12,0 |
| Nazioartekoa | 951 | 1.143 | 8,2 | 3,3 | 0 | 0 | 30.475 | 33.935 | 31.434 | 35.082 | 5,6 | 5,9 |

*Iturria: AENA.*

Aireportuen araberako salgaien trafikoari dagokionez, Euskal Herri osoan goranzko urtetik urterako aldakuntza ezarri da, % 9,3koa, baina aireportu guztiek ez dute ekarpen berdina egiten. Emaitza positibo horren arrazoi nagusia Forondaren jarduera egokia da. Aireportu horrek bere gain hartzen du salgaien trafikoaren gehiengoa (% 94,1) eta % 10eko gorakada izan du bere jardueran. Loiuko aireportuak % 5,8ko partaidetza izan du eta joera bera erakutsi du, hazkundea motelagoa bada ere (% 0,7). Testuinguru horretan, Noaingo aireportuak (presentzia oso txikia du salgaien garraioan) eta Donostiak (ia batere ez) beherakada nabarmenak izan dituzte ekitaldi honetan: % 48,2 eta % 90,3, hurrenez hurren. Dena dela, Euskal Herriak guztizko nazionalean duen partaidetza hamarren batzuk igo da 2014tik (% 6,6tik % 6,9ra).

**231. koadroa Bidaiarien trafikoa, aireportuaren arabera (*)**

*(m)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | EH/Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| **Tokiko trafikoa** | **3.975** | **4.252** | **134** | **144** | **243** | **252** | **7** | **11** | **4.359** | **4.659** | **2,2** | **2,3** |
| Barnekoa | 2.377 | 2.464 | 130 | 139 | 243 | 252 | 5 | 7 | 2.755 | 2.862 | 4,7 | 4,6 |
| Nazioartekoa | 1.598 | 1.787 | 4 | 6 | 0 | 1 | 2 | 4 | 1.604 | 1.797 | 1,2 | 1,2 |

*(*): 2015erako behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Euskal aireportuetako bidaiarien joan-etorriak aztertuz, lehen ere aipatu dugun moduan, 2015 ekitaldiko bidaiarien trafikoak % 6,9 egin du gora; beraz, gorakada aurreko ekitaldikoa (% 4,1) baino handiagoa izan da. 2015ean, 2014an ez bezala, lau aerodromoek bidaiarien errotazio handiagoa izan dute. Horien artean Loiuko aireportua nabarmendu behar da, lau milioi bidaiarien muga gainditu baitu. Zifra hori 2007an bakarrik gainditu zen. Bizkaiko aireportua sektoreko jardueraren sustatzaile nagusia da



LABORAL kutxa

(trafikoaren % 91,3), eta % 7ko gorakada izan du. Joera hori bera ikusi da Nafarroako eta Gipuzkoako aireportuetan; % 7,5 eta % 3,7ko aldakuntzak izan dituzte, hurrenez hurren. Alabaina, horietako jarduera pixka bat baxuagoa izan da (% 3,1 eta % 5,4ko garrantzi espezifikoa, hurrenez hurren). Nabarmendu behar da Noaingo aireportua balio positiboetara itzuli dela hainbat urtez jardueraren dezelerazioa jasan ondoren; hala, 140.000 bidaiari baino gehiago izan ditu aurten. Azkenik, Forondako aireportuak, garrantzi erlatibo txikia izan badu ere (% 0,2), bertako jarduera merkataritzara bideratuta dagoelako, hazkunde handiena izan du (% 57,1). Hori esanda, lau euskal aireportuek trafiko nazional osoari egiten dioten ekarpena % 2,3koa, 2014koaren berdina.

**232. koadroa Aireportuko trafikoaren gorakada (2015/2014)**

| Aireportua | Bidaiariak | | Aireontziak | | Salgaiak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mila | % ∆ | Unitateak | % ∆ | Tm | % ∆ |
| Bilbo (Loiu) | 277 | 6,9 | 1.529 | 3,9 | 21 | 0,7 |
| Iruñea (Noain) | 10 | 7,5 | 2 | 0,1 | -4 | -48,2 |
| Donostia (Hondarribia) | 9 | 3,7 | 353 | 8,2 | -28 | -89,6 |
| Vitoria-Gasteiz (Foronda) | 4 | 57,1 | 793 | 13,8 | 4.211 | 10,0 |
| Euskal Herria | 300 | 6,9 | 2.677 | 5,1 | 4.200 | 9,3 |

*Iturria: AENA.*

Atal honi amaiera emateko, jarraian 2015ean euskal aireportuetan izandako gertakari azpimarragarrienak aipatuko ditugu. Hasteko, Hondarribiko aireportuan, hegaldi pribatuek gora egin badute ere (jatorriak Errusia, Estatu Batuak edo Brasil izanik), aireportuak bi linea erregular besterik ez ditu, bat Bartzelonara eta bestea Madrilera, nahiz eta behin eta berriz hitzeman duen eskaintza areagotuko duela. 2015ean, Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua dela eta, bazirudien hegaldien eskaintzan lortu nahi den aldaketa hori gertatuko zela, baina ez da hala izan. Alabaina, 2016ean hegaldi gehiago antolatu dira, Londresera eta Palmara. Dena den, 2014ko irailean mugako aireportu izaera berreskuratu zuen; hala, Schengen akordioan sartzen diren 26 nazionalitateez gain, Europako eta munduko gainerako herrialdeetarako hegaldiak egiteko aukera du. Alabaina, azken albisteen arabera, Aireko Segurtasunaren Europako Agentziak (EASA) jakinarazi dio AENAri bertako pista 300 metro murriztu behar duela. Horrek eragin negatiboa izango luke aireportuaren jardueran, zenbait hegaldi ezin baitira egin baldintza horietan.

Gipuzkoako aireportuak bezala, Noaingo hegaldien eskaintza ere gero eta murritzagoa da. Ondorioz, Nafarroako Gobernuak azterketa bat enkargatu du, Iruñeko aireportua Europako beste batzuekin (Frankfurt, Paris, Amsterdam eta Bartzelona) lotzea bideragarria ote den eta lotura horiek egiteak Nafarroako ekonomia nola eragingo lukeen aztertzeko.

Forondari dagokionez, erakundeek linea erregular gehiago eta iraunkorragoak eskaintzeko beharra ikusten dute, iraganean ia batere iraun ez zuten esperientzietatik urrunduz (Ryanair, 2007an). Alabaina, esan behar da 2012an H24 lizentzia galtzeak (24 orduz lan egiteko) inflexio-puntu bat izan dela aireportuko jardueran, kargaren emaitzei esker bidaiarien mugimendu urria konpentsatu badute ere.

Bilbok, berriz, bidaiariak areagotzen jarraitu du 2015ean, markak hausteko moduko zifretara gerturatuz (2007. urtea). Ezin izan da marka horretara iritsi, ordea, aurten sortu diren zenbait arazo direla medio; esaterako, 25 hegaldi bertan behera uztea eragin zuen Lufthansaren greba. Gainerakoan, eta inbertsioei dagokienez, aurreko txostenean adierazi genuen Aenak aurrekontu-ahalegin handia egin zuela aireportuko pistetako lan-segurtasuna hobetzeko eta Europako legeriak eskatutako homologazioa lortzeko. Hori horrela, 2015eko abenduan Bilboko aireportuak Europako araudiaren araberako ziurtagiria eskuratu zuen. Ziurtagiri horrek bermatzen du bertako instalazio, sistema, ekipo, zerbitzu eta prozedura guztiak bat datozela lanerako segurtasunari buruzko Europako irizpide berriekin. Loiuko aireportua Aena sareko bigarrena izan da ziurtagiri hori lortzen (Sevilla izan zen lehena), eta Europako lehenengoetarikoa.



# 5. FINANTZA SEKTOREA

# 1. EGOERA OROKORRA

2015ean % 3,1eko mundu-mailako hazkundea egon zen, eta hiru dezima jaitsi zen 2014an erregistratutakoa; izan ere, ekonomia sortu berrien jarduerak behera egin zuen (% 4, eta aurreko urtean % 4,6) eta ekonomia jarduerek, berriz, emaitza hobeak izan zituzten (% 1,9). 2015ean funtsezko adierazleetan erregistratutako bilakaerak (BPF, inflazioa...) ekonomia gehienen hobekuntza eta joera positiboa berresten du; alabaina, 2016 eta 2017rako kalkuluen arabera, hazkundeak lasaiagoak izango dira urte horietan. Hazkunde hori moteltzen duten faktore nagusiak dira Eurogunéko barne-eskariaren ahultasuna[1] eta ekonomia narriatuenek enplegua berreskuratzeko dituzten zailtasunak. Bi kasuetan, faktore horiek funtsezkoak izango dira hazkunde ekonomikoaren sekuentzia finkatzeko eta etxeetako errentak berreskura daitezen sustatzeko, baita haietako gastu- eta aurrezte-ahalmena eta inbertsio-erabakiak ere.

**34. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus dolarra***




*(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Urte amaieran, ez dago aipamen berezirik behar duen gertakaririk, aurreko urtekoetan erregistratutakoen antzekorik, finantza-merkatuetan. Hori dela eta, jardueraren berreskurapenak hobera egin du, diru-agintaritzek (FED, EBZ) beren jarduketekin jarraitu dutelako. Jarduketa horien bereizgarria izan da, hain zuzen ere, sistemaren likidezia bermatzeari emandako garrantzia. Zehatzago esanda, EBZren diru-politikak helburu

[1] Greziako krisialdi ekonomia horretarako hirugarren likidezia-plan baten bidez konpondu da, baina britainiarrei eginiko kontsultaren emaitza ikusita, berriz ere ziurgabetasuna sortu da.

nagusi hau izan du: lehentasuna ematea merkatuen likideziari eta egonkortasunari, 2014. urtearen erdialdean abian jarritako diru-pizgarriak sendotuz[1], aktiboak erosteko programa zabalduz eta TLTRO eragiketen sail berri bat abian jarriz. Horri guztiari gehitu behar zaio egungo egoerak ez duela erreferentziazko tasen igoerarik aurreikusten, bat etorriz inflazio-gorakadak ekartzetik edo aurreikustetik urrun geratzen den egoera batekin.

Egoera horretan[2], finantza-erakundeek pixkanaka arindu egin dituzte kreditua eskuratzeko baldintzak[3]. Horrek eta jarduera eta enplegua hobetzeak[4] inbertsioa berreskuratzeko aukera eman du (etxebizitza, enpresa-jarduera), baita kontsumo handia ere (automobila). Dena den, Estatu osoan gailentzen ari da agenteen desapalankatze-prozesua (etxeak eta ekoizpen-jarduerak), eta kreditu-saldo bizia murrizten ari da.

**35. grafikoa Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa**




*Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.*

Ildo horretan, 2015. urtearen amaierako datuek dagoeneko adierazten dute enpresek eta etxeek erabilgarri duten gastu-bolumena (finantzatua) areagotu egin dela[5]. Alabaina,

[1] 2014. urtearen erdialdean jarri zen abian, eta 2015eko udan finantza-merkatuetan erregistratutako hegazkortasunaren gorakadaren ondorioz, 2015eko abenduan eta 2016ko martxoan neurri gehigarriak hartu ziren, "gordailu-baliabide" deiturikoaren tasa murriztuz, -% 0,40ra arte.

[2] Euro/dolar arteko harremanaren parekotasuna lortzeko doikuntzak eginda eta Europako esportazio-posizioak hobetuta.

[3] Banku-maileguei buruzko inkesta (etxeak) eta ETEentzako kreditua lortzeko aukerei buruzko inkesta (Espainiako Bankua).

[4] Petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioak hobetzearen ondorioz (balio oso baxuetara iritsi dira).

[5] Hori erakusten dute beste zenbait adierazlek, besteak beste: hipoteken emakidak (% 20 eta % 24, kopuruari eta zenbatekoari dagokionez) edo ibilgailuen erosketak.

magnitudearen joera (kreditu-saldo bizia) oraindik beheranzkoa da[1], zor pribatuaren desapalankatze-prozesuarekin bat etorriz. Finantzaketaren helburuen arabera[2], behera egin du ekoizpen-jarduerei, etxebizitza erosteari eta bidaiatzeari eta kontsumo iraunkorreko ondasunei loturiko saldo biziak (-% 4,2, -% 4,8 eta -% 4,8, hurrenez hurren). Era berean, sistemaren berankortasun-ratioak agerian uzten du eginiko doikuntza, eta pixkanaka hobetzen jarraitzen du. Dena den, altua da oraindik ere (% 10,2) eta segmentu jakin batzuetan pilatuta dago: eraikuntza (% 30,9) edo higiezinen enpresak (% 27,4), esaterako. Zordun partikularren edo familien portaerak, aldiz, hobera egin du (% 5,5).

Azkenik, agenteen aurrezki-posizioak ere honako hauen baldintzapean daude: kaudimena eta jarduera berreskuratzeko bermea, aukera desberdinen ordainketa eta agente bakoitzak bere gain hartzen dituen arrisku-erabakiak. Hala, eta figuraren erakargarritasun txikiarekin bat etorriz (ordainketa baxua delako), kreditu-erakundeen gordailuen saldoak behera egiten jarraitzen du 2015ean (-% 2,8). Horrez gain, bigarren urtez jarraian, banku-gordailuetako aurrezkia 2 bilioi euroko mugaren azpitik dago. Bestalde, inbertsio-funtsek kudeatutako ondarea nabarmen berreskuratu da (% 11,8) eta akzioen bigarren mailako merkatuetako kontratazio-bolumena hobetu egin da (% 8,6); ez, ordea, burtsa-balorazioa (Ibex). Azken horrek atzera egin du eta 9.500 puntutik beherako balioa erregistratu du urtearen amaieran.

[1] BSEentzako (beste sektore egoiliar pribatu batzuk; esaterako, familiak eta enpresak) kredituari dagokion saldo biziaren urtetik urterako tasa negatiboa da Estatu osoan (-% 4) eta Nafarroan (-% 6,3), baina ez EAEn (+% 0,4).
[2] Estatu osorako.

# 2. KREDITU-ERAKUNDEAK

## 2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

### Kredituaren bilakaera Estatuan

Espainiako kreditu-erakundeen aktiboen bilakaerak beheranzko joera izan du 2013tik. Urte hori izan zen beherakada handienekoa (-% 11,6), eta txikienekoak, berriz, 2014a (-% 3,7) eta 2015a (-% 5,2).

Kredituak dira aktiboaren osagai nagusia (% 64) eta 2015 ekitaldian lehen aldiz egin du gora kuota horrek; hain zuzen ere, % 78tik % 62ra jaitsi zen 2008. eta 2014. urteen artean. Hortik aurrera, kreditu-masaren doikuntza handia izan da, eta 2013an erregistratu zen urtetik urterako beherakada handiena (-% 13,6). Azken bi ekitaldietan datuak negatiboak izan dira, baina intentsitatea geldotu egin da, bereziki 2015ean (-% 2,1). Zifra horiek agerian uzten dute partikularren eta enpresen balantzeak desapalankatzen hasi direla.

Kreditu-erakundeen gainerako aktiboa hauek osatzen dute: akzioak eta partaidetzak (% 8,9), beste balio batzuk (% 15,1) eta sektorizatu gabeko aktiboak (% 12). Hiru aktibo motek irabazi dituzte kuotak eta kopuruak krisiaren hasieratik, alabaina, 2015ean, ordutik lehen aldiz, hirurek behera egin dute (-% 5,8, -% 15,6 eta -% 6,4, hurrenez hurren), bai kopuruari bai aktibo guztien gaineko kuotari dagokionez.

2015ean, beraz, aurrera jarraitu du sistema desapalankatzeko prozesuak; horretarako, zor pribatuari lotutako saldo bizia murriztu da. Kredituen kapituluaren barnean, kontuan izan behar da zati garrantzitsu bat, epe luzekoa, krisia baino lehen sortu zela, eta pixkanaka murrizten ari dela, mailegu-hartzaileek beren ordainketa-konpromisoak betetzen dituzten heinean. Aitzitik, 2009az geroztik emandako zorroak (eskatzaileen finantzaketa-premiak eta emakida-baldintzetako eskakizunak aldatu zirenean) kredituak berriz dimentsionatu direla (zenbateko txikiagoak) iradokitzen du. Hala, argi geratzen da horren ondoriozko desapalankatze-efektua; izan ere, ordaintzeke dagoen zorraren amortizazio-erritmoak gainditu egiten du kreditu berrien emakidaren bolumena. Hori dela eta, saldoa (itzultzeke dagoen kredituaren stock gisa) jaitsi egin da.

### 233. koadroa Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera

(M eurotan)

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **3.251.535** | **3.400.435** | **3.422.612** | **3.025.756** | **2.912.822** | **2.760.239** |
| Kredituak | 2.386.643 | 2.357.167 | 2.229.670 | 1.926.174 | 1.805.615 | 1.767.591 |
| Akzioak eta partaidetzak | 180.477 | 250.831 | 257.501 | 280.357 | 261.536 | 246.261 |
| Balioak, akz. eta part. izan ezik | 383.761 | 405.582 | 508.991 | 492.801 | 492.346 | 415.508 |
| Sektorizatu gabeko aktiboak | 300.652 | 386.854 | 426.449 | 326.424 | 353.327 | 330.879 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Norakoen edo agenteen arabera, etxeetarako eta enpresetarako kredituak (“beste sektore egoiliar batzuk”) guztizkoaren hiru laurden baino gehiago hartzen du (% 75,1). Portzentaje horrek bere horretan jarraitu du azken urteotan, ia aldatu gabe. Bestalde, 2014an kreditu-sistemaren kuota krisi osoko baxuena izan zen (% 8,6), eta 2015ean berriz ere igo zen (% 9,3). 2015ean, segmentu ez-egoiliarrari lotutako zenbatekoa 2007tik izan den handiena da, % 10,5eko portzentajearekin. Administrazio publikoak 2014an iritsi ziren beren gehienekora (% 5,6), eta 2015ean zifra hori pixka bat jaitsi zen berriz (% 5,1).

Beste sektore egoiliar batzuen kredituaren bilakaerak baldintzatu egiten du kreditu-saldo osoaren bilakaera: 2008tik, metatutako doikuntza % 27,5ekoa da, eta gehiengoa 2011-2015 laurtekoan gauzatu zen (-% 25,9). Hala, urtetik urterako beherakada handienak 2012. eta 2013. urteetakoak dira (-% 10 eta -% 9,8); beherakada txikiagoa izan zen 2014an (-% 4,7) eta, batez ere, 2015ean (-% 3,8).

Beraz, 2015ean bere horretan jarraitu du aurreko ekitaldietako desapalankamendu-joerak, baina erritmo oso lasaian, bat etorriz ekonomia-jardueraren berpiztearekin eta agenteen finantziazio-beharrekin, baita erakundeek finantziaziorako sarbidea hobetzeko duten ahalmenarekin ere (beren balantzeetan egin beharreko doikuntzak egin ostean).

### 234. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

(M eurotan)

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **2.386.643** | **2.357.167** | **2.228.670** | **1.926.174** | **1.805.615** | **1.767.591** |
| Kreditu-sistema | 234.095 | 250.867 | 278.914 | 210.536 | 155.097 | 164.206 |
| AP | 78.971 | 89.687 | 114.275 | 87.140 | 101.313 | 89.972 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.843.950 | 1.782.554 | 1.604.934 | 1.448.244 | 1.380.101 | 1.327.062 |
| Gainerako denak | 229.627 | 234.059 | 231.546 | 180.254 | 169.104 | 186.351 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Kanpoko sektoreari emandako kredituak (ez-egoiliarrak), epe motzera dituen aukera hobeekiko menpekotasunarekin eta tamaina txikiagoarekin bat etorriz, profil irregularragoa utzi du agerian, nahiz eta beheranzko joera duen. Guztira, bere balioaren



LABORAL kutxa

heren bat galdu zuen 2007. eta 2014. urteen artean; 2015ean hasi da hori berreskuratzen, aipatutako gorakadari esker.

Administrazio publikoen kredituak urtetik urterako portaera desberdina du, eta 2015ean behera egin du (-% 11,2), 2014an erregistratutako gorakadaren ondoren (% 16,3). Azkenik, sistemaren barneko kreditua (banku artekoa) % 6,1 areagotu da 2015ean, baina oso maila baxutik zetorren, beherakada esanguratsua izan baitzuen 2013an eta 2014an (-% 44,5).

## Kredituaren xedea Estatuan

Modalitateen arabera kreditu-saldoaren azterketa eginez gero, nabarmendu behar da berme erreala duten kredituak direla gehienak (% 53,6), eta horien atzetik datozela eperako beste kreditu batzuk (% 29,1), beste mailegu batzuk (% 14) eta merkataritza-kreditua (% 3,2). Berme errealari lotutako saldo bizia bere gorenera iritsi zen 2009an (1,11 bilioi euro), eta ondoren behera egin zuen: 2009. eta 2015. urteen artean doikuntza heren bat baino gehiagokoa izan da (-% 36,2), baina urtetik urterako zifrei dagokienez, 2015ean aztertutako aldiko beherakada txikiena erregistratu da (-% 4,1).

**235. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **1.843.950** | **1.782.554** | **1.604.934** | **1.448.244** | **1.380.101** | **1.327.062** |
| Merkataritza-kreditua | 54.219 | 49.937 | 40.523 | 34.570 | 36.606 | 42.640 |
| Berme erreala duten zordunak | 1.101.064 | 1.032.823 | 900.991 | 790.398 | 741.237 | 711.483 |
| Eperako beste zordun batzuk | 509.396 | 490.485 | 434.521 | 368.969 | 376.262 | 386.474 |
| Beste mailegu batzuk | 179.271 | 209.309 | 228.899 | 254.307 | 225.996 | 186.465 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Eperako beste zordun batzuei buruzko atalean sartzen da kontsumorako kreditua, eta beheranzko joera agertzen du 2011tik aurrera; hain zuzen ere beherakada metatua izan zuen 2011-2013 aldian (% 27,4), eta joera positiboa 2014an (% 2) eta 2015ean (% 2,7).

2007tik 2013ra, beste mailegu batzuen atalak dinamismo handia erregistratu zuen, eta bere zenbatekoa bider 2,5 izatera iritsi zen. 2014. eta 2015. urteen artean, aurrerapen horren erdia konpentsatu zen, gutxi gorabehera, urtetik urterako bi beherakadarekin (-% 11,1 eta -% 17,5, hurrenez hurren). Azkenik, merkataritza-kredituari buruzko saldoak aurrerapen nabarmena izan zuen 2015ean (% 16,5) eta joera positiboa izan duen bigarren urtea izan da, bolumenaren % 62 galdu ostean 2007. eta 2013. urteen artean.

**36. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kredituak motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE)**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Gordailu-erakundeek kudeatzen dute Espainiako kreditu pribatuaren zatirik handiena (% 96,1); horren osagarri gisa, kredituan bakarrik espezializatutako azpisektore txiki bat dago.

2015ean, kreditu horren helburuen arabera, ekoizpen-jarduerek gordailu-erakundeek kudeatutako kredituaren % 48,6 hartu zuten; gainerakoa honela banatuta dago: etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko kreditua (% 42,4), kontsumo iraunkorreko ondasunak (% 1,6) eta beste helburu batzuk (% 7,3).

**236. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **1.782.291** | **1.715.037** | **1.537.748** | **1.392.384** | **1.328.189** | **1.274.656** |
| Ekoizpen-jarduerak | 975.510 | 929.832 | 788.412 | 690.631 | 647.426 | 619.953 |
| Etxebizitzak erostea eta birg. | 654.253 | 643.556 | 620.580 | 592.278 | 568.212 | 541.032 |
| Kontsumo iraunkorreko ondasunak | 33.796 | 29.798 | 26.038 | 19.869 | 21.615 | 20.576 |
| Beste kreditu batzuk | 118.732 | 111.851 | 102.718 | 89.606 | 90.936 | 93.095 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

2015ean, gordailu-erakundeek kudeatutako kreditu osoa % 4koa izan da, eta helburuaren araberako portaera antzekoa izan da. Hori horrela, 2015ean beherakada egon da ekoizpen-jardueretara bideratutako kreditu-saldoan (-% 4,2), baita etxebizitzetara eta kontsumo iraunkorrera bideratutako saldoan ere (bakoitzean -% 4,8). Aitzitik, beste kredituen partida izan da azken bi urteetan pixka bat hazten hasi den bakarra (% 1,5 eta % 2,4, 2014an eta 2015ean).

**37. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

2015ean gordailu-erakundeek beste sektore egoiliar batzuei (BSE) emandako kredituak urtetik urterako aldakuntza-tasa positiboa erregistratu du EAEn (% 0,4). Hori hala izan da Bizkaiko datuari esker (% 2,4), konpentsatu egiten baititu beheranzko joerarekin jarraitzen duten Gipuzkoako (-% 2,4) eta Arabako (-% 1,9) datuak, Nafarroan eta Estatuan gertatu den moduan (-% 6,3 eta -% 4, hurrenez hurren). Grafikoan ikus daitekeen moduan, 2014-2015 aldia inflexio-biurteko bat da, 2009tik erregistratutako portaerarekin alderatuta.

**38. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Administrazio publikoei emandako kredituaren egoera, 2015ean erregistratutako emaitzak kontuan hartuta, nahiko desberdina da; igoerak egon dira Nafarroan (% 40,1), Araban (% 18,5) eta Bizkaian (% 10,2), eta beherakada Gipuzkoan (-% 8,9).

**237. koadroa Gordailu-erakundeak. Agenteen eta lurraldearen arabera**

*(M eurotan)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIZKOA |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 2013 | 1.420 | 9.854 | 11.274 |
| | 2014 | 1.890 | 8.962 | 10.852 |
| | 2015 | 2.240 | 8.794 | 11.034 |
| Bizkaia | 2013 | 2.714 | 37.891 | 40.605 |
| | 2014 | 3.373 | 35.323 | 38.696 |
| | 2015 | 3.718 | 36.176 | 38.894 |
| Gipuzkoa | 2013 | 728 | 20.631 | 21.359 |
| | 2014 | 745 | 18.883 | 19.628 |
| | 2015 | 679 | 18.430 | 19.109 |
| EAE | 2013 | 4.862 | 68.376 | 73.238 |
| | 2014 | 6.008 | 63.168 | 69.176 |
| | 2015 | 6.637 | 63.400 | 70.037 |
| Nafarroa | 2013 | 751 | 18.589 | 19.340 |
| | 2014 | 719 | 16.678 | 17.397 |
| | 2015 | 1.007 | 15.631 | 16.638 |
| Euskal Herria | 2013 | 5.613 | 86.965 | 92.578 |
| | 2014 | 6.727 | 79.846 | 86.573 |
| | 2015 | 7.644 | 79.031 | 86.675 |
| Espainia | 2013 | 76.627 | 1.392.838 | 1.469.010 |
| | 2014 | 94.697 | 1.328.193 | 1.422.887 |
| | 2015 | 85.708 | 1.274.523 | 1.360.361 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

Arestian adierazi dugunez, etxeen finantzaketa-helburu nagusiak etxebizitza eta kontsumo iraunkorreko ondasunak dira (eta, horien artean, automobila). 2015eko kreditu-stockaren bilakaeraren egoera osatzeko, hipoteken eraketari[1] buruzko datuak jaso dira hemen, ibilgailuen matrikulazioari buruzko datuekin batera. Bi kasuetan, datuok Estatukoak, EAEkoak eta Nafarroakoak dira.

Azken bost urteak kontuan hartuta, 2015ean gertatu dira Espainian eratutako hipoteketako urtetik urterako hazkuntza handienak, bai kopuruari (% 20,1) bai balio osoari (% 24,5) eta batez besteko zenbatekoari (% 3,7) dagokienez. EAEko zifrak antzekoak izan dira (% 22, % 29,1 eta % 5,8), baina ez Nafarroakoak (% 2,5, % 1,8 eta -%

[1] Iturria: EIN. Estatu osoko jabetza-erregistroek emandako informazioa; hemen sartzen dira xede guztietarako hipoteka-kredituak, ez ohikoena bakarrik (etxebizitza hipotekatua erostea). Fluxu-estatistika bat da (urteko hipoteka-jarduera), Espainiako Bankuak jasotako kreditu-informazioa ez bezala; azken horrek, posizio zordunen stocka jasotzen du.

0,7). Kopuruari eta balioari dagozkion beherakada handienak 2010 eta 2013 artean egon ziren hiru lurraldeetan, baina ondoren bilakaera desberdina izan da; berreskurapen nagusia 2014an gertatu zen Nafarroan, eta lasaiagoa 2015ean. Espainian eta EAEn, aldiz, berreskurapena 2015ean gertatu da; hain zuzen ere, urtetik urterako aldakuntza negatibotik (2014an, -% 5,7, balioari dagokionez) positibora (2015ean, % 29,1) igaro da.

EAEko hipoteka-kredituen balioa Estatu osokoaren % 6,8koa da; kuota hori % 1,5ekoa da Nafarroaren kasuan. Hipoteka bakoitzeko batez besteko zenbatekoa % 20,1 altuagoa da EAEn Espainian baino, eta berriz ere pixka bat zabaldu da, aurreko urteetan distantzia murriztu ondoren. Nafarroako batez besteko zenbatekoa Estatuko batezbestekoa baino baxuagoa izan da, eta hori berria da aztertutako aldian.

**238. koadroa Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa**

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | | | | | | |
| Hipoteka kop. | 607.535 | 408.461 | 273.873 | 199.703 | 204.302 | 245.382 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 71.041 | 45.716 | 28.329 | 19.973 | 20.891 | 26.015 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | *116,93* | *111,92* | *103,44* | *100,01* | *102,25* | *106,02* |
| **EAE** | | | | | | |
| Hipoteka kop. | 30.230 | 23.065 | 16.920 | 12.146 | 11.469 | 13.991 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 4.421 | 3.355 | 2.251 | 1.464 | 1.380 | 1.781 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | *146,26* | *145,45* | *133,01* | *120,53* | *120,29* | *127,33* |
| **Nafarroa** | | | | | | |
| Hipoteka kop. | 7.076 | 5.520 | 4.095 | 3.170 | 3.710 | 3.804 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 845 | 666 | 459 | 345 | 384 | 391 |
| *Batez besteko zenbatekoa (mila €)* | *119,37* | *120,62* | *112,00* | *108,88* | *103,37* | *102,91* |

*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Estatu osoan, ibilgailuen matrikulazioak % 20,9ko igoera izan zuen 2015ean, eta aurreko urtekoa baino % 18,4 handiagoa izan zen. Adierazle horrek erakusten digu hiru urteko joera positiboa egon dela, bai Estatuan bai EAEn eta Nafarroan. 2015eko datuen arteko alderaketak eta krisiaren unerik baxuenekoarekiko (2012) alderaketak adierazten du Nafarroako matrikulazioa % 52 altuagoa izan zela 2015ean. Antzeko zifrak lortu dira Estatuan (% 47,8) eta EAEn ere (% 46,8).

**239. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak.**

*(Unitate kop.)*

| Kontzeptua | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroa | 8.081 | 7.034 | 7.737 | 9.170 | 10.690 |
| EAE | 29.610 | 25.616 | 27.321 | 32.300 | 37.601 |
| Espainia | 808.059 | 699.589 | 722.689 | 855.308 | 1.034.232 |

*Iturria: Anfac.*

## Berankortasunaren bilakaera[1]

Berankortasun-tasak gora egin du 2009tik, eta 2013an iritsi zen goreneko baliora (% 13,8). 2014tik hobekuntza erregistratu da (% 12,6), eta 2015ean berretsi egin da (% 10,2), nahiz eta oraindik balioak oso altuak diren.

**240. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.**

*(M eurotan)*

| Urtea | Zalantzazko kr. | Kredituak* | (Zalantz./Kred.) x 100 |
|---|---|---|---|
| 2010 | 102.520 | 1.782.291 | 5,7 |
| 2011 | 135.505 | 1.715.748 | 7,9 |
| 2012 | 162.601 | 1.537.748 | 10,6 |
| 2013 | 191.748 | 1.392.384 | 13,8 |
| 2014 | 167.743 | 1.328.189 | 12,6 |
| 2015 | 129.979 | 1.274.652 | 10,2 |

*(*): Beste sektore egoiliar batzuei lagatako funtsak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Ekoizpenaren esparruan berankortasun-tasa % 6,2tik % 20,9ra igo zen aldi kritikoan (2009-2013), eta ondoren jaitsi egin da pixkanaka: 2015ean % 14,9koa izan da. Berankortasun-tasa handiena izan duten enpresa-jarduerak izan dira higiezinak eta eraikuntza; oraindik ere balio oso altuak izan dituzte 2015ean (% 27,4 eta % 30,9). Bi jarduera horien tasak ia laukoiztu egin ziren 2009-2013 aldian.

Industria-jardueren berankortasun-tasak baxuagoak izan dira eta hobekuntza hori agerian utzi dute (% 13,3tik % 11,2ra); portaera hori izan dute, halaber, garraioaren eta biltegiratzearen sektoreak (% 13,1) eta merkataritza- eta konponketa-sektoreak (% 12,9).

Etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko kredituak eta familien hainbat helburutarako kredituak berankortasun-tasa askoz ere baxuagoa dute enpresa-jarduerek baino. Alabaina, tasa horiek ere bikoiztu arte hazi ziren, gutxi gorabehera, 2009 eta 2013 artean, eta horiek ere jaisten hasi dira 2013tik 2015era. Aipatutako lehenengo helburua % 12,2tik % 10era igaro da, eta bigarrena % 5,7tik % 4,7ra.

[1] Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

**241. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzakoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **5,8** | **7,9** | **10,6** | **13,8** | **12,6** | **10,2** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **8,0** | **11,6** | **16,0** | **20,9** | **18,9** | **14,9** |
| Nekazaritza eta arrantza | 4,3 | 6,5 | 9,1 | 13,6 | 12,2 | 10,2 |
| Industria | 4,4 | 5,7 | 9,4 | 13,8 | 13,3 | 11,2 |
| Eraikuntza | 12,3 | 18,7 | 26,6 | 35,3 | 33,7 | 30,9 |
| Zerbitzuak | 8,1 | 12,0 | 16,3 | 21,0 | 18,9 | 14,4 |
| *Higiezinak* | *14,0* | *21,5* | *29,1* | *38,0* | *36,2* | *27,4* |
| *Finantzak (ez banka)* | *0,8* | *1,4* | *2,2* | *3,3* | *2,4* | *2,1* |
| *Merk. eta konp.* | *5,6* | *7,2* | *10,7* | *15,2* | *15,6* | *12,9* |
| *Garraioa eta bilt.* | *3,3* | *4,3* | *8,6* | *13,7* | *17,3* | *13,1* |
| *Ostalaritza* | *5,2* | *8,2* | *16,8* | *23,2* | *20,4* | *17,2* |
| *Bestelako zerbitzuak* | *4,0* | *5,4* | *8,9* | *13,3* | *12,2* | *9,9* |
| **Beste helburu/etxe batzuk** | **2,9** | **3,4** | **4,7** | **6,7** | **6,6** | **5,5** |
| Etxebizitzak erostea eta birg. | 2,3 | 2,8 | 3,8 | 5,8 | 5,7 | 4,7 |
| Beste batzuk | 5,9 | 6,8 | 9,8 | 13,5 | 12,2 | 10,0 |
| **Gainerakoak** | **8,2** | **6,6** | **10,4** | **12,2** | **6,3** | **16,6** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Etxebizitzak erostera bideratutako kredituetan dago alderik handiena kreditu osoaren barnean duen garrantziaren (% 42,4) eta zalantzazko kredituaren barnean duen garrantziaren (% 19,4) artean. Alde handia dago, halaber, higiezinen jardueran, baina kasu honetan aldea alderantzizkoa da (% 10,5 bakarrik kreditu osoari dagokionez, baina % 28,2 zalantzazko kredituari dagokionez). Horien atzetik daude gainerako zerbitzuak (% 22,3), eraikuntza (% 10) eta industria (% 9,1), besteak beste.

**242. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **102.520** | **135.505** | **162.601** | **191.748** | **167.473** | **129.980** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **77.831** | **108.096** | **126.032** | **143.511** | **122.314** | **92.164** |
| Nekazaritza eta arrantza | 980 | 1.395 | 1.830 | 2.477 | 2.145 | 1.824 |
| Industria | 6.364 | 7.659 | 11.628 | 14.846 | 14.085 | 11.773 |
| Eraikuntza | 13.683 | 17.814 | 19.521 | 20.315 | 15.961 | 12.947 |
| Zerbitzuak | 56.803 | 81.228 | 93.055 | 105.874 | 90.120 | 65.619 |
| *Higiezinak* | *43.450* | *63.223* | *64.202* | *66.265* | *53.732* | *36.665* |
| *Finantzak (ez banka)* | 850 | 1.576 | 2.005 | 2.871 | 2.385 | 2.067 |
| *Merk. eta konp.* | 4.329 | 5.461 | 7.840 | 10.438 | 10.432 | 8.659 |
| *Garraioa eta bilt.* | 1.349 | 1.730 | 3.431 | 4.761 | 4.968 | 3.635 |
| *Ostalaritza* | 1.875 | 2.843 | 5.608 | 7.094 | 5.686 | 4.612 |
| *Bestelako zerbitzuak* | 4.950 | 6.394 | 9.969 | 14.534 | 12.883 | 9.981 |
| **Beste helburu/etxe batzuk** | **23.232** | **26.200** | **34.544** | **46.530** | **44.171** | **34.736** |
| Etxebizitzak erostea eta birg. | 15.255 | 17.799 | 23.807 | 34.080 | 32.308 | 25.204 |
| Beste batzuk | 7.977 | 8.401 | 10.737 | 12.450 | 11.863 | 9.532 |
| **Gainerakoak** | **1.457** | **1.209** | **2.025** | **1.707** | **990** | **3.080** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## 2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

### Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Kreditu-erakundeetako gordailuen saldoaren bilakaerak agenteen erabilgarri-posizioaren (likideziaren) eta aurrezki-posizioaren zati bat islatzen du. Lortutako emaitza hainbat faktoreren ondorioa da. Horien artean, agenteen prestasuna (segurtasuna versus arriskua), finantza-figuren ordainketa eta/edo une bakoitzean eskuragarri dauden aurrezki- edo inbertsio-produktuen eskaintzen baldintzak aipa daitezke. Halaber, krisiaren faktorea erabakigarria izan da, errenten narriadura-egoera batean (familietan zein enpresetan) aurrezpen-marjina txikiagoa sortzen baita (eta metatutako aurrezkiak ere murriztu egiten dira).

Egoera horretan, eta Estatu osoa kontuan hartuta, kreditu-erakundeen gordailuen saldoa 1,94 bilioi eurokoa da; zifra hori jaisten ari da 2009tik eta jaitsi egin da, halaber, 2015ean (-% 2,8). Bigarren urtez jarraian, banku-gordailuetako aurrezkia 2 bilioi euroko mugaren azpitik geratu da.

**243. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **2.300.219** | **2.307.138** | **2.297.865** | **2.065.401** | **1.997.363** | **1.940.673** |
| • Kreditu-sistema | 269.668 | 372.668 | 572.928 | 381.293 | 311.533 | 302.834 |
| • AP | 79.080 | 69.717 | 69.183 | 63.485 | 76.150 | 77.063 |
| • Beste sektore egoiliar batzuk | 1.440.425 | 1.373.079 | 1.316.735 | 1.314.129 | 1.289.280 | 1.261.715 |
| • Beste ez-egoiliar batzuk | 511.046 | 491.675 | 339.019 | 306.493 | 320.400 | 299.061 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Sektore pribatuko gordailuen (beste sektore egoiliar batzuk) saldoa 1,26 bilioi izan da. Hortaz, behera egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta (-% 2,1), eta pixka bat gehiago urrundu da aurreko urteetan erregistratutako balioetatik (2008ko zifra baino % 16,6 gutxiago). Gordailu horiek kreditu-erakundeetako gordailu guztien % 65 dira, eta portzentaje horrek gora egin du azken sei urteotan. Bestalde, beste sektore ez-egoiliar batzuen gordailuek (% 15,4 hartzen dute) ere behera egin dute (-% 6,7), eta iaz lortutako berreskuratze-marjina galdu dute.

Gordailuen posizioen osagaietako hirugarrena kreditu-sistema da; horrek ere aldakuntza negatiboa izan du 2015ean (-% 2,8) eta gordailu osoen % 15,6koa da. Azkenik, administrazio publikoen gordailuen saldoaren portaera (guztizkoaren % 4) pixka bat hazi da urtetik urtera (2015ean % 1,2).

**244. koadroa Gordailu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztizkoa** | **1.216.702** | **1.170.396** | **1.147.690** | **1.155.977** | **1.138.434** | **1.137.827** |
| • Agerikoa | 261.766 | 269.711 | 265.027 | 281.967 | 328.852 | 384.450 |
| • Aurrezkia | 211.287 | 202.949 | 199.073 | 206.485 | 221.934 | 254.227 |
| • Eperakoa | 743.649 | 697.736 | 683.589 | 667.525 | 587.648 | 499.150 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Etxeen eta erakunde pribatu ez-finantzarioen segmentuko gordailuen saldoa 1,14 bilioi eurokoa izan da 2015 ekitaldiaren itxieran; ia 2014ko berbera (-% 0,1). Gordailu-modalitateetan, epe finkoaren ordez erabilgarritasunik berehalakoenaren eta ageriko gordailuen goranzko joera indartu egin da 2015ean. Erabaki horretan, gainera, eragina izan dezakete interes-tasa baxuek, ordainketan sortzen duten diferentziala oso txikia baita beste epe batzuen aldean. Epe finkoko posizioak ez dira nagusi 2015ean (% 43,8); horien lekua hartu dute ageriko posizioek (% 56,1), eta horiei gehitu behar zaizkie aurrezki-kontuak (% 22,3) edo ageriko kontu korronteak (% 33,8).

## Aurrezpenaren beste adierazle batzuk

Familien eta negozioen errenta eta aurrezteko ahalmena funtsezkoak dira aurrezki-posizioetan. Eremu horretan, kontabilitate nazionaleko datuek (EIN) erakusten dutenez, krisialdian familien eta enpresen diru-sarrerak murriztu egin dira; edonola ere, gastuen eta inbertsioen neurrian murriztu dira, eta eutsi egin zaio aurrezki-tasari, aurreikuspen-planteamendu bati jarraiki seguruenik. Hori kontuan hartuta, ikus daiteke 2015eko datuek berretsi egiten dutela aurreko urteko joera-aldaketa.

**245. koadroa Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Etxeak** | | | | | | |
| • Errenta gordin erabilgarria | 816.053 | 819.649 | 788.983 | 781.049 | 787.429 | 807.243 |
| • Aurrezki gordina | 69.462 | 74.674 | 58.768 | 66.214 | 64.635 | 64.428 |
| • Aurrezki-tasa (% ) | 8,5 | 9,1 | 7,4 | 8,5 | 8,2 | 8,0 |
| **Soz. ez-finantzarioak** | | | | | | |
| • BEG | 581.786 | 573.008 | 557.406 | 546.035 | 550.911 | 575.653 |
| • Aurrezki gordina | 161.795 | 137.857 | 146.373 | 166.207 | 161.879 | 181.101 |
| • Aurrezki-tasa (% ) | 27,8 | 24,1 | 26,3 | 30,4 | 29,4 | 31,5 |

*Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.*

2009tik 2013ra bitarte, familien errenta gordin erabilgarriak urteko % 1,5eko beherakada izan zuen, baina 2014an eta 2015ean berreskuratu egin da (% 0,8 eta % 2,5). Aurrezki-

tasak gorabeherak izan ditu, baina 2015ean (% 8) askoz ere baxuagoa izan da 2009an baino (% 13), eta pixka bat jaitsi da azken bi ekitaldietan.

Bestalde, Balio Erantsi Gordina, ekonomia-jardueren aberastasun-sorrera adierazten duena, jaitsi eta berreskuratu egin da, lehen aipatutako eredu berari jarraituz. Bosturtekoan jaitsi eta 2014an pixka bat igo ondoren (% 0,9), 2015eko zifra hobea da, argi eta garbi (% 4,5). 2014ko aurrezki gordina ia 2010ekoaren berdina zen, baina 2015ean % 11,9 egin du aurrera. Ondoriozko aurrezki-tasak gorabeherak ditu, baina joera orokorra goranzkoa da: 2015ean % 31,5era iritsi da. Emaitza horretan eragina izan du suspertzeko aurreikuspenik ezak. Baliteke faktore horrek inbertsio-erabakiak atzeratu izana eta, beraz, enpresen aurrezki-tasaren hobekuntza bultzatu izana.

## Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

Euskal Herrian, sektore pribatua eta publikoa batuz (eta kanpoko sektorea eta finantzarioa kanpo utzita), 2015. urtearen amaieran gordailuak % 2,5 areago ziren, ia 2013. urteko zenbatekora iritsiz. Hobekuntza hori ez dator bat Estatu osoan erregistratutako egoerarekin; izan ere, Estatuan gordailuen saldoak ez du ia gorakadarik izan (-% 0,1), eta zenbatekoa 2010. urtekoaren antzekoa da. Hala, EAEk eta Nafarroak Estatuan jasotako gordailuei eginiko ekarpena % 7,4koa da; portzentaje hori dagokien BPGaren portzentajearen antzekoa da (% 7,8) eta beren biztanleria-portzentajea baino askoz ere altuagoa.

**39. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Aurrezki pribatuaren[1] portaera antzekoa da aintzat hartutako esparru geografikoetan. 2015ean, EAEko lurraldeetan aldakuntza txiki negatibotik positibora igaro dira, eta hau izan da urtetik urterako gorakada probintzia bakoitzean: Bizkaia (% 4,7), Araba (% 2,6) eta Gipuzkoa (% 1,3). Nafarroan behera jarraitzen du, baina lasaitu egin da (-% 0,7).

Administrazio publikoen gordailuetako saldoaren bilakaerak ebaluazio desberdina izan du lurralde bakoitzean: Gipuzkoan % 77,6 areagotu da; Nafarroan, berriz, beherakada garrantzitsua izan du (-% 20), eta Bizkaian ere behera egin du, gutxiago bada ere (-% 6,5); Araban berriz, datua egonkor mantendu da (-% 1,5). EAE barneko lurraldeen araberako banaketak erakusten du saldo horren % 71 Bizkaiari dagokiola, % 18 Gipuzkoari eta % 11 Arabari.

2015ean, Espainiako gordailu publikoek guztizko gordailuen % 6,7 hartu dituzte; parte-hartze hori handiagoa da Bizkaian (% 5,2), Araban (% 3,4), Nafarroan (% 2,8) eta Gipuzkoan (% 2,3) erregistratutakoa baino.

**246. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailua.**

*(M eurotan)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIZKOA |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 2013 | 307 | 9.542 | 9.849 |
| | 2014 | 331 | 9.381 | 9.712 |
| | 2015 | 326 | 9.623 | 9.949 |
| Bizkaia | 2013 | 2.088 | 38.682 | 40.770 |
| | 2014 | 2.197 | 37.800 | 39.997 |
| | 2015 | 2.059 | 39.586 | 41.645 |
| Gipuzkoa | 2013 | 265 | 22.844 | 23.109 |
| | 2014 | 294 | 22.267 | 22.561 |
| | 2015 | 522 | 22.561 | 23.083 |
| EAE | 2013 | 2.660 | 71.068 | 73.728 |
| | 2014 | 2.822 | 69.448 | 72.270 |
| | 2015 | 2.907 | 71.770 | 74.677 |
| Nafarroa | 2013 | 440 | 16.078 | 16.518 |
| | 2014 | 530 | 15.257 | 15.787 |
| | 2015 | 424 | 15.144 | 15.568 |
| Euskal Herria | 2013 | 3.100 | 87.146 | 90.246 |
| | 2014 | 3.352 | 84.705 | 88.057 |
| | 2015 | 3.331 | 86.914 | 90.245 |
| Espainia | 2013 | 61.796 | 1.134.914 | 1.196.710 |
| | 2014 | 73.448 | 1.139.756 | 1.213.204 |
| | 2015 | 76.097 | 1.135.720 | 1.211.817 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

[1] Kontuan hartu behar da ez dagoela aurrezkiaren neurri osorik; izan ere, pasibo-erabakiak, gordailu-figuretarantz orientatzeaz gain, baliteke inbertsio-xedeetara lekualdatzea, esaterako, funtsetara, balioetara edo higiezinen jarduera bezalako beste batzuetara.

## Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

Europako Banku Zentralak ezarritako erreferentziazko interes-tasa % 0,05ekoa izan da 2015ean, eta % 0n geratu da 2016ko maiatzean. Ondorioz, iaz bezala, aintzat hartutako interes-tasak beherantz doitu dira, bereziki etxeetarako eta enpresetarako eperako gordailuen ordainketak (horiek guztiak % 0,5en azpitik geratu dira). Salbuespenak dira 2 urte baino gehiagoko gordailuak; horiek % 0,5etik % 066ra igaro dira.

Eta neurri txikian bada ere, enpresen ageriko gordailuen ordainketa familiena baino handiagoa da, ohikoa den moduan. Eperako gordailuen kasuan, berriz, alderantziz gertatzen da. Hain zuzen ere, epe luzerako familia-gordailuei kendu zaizkie sustagarri gehien, % 0,83tik % 0,24ra igaroz.

Finantzaketa-kostua ere murriztu egin da; nabarmendu behar da kontsumoaren finantzaketari % 7,5etik gora eutsi zaiola eta gainditu egiten duela etxebizitzari dagokion tasa (% 2), baita enpresei bideratutakoa ere (% 2 eta % 3 artean, mailegatutako zenbatekoaren arabera). Enpresen zorpekoengatik kobratutakoak ere murriztu egin dira (% 2,3ra arte). Nolanahi ere, aurrezkiaren ordainketa-balioetatik oso urrun geratzen dira kasu guztietan.

**40. grafikoa Birfinantzaketa-interesaren tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala**

*(% )*




*Iturria: Europako Banku Zentrala.*

**247. koadroa Kreditu-erakundeak. Etxeetarako[2] eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)**

(% )

| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|
| ETXEETARAKO[2] MAILEGUAK ETA KREDITUAK | | | | |
| – Etxebizitza[1] | 2,81 | 2,99 | 2,56 | 1,98 |
| – Kontsumoa[1][3] | 7,76 | 8,90 | 7,74 | 7,56 |
| – Beste helburu batzuk[1] | 5,81 | 5,58 | 4,64 | 3,77 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK | | | | |
| – Zorpekoak | 3,52 | 3,38 | 3,14 | 2,34 |
| – 1.000.000 €[1]-ra arteko kredituak | 4,93 | 4,83 | 3,86 | 3,01 |
| – 1.000.000 €[1] baino gehiagoko kredituak | 2,72 | 2,73 | 1,99 | 1,96 |
| ETXEEN GORDAILUAK[2] | | | | |
| – Agerikoa | 0,21 | 0,22 | 0,17 | 0,12 |
| – Eperakoa[1] | 2,83 | 1,50 | 0,66 | 0,39 |
| • 1 urte arte | 2,97 | 1,23 | 0,59 | 0,35 |
| • 2 urte baino gehiago | 1,96 | 1,85 | 0,83 | 0,24 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK | | | | |
| – Agerikoa | 0,37 | 0,35 | 0,31 | 0,24 |
| – Eperakoa[1] | 2,08 | 1,30 | 0,51 | 0,31 |
| • 1 urte arte | 2,05 | 1,30 | 0,51 | 0,31 |
| • 2 urte baino gehiago | 2,24 | 1,37 | 0,50 | 0,66 |

*(1): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.*
*(2): Etxeak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.*
*(3): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.*
*TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, UTB komisiorik gabe.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

# 3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO FUNTSAK

2015ean Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondareak (aurrerantzean, IKE) gora egin du, baina aurreko urtean baino indar gutxiagorekin (% 11,1; 2014an, % 24,9), eta 257.723 milioi eurora iritsi da; izan ere, finantza-merkatuen egonkortasuna handiagoa izan da (hegakortasun txikiagoa) eta espektatiba hobeak egon dira errentagarritasunean. Beste helburu batzuetako, esaterako, aurrezki-gordailuetarako ordainsaria, berriz, baxua izan da.

Edonola ere, IKE erakunde kopuruak beheranzko joera hartu du berriro (-% 1), 2014an gertatu ez bezala (+% 2). Inbertsio Funtsen kopurua da azpisektore honen kategoria nagusia, eta hau murriztu egin da seigarren urtez jarraian (-% 9,7); Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateen (SICAV) kopuruak, berriz, gora egin du (% 4,5). Azken tresna horiek ugariagoak dira, baina batez besteko ondare txikiagoa dute. IKE bakoitzeko batez besteko ondareak % 75 egin du gora 2012tik.

Higigarrietako Inbertsio Funtsak (HIF) dira ondareko kategoria nagusia, eta haren pisuak gora egin du berriro hirugarren urtez (% 86,2), IKEen balio osoaren gainetik. 2015ean, funtsen kopurua 1.760ra jaitsi da, baina baterako balioak nabarmen jarraitu du gora egiten (% 11,8). Bilakaera hori bat dator merkatuak egonkortu izanarekin: banku-gordailuek erakargarritasuna galdu dute inbertitzaileentzat eta IKEetako posizioek normaltasuna berreskuratu dute, arrisku gutxiago eta bolumen eta dibertsifikazio handiagoa duten inbertsio-funtsak egonkortuz eta espezializatuagoak direnak eta arrisku handiagoa duten beste batzuk galduz.

Bestalde, 3.372 Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateek 9.940 milioi euroko ondarea dute, batez beste; hau da, IKEen ondarearen % 13, eta 2015ean gora egiten jarraitu dute kopuruari dagokionez (% 4,5) eta ondare osoari dagokionez (% 6,5). Hala ere, bi adierazleetan, ez aurreko urtean bezainbeste.

**248. koadroa Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua**

| Kontzeptua | Ondarea (M euro) | | Erakunde kopurua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Inbertsio Funtsak (HIF) | 198.719 | 222.145 | 1.949 | 1.760 |
| Inbertsio-sozietateak (SICAV) | 31.487 | 33.532 | 3.228 | 3.372 |
| Inbertsio libreko IKE (ILIKE) | 1.336 | 1.708 | 37 | 37 |
| Inbertsio libreko IKEen IKE | 345 | 338 | 18 | 11 |
| **Guztizkoa** | **231.887** | **257.723** | **5.232** | **5.180** |

*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

Inbertsio libreko Inbertsio Kolektiboko Erakundeak (ILIKE) (*estaldura-funtsak* edo *hedgefunds* ere esaten zaie) finantza-kudeaketa aurreratuko tresnak dira, eta inbertitzaile espezializatuentzat daude pentsatuta. 2015ean, ondare osoaren % 0,66 dira, eta bigarren mailako pisua dute Espainiako inbertsio kolektiboko erakunde guztien aldean (% 0,7). Espainiako merkatuko ILIKEak 37 dira, aurreko urteen antzera, eta euren ondarea % 27,8 hazi da; 1,7 bilioi eurora iritsi da.

Inbertsio libreko IKEen IKEak ("ILIKEIKE" edo "estaldura-funtsen funtsak" esaten zaie) hainbat ILIKE konbinatutan inbertitzen duten funtsak dira, eta azken urteotan jarrera uzkurra dute: atzera egin dute ondareari (-% 2) eta kopuruari (18 ziren, eta 2015ean 11 dira, azken bi urteetan erdiak likidatu egin baitira) dagokienez, eta, hala, galdu egin dute IKEek oro har zuten garrantzia.

2015ean, inbertsio-funtsen finantza-inbertsioetara bideratutako zorroak gora egin du (% 9,1), baita diruzaintzari esleitutako diru-partidak ere (likidazioa). Nabarmena da barneko inbertsioen zorroak behera egin duela (-% 18,2) zorraren balio adierazgarriei esleitutako zenbatekoek atzera egin dutelako (-% 26,7) eta ezin delako konpentsatu gordailuek kreditu-erakundeetan duten jarrera positiboarekin (% 2,8).

Bestalde, gora egin du kanpoko zorroari lotutako inbertsio-posizioen guztizkoak (% 51,9); orain, aurreko urteetan ez bezala (ehunekoaren erdia baino gutxiago zen), finantza-inbertsioen zorroaren % 54 da guztira.  Erregistratutakoaren arabera, epigrafe guztiek nabarmen egin dute gora urtetik urtera. Bereziki nabarmendu dira inbertsio kolektiboko erakundeetan eginiko inbertsioak (% 107,9). Hala ere, partida nagusia zorraren balio adierazgarriak dira oraindik ere (48.543 milioi euro), kanpoko kartera horren inbertsio-posizioen % 44 osatzen dute.

SICAVetan, inbertsio-posizioen % 61,5 kanpoko zorroari dagokio (2014an baino 4,3 puntu gehiago), eta Estatuan, % 28,1 (aurreko urtean baino 7 puntu gutxiago). Diruzaintzak pisu handiagoa du (% 9,6) HIFetan baino (% 7,5). Era berean, kategoria honetan kopuru osoaren % 24,2 dago soilik zorrean inbertituta, jomuga honek HIFetan duen pisuaren erdia baino gutxiago. Haren zorroan, honako hauek nabarmentzen dira: atzerriko IKEak (% 27,1), atzerriko ondare-tresnak (% 21), jatorria estatuan duen zorra (% 10,9), aurten atzerrikoak gainditua (% 13,3). Horien ondoren dauden produktu nazionalak; esaterako, ondare-instrumentuak (% 9,2), IKEak (% 4,2) eta gordailuak (% 3,7), oso pisu txikiarekin, gainerako kategoriekin alderatuta.

Azkenik, adierazi beharra dago 2015ean SICAVen kanpoko zorroek gora egin zutela (% 14,4) baina aurreko urteetako ehunekoa baino gutxiago. Zenbateko handiko

inbertsiorik handienak nazioartekoak izan ziren: IKEetan (1,3 bilioi), zorrean (0,6 bilioi) eta ondarean (0,8 bilioi), eta barneko zorrean desinbertitu zen gehienbat (1,5 bilioi gutxiago).

**249. koadroa Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtsen ondare-banaketa, balio eraginkorraren arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | Inbertsio-funtsak (*) | | | Inbertsio-sozietateak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
| **Ondarea** | **198.719** | **222.145** | **11,8** | **31.487** | **33.532** | **6,5** |
| **Finantza-inbertsioen zorroa** | **187.694** | **204.797** | **9,1** | **29.081** | **30.035** | **3,3** |
| Barneko zorroa | 114.645 | 93.834 | -18,2 | 11.064 | 9.424 | -14,8 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 79.694 | 58.451 | -26,7 | 5.116 | 3.663 | -28,4 |
| Ondare-tresnak | 8.448 | 8.757 | 3,7 | 3.324 | 3.090 | -7,0 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 6.065 | 5.698 | -6,1 | 1.433 | 1.418 | -1,0 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 19.927 | 20.483 | 2,8 | 1.169 | 1.226 | 4,9 |
| Eratorriak | 495 | 434 | -12,3 | -11 | -7 | -36,4 |
| Beste batzuk | 14 | 10 | 3,0 | 32 | 33 | 3,1 |
| Kanpoko zorroa | 73.048 | 110.957 | 51,9 | 18.015 | 20.608 | 14,4 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 38.582 | 48.543 | 25,8 | 3.897 | 4.472 | 14,8 |
| Ondare-tresnak | 13.043 | 18.654 | 43,0 | 6.228 | 7.026 | 12,8 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 20.864 | 43.366 | 107,9 | 7.784 | 9.090 | 16,8 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 243 | 104 | -57,2 | 2 | 6 | 200,0 |
| Eratorriak | 311 | 286 | -8,0 | 94 | 8 | -91,5 |
| Beste batzuk | 5 | 5 | 0,0 | 10 | 5 | -50,0 |
| Zalantzazko inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa | 1 | 7 | 600,0 | 2 | 3 | 50,0 |
| **Diruzaintza** | **10.895** | **16.594** | **52,3** | **2.198** | **3.211** | **46,1** |
| **Zordunak/hartzekodunak** | **130** | **753** | **479,2** | **209** | **286** | **37,5** |

*(*): Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF).*
*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

Funts motei dagokienez, inbertsio-posizioekin bat etorriz, adierazi behar da 2015ean Errenta finkoko funtsak direla oraindik ugarienak funts-kopuruari (% 17,7), partaideei (% 28,7) eta ondareari (% 29,5) dagokienez. Baina irudi horiek pisua galtzen dute elkarrekin errenta finko mistoko funtsen eta errenta aldakor nazional eta nazioartekoen alde; izan ere, elkarrekin funtsen % 26,3, partaideen % 36,3 eta ondarearen % 37,6 osatzen dute.

Azkenik, nabarmentzekoa da bermea duten funtsen (errenta finkoa edo aldakorra) multzoari egindako ekarpenaren atzerakada, kopuruari (% 21,7), partaideei (% 10,9) eta ondareari (% 10,1) dagokienez. Garrantzi-galera hori kudeaketa pasiboko funtsetan ere erregistratzen da; izan ere, bere pisuari eusten dio kopuruari dagokionez (% 11,8) baina atzera egiten du partaideei (% 7,2) eta ondareari (% 8) dagokienez.

**250. koadroa Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abenduaren 31)**

| Kontzeptua | % Funts kopurua | | % partaide kopurua | | % Ondarea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 |
| Errenta Finkoa | 18,4 | 17,7 | 30.3 | 28,7 | 35,4 | 29,5 |
| Errenta finko mistoa | 6,3 | 7,3 | 9,4 | 14,7 | 12,2 | 20,2 |
| Errenta aldakor mistoa | 6,7 | 7,9 | 5,9 | 8,0 | 6,8 | 9,7 |
| Errenta aldakor mistoa | 5,3 | 6,0 | 6,0 | 5,5 | 4,2 | 4,1 |
| Nazioarteko errenta aldakorra | 9,8 | 11,1 | 11,0 | 13,6 | 6,2 | 7,7 |
| Errenta finkoaren bermea | 14,4 | 10,3 | 10,4 | 5,5 | 10,3 | 5,6 |
| Errenta aldakorraren bermea | 14,0 | 11,4 | 8,7 | 5,4 | 6,1 | 4,5 |
| Funts globalak | 8,3 | 9,9 | 3,5 | 5,0 | 3,5 | 5,7 |
| Kudeaketa pasiboaren funtsak | 11,6 | 11,8 | 10,7 | 7,2 | 12,0 | 8,0 |
| Itzulkin absolutuko funtsak | 5,2 | 5,4 | 4,1 | 6,2 | 3,3 | 5,1 |
| Beste funts batzuk | 0,0 | 1,3 | 0,0 | 0,2 | 0,0 | 0,04 |
| **HIF guztira** *(Funts eta partaide kopurua, milioika euro ondarea)* | **1.951** | **1,804** | **6.409.806** | **7.682,947** | **198.718** | **222.145** |

*Iturria: CNMV. Urteko txostena.*

# 4. BURTSA-MERKATUA

2015. urtearen itxieran adierazleak positiboak izan dira, eta munduko hazkuntza-tasa (% 3,1) 2014koa baino baxuagoa izan da (% 3,4). Datu hori testuinguruan sartzeko, aipatu behar da ekonomia berriek aurreko ekitaldian baino dinamismo txikiagoa izan dutela (% 4; eta aurrekoan % 4,6), eta ekonomia aurreratuek hobetzen jarraitu dutela (% 1,9).

Urte osoa kontuan hartuta, aldaketa ikus daiteke kanpoko baldintzek EBren esparruan duten eraginari dagokionez; izan ere, badirudi berreskuratze partekatuaren alde egingo dutela, hain zuzen ere, urteko bilakaera baldintzatuko duten ekitaldi handirik ez dagoelako. Arrisku-primen egonkortasuna nagusi den egoera honetan, bereziki herrialde periferikoentzat, gertakari nagusienak honako hauek dira: Greziari laguntzeko hirugarren planerako ituna eta EBZk moneta-politiko malguari eta tasa baxukoari eusteko agertu duen asmoa, TLTROen bidez banku zentralaren epe luzerako finantzaketa erabiltzeko aukerari esker. “Helburu espezifikodun epe luzerako birfinantzaketa-eragiketa” (TLTRO) horien eraginak murriztu egin zuen erakundeen tasen eta marjinen gaineko presioa, eta erraztu egin zuen kreditu-eskaintza. Dena den, egungo egoerak ez du tasak igoko diren itxaropenik ematen (ez Fed AEBn, ez EBZ); hori dela eta, aurrezki-posizioen ordainketaren interes-tasa errealak, hein handi batean, negatiboak dira.

Barneko eskari nazionala eta ingurukoa hobetzeak bultzada ematen dio enpresa-jarduerari eta horren finantzaketa-beharrei, eta kreditu berriak emateko espazio irekiak eta burtsa-merkatuen dinamismo handiagoa ahalbidetzen ditu. Edonola ere, burtsa-merkatuaren jarduera honako baldintza hauen mende dago: zerga-helburuak betetzeko betebeharra (zor publikoaren jaulkipena zabaltzea baldintzatzen du), finantza-erakundeen kontuen saneamendua (posizioak bonu eta obligazioetan deseginez) eta burtsa-jardueraren berreskuratze irmorik eza (pixka bat hobetu da kontratazioari dagokionez, baina ez bere indizearen balorazioari dagokionez).

Beraz, IBEXak gorakada garrantzitsua izan zuen urte hasieran, eta 11.500 puntuetara iritsi zen. Zoru hori galdu egin da urteak aurrera egin ahala, hegazkortasun handiko saioen kopuru handia dela eta. Hori horrela, urtea atzerakada batekin itxi da (-% 7,2), Parisen (% 8,5) eta Frankfurten (% 9,6) ez bezala (bietan positiboa izan da), baina bat etorriz Londres (-% 4,9) eta New Yorken (-% 2,2) bilakaerarekin.

## 4.1 IKUSPEGI OROKORRA

### Lehen mailako edo jaulkipeneko merkatuak

2015. urtean, Espainiako baloreen lehen mailako merkatuen kasuan, balio nominala 2,28 bilioi euro izan da; horietatik % 72,4 errenta finkokoak dira (akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik) eta % 27,6 errenta aldakorrekoak (akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak). Zor publikoa Idazpenen Zentralaren bidez kudeatzen da (CADE); lehen mailako merkatuan jaulkitako zor publikoaren zatirik handiena AIAF bigarren mailako merkatuan negoziatuko da gero. Akzioek edo enpresen kapitalaren gaineko eskubideek errenta aldakorreko bigarren mailako merkatuetan kudeatzen dituzte salerosketak, batik bat, Burtsetan.

Jarraian datorren koadroan, 2015. urtean atal bakoitzeko jaulkipen eta amortizazioen ondoriozko saldo garbia azaltzen da, eta ondoren, urte bakoitzeko eta aurreko urteko garbiaren arteko aldakuntzak. 2015ean, ekonomiaren desapalankamendua desagertzeko prozesuarekin koherente izanik, balore-merkatuetako zorraren jaulkipenak kontrakzio handiagoa izan du; alabaina, kontrakzio hori azken bi ekitaldietan lasaitu egin dela ikus daiteke.

**251. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partizipazioak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak**

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | Urte arteko aldakuntza | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Aldak. 14/13 | Aldak. 15/14 |
| **Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balio nominalak** | **-127.369** | **-102.846** | **-49.555** | **24.523** | **53.291** |
| – Finantza-erakundeak | -216.656 | -150.610 | -97.706 | 66.046 | 52.904 |
| • Finantza-erakunde monetarioak | -130.710 | -96.473 | -31.157 | 34.237 | 65.316 |
| • Bestelako finantza-bitartekariak | -85.946 | -54.137 | -66.549 | 31.809 | -12.412 |
| – Administrazio publikoak | 85.635 | 47.088 | 43.383 | -38.547 | -3.705 |
| • Administrazio zentrala | 91.262 | 49.627 | 50.172 | -41.635 | 545 |
| • Autonomia erkidegoak | -5.496 | -2.298 | -6.788 | 3.198 | -4.490 |
| • Tokiko udalak | -131 | -240 | 0 | -109 | 240 |
| – Sozietate ez-finantzarioak | 3.652 | 676 | 4.768 | -2.976 | 4.092 |
| **Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak** | **26.139** | **11.361** | **17.734** | **-14.778** | **6.373** |
| – Kapital-zabalkuntza. Funtsen ekarpena | 26.139 | 11.361 | 17.734 | -14.778 | 6.373 |
| • Finantza-erakundeak | 24.588 | 8.281 | 12.207 | -16.307 | 3.926 |
| • Sozietate ez-finantzarioak | 1.552 | 3.080 | 5.527 | 1.528 | 2.447 |
| – Salmenta-eskaintza publikoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **Jaulkipen garbien eta salmenta-eskaintza publikoen guztizkoa** | **-101.230** | **-91.485** | **-31.821** | **9.745** | **59.664** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

2015ean, jaulkipen garbien eta salmenta-eskaintza publikoen guztizko saldo garbiak berreskuratzen jarraitu du, eta, oraindik balio negatiboak baditu ere (-31.812 milioi euro), saldo hori 2014koa baino pixka bat baxuagoa da eta 59.664 milioi euroko berreskuratze garbia izan du.

Aintzat hartutako bi segmentuek portaera bera izan dute: batetik, akzioak ez diren balioen segmentuan (errenta finkoa) desapalankatzeko joera nagusitu da, eta 2015eko itxieran, saldoa -49.555 milioi eurokoa izan da. Zifra hori 2014. ekitaldiaren itxieran erregistratutakoaren % 48,2 da; beraz, 53.291 milioi euro areagotu da. Bestalde, akzioen jaulkipenari dagokion jardueraren berreskurapena nabarmendu behar da (nola kotizatuena hala ez-kotizatuena), eta urtetik urterako saldoa 6.373 milioi euro areagotu da.

Arreta akzioak ez diren baloreei jartzen badiegu (errenta finkoa) eta segmentu hori parte hartzen duten erakundeen taldeen arabera aztertzen badugu, nabarmendu egin behar da finantza-erakundeen portaera (-97.706 milioi euro) azken urteetan erregistratu den jaulkitako bolumenaren doikuntzarako joeran; hain zuzen ere, urtetik urterako hobekuntza 52.904 milioi eurokoa izan da, eta berreskuratzearen % 99,3 tituluen linea honetatik dator.

Bestalde, administrazio publikoek saldo garbi positiboa izan dute (43.383 milioi euro), baina 2014koa baino txikiagoa (-% 7,8). Multzo horren barnean, administrazio zentrala da agente garrantzitsuena (50.172 milioi euroko inbertsio garbi berria), eta sektore publikoaren barnean duen garrantzia % 1,1 areagotu du (% 94,5era iritsi da), autonomia-erkidegoekin eta tokiko udalekin alderatuta, kontrakzio-fasean eta zor-modalitate horiek beherantz doitzeko fasean. Azkenik, sozietate ez-finantzarioek jaulkipen-indarra berreskuratu dute, horien saldoa 4.768 milioi euro areagotu baita; horrek esan nahi du urteko inbertsioa 2014koa baino zazpi aldiz handiagoa dela.

Merkatuko bigarren ardatza akzio kotizatuei eta ez-kotizatuei dagokie, 17.734 milioi euroko inbertsio berri garbiarekin. Inbertsio hori 2014koa baino % 56,1 handiagoa da, eta bat dator 2015. ekitaldiko ezaugarri nagusiarekin; alegia, ekonomia- eta enpresa-jardueraren pixkanakako berreskurapenarekin.

**Bigarren mailako merkatuak: Burtsak**

2015 ekitaldiaren itxieran, burtsa-merkatuko balio negoziatua 0,98 bilioi eurora iritsi zen; horietatik 0,96 bilioi akzioen segmentuari dagozkie eta 0,02 bilioi errenta finkoko figurei. Burtsetan negoziatutako guztizkoa % 6,7 areagotu da urtetik urtera, eta portaera

desberdina izan da aztertutako bi segmentuetan: errenta aldakorraren jarduera areagotu egin da (% 8,6), eta tasa finkoen segmentua (obligazioak) uzkurtu (-% 37,8).

Adierazi behar dugu 2015ean negoziatutako bolumena 2011n erregistratutako datutik gertu dagoela (ia 1 bilioi euro) eta atzean uzten dituela 2012-2013 urteetako zifrak (0,75 bilioi inguru). Azken ekitaldi horien ezaugarri dira dinamismo baxua eta merkatuen hegazkortasuna. Beraz, burtsa-jardueraren lehen zifra horiek agerian uzten dute ekonomia-jarduera berreskuratzen ari dela eta inbertitzaileak finantza-merkatuetara itzultzen ari direla .

Burtsa-jarduera burtsa arteko lotura-sistemaren bidez bideratzen da nagusiki, eta, kasu batzuetan bakarrik, korroen sistemaren bidez. Burtsa arteko lotura-sistemari buruzko informazioa bost jarduera-taldetan banatu da, agenteen jatorriaren arabera; 2015ean, negoziatutako akzioen bolumenaren % 35,2 banku-jardueraren barneko enpresei dagokie, % 1,9 telekomunikazioetakoei, % 14,9 enpresa elektrikoei, % 4,6 eraikuntza-jarduerari eta % 33,2 gainerako jarduerei.

**252. koadroa Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa**

*(M eurotan)*

| Tituluak | 2013 | 2014 | 2015 | % Δ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| Funts publikoak | 43.737 | 35.935 | 23.935 | -33,4 |
| Beste obligazio batzuk | 2.360 | 2.323 | 169 | -92,7 |
| • Bankuak | 1.365 | 206 | 3 | -98,5 |
| • Gainerakoak | 995 | 2.117 | 166 | -92,2 |
| **Obligazioak, guztira** | **46.094** | **40.581** | **23.692** | **-41,6** |
| Akzioak (SIBE, Burtsa art. Lot. Sist.) | 698.261 | 883.869 | 960.327 | 8,6 |
| • Bankuak | 285.469 | 343.688 | 337.752 | -1,7 |
| • Elektrikoak | 82.762 | 110.054 | 115.751 | 5,2 |
| • Eraikuntza | 32.236 | 43.849 | 44.587 | 1,7 |
| • Komunikazioa | 106.512 | 114.198 | 143.214 | 25,4 |
| • Gainerakoak | 191.283 | 271.080 | 319.022 | 17,7 |
| Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.) | 482 | 480 | 480 | 0,0 |
| • Madrilgo Burtsa | 361 | 360 | 360 | 0,0 |
| • Bartzelonako Burtsa | 121 | 120 | 120 | 0,0 |
| • Bilboko Burtsa | -- | -- | -- | -- |
| • Valentziako Burtsa | -- | -- | -- | -- |
| **Akzioak, guztira** | **698.744** | **884.349** | **960.807** | **8,6** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Talde bakoitzak erregistratutako bilakaeran nabarmendu behar da bankak bakarrik egin duela atzera (-% 1,7). Aintzat hartutako beste lau segmentuek aldiz bilakaera positiboa izan dute; bereziki nabarmendu behar dira telekomunikazioen (% 25,4) eta gainerako jardueren (% 17,7) gorakada. Errenta finkoa burtsetan negoziatutakoaren % 2,4 baino ez da izan aurten, eta, zehazki, Baloreak Konpentsatu eta Likidatzeko Zerbitzuaren (SCLV) bitartez egin da. Atal honetan, errenta finko publikoak % 99,3ko garrantzia du (iaz baino

gehiago: % 94,3); izan ere, ekitaldi honetan bankuek, enpresek eta beste mota batzuetako obligazioek jaulkitako zorraren negoziazioa asko murriztu da, aurreko urteetan ez bezala (kategoria horiek nahiko egonkorrak izan ziren).

Azken finean, burtsak egoera normalizatuago batera itzuli dela berretsi du, gutxienez kontratazio-bolumena berreskuratzeari dagokienez. Hain zuzen ere, indizearen (IBEX) hegazkortasuna handiagoa izan da 2015ean 2014an baino, eta ekitaldia % 7,2ko atzerakadarekin itxi da.

### Bigarren mailako merkatuak: Errenta Finkoa

CADEk edo Idazpenen Zentraleko sistemak kudeatutako kontratazio-bolumenak 6,06 bilioi euroko bolumen negoziatuarekin eman zion amaiera 2015 ekitaldiari, eta % 2,7ko urtetik urterako beherakadarekin. Zifra horiek bonu eta obligazioen segmentuak izan duen bilakaera txarraren emaitza dira (-% 3,9); izan ere, segmentu hori sistemaren zatirik funtsezkoena da (% 88). Horri gehitu behar zaio Altxorraren Letren kontratazioak portaera positiboa izan duela (% 1,3), sistema osoari egiten dion ekarpena pixka bat hobetuz (% 11,5etik % 12ra).

**253. koadroa Errenta finkoko merkatu antolatuetako kontratazioa(1)**

*(mila M eurotan)*

| Kontzeptua | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|
| **Idazpenen Zentrala(2)** | **5.058** | **6.227** | **6.061** | **-2,7** |
| – Bonuak eta obligazioak | 4.166 | 5.548 | 5.333 | -3,9 |
| • Kontuen titularren art. | 1.042 | 1.100 | 893 | -18,8 |
| – Altxorraren Letrak | 892 | 719 | 728 | 1,3 |
| • Kontuen titularren art. | 239 | 278 | 334 | 20,1 |
| **AIAF(3)** | **1.293** | **1.099** | **518** | **-52,9** |
| – Enpresa-ordaindukoak | 112 | 45 | 30 | -33,3 |
| – Matador bonuak | 0,11 | 0,02 | 0,10 | 336,4 |
| – Hipoteka-zedulak | 336 | 388 | 200 | -48,5 |
| – Oblig. eta bonu sinpleak | 845 | 666 | 288 | -56,8 |

*(1): Kontratazio nominala.*
*(2): Soilik eragiketa sinpleak, eskura. Bonu eta obligazioen eta Altxorraren Letren eragiketen guztizkotik negoziatutako zenbatekoak.*
*(3): Merkatuan SA batek egiten ditu eragiketak, eta AIAF Aktibo Finantzarioen Bitartekarien Elkartea izena hartu du oinordetzan.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

2015. ekitaldia datu negatiboekin itxi da zor pribatuan espezializatutako AIAF merkatuarentzat. Nabarmentzekoa da jardueraren kontrakzioa, 2014an egindako kontratazioaren erdia baino gehiago galdu baitu (-% 52,9). Merkatu honetan kontratatutako bolumena honela dago banatuta: bonuak eta obligazioak (% 55,6), hipoteka-zedulak (% 38,6), enpresa-ordaindukoak (% 5,8) eta “matador” deritzen bonuak

(% 0,02). Beherakadek lehenengo hiru taldeei eragin diete, honako aldakuntza hauekin: -% 56,8, -% 48,5 eta -% 33,3, hurrenez hurren. Matador bonuen bolumena, aldiz, hirukoiztu egin da, baina horien garrantzia txiki-txikia da oraindik.

**254. koadroa Eperakoen eta aukeren merkatu ofizialak***

*(kontratu-kopurua, milakotan)*

| Kontzeptua | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|
| – Eperako finantzarioak | 7.236 | 7.706 | 6,5 |
| – Aukera finantzarioak | 732 | 544 | -25,7 |

*(*): Egindako eragiketak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Azkenik, eperakoen eta aukeren merkatuetako jarduerei dagokienez, adierazi behar da, sinatutako kontratuen kopuruari dagokionez, 2015ean aurrera egiten jarraitu duela eperakoen segmentuak (% 6,5), baina atzera aukeren kontratazioak (-% 25,7).

## 4.2 BILBOKO BURTSA

2015 ekitaldiaren itxieran, Bilboko Burtsaren indize orokorra 1.578,45 puntukoa izan da. Horrek esan nahi du % 5,4 jaitsi dela aurreko urtetik. Hasieran behera egin ostean, indizeak aurrera egin zuen, % 14 inguru, lehen hiruhilekoan, baina gero pixkanaka atzeratzen hasi zen, urte amaierara arte. Portaera hori IBEX-35 indizearen antzekoa izan da; bi kasuetan, gehieneko mailak martxoan lortu ziren.

**41. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra. Bilboko Burtsa (2015)**




*Iturria: Bilboko Burtsa.*

**255. koadroa Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, gehienekoa eta gutxienekoa**

| Urtea | Azkena | Gehienekoa | Gutxienekoa |
|---|---|---|---|
| 2007 | 2.626,55 | 2.798,31 | 2.406,30 |
| 2008 | 1.589,90 | 2.625,68 | 1.338,57 |
| 2009 | 1.921,55 | 1.936,17 | 1.149,30 |
| 2010 | 1.615,18 | 1.975,39 | 1.398,65 |
| 2011 | 1.366,61 | 1.808,89 | 1.210,76 |
| 2012 | 1.331.00 | 1.443,33 | 974,81 |
| 2013 | 1.658,57 | 1.660,80 | 1.231,66 |
| 2014 | 1.668,99 | 1.849.71 | 1.601,52 |
| 2015 | 1.578,45 | 1.941,39 | 1.530,92 |

*Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.*
*Iturria: Bilboko Burtsa. Indizeak. Grafiko historikoak.*

2015ean, euskal burtsari lotutako transakzio guztiak 182.270 milioi eurokoak izan dira guztira, 2014an baino % 4,5 handiagoak. Ia guztiak SIBEren errenta aldakorreko negoziazioaren jarduerari dagozkio; zehazki, % 4,7ko gorakada izan du jarduera horrek. Errenta finkoko jarduerak, aldiz -% 6,7 egin du behera.

**256. koadroa Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena Balio efektiboak***

*(M eurotan)*

| Kontzeptua | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | % ∆ 15/14 |
|---|---|---|---|---|---|
| **E. aldakorra - (SIBE)**(2) | 148.301 | 139.477 | 172.655 | 180.713 | 4,7 |
| **Errenta finkoa** | 3.072 | 2.759 | 1.989 | 1.856 | -6,7 |
| Eragiketa-aretoan(1) | 0,3 | 0 | 0 | 0 | - |
| Elektronikoa (SEND)(2) | 9 | 28 | 61 | | -99,9 |
| SAC-CL-BVB(3) | 3.062 | 2.731 | 1.928 | 1.856 | -3,7 |
| **Guztira** | 151.372 | 142.235 | 174.644 | 182.570 | 4,5 |

*(*): Erosketak + salmentak.*
*(1): Korroen merkatu tradizionala.*
*(2): SIBE (Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema) etengabeko merkatuak eta SEND (Zorra Negoziatzeko Sistema Elektronikoa), AIAF merkatuarekin loturik eta txikizkariei zuzenduta.*
*(3): Kontuko Idazpenen eta Bilboko Baloreak Konpentsatu eta Likidatzeko Zerbitzuak (SAC-CL-BVB) —CADErekiko independentea da— EAEko zor publikoa kudeatzen du 1991. urteaz geroztik, eta 1993. urtetik aurrera, Bilboko Burtsaren gainerako balio esklusiboak.*

Azkenik, kapitulu honi amaiera emateko, munduko burtsa-indize nagusien bilakaera aztertuko dugu. 2015ean, portaera desberdinak izan zituzten indize horiek, aurreko urteetan ez bezala (joerak antzekoagoak izan ziren): 2011n behera, 2012an berreskuratu, 2013an nabarmen aurrera eta 2014an pixka bat aurrera.

Hobekuntza hauek nabarmendu behar dira: Tokio (% 9,1), Paris (% 8,5), Frankfurt (% 9,6) eta Eurostoxx 50 (% 3,8). Emaitzak okerragoak izan dira, ordea, Londresen (-% 4,9) eta New Yorken (-% 2,2), eta Nasdaq ere geldotu egin da (% 13,4tik % 5,7ra). Ibex indizeak atzerapenarekin eman zion amaiera ekitaldiari (-% 7,2), eta hegazkortasun handiarekin. Gehieneko balioak martxoan lortu zituen eta beheranzko doikuntza esanguratsuak izan



LABORAL kutxa

zituen udan eta urte amaieran; ondorioz, 11.500 puntutik 9.544 puntura jaitsi zen urtearen amaieran.

**257. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

| Urtea | Ibex-35 (Madril) | CAC-40 (Paris) | Dax-Xetra (Frankfurt) | FT-SE 100 (Londres) | Dow Jones (New York) | Nikkei (Tokio) | Eurostoxx 50 | Nasdaq Composite |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2013 | 9.916,7 | 4.295,9 | 9.552,2 | 6.749,1 | 16.576,7 | 16.291,3 | 3.109,0 | 4.176,6 |
| 2014 | 10.279,5 | 4.272,7 | 9.805,5 | 6.566,1 | 17.823,1 | 17.450,8 | 3.146,4 | 4.736,1 |
| 2015 | 9.544,2 | 4,637,1 | 10.743,0 | 6.242,3 | 17.425,0 | 19.033,7 | 3.267,5 | 5.007,4 |
| *Urte arteko aldakuntza (% )* | | | | | | | | |
| 2013 | 21,4 | 18,0 | 25,5 | 14,4 | 26,5 | 56,7 | 17,9 | 38,3 |
| 2014 | 3,7 | -0,5 | 2,7 | -2,7 | 7,5 | 7,1 | 1,2 | 13,4 |
| 2015 | -7,2 | 8,5 | 9,6 | -4,9 | -2,2 | 9,1 | 3,8 | 5,7 |

*Oharra: Abenduaren 31n.*
*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.*